

Nafarroa Behereko herrien izenak

Lekukotasunak eta etimologia



Patxi Salaberri Zaratiegi



**Nafarroa Behereko Herrien Izenak.
Lekukotasunak eta etimologia**

Nafarroa Behereko Herrien Izenak. Lekukotasunak eta etimologia

Patxi Salaberri Zaratiegi



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua



EUSKALTZAINDIA
ELIZKITA

Lan hau, zatika moldaturik, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen bileretan aurkeztu zen lehenik eta Akademiaren Osoko bilkuretan ondoren. Emaitzak hurrengo arauetan bildu dira: 122.ean (Garazi, Baijorri-Ortzaize eta Arberoa eskualdeak), 128.ean (Amikuze) eta 133.ean (Agaramont).

Liburuaren izenburua: Nafarroa Behereko Herrien Izenak. Lekukotasunak eta etimologia
Egilea: Patxi Salaberri Zaratiegi

© Patxi Salaberri Zaratiegi
© Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua
Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia

Azala: Iñaki Cabodevilla / CAB
Fotokonposizioa: Página, S.L.
Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, S.L.
ISBN: 84-235-2715-8
L.G.: NA. 3.226/2004

Sustatzailea eta banatzailea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fonda
Navas de Tolosa, 21
Telefonoa: 848 427 121
Faxa: 848 427 123
fondo.publicaciones@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es/publicaciones
31002 IRUNA

Nire gurasoei, Gildo Salaberri eta Sole
Zaratiegiri, seme-alabak aurrera ateratzeko
egin dituzten ahaleginengatik, esker onez

AURKIBIDEA

SARRERA	XIII
1. GARAZI / CIZE	1
Ahatsa / Ahaxe	7
Ainhize / Ainhice	11
Aintzilla / Aincille	13
Altzieta / Alciette	17
Arnegi / Arnéguy	19
Bazkazane / Bascassan	23
Behorlegi / Béhorléguy	27
Buztintze / Bustince	31
Donazaharre / Saint-Jean-le-Vieux	33
Donibane Garazi / Saint-Jean-Pied-de-Port	37
Duzunaritze / Bussunarits	43
Eiheralarre / Saint-Michel-le-Vieux	47
Ezterenznbi / Estérençuby	51
Gamarte / Gamarthe	55
Hiriberri / Iriberry	57
Izpura / Ispoure	59
Jatsu / Jaxu	63
Lakarra / Lacarre	67
Lekuuberri / Lecumberry	71
Mendibe / Mendive	75
Monjolose / Mongelos	77
Sarasketa / Sarrasquette	79
Suhuskune / Suhescun	81

Uharte Garazi / Uhart-Cize.....	85
Zaro / Çaro.....	89
2.. BAIGORRI ETA ORTZAIZE ALDEA.....	91
Aldude / Les Aldudes	91
Anhauze / Anhaux	97
Arrosa / Saint-Martin-d'Arrossa	101
Azkarate / Ascarat.....	103
Baigorri / Saint-Étienne-de-Baigorri.....	107
Banka / Banca	115
Bidarrai / Bidarray	117
Irulegi / Irouléguy	121
Lasa / Lasse.....	125
Ortzaize / Ossès.....	127
Urepele / Urepel.....	133
3. ARBEROA / PAYS D'ARBÉROUE.....	137
Aiherra / Ayherre.....	141
Armendaritze / Armendarits	145
Bastida / Labastide-Clairence.....	149
Donamartiri / Saint-Martin d'Arbérroue	153
Donoztiri / Saint-Esteben	157
Heleta / Hélette.....	161
Iholdi / Iholdy	165
Irisarri / Irissarry.....	169
Izturitze / Isturits.....	173
Mehaine / Méharin.....	177
4. OZTIBARRE / PAYS D'OSTABARRET.....	181
Arhantsusi / Arhansus.....	185
Arrozc / Arros	187

Azme / Asme	189
Bunuze / Bonus	191
Donaixti / Saint-Juste	193
Hozta / Hosta	195
Ibarre / Ibarre	197
Ibarrola / Ibarrolle	199
Izura / Ostabat	203
Jutsi / Juxue	207
Landibarre / Lantabat	211
Larزابale / Larceveau	215
Zibitze / Cibits	219
5. AMIKUZE / MIXE	221
Aiziritze / Aïciritz	225
Altzumarta / Sumberraute	227
Amendúze / Amendeuix	231
Amorotze / Amorots	235
Arberatze / Arbérats	239
Arboti / Arbouet	241
Arrueta / Arraute	243
Behaskane / Béhasque	245
Behauze / Béguios	249
Bithirina / Beyrie-sur-Joyeuse	253
Bizkai / Biscay	257
Donapaleu / Saint-Palais	259
Gabadi / Gabat	265
Gauue / Camou	267
Garrúze / Garris	269
Ilharre / Ilharre	275
Labetze / Labets	277

Laphizketa / Lapiste	279
Larribarre / Larribar	281
Lüküze / Luxe.....	283
Martxueta / Masparraute	287
Oragarre / Orègue.....	291
Ostankoa / Orsanco.....	295
Sarnikota / Charritte.....	299
Sorhapürü / Sorhapuru.....	301
Uhartehiri / Uhart-Mixe.....	303
Unaso / Oneix	305
Zilhekoa / Sillègue.....	307
Zohazti / Suhast	309
Zohota / Sussaute.....	311
Zokotze / Succos.....	313
6. AGARAMONT / GRAMONT.....	315
Akamarre / Came	319
Bidaxune / Bidache	321
Burgue / Bergouey.....	325
Erango / Arancou.....	327
Erreiti / Viellenave	331
Samatze / Sames	333
7. BIBLIOGRAFIA.....	335
8. EUSKAL IZENAK ABC ORDENAN.....	347
9. ERDAL IZENAK ABC ORDENAN.....	351
MAPA	355

SARRERA

Liburu honetan Nafarroa Behereko herri izenen gaineko berriak bildu nahi izan ditugu. Xedea Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak lehenik eta euskaltzain osoek gero esku artean ahal zen materialik zehatzen eta aberatsena edukitzea zen, erabakiak hartzeko denboran pausoak oinarri sendoz egin ahal zituzaten. Izan ere, Akademiak 1979ko *Euskal Herriko Udalen Izendegia* deritzan lanean finkatu zituen Nafarroa Behereko herrien izenak, franko aspaldi beraz, gaur egun baino datu, eskuarte eta baliabide gutxiago zituen garaian. Orain hogeita bost urte egindako arautze hura berrikusi beharra zegoen eta horretarako, erran bezala, eskualdeko herrien inguruko datuak jaso behar ziren.

Hemen agertzen direnak, hortaz, alderdika Onomastika batzordean lehenbizi eta gero Euskaltzaindiaren osoko bilkuran aurkeztutako txostenak dira. Lana bost zatitan banatu genuen: aurrena Garazi aztertu genuen, gero Baigorri-Ortzaize aldea, hirugarren tokian Arberoa, laugarrenean Oztibarre, ondoren Amikuze eta, buruenik, Agaramonteko jaunaren herriak, Orpustanek (1990: 91) "les territoires de la Seigneurie de Gramont" deitzen duen eremuan daudenak. Alderdi bakoitzean herriak hartu ditugu kontuan, ez udalak, XIX. mendeaz geroztik lehenagoko zatiketa administratibo zaharra aldatu baitzen eta artean herri heregainak zirenak batu, binaka eta are hiruak zenbait aldiz.

Herri bakoitzaren barnean lehenik erdaraz idatzitako dokumentazioan aurkitu ditugun aldaerak sartzen ditugu, datuak autoreka eta urteka —edo mendeka, zein urtetakoa zen zehazterik ez zenean; honetan agiri bildumeu argitaratzaileen datatzea hartu dugu ontzat— autolatuz. Gero

euskal testuetan azaltzen diren herri izenaren eta herritarren izenaren lekukotasunak jasotzen ditugu, jakina denez anitzetan agiria izkiriaturik dagoen hizkuntza erabakigarria gertatzen baita toponimoaren forma bata edo bestea izan dadin. Honen ondoan hiztegiak eta toponimiaz arduratu diren ikertzaileek biltzen dituzten euskarako aldaerak ematen ditugu, eta gero ahoz jasotakoak. Ondoren izen bakoitzaren gainean jaulki diren etimologiak aipatzen ditugu eta garbi dakusagunean geron azalpena ere agertzen dugu, gutxitan hala ere, aztertzen ditugun herri izenetako anitz guretako ilunak direlako, gehiago edo gutxiago, kasuaren arabera. Bukatzeko ohar batzuk egiten ditugu, artetan, ezagutzen ditugun Nafarroa Garaiko datuetan oinarriturik gehienbat.

Azalpen etimologikoaz den bezainbatez, uste dugu hobe dela deus ez erratea fitxa bakoitza osatu behar hutsagatik ameskerietan eta fantasiazko etimologietan abiatzea baino. Egia da, izan ere, arlo hau aski lerrakorra dela, eta hain zuzen ere horrexegatik ibili behar dugu kontu handiz, idazten duguna papereratu baino lehen bi aldiz pentsatuz. Gertatzen da zenbaiten azalpen etimologikoak ikusirik anarkia osoan mugitzen garela irudi duela, denak balio duela, zernahi erran daitekeela izenaren nondikakoa argitzeko. Honelakoetan oroitu beharra da Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* eta bestelako lanak aspalditxokoak direla eta euskal toponimia berez sistema osoa dela, ondoko eta ez hain hurbileko bestelako sistema onomatikoekin berdintasun handiak dituena, bai, baina orobat bere barnean bide jakin batzuk ibili eta hobetsi dituena. Hots, Nafarroa Garaian normala denak, aldeak alde, beste lurraldeetarako ere balioko du, eta alderantziz, erresuma zaharrean ohikoa ez dena segur aski besteetan ere ez da maiz agertuko. Horregatik ditugu, adibidez, *Azkarate*, *Hiriberri*, *Lekunberri* edo *Uharte* mugaz bi aldeetan, toponimo horiek sortu zituztenek hizkuntza bera, euskara, zerabiltelako. Egia da, bestalde, badirela Nafarroa Beherean azalpen errazik ez duten toponimoak, baina zailtasun hau, modu batera edo bestera, leku guztietan izaten dugu.

Erran dugunez, ahozko datuak ere bildu ditugu eta lanean sartu. Zernahi gisaz, uste dugu arlo hau dela etorkizunean etorriko diratekeen lanetan aise osa eta gaindi daitezkeenetako bat, izan ere informatzaile gutxi izan baititugu mugaz haraindiko Nafarroan: lehenik 2003. urtean zendu zen Luzaideko A. Kaminondo eta honen seme P. Kamino Kaminondok mugaz bestaldeko herri izen batzuen Luzaideko ahoskatzea jakinarazi zigiten; gero E. Larre baigorriar euskaltzainak hain ongi ezagutzen duen Nafarroa Behereko herrien inguruko datu anitz eman zizkigun eta haren bitartez hiztun on bezain pertsona goxoa den Uharte Garaziko E. Etxarren jauna ezagutu genuen. Berauduago, Amikuze alderdia Baigorri eta Garazitik urrun baita, eta oraingoan Ellande Etxarrenen bidez, Gamueko L. Xuri gizon xaloaren ezagutzak egin genituen eta harengandik alderdi

interesgarri horretako datu franko bildu. Euskal Herriko Hizkuntza Atlasak jasotzen dituen lekukotasunak ere erabili ditugu, eta, azkenik, J. Lizundiak E. Larreri eta X. Arbelbide garaztar idazleari egindako galdeketak, eta Txomin Peillenek M. Arbelbideri, J. L. Davanti, E. Larreri eta M. Pagolari egindakoa ere baliatu ditugu.

1. GARAZI / CIZE

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 83): *Vallis quae dicitur Cirisia* (980), *Pors de Sizer*, *Cisre* (XI. m.), *Cycereo*, *Syzara* (XII. m.), *La porte de César* (1154), *Cizia* (1186), *Cisera*, *Cisara* (XIII. m.), *Ciza* (XIII. mendearen hastea), *Cizie* (1253), *Cisia* (1302), *Les pors de Cisaire* (XIV. m.), *Yspore de la terre de Sisie* (1472).

Raymond (1873): *Cirse*, *Arnaut Sanz de Sirsa* (1120, 7. agiria), *Bernardi Sancii de Cisa* (1167, 180. agiria).

Jaurgain (1913): *Martino Chipia tenente de manu ipsius regis terram de Cisa* (1189, 402. or.), *En Per, filh d'Arssoriz-Suson, prevender d'Elicetche d'Uhart della dicte terre de Cise* (1352, 407. or.), *en la tierra de Cissa* (1542, 407. or.).

Castro (1958): *Cisa* (1413, XXX, 80, 41. or.).

Goihenetxe (1966: 112, 146): *Cirsia* (980, 1106), *Ciser* (XI. m.), *Cycereo* (XII. m.), *Mons Ciserei* (XII. m.), *Portus Cisere* (XII. m.), *circa portus Cysareos* (XII. m.), *Portus Cisere* (XII. m.), *Sirsa* (1120), *Cirse* (1120), *Cize* (1130), *Cisera* (1150-1170), *Cisa* (1167, 1249, 1293), *Cizia* (1194, 1233, 1266 baino lehen), *Cissa* (1249), *Cisya* (1249), *Cieysia* (1253, 1334), *Cieysia* (1253), *Cizie* (1253), *Cieysa* (1258), *Cisia* (1274, 1302, 1334), *Cise* (1389), *Cisie* (1472)...

Carrasco (1973): *Cise* (1366, 681. or.).

Lemoine (1977: 115): *Cirsia* (980), *Sizer* (XI. m.), *Cycerea* (XII. m.), *Syrara* (XII. m.), *La porte de César ou Cier* (1154), *Cizia* (1186), *Cisera* (XII. m.), *Cisia* (1302), *Cisaire* (XIV. m.).

Ostolatza (1978): *Cisa* (1208, 33, 119. or.; 1236, 88, 172. or.; 1264, 194, 261. or.; 1297, 331, 445. or.), *Cieysia* (Donibane Garazi, 1253, 227. or.), *Sant Miguel de Cixa* (1266, 203, 270. or.), *Cisia* (1272, 236, 316. or.; 1273, 246, 254, 327 eta 333. orr.; 1274, 265, 347. or.), *Çisia* (1285, 297, 381. or.).

Orpustan (1990: 108): *cirsia* (c. 980, 1106), *sicera* (XI. mendearen bukac-ra), *garaci* (1068), *porz de sizer* (c. 1080), *sirsa* (1120), *portus cisereos* (c. 1139), *cisera* (1150-1170), *cisa* (1167, 1264), *cizia* (1194).

Zierbide & Santano (1990): *Cissa* (1338, 4, 45. or.), *Çise* (1361, 22, 64. or.), *Cise* (1364, 34, 71. or.; 1365, 45, 78. or.; 1367, 54, 85. or.; 1380, 158, 157. or.), *Cisse* (1376, 71, 100. or.).

Arbizu (1992): ...*et yermos de Alduide, y de Luzaide, clamado Valcarlos, et con los terminos de las tierras de Sisa, et de Oses, et de Baztan* (1400, 338. or.).

Zierbide (1993): *Cisa* (1350-1353; 51, 53. orr.), *Çisa* (1350-1353; 54. or.), *Cise* (1412-1413; 95. or.).

Larrañaga & Tapia (1993): *el balle que se diçe Çisia* (1194, 2, 3. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Guillem Bernart Garaci, escudero; Ossoa d'Oneys, baile del rey en Cisia* (1247, 354, 186. or.), *Çise* (1386, 214, 37), *Cisse* (1405, 296, 118. or.).

Zabaltza (1995): *Cisie* (1278, 115, 96. or.).

Zabaltza (1997): *Et los de la tierra de Cisa por nos* (1298, 157, 238. or.).

Carrasco (1999-1): *Cisa* (1259, 81, 101. orr.; 1266, 353. or.).

Orpustan (2000): *Cisera* (XII. m., 27. or.), (1194, 28. or.).

Euskal Testuak¹:

- "*Garacico herria*". B. Etxepare (14, 250).
- "*O heuscara lauda ezac garacico herria*", B. Etxepare (15, 256).
- "*Desir hura conplitu du garacico naturac*", B. Etxepare (15, 260).
- "*Garasiren gaiza Behorleguic derossa*", Oihenart (1935 [1657], 180). Txillardegik (1971: 53) honela azaltzen du atsotitza: "**Garazik** eginda-ko gaitza, Behorlegik ordaintzen du; txikiek pagatzen haundien faltak, hitz batez. 'Derosa' = erosten du, sint., de-ros-a".

1. Ikus *Donibane Garazi* sarrera, beheago.

- "*Gaiz da Arradoian artzea borroca, / eror daite ehor, eta burua porroca*. Arradoia da **Garasico** mendi xut, eta harrisubat", Oihenart (1935 [1657], 506).
- "*Haran ceina deitzen baita Orçaiz. Haran ceina deitzen baita **Cizia***", Joanes Etxeberri Sarakoa (1907 [1712]: 78).
- "*Donapaleio eta **Garaci** hiriac / Oihan artean dire aguertzen liliac*", Hiribarren (1853: 74).
- "*Larre **garaztar** bat da, Nafarroa goran, / Izatu aiphatua erreguen denboran*", Hiribarren (1853: 76).
- "*Dembora hetan, Hazparden gaindi zohan **Garazitik** Laphurdirateho karrusa*", Arbelbide (1890: 13).
- "*Horrela egin du herriki **Garaztar** laborari on batek*", Arbelbide (1895: 89).
- "*Artzain eta aberezain, bertze nihor ez baitzen: Oro **garaztar** karanak, hunat zirenak biltzen*", Etxamendi (Lafitte, 1972: 110).
- "*Zenbeit urrats erabili ere du **Garaziko** laborarien dretxoak ez nahiz galtzerat utzi*", J. Hiriart-Urruti (1971: 159).
- "*Michel Renaud, bere itzalekin, eskualdunago zen; **garaztarrago** ere*", Hiriart-Urruti (1995: 145).
- "*Fede suharrekoa ditake **Garaziko** xoko hau!*", J. Etxepare (1987 [1931], 45).
- "*...phertsulari hautak, **Garaziko** herrietan hain ezagutuak direnak*", Zubiri (1990: 89).
- "*Baigorri eta Alduden, **Garazin** ala Amikuzen (...)*", Zubiri (1990: 100).
- "***Garazi** aldeko artzainak eskualdunago zer horietan arras trebe direlako*", Zubiri (1990: 185).
- "***Garaziko** mendietarik lehenago ikusten nintuenak deusik ez ziren oraikeen aldean!*", Barbier (1987: 57).
- "*...herriko auzaphez, herriko mera egin zuten, han nonbait **Garazin***", Barbier (1987: 87).
- "*Hobe dugu **Garaziko** senar dohatsu baten bozkarioa elgarrekin entzutea*", Lafitte (1990: 87).
- "***Garaztarrek** nahiago badute 'Jatsukoa' deitu, arrazoinik aski badute (...)*", J. Hiriart-Urruti (iloba) (1992: 31).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Pouvreauk XVII. mendean (1892: 9) "Gauracy Cize en gascon, pays de bassenau." jasotzen du eta **Hariztoik** (1977 [1883]: 347) *Garaci*. **Salaberri Ibarrolakoak** (1856: 66), **Raymondek** (1863: 50), **Lacombek** (1911-17: 29, "Valcarlos Garazin bezala"), **Lhandek** (1926: 335), **Dassancek** (1966: 163), **Lemoinek** (1977: 115) eta **Orpustanek** (1990: 108) *Garazi* biltzen dute. Herritarren izena *garaztar* (**Salaberri Ibarrolakoa**), *garaztarr*, *Garaztarr* (**Lhande**, **Orpustan**) da.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Garazi* eta *garaztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

Garázi, g̃araztár (**A. Kaminondo**, **P. Kamino**), *Duzunáitze Sahásketa órirè Garáziko dá, míntzo girá G̃araziz, Garáziko bázkak, Garázin, "g̃aráz-tarrèk" erráin dú, garáztarrà* (**E. Etxarren**).

Etimologia azalpenak:

Hariztoik (1977 [1883]: 348) *César*-ekin (*Jules César*-ekin) lotzen du *Cize*; **Vinsonk** (1909: 354-355) aldakuntza batzuk izaten direla erraten du (hizkuntza ofizialean eta euskaran ulertu beharko dugu: *Ostabat / Izura*) eta horiek zenbait aldiz eufonikoak edo hondarki nahasketak besterik ez direla, *Arboti / Arbouet-en, Garazi / Zizer-en, Irube / Iruber-en* eta bestetan. Erabat garbi gelditzen ez dena da zein zeinen aldakuntza edo nahasketak den.

Mitxelena (1961: 359), Hubschmiden lana iruzkintzean, *Carasa*-ren euskarazko ondorengoa egun *Garazi* datekeela erraten du eta gehitzen zaila dela, ezinezkoa ez bada, *Garazi* eta *Cize* iturri beretik eratortzea. Orain ezagutzen ditugun *Cirsia*, *Ciser* eta abarrek inenturaz lotura hori egitea ez dateke hain neke errenteriarren arabera, haina, zernahi gisaz, erraza ere ez da haren nstez.

Lemoinek (1977: 115, 286), Hariztoiren bidetik, erdarazko *Cize* toponimoa *César* antroponimoarekin lotzen du, *César Auguste*-rekin zehazkiago erran, enperadore hau beste hiri batzuetan ere izan baita ohoratua: Akizen (*Aquae Augusta*), Zaragozan (*Caesar Augusta*) eta Auchen (*Augusta*). Euskaraz *Garazi* dela gehitzen du, haina ez du bestelako xehetasunik ematen.

Orpustanek (1990: 108-109) *Erromesaren Gida* delakoan ageri den *sicera-k* "sagardoa"-rekin dukuen erlazioa haztertzen du, baita *Garazi* (*Grâce, Engrâce*) emakume izenarekikoa eta Akitania beretu zuen *Crassus* jeneralarren izenarekikoa ere. Proposatutako diren azalpenen artean ez du zeharo baz-

tertzen "(portus) caesareu(m)"-etik datorrela dioena, baina berak Lapurdiko *Gerezieta*-rekin (*garacieta*, 1414. urtean) eta *Garate* zabalduarekin lotu nahiago du². Ortzaitarraren irudiko, **gara-zu* edo **gar-azu* genuke toponimoan; atzikia ugaritasunetzkoa dateke eta hondarreko bokalaren irekitze maila hurbil dauden *Baigorri*, *Jutsi* eta *Arantsusi*-ren alderako analogiaz aldatu dateke. Erranahia, beraz, 'gainak ugari diren lekua' litzateke, gauzak hagitik garbi ikusten ez baditu ere. Bukatzeko, erdarazko eta euskarazko izenek segur aski etorki bana duketela zehazten du.

Guk ez dakusagu azalpen agerikorik, eta Orpustanena zeharo balizkoa dela uste dugu, besteak beste **Garazu*-ren modukorik sekulan dokumentatzen ez delako.

2. *Gerezieta*-rendako "lieu d'élévation rocheuse" azalpena ematen du, nabiz "lieu de cerisiers" izan daitekeelakoa ez duen arbuizatzen.

Ahatsa / Ahaxe

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 3): *Ahaxa* (1302), *Ah(a)txe* (1703), *Sanctus Julianus d'Ahaxe* (1703).

Raymond (1873: 180): *Boneti de Hatce* (1167). Autore honek *Jatsu*-rekin lotzen du *Hatce*, ez *Ahatsa*-rekin.

Castro (1958): *Johanicot de Acxa*, *Ojer de Acxa* (1413, XXX, 101, 51. or.), *Arnaut Sanz de Acxa* (1414, XXXI, 286, 157. or.), *Arnaut Sanz de Ahacxa* (1414, XXXI, 425, 237. or.)

Goihenetxe (1966: 114-117): *Hatce* (1167), *Aassa* (1189, 1249, 1334), *Ahacha* (1199, 1334), *Assa* (1228, 1328), *Hacha* (1233, 1235), *Hache* (1235), *Hatsa* (1235), *Haxa* (1235, 1293, 1409), *Ahaxa* (1247, 1253, 1294, 1334, 1366, 1367, 1371), *Hatcha* (1249), *Atsa* (1249), *Hasse* (1249), *Hatche* (1249, 1257), *Hasche* (1256, 1257), *Haxe* (1258, 1259), *Aacssa* (1266), *Ahaxe* (1273, 1363, 1384), *Aex* (1293), *Ahaxe* (1293), *Ahaza* (1302, 1353), *Acxa* (1328, 1347), *Axa* (1333, 1347, 1354), *Hacxa* (1353, 1376, 1400), *Ahadse* (1366), *Ahaessa* (1368), *Ahatsse* (1368, 1377), *Ahacxa* (1368), *Ax* (1368), *Anssa* (1368), *Ahansse* (1378), *Ahacxe* (1378?), *Acxa* (1378, 1380, 1382, 1385, 1400, 1407), *Acxe* (1398), *Hacxa* (1400).

Ostolatza (1978): *Garcie Arnaldi de Aacha*, *Sanç Arnalt de Aaça* (1213, 37, 123. or.), *Arnald de Aatssa* (1236, 88, 172. or.), *in presentia domini D. Ahaxa* (Donibane Garazi, 1253, 151, 227. or.), *A. Sanç seignor de [A]hattsa* (1260, 183, 254. or.), *Arnaud Sanz seignor d'Ahaxe*, *Jacob d'Ahaxe* (1261, 187, 256. or.), *B. d'Ahaxe rectore ecclesie de Bearriz* (1273, 258, 339. or.), *don Arnalt Sanç, seynnor de Assa (...) ata que el seynnor de Atssa (...) don garcia d'Atssa* (1283, 288, 369. or.).

Orpustan (1990: 116): *hatce* (1167), *assa*, *aassa*, *hassa* (1249), *ahatxa* (1300), *haxa* (1304), *ahaxe* (1304), *axa* (1309), *hatxa*, *axa* (1350), *hadssa* (1366).

Zierbide & Santano (1990): *Ahaxe* (1363, 32, 69. or.; 1366, 52, 84. or.), *Ahadse* (1367, 57, 87. or.), *Ahatsse* (1378, 77, 105. or.), *Ahatse* (1380, 158, 157. or.), *Ojer d'Ahadse, escuder* (1383, 182, 174. or.).

Zierbide (1993): *Hacxa* (1350-1353, 53. or.), *Haxa* (1350-1353, 16, 60. or. Ikerzaille honek, gainera, *Hacxa eche* jasotzen du, *Uharte-Zihc-Ungangan*; ibid., 58. or.), *Bernat d'Ahatsse* (1412-1413; 95. or.), *Ahatsse* (1412-1413; 99, 104. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Ahaere* (1385, 204, 30. or.; 1416, 322, 148. or.; 323, 150. or.), *Ahaxe* (1451, 348, 178. or.).

Barragán (1997): *Arnalt Santz, seinnor de Haxa* (1334, 88, 147. or.), *Arnalt Santz, seynnor de Haxa; Arnalt Santz, seinnor de Axa* (1334, 88, 148. or.), *Remon d'Axa* (1336, 104, 169. or.).

Carrasco (1999-1): *A Bernart d'Assa* (1259, 83. or.), *Per lo despens don Bernart de Atxa, et de Bernart de Siuals et de Oger de Agramont, quant estaban en Sant Pelay, 108 soltz, 9 diners* (1266, 221. or.), *Bernart de Hacxa* (1266, 252. or.), *Remon de Hatxa* (1266, 294. or.), *Al seynnor de Hacxa, 30 libras per milicia per litteras regis* (1266, 276. or.), *Al seynnor de Hatxa, 30 libras* (1266, 282. or.), *A Remon de Atssa, a Guillem Arnalt, son freyre* (1266, 354. or.).

Orpustan (2000): *Hacha* (1235, 31. or.).

Euskal Testuak:

- "Jean-Baptiste, 1910-eko hazaroaren 3an sortua, **Ahatsarat** ezkondu-eta han bizi dena", Lafitte (1972: 15).
- "Mitra gutti berritu zen, egun hartan, **Ahatsa-Lekumerrin**", Barbier (1987: 145).
- "Eta horra non, han nonbait, **Ahatsako** bidean, bertze irrintzina bat eraikitzen den samina...", Barbier (1987: 231).
- "Bainan, erregetzeaz bertzerik bazuen gaur **Naherok** gogoan, eta irrintzinaka bazoan beraz, **Ahatsako** bidean...", Barbier (1987: 232).
- "Gudukan artzeko sortua dela iduri du gure **Ahastarrak**", M. Itzaina (Etxebarne, 1989: 10).
- "Hauiek deituko dira: Houcabie kolonela, **Ahatsako** errieta, Ezpeletako erretora Harignordoki, eta azkenean Kanboko Tardieu medikua", M. Itzaina (Etxebarne, 1989: 11).
- "**Ahatsan** bada elktrika uzina ttipi bat, eta barraja haren gibelean izaiten zen alimaleko osina", Etxebarne (1989: 23).
- "Arnaud, 1924-eko abendoaren 28-an sortua, **Ahatsarat** ezkondu-eta han bizi dena", Lafitte (1972: 16).
- "**Ahatsan** eta Kanbon zelarik izendatu zuketan teniente", Lafitte (1990: 198).
- "Nekazaritzaren osagarria, mendi-hegaletan topatzen dute Behorlegitarrek, eta hauen antzo, hauzokide zaizkien herriek: Mendibe, Lekunberri, Aintzila, **Ahatsa**, Eiheralarre, Esterenzubi eta abar" (EBS, 1969-1990).
- "...Domingo Soubelet Hazparne-Pikasarrikoa (hau ere), Jean Luro **Ahatsa** Zakuteikoa (...)", Larre (2001: 262).

... “...*Eiheralarren (aita Leon Aramendirekin), Ahatsan (Darritchonekin) (...)*”, Larre (2001: 268).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Ahetse* jasotzen du, **Lhandek** *Ahatse, Ahatsa* (1926: XXXV, 15), **Azkuék** (1905: XXIX), **Dassancek** (1966: 162), **Goihenetzék** (1966: 114) eta **Orpustanek** (1990: 116) *Ahatsa*. Herritarren izena *ahatsarr, Ahatsarr (Lhande, Orpustan), ahastar, ahatsar (Dassance)* da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Ahatsa-Altzieta-Bazkazane* eta *ahastar-artzieta-bazkazandar* (sic) proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Ahatsa* eta *ahatsar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

E. Etxarren uharlearrak *Ahátsa* ematen du eskuarki (*Ahátsa, Ahátsan dá, Ahátsat, Ahátsa-Zakutéja, Ahátsak batú* ‘Ahatsak baditu’, *Ahátsà*), baina artetan *Aátsa* ere ibiltzen du (*Aátsatik Lekúnberrirat, Dónazaárretik Aatsát, Aátsan*. Cf. *Aátsaxilo* auzo izena; *Aátsaxiloke bádià?* ‘Ahatsaxilok ere ba al du?’). Herritarren izena *ahátsarrá, ahátsarrák (E. Etxarren), ahatsár (J. M. Satrustegi), ahatsar (Larre)* da.

Etimologia azalpenak:

Lemoinek (1977: 186) *arhan, ahan* ‘arana’-tik eratortzen du, zehazkiago erran, *a(rr)anetze* ‘pruneraie’-tik, ez erabateko segurtasunez, hala ere.

Orpustanek (1990: 116) izen honen daitekeen azalpen bakarra *aitz* ‘haitza’ dela dio eta hemen, *Ahetze*-n eta *Ahaiz*-en bezala (*Ahaize* edo *Ahize* da azkeneko hau autore beraren arabera), bikoizketa bokalikoa duen aldaeraren aitzinean gaudela. Kontua da *Ahaize*-u bikoizketa hori XVI. mendekoa dela erraten duela (ibid., 100), baina *Ahatsa*-ren kasuan *Ahacha* 1199. urterako ageri dela. Orpustanen ustez “Ahatsako jauregiko jauna” eta “haitzeko (edo haitzaren) jauna” gauza bera ziren. Gero, eta *aitz(a)*-tik abiatu-rik, oraingo izenak aterako ziren, txistukari hizkarkaria hortz-hobietako bihurtu zelarik eta diptongoa laburtu, erdarazko erabileran.

Guri Orpustanen azalpena egiantz gutxikoa iruditzen zaigu eta onartzeko zaila, bilakaera fonetikoa oinarririk gabe gelditzen delako. Oroitu beha-

rra da, izan ere, euskal hitza *haitz* dela, aspirazioa lehen tokian duela eta *-tz- > -ts-* pausoa azalpen haren arabera airean gelditzen dela. Ustezko diptongoaren laburtzea ere dilindan dago, ortzaiztarrak biltzen dituen Erdi Aroko lekukoen artean diptongodun formarik ez dagoelako, besteak beste. Lehen testigantza 1167ko *hatce* da, baina autoreak berak dio kasu honetan dokumentazioko lekukoak usu zein izeni dagozkion ez dakigula, *Ahatsa*-ri, *Ahetze*-ri edo *Ahaize*-ri. Zernahi gisaz, 1249rako *assa*, *aassa*, *hassa* ageri dira. Besterik da, ordea, izen honen oinarrian zer dagoen erratea; uste dugu oraingoz galdera ikurra ezarri beharko diogula galdintza horri.

Ainhize / Ainhice

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1853: 4): *Ainza* (1513), *Añiza*, *Aniça*, *Aynice* (1621), *Ainhisse* (1665). Autore honck dio 1841az geroztik *Ainhice-Mongelos* dela (frantsesez ari da eta frantseseko aldaeraz).

Raymond (1873, 87): *Lupus de Anfiz* (1135-1136).

Goihenetxe (1966: 120): *Anfiz* (1135-1136), *Anice* (1294, 1328), *Aynnice* (1375), *Aynça* (1388), *Aniça* (1388), *Anhisse* (1395).

Lemoine (1977: 187): *Ainza* (1513), *Aniça*, *Anice* (1621).

Carrasco (1973): *Anhice* (1366, 673 eta 681. orr.).

Orpustan (1990: 110): *anfiz* (1135-36), *aniça* (1264, 1309, 1350), *anhice* (1304, 1366, 1413).

Zierbide (1993): *Anhice* (1412-1413, 96. orr.).

Zierbide & Santano (1995): *Anhisse* (1395, 275, 276, 102-103. orr.).

Carrasco (1999-1): *Ibi, de Aniça, de incens de la casa de Ochoa Bassaburu, 12 diners* (1266, 219. orr.).

Euskal testuak:

- "Garazi guzia han zela erran ditake, beldurrik gabe Alduda. **Ainhize** eta *Bidarray barne*", Zerbitzari, *Gure Herria*, 1927 (EEBS).
- "Armendaritzerraino (...) **Ainhiza**, Suhuskune eta *Iholdy barne*, auzo eskasik ez du; bizkitartean ororekin du bakea", *Gure Herria*, 1933 (EEBS).
- "Eta pixka bat laguntza horren ondorioz, *Hiruak Bat* taldea arrapartitu zen, **Ainiza** Monjolose Lakarra herrietako 20 bat gazteen inguruan", *Herriz Herri*, 1968 (EEBS).
- "...Jean Irigoyen **ainiztarra**, Jean Donetx uztaiztarra. J. P. Belhagorry ortzaiztarra, Jean Loustau amikuztarra, eta nor ez oraino!", Larre (2001: 191).
- "...hek dira Pierre Etchegaray heletarra, Jean Hiriart-Urruty hazpandarra, Jean Irigoyen **ainiztarra** eta Jean-Louis Pecoits lakartarra. Jainkoak berekin dituela, gu ere haren ganatu artean!", Larre (2001: 214).
- "Egin dituzte, lehenxago holakoak, bizpahiru urtez beren herrien artean Suhuskune, **Ainhiza**, Lakarra eta Gamartek", Larre (2001: 305-306).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Ainhiza* jasotzen du eta **Hatanek** (1895: 14) *Aiñhise*, baina autore hau ez da txoil fidagarria, izenak etimologiaren arabera egokitzen baititu. **Azkuek** (1905: XXIX) *Ainhize-Mondolose* dakar eta **Lhandek** (1926: XXXV) *Ainhize-Monyolos*. **Dassancek** (1966: 162) eta **Goihenetzek** (1966: 120) *Ainhize* dute, eta **Lemoinek** (1977: 187) *Ainhice*. **Orpustanek** (1990: 110), azkenik, *Ainhiza* eta *Ainhize* biltzen ditu. Herritarren izena *ainhiztarr*, *Ainhiztarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *ainhiztar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Ainhize-Monjolose* eta *ainhiztiar-monjolos-tar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Ainhize* eta *ainhiztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

Ainizé-Monjólôsè, Ainizá ta Monjólôsè érrí berá dirá, Ainiza; Ainizane gáuzá béra dá ("Ainizan ere gauza bera da"), *Ainizán, Ainizaikin, Ainizako, ainiz-tarrá(k)* (**E. Etxarren**), *ainhiztar* (**J. Lizundiak E. Larre**rengandik hartua).

Etimologia azalpenak:

Luchairek dio (1873: 166, 1874: 27-28) *Ainhice* XVI. mendean *Ainza* izkiri-riatzen zela eta, oinarriaz argitasunik ematen ez badu ere, bukcra *-za* atzizki lekuzkoa dela uste du, hots, egun *-za* moduan aipatu ohi dena. **Hatanek** (1895: 14), ikusi dugun moduan, *Aiñhise* dakar herri honen cuskal izentzat eta *añ-hise* zatitzen, 'haran txikia' adiera emanez, egon ere haranko batean baitago, autore honen arabera betiere. **Lemoinek** (1977: 187) *aintzi, aintzika, aintzira, aintzur* 'lohidia, lobitzea', 'zingira, urguneu'-tik eratortzen du. **Dauzat & Rostaingen** irudiko (1983 | 1963: 6) toponimoa euskarazko *ain* eta *ihize* 'ehiza eremua'-tik atera da, edo bestela *aintzi* 'marécage'-tik.

Orpustanek (1990: 111) izena *aintzi*-tik ezin etor daitekeela erraten du eta **Dauzat** eta **Rostaingen** *ain ihize* 'ehiza eremua' azalpena ez dela onartzeko modukoa, ez morfologiaren aldetik, ez semantikaren aldetik. Ortzaiztarrari oinarria ilun gertatzen zaio, baina dio *ainar* 'isatsa' fitonimoa izan daitekeela edo *ahun, aun* oronimoa (*Auñamendi*-n duguna). Hondarreko izena, dena den, honelako alderdi zelaiari agertzea egiautz gutxiak dela gubitzen du.

Aintzila / Aincille

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 4): *Aincile* (XVIII. m.).

Goihenetxe (1966: 119, 169, 345): *Ancil* (1293-1294), *Ancill* (1293-1294), *Anciuil* (1294), *Ançibiu* (1353, 1388), *Ayncilh* (1364), *Ancilh* (1364), *Ancibiu* (1364, 1394), *Amcebiu* (1394).

Castro (1957): *Guillem Ernaut de Ancibiu* (1393, Castro, XX, 333, 143, or.).

Carrasco (1973): *Ançibiu* (1366, 677 eta 681. orr.).

Lemoine (1977: 187): *Aincile* (XVIII. m.).

Orpustan (1990: 119): *ancibiu* (1264, 1350, 1413), *ancivil* (1291), *ancil* (1304, 1344), *ançill* (1307).

Zierbide & Santano (1990): *Aucibin*³ (1367, 56, 87. or., 1376, 70, 98. or.; 1380, 155, 155. or.).

Zierbide (1993): *Aynçibiu* (1350-1353; 61, 62. orr.), *Ayncebiu* (1350-1353, 73. or.), *la casa de Ancile* (Eiheralarre; 1350-1353, 69. or.), *Ançibiu* (1410-1412; 106. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Ancibieu* (1405, 296, 118. or.), *Ancibiu* (1459, 352, 182. or.).

Carrasco (1999-1): *Ibi, en Ancibiu de agrero, 2 quarteles* (1266, 353. or.), *Ibi, en Ancibiu* (1266, 356. or.), *En Ancibiu, de la casa de Arotz Esse, de peyta, 2 diners* (1266, 219. or.).

Euskal Testuak:

- "Jean Arrosagaray, *Aintzile*'ko pertsulari gaztea", Xalbador (1976: 56).
- "Tanpakorik gotorrena, bizkitartean, Garaziko herri xumeenetarik batean -*Aintzilan*- du jo, maiatzaren hogoi-ta-zortzian", J. Etxepare (1996: 93).
- "Erraguzue, *Aincille*, Arrangoitz eta Sara, / Nola hau utzi duzuen joaiterat bertzetarat?", Barbier (1967: 128).
- "Basaizteiko etxolatik goiti, Xabaño zen *Aintzila* Idiondoko borda bere etxola itipi batekin", Etxebarne (1989: 38).
- "Egun hortan etortzen dira mendiz bertze aldekoak, Benafarroakoak, Doniane Garazikoak, Arnegikoak, Lasa, Ehiaralarre, Izpura, *Aintzile*,

3. Toponimo aurkibidean «Ancibiu» ageri da.

Donazaharre, eta beste anitz, Luzaidekoak ahanzi gabe, erregebidez”, Zubiri (1990: 312).

- “*Nekazaritzaren osagarria, mendi-hegaletan topatzen dute Behorlegitarrek, eta hauen antzo, hauzokide zaizkien herrick: Mendibe, Lekunberri, Aintzila, Ahatsa, Eiheralarre, Esterenzubi eta abar*”, (EEBS, 1969-1990).
- “...gure aintzineko urteetan, bi garaztar *Marcel Larralde lekunbertarra eta Pettan Maitia aintzildarra* izan ginituen buruzagi eta segetario (...)”, Larre (2001: 172).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Aincile* dakar eta **Azkuek** (1905: XXIX) *Ainzila*. **Lhandek** (1926: 20) *Ainzille-Harrieta* jasotzen du herriaren frantseseko *Aincille-Harriette*-ren euskarazko baliokidetzat. **Dassancek** (1966: 162), **Goihenetzek** (1966: 119) eta **Orpustanek** (1990: 119) *Aintzila* biltzen dute, eta **Lemoinek** (1977: 187) *Ainzile*. Herritarren izena *ainzilltarr* (**Lhande**), *ahintzildar* (**Dassance**), *Aintziltarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Aintzila* eta *aintzildar* hobetsi zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Aintzila* eta *aintzildar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

Aintzile, *Aintziletik* *Dônazaárreät*, *Aintzileät*, *Àintzilén*, *aintzildarrà* (**E. Etxarren**), *aintzilar* (J. L. Lizundiak **E. Larrerengandik** hartua).

Etimologia azalpenak:

Corominesek (1972: 313) ez du sakontzen berak *Ainitze* gisa aipatzen duen izencan, baina dio inguruko herrietan (*Onize*, *Ozaze*, *Zalgize*, *Atarratze*, *Bildottze*...) biziki zabaldua den *-ze* osagaia duela. **Lemoinek** (1977: 187) *aintzi*, *aintzira* dakuski izen honen lehen osagaian; higarrena *zilho* da autore honen iritzian. **Dauzat & Rostaingek** (1983 | 1963: 6) oinarrian euskarazko *aintzi* dugula diote; bukaera *-la* hipokoristikoa *-ez* daki-gu zer hizkuntzatakoa da bi ikertzaile hauen irudiko.

Orpustanek, 1264ko *ancibiu*-n eta 1291ko *ancivil*-etik abiatuturik, dio etimologia argia dela: *aintzi* ‘urgunca, lintzura, zingira’ eta multzoa ‘edo multzokatzea’ adierazten duen *bil* ezaguna. Alabaina bigarren honek, toponimian, beharbada ‘itxura biribileko muinoa’ erranahia dukeela gehitzen du,

ez dakigu zertan oinarriturik, eta 'zingiradun muinoa' azalpena herriari arras ongi doakiola, muino heze eta oihantuetan kokaturik dagoelako.

Gure irudiz Orpustanek lehenik toponimian *bil* osagaiak 'muinoa' adiera (izaten) duela frogatu behar zukeen, eta gero proposatzen duen azalpena eman, ez alderantziz, era honetara berriz ere azalpen etimologikoa dilindan gelditzen baita.

Altzieta / Alciette

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 4): *Alsuete* (1302), *Alzueta* (1513), *Alçueta* (1621), *Alsiette* (1667).

Goihenetxe (1966: 121): *Alsueta* (1249), *Alsuete* (1302), *Alcuete* (1352), *Alçuete* (1361), *Alcueta* (1368), *Alçueta* (1372, 1387, 1388), *Alchueta* (1387).

Carrasco (1973): *Alçuete* (1366, 671 eta 677. orr.).

Orpustan (1990: 116): *alçueta* (1305), *alçuete*, *alçueta* (1350), *alchuete* (1387).

Zierbide & Santano (1990): *Domenjon d'Alçuete* (1379, 146, 147. or.), *Domenjon d'Alcuete* (1379, 148, 149. or.), *Domenjon d'Alzueta* (1380, 160, 158. or.).

Zierbide (1993): *Alçuete* (1350-1353, 64. or.; 1412-1413, 95. or.), *Alçueta* (1350-1353, 66. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Azkuék (1905: XXIX) eta **Lhandek** (1926: XXXV) *Alzieta-Barkazane* (sic) jasotzen dute, **Dassancek** (1966: 162), **Goihenetzek** (1966: 121) eta **Orpustanek** (1990: 116) *Alzieta*. Herritarren izena *alzietar* (**Dassance**), *Alzietar* (**Orpustan**) da.

Akademiaren leheogo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Ahatsa-Altzieta-Bazkazane* eta *ahastar-artzietar-bazkazandar* (sic) proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Altzieta* eta *altzietar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

Altzjéta, Altzita, Altzjétak (*badú kapéra*), *Altzjétan, Altzita-Irigoinja, altzítarrà* (*érlen al dá*) (**E. Etxarren**), *Artzieta* (**J. L. Lizundiak E. Larreengandik** hartua).

Etimologia azalpenak:

Dassancek (1949: 206) *halz* 'haltza'-ren eratorrien artean sartzen du *Altzieta*; **Mitzelenak** ere (AV, 37) *(h)altz-zu dakusa *Alzueta*-ren oinarrian,

baina *altzu* 'belar-meta, mukurua' ere egon daitekeela gehitzen du, eta zubererako *altsu*. *altxu* 'ardi-saldoa' ere ez du baztertzen. Atzizkia toponimian hain ezaguna den *-eta*, *-keta* da honen iritzian.

Lemoinek (1977: 187) *altz* 'aunc', *altza*, *haltza* 'aunaie' dakusa *Alciette*-ren oinarrian, *Alçay-Alçabéhéti-n*, *Aussurucq-en* eta *Sumberraute-n* bezala. **Orpustanek** (1990: 116) toponimia zaharrea maiz aspiraziorik ez zuen *(h)altz* zuhaitz izena eta *-eta* dakuski 'haltz tokia' adiera duen honetan. Frantseseko aldacrari doakionez, *-eta* > *-ete* (gaskoitzea) > *-ette* (frantses-*tea*) urratsak erdarari leporatu behar zaizkio, ortzaiztarraren irudiko.

Oharra:

Alzueta Nafarroa Garaiko deitura da egun.

Arnegi / Arnéguy

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 10): *Arranegui, Arrenéguy* (1614), *Rénéguy* (XVII. m.), *Arnéguy* (1703).

Goihenetxe (1966: 351): *Arranegui* (1333), *Arranegui de Juso* (1406).

Lemoine (1977: 188): *Arranégui* (1614), *Arreneguy* (1614), *Reneguy* (XVII. m.).

Orpustan (1990: 124): *arranegui* (1284).

Arbizu (1992): *en ce lieu d'Arraneguy* (1612, 260-261. orr.), *...que le lendemain vingt neuf nous nous retournerions a Arraneguy popour (sic) le continuer la revue desdictes montagnes d'Aldude* (1613, 268. orr.), *...hasta encontrar la regata de Chaparreco-erreca, sirviendo el mencionado rio de lindero que separa a Valcarlos de Arranegui, pueblo del Valle de Cisa (...) e inclinándose hacia la parte de Arranegui* (1785, 358. orr.).

Luzaiden *Arranegizar* (1612az geroztik) eta *Arnegizar* (1764tik aitzina) etxea dokumentatzen da:

- "...*venta de Herdo (Hernando) de Andioquiçar a Domenja de Abinçalde En Valcarlos, en la cassa llamada Arraneguiçar*", Iruñeko protokoloak, 32.k-III, 16.
- "...*Morn. (Martin) de Laborda vezino del valle de Valcarlos y dueño dela Cassa llamada en este Valle la de Arneguizar y de la otra parte Pedro de Echamaite, natural del Reyno de francia al prte. (presente) vezino de este valle*", Aurizko protokoloak, 37. k., 56.

1893an *arneguisarecuer* 'Arnegizarrekoei' ageri da (Satrustegi, 1971: 298); egun *Arneizárrja* erraten da. Cf. Luzaideko gutuneko pasarteño hau:

- "*Bidondoko Antonio espos duxu Arneizarrehuain, heldu[d]en ortzeunian; ezteiak Arnei-Klémentenian*".

Euskal Testuak:

- "*Bidachunetic hasiz higan Alduderat, / Eta Arneguin gaindi ethor Heletarat*", Hiribarren (1853: 77).
- "*Arneico serorain condia... 12,5*", (Luzaideko arotzaren kontu liburua, 1877; Satrustegi, 1969:153).

- "**Arneico** yacorriaineco tailu mailu bat alzairatu", (Luzaideko arotzaren kontu liburua, 1878; Satrustegi, 1969:170).
- "**Arneico** marchotenequa nabarra eracachiric... 6", (Luzaideko arotzaren kontu liburua, 1879; Satrustegi, 1969:167).
- "**Arneico** percai(n) mailu andi bat alzairaturic", (Luzaideko arotzaren kontu liburua, 1880; Satrustegi, 1969:171).
- "*Beras aditu dugu arneguyco nescato bat ilic arapatu dutela bordabastian*" (Garazi, 1893; Satrustegi, 1971: 298).
- "**Arnegi** hortan muttiko baten berri trixtea da jakin", Etxamendi (Lafitte, 1972: 123).
- "Eriotz krudel bat / Eginazia haitak eta alabak hunen senarrian / **Arneguin** 1864", J. Etxamendi "Bordel" (Satrustegi, 1965: 135).
- "Ondarla, **Arnegiko** kartier bat, elizaz Luzaideko", Dassance (1966: 163).
- "...herri xuri pollit bat: **Arnegi**, emokatua bezala bi mendi-lerroen arteko xokoari", J. Etxepare (1987 [1931], 44).
- "...badituela **Arnegik** hamabortz apetz-gei", J. Etxepare (1987 [1931], 45).
- "Hortan gizonik trebeena zen, eta biphila, eta **Arnegiko** zubitik Gainekoletaraino (...)", Zubiri (1990: 41).
- "Eta gogorat heldu zait, egun batez, (Yainkoak ez dezala nahi) phitz baladi gudu bat Espainia eta Frantziaren artean, Luzaide'koak eta **Arnegi**'koek behar luketela borrokatu eta sarraskitu heien artean, auzo anaiak direlarik...", Zubiri (1990: 156).
- "Ipharraldean han, urrun, beheko erreka zolan, Luzaide, xuri xuria; eta azhenian, Pekotxetako zubi-muga, **Arnegirat** sartzeko, Donianeko bideari lotzeko", Zubiri (1990: 222).
- "Eta zubitik harateko aldian, **Arnegi**'n? Zortzi, eta horietarik sei eskualdun", Zubiri (1990: 241).
- "**Arnegin** egon ginen denboran, zonbat aldiz ez dugu «Boryel» hertsolariaren izena aipatzen aditu?", Lafitte (1990: 187).
- "**Arnegitik** ukanak ditut eskas zirenak", Satrustegi (1967: 34).
- "Horiek kadera altzuak inen omen txie bakarrik. **Arneiko** apeza zixien gidaria", Luzaideko gutun argitaragabeak.

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Arnegui* du, **Hatanek** (1895: 15) *Arnégi*, **Azkuek** (1905: XXIX), **Lhandek** (1926: 61), **Dassancek** (1966: 162), **Lemoinek**

(1977: 188) eta **Orpustanek** (1990: 124) *Arnegi*. Herritarren izena *arnegiarr* (**Lhande**), *arne(gi)tar* (**Dassance**), *arnegitar* (**Satrustegi**, 1967: 24), *Arnegitarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Arnegi* eta *arnegitar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Arnegi* eta *arnegitar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

Arnéi (**A. Kaminondo**), *arneitár* (**Kamino & Salaberri**, 2001: 70), *Arnégi* eta *arnégítár* (**EHHA**), *Arnegi*, *Arnégi*, *Arnégin*, *Arnégin*, *Arnégiko hartjér bát*, *Arnégirát*, *Arnégitik*...*Ejalárreát*, *Arnéiko bidja*, *Uártetik Arnégira*, *arneitarrák* (**E. Etxarren**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 15) *barne* edo *arne-hegui* aztertzen du izena eta 'zintzurra, potxea', 'potxearen muturra' adierak ematen; herriaren kokagunea etimologia azalpen horren alde mintzo da, autore honen irudituan. **Vinsonek** dio (1909: 352) 1614an artean *Aranegui* ebakitzen zela eta 'aranondo ugaritasuna' adiera duela. **Mitxelcoak** (**AV**, 69), segur aski izen honen dokumentazio zaharra ezagutzen ez zuelako, *Arnegui* izena *haran*-ekin lotzen du, **Vinsoni** jarraikiz 1614an artean *Aranegui* zela erraten baitu. **Lemoinek** (1977: 188) *aran*, *arhan*, *ahan* 'arana'-tik eratortzen du; bukaera *-egi*, *-tegi* 'etxea' da autore honen arabera; **Dauzat & Rostaingek**, berriz, toponimoan *aran* 'vallée' eta *-egui* 'au bord (de)' atzikia daudela uste dute (1983 [1963]: 28).

Orpustanen iritzian izen honen oinarrian ez dugu ez *aran* 'harana', ez *arhan*, *ahan* 'arana', ez eta *arrano* ere, *arran(tz)* 'épineux, prunellier' baizik, nahiz kasu honetan landare izenek ohi duten atzizki multzokariaz (*tz*-ez) gabeturik dagoen. Izena, beraz, 'bord ou crête d'épineux' da ortzaiztarraren arabera.

Gure ustean hemen berriz ere. Orpustanen azalpen etimologiko anitzekin agitzen den gisan, fede handia izan behar da dioena sinesteko. Ez dea anitzez errazagoa, 1284ko eta 1614ko *Arranegui* aldaeran oinarri hartuz, *arrano* eta *-egi* 'arrantegia, arrantokia' dagoela pentsatzea? Gure irudiz bai, partikulazki *Arnegi* herria aski goian dagoela ikusirik. Orpustanek etimologia hau baztertzeko dio "egiantz toponimiko urria" duela, eta berak

«toponymic d'habitat» deitzen ducnean txori izenak ez direla sekulan azaltzen. Hala ere, diogu guk, *arrano* izena ugaria da leku izenetan, normalean beste osagai batekin, erdarazko bere baliokidea bezala, Nafarroako *Aguilar* herri izenak frogatzen duen moduan. Bizkaiko *Txorierrri* ere hor dugu –ez dugu hemen *Usotz*-en moduko izenak aztertzen hasteko asmorik–, eta hagitz oker ez bagabiltza ongi jendeztaturik dago alderdi hori. Bestalde, ez dugu uste Mitxelena-ren etimologia ontzat har daitekeenik, azalpen hori onetsiz gero –rr-dun aldaerak azaltzea ezinezkoa izanen bailitzateke.

Bazkazane / Bascassan

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 22): *Bazcacen* (1513), *Vazcacen* (1621), *Vazcaçan* (1621).

Goihenetxe (1966: 123, 164): *Bascancen* (1253, 1334), *Bascacen* (1364, 1368, 1385, 1387, 1388, 1389), *Bazcacen* (1401, 1407).

Carrasco (1973): *Bazcaten* (1366, 672 eta 681. orr.). Irakurketa ustela izan liteke hau, baina bitan ageri da.

Ostolatza (1978): *Lop de Bazquazen* (1208, 33, 119. or.), *dominus G. de Bascacen* (1243, 119, 200. or.), *in presentia...fratris S. de Bascaucen* (Donibane Garazi, 1253, 151. or., 227. or.).

Orpustan (1990, 118): *bascaçen* (1292, 1350), *bazcacen* (1366), *basquacen* (1413).

Zierbide (1993): *Bascaçen* (1350-1353; 60. or.), *Basquacen* (ibid., 73. or.), *Bazquacen* (1412-1413; 100. or.).

Orpustan (1999: 276): *bazquazen* (1208), *bascaçen* (1292), *bazcacen* (1366).

Euskal testuak:

- "Ni sortua nizan herria deitzen da Ahatsa. Bainan Ahatsak ba ditu bi kartier: Alzieta eta **Bazkazane**. Ni **Bazkazanekoa** nintzan", Etxebarne (1989: 22).
- "Biak ere biarnesak ziren eta bazuten zenbait aldiz usaia **Bazkazanera** turnadan jiteko", Etxebarne (1989: 33).
- "Handik beheitiragoño elgarretarik beheri ginen. Hura Lekunherrira eta ni **Bazkazanera**", Etxebarne (1989: 66).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Azkuek (1905: XXIX) eta **Lhandek** (1926: XXXV) *Alzieta-Barkazane* (sic) dakarte; **Goihenetxek** (1966: 123) *Bazkazane* jasotzen du, **Dassancek** (1966: 162) *Bazkazane* eta **Orpustanek** (1990: 118) *Bazkazan*. Herriarren izena *bazkazandar* (**Dassance**), *Bazkazandarr* (**Orpustan**) da.

Ahoz bildutako formak:

Bàzkázane, *Bazkázane*, *Bàzkazán-Uáldja*, *Bazkázan-Zakutéja*, *Bazkázan-Étxeerria*, *bazkázandarrà* (**E. Etxarren**), *bazkázandàRà*. (**E. Larre**).

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Ahatsa-Altzieta-Bazkazane* proposatu zuen hizkuntza ofizialeko *Ahaxe-Alciette-Bascassan*-en euskarazko kidetako Herritarren izentzat *ahastar-artziatar-bazkazandar* (sic) eman zuen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Bazkazane* eta *bazkazandar* hobetsi ditu.

Etimologia azalpenak:

Lemoinek uste du (1977: 123) *Bascassan* euskararen bidez ezin azal daitekeela eta izen galiar-erromatarren artean sailkatzekoa dela, etorkiz *-anum* bukaera zutenen artean. Oinarrian dagoen antroponimoa eztabaidatzeko modukoa dela iruditzen zaio; nolana ere, erraten du menturaz **Bascassus*-en eratorria datekeela, eta hau *Bascus*, *Bassus*, *Baxius*-ena.

Orpustanek (1990: 118, 1999: 120) Lemoineren hipotesia arbuiatzen du, erranez beste alderdi batzuetan hau daitekeena bada ere –Zuberoako *Domezain*-en (*Domintxaine* euskaraz), konparazione–, hemen ez dela egiantzekotasun handikoa, alderdi honetara erromanizazioa iritsi ez zelako –ez du garbi-garbiki erraten, baina hau segitzen da bere hitzetatik–, nahiz *Mongelos* (*Monjolose*) hurbil dagoen. Horregatik antroponimikoa ez den hipotesia nahiago du, izena gardena ez bada ere. Zernahi gisaz, bukaera “zalantzarik gabe” erdaldundurik dago ortzaiztarraren arabera, erromanizaturik, eta segur aski *-un*-en eratorria dateke. Hipotesi moduan **beratz-k-aitz-un* ‘lieu du rocher de la prairie’ edo ‘lieu pierreux de la prairie’ ematen du, baina *-ain* (*-gain*-etik, Orpustanen arabera) bukaera ere izan lezake; hondarreko kasu honetan ‘hauteur du rocher de la prairie’ litzateke. Lehen erran moduan bide antroponimikoari aukera handirik ez dio eman nahi, baina, izatekotz ere, oinarrian *basco* dukegula erraten du, alegia, “euskaldunok geure buruari eman diogun izena”, Bernart Etxepareren olerkietan ikus daitekeen bezala. Bukaera *-ain* atzizki ezaguna dateke autore honen irudiko.

Beranduagoko beste lan batean (1999: 276, 310) izen honen erroa, *Behaskane*-rena bezala, antroponimo edo “etniko” biziki zaharra izan daitekeela dio, *basko*-ren elkarketako aldaera zatekeen *bazka*- hain zuzen ere. Bukaera *-en* atzizkia da, *-ain* / *-ein*, *-en(t)z*, *-in* eta *-ano*-rekin batean bukaran sudurkaria duten atzizkien multzoan sailkatzen duena.

Gure ustean euskaldunok geure burua izendatzeko *basco* erabili ote dugun frogakizun dago oraino, baina, nolana ere, ez da bemen argitzeko gaia. Bestalde, Orpustanek proposatzeu duen azalpena, berriz ere dilinda-

ka gelditzen da, airean, lehenik, hipotesi deskribatzaileari dagokionez, *beratz* eta *haitz*-etik abiatzeko oinarri dokumentalik ez dagoelako, eta bigarrenik, oinarrian *basco* dagoela erraten bada bukaerako *-zen* horretan zer dagoen azaldu beharko delako.

Behorlegi / Béhorléguy

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 26): *Beorlegui* (1513), *Vehorlegui* (1621), *Béhorléguy* (XVIII. m.).

Goihenetxe (1966: 124, 345): *Beorlegui* (1292-1293, 1328, 1368, 1387), *Beorleguy* (1293-1294), *Beorregui* (1364), *Beorrllegui* (1364), *Berorlegui* (1364), *Behorlegui* (1367, 1387, 1393, 1394, 1408), *Beorrlleguy* (1387).

Carrasco (1973): *Behorlegui* (1366, 676 eta 681. orr.).

Lemoine (1977: 191): *Beorleguy* (1513), *Vehorleguy* (1621), *Behorleguy* (XVIII. m.).

Ostolatza (1978): *Beorlegui* (1218, 49, 136. or.).

Orpustan (1990: 113): *beorrlleguy* (1264), *behorleguy* (1292), *beorrllegui* (1350).

Zierbide & Santano (1990): *Behorlegui* (1367, 54, 85. or.).

Zierbide (1993): *Beorlegui* (1350-1353; 66, 68. orr.), *Behorlegui* (1412-1413, 98, 105. or.).

Carrasco (1999-1): *Ibi, del molins de Beorlegui* (1259, 101. or.), *Ibi, per far portar la molendura dels molins de Beorrllegui, 4 soltz* (1266, 221. or.), *Ibi, dels molins de Beorlegui, 8 kafices, 2 quarteles* (1266, 353. or.).

Euskal Testuak:

- "Gauza miresgarri horien aipua heldu izan zen **Behorlegiko** jaun gaztearen beharrietara", Duvoisin (1987 [1884-1885]: 54).
- "Hor, biharamuncan **Behorlegiko** eztei batzuetara behar zelakotz,...", Barbier (1987: 88).
- "**Behorlegira?** Ixabelek josirik behar zinituen, baitezpada...", Barbier (1987: 89).
- "**Behorlegiko** eztei batzuetara joan beharra (...)", Barbier (1987: 92).
- "Bakarrek bazituen hola saldurik Cinqualbres Donianeko Kouter gaitzoak. Xuitotik eta **Behorlegi** arte hortan!", Barbier (1987: 219).
- "Nekazaritzaren osagarria, mendi-hegaletan topatzen dute **Behorlegitarrek**, eta hauen antzo, hauzokide zaizkien herriek: Mendibe, Lekunberri, Aintzila, Ahatsa, Eiheralarre, Esterenzubi eta abar", (Etxaide, EEBS. 1969-1990).

Oihenartek hurrengo atsotitz hau bildu zuen: *Garasiren gaiza Behorleguic derossa* (180. errefraua, 1935 [1657]: 228), **Txillardegik** (1971: 53) honela azaltzen du: “Garazik egindako gaitza, Behorlegik ordaintzen du; txikiak pagatzen haundien faltak, hitz batez. ‘Derosa’ = erosten du, sint., de-ros-a”.

Autoreek biltzen dituzten formak:

Euskaraz *Behorlegi* erraten da **Hatan** (1895: 15), **Azkue** (1905: XXIX; *Las mil y una...*, 40), **Lhande** (1926: XXXVI, 132), **Dassance** (1966: 162) eta **Orpustanen** arabera (1990: 113); **Goihenetzek** (1966: 124) *Beorlegi* dakar. Hiritarren izena *behorlegiarr*, *behorlegitarr* (**Lhande**), *behorlegitar* (**Dassance**), *Behorlegitarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Behorlegi* eta *behorlegitar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Behorlegi* eta *behorlegitar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

EHHAek *Beórlei* eta *beórleitarr* dakartza. Ondarrolan bada *Bèorléja* izena duen etxea; nagusiari *bèorléi* erraten zaio **Luzaiden**, diptongoarekin. Herri honetako arotzaren kontu liburuan (1871: Satrustegi, 1969: 147) “*beorleico condia*” ageri da, hots, ‘Beorlegia etxeko kontua’. J. L. Lizundiak *behorlegiarr* jaso du **E. Larre**reugandik, baina segurtasun haudirik gabe; **E. Etxarren** uhartearrak *Beórlegi*, *Beorlégi*, *Beórlegin*, *beorleitarrak* formak eman dizkigu.

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 15) ‘behor-leku’ erranahia ematen dio. **Vinsonek** ere *behor* ‘jument’ dakusa *Behorlegi* izeneau, *Behobia*-n bezala (1909: 354), nahiz normalean euskal toponimoetan animala izenik ez duen ikusi nahi izaten (ibid., 352); bukaera *legi* ezezaguna da, *Irulegi*-n eta *Ustelegi*-n (burdin meatzea da hau) dugun hera. Zernahi dela, horren oinarrian-edo *leg* ‘coupure, passage, fente’ datekeela ere badio (ibid., 351).

Mitzelenak erraten du (AV, 148. 194) oinarrian *be(h)or* dugula eta atzizkia *egi* leku atzizkiaren aldaera datekeen *legi* dela, Aranguren iharreko *Irurlegi* herri hustuaren izenean edo Iruñeko *Laturlegi*-n dugun bera. **Lafonek** (1954: 250) Nafarroako *Ealegui* “petite agglomération au nord de

Pampelune” aipatzen du eta dio *Ea*-n oinarritua dagoela eta atzizkia *Behorlegi*-n dugun bera dela. Hondarreko izen honetan *behor* ‘jument’ dago aipatu autorearen arabera, eta, irudi duenez –egileak ez du garbiro erra- ten-, *-egi* tokizko atzizkia. Ikertzaile honen iritzian tarteko *-l-* hori ez da argia.

Lemoinek (1977: 190-191) *behor* eta *-legi*, *-tegi* ‘abri’ dakuski izen hone- tan; *behor-tegi* ‘parc à cavales’ ere aipatzen du. Txarrena da gero *behor* hitza latineko *equa*-rekin lotu nahi duela, «en admetant un B initial et un r final euphoniques». **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 67) lehen osagaia iluna dela diote eta menturaz euskarazko *behor* datekeela; bukaerako *-gui* eus- kal atzizki lekuzkoa da autore hauen ustean. Ez dute, halarik ere, tarteko *-le-* hori zer den zehazten.

Orpustanek (1990: 113-114, 1999: 60) ere *behor* dakusa *Behorlegi*-ren lehen elementutzat; bigarren osagaia herriaren kokalekuari erreferentzia egiten dion *-(h)egi* ‘bord, crête, sommet’ da ortzaiztarraren iritzian, *Behorlegi Mendibe*-ri kontrajartzen diona. Nolanahi ere, badirudi *(h)egi* hori *-egi*-rekin (gero *-tegi* bilakatu zenarekin) berdintzen duela, haren ustez ‘berokia’, ‘babeslekua’ («abri») duen atzizkiarekin, alegia. Ildo honetatik, ez du baztertzen *Behorlegi*-ren jatorrizko adiera ‘behor berokia, behor babesle- kua’ izan zitekeelakoa. Bigarren osagaiaren *-l-* loturazko fonema dela uste du, trantsiziokoa, toponimian arraroa dena, *Alçailegui*, *Ansalegui*, *Liçarlain*... bezalako ugalde izenetan azaltzen bada ere.

Beranduagoko beste lan batean (1999: 97) zalantza egon daitekeela dio, *hegi* ‘crête’, ‘sommet’ nahiz *-(h)egi* izan dezakegulako. Alderdi honetatik Nafarroa Garaiko *Beartegi* toponimoa Nafarroa Behereko *Behorlegi*-rekin aldera daitekeela uste du.

Buztintze / Bustince

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1963: 37-38): *Buztinz* (1513), *Bustince* (1621), *Bustince* (1686), *Bustinze* (1703). Autore honek dio *Iriberry*-rekin batu zenez geroztik *Bustince-Iriberry* dela.

Goihenetze (1966: 128): *Bustinz* (1388).

Carrasco (1973): *Buiztinz* (1366, 672. or.).

Lemoine (1977: 192): *Bustinz* (1513), *Bustince* (1621, 1686, 1703).

Orpustan (1990: 112): *buztintz* (1307), *buztinçe* (1350), *butztintz* (1366).

Zierbide (1993): *Buztinçe* (1350-1353, 51. or.), *Buztince* (ibid., 72. or.), *Buztinze* (1412-1413, 95. or.).

Ruiz (1997): *Per Arnault de Buztince* (1358, 172, 207. or.).

Euskal Testuak:

- "Guhaurek ezagutu ditugu Lamarque kalonje olerkari baionesa, Mañex Etchamendy **Buztintzekoa**", Lafitte (1972: 23).
- "Ez du Zubietako debruak gure ama maiteaz burlatu behar, bertze orduz **Buztintzeko** aztia Pelo Xoriburuz burlatu zen bezala", Barbier (1987: 128).
- "Pelo ere joan zen, etxeko oilo guziak, xitoak barne, hiltzen ari zitzaizkola, zerbeit sendagailu beharrez **Buztintzeko** aztiaren ganik", Barbier (1987: 129).
- "Gau-erdiarik sei orenak artean, **Buztintzetik** Oilarburura joaiteko astia izan baitzuen sorginak oilo eta oilarraren ebastera (...)", Barbier (1987: 129).
- "Hoik oro, **Buztintzen!** Ez goaza gu **Buztintzera**, bainan bai Zubietara!", Barbier (1987: 129).
- "Bertzeak bertze, huna nola haren ilobaso Mañex Etchamendy **Bustintzekoak** ber-tsutan goretsi zuen 1956eko urtarilaren (sic) 26an (...)", Lafitte (1990: 260).
- "...**Buztintzeko** ordokian harat, jendea soroetan ari eta bazter horiek guziak nolakoak ziren xoratua", Larre (2001: 139).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Buztince* dakar eta **Hatanek** (1895: 14) *Bustinze*, gero *bustin-tze* zatitzen badu ere; **Azkuek** (1905: XXIX) *Bustinze-Iriberry*

du. **Lhandek** *Bustinze-Iriberry* (sic, 1926: XXXVI) jasotzen du lehenik, baina lan berean, aitzinago (192), *Bustintze-Iriberry* ematen du eta herri-tarren izentzat *iriberriarr* "habitant de B.I.". **Dassancek** (1966: 162) eta **Orpustanek** (1990: 112) euskaraz *Buztintze* dela erraten dute; herritarren izena *buztintziar* da lehenaren arabera eta *Buztintziarr* bigarrenaren arabera.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Buztintze-Iriberry* proposatu zituen frantseseko *Bustince-Iriberry*-ren euskarazko baliokidetzat eta *buztintziar-iribertar* herritarren izentzat.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Buztintze* eta *buztintze*ar hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

J. L. Lizundiak *buztintziar*, *buztintzar* bildu zituen **E. Larre** euskaltzainaren abotik, baina ziurtasun handirik gabe. **E. Etxarren** jauna ere zalantzan ibili zen gentilizioa ematerakoan; ez, ordea, herriaren izena zein den erraterakoan: *Buztintze*, *hèrri bèra dá Buztintze Iribèrri*, *Búztintzè-Iribèrri*, *Buztintze-Iriberrin*, *Buztintzeat*, *Ni Buztintzeko niz*, *Buztintzetik* *Dónazaárreát*, *buztintzjarrà*, *buztintzjarrák*, *buztintzarrák*.

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 14) *bustin-tze* aztertzen du izena, ikusi moduan, eta 'lur buztintsuko lekua' adiera ematen. **Mitxelena**ren irudituan (AV, 178, 570) oinarrian *buztina* dago eta atzizkia *-za*-ren baliokidea den *-tz(e)* da, baina «ez da ongi ikusten *-za*, *-za(h)a* eta *-tze* atzizki beraren aldaerak diren edo etorki bana duten atzizkiak».

Lemoinek (1977: 192) *bustin*, *buztin*-en eratorritako hartzen du, *Bussunarits* bezala; *-tze* bukaera atzizki multzokaria dela uste du. **Dauzat & Rostaingek** (1983 |1963|: 126) toponimoan *buztin* izena eta *-(t)ze* atzizki lokatiboa ditugula erraten dute, Gaveli jarraikiz. **Orpustanek** (1990: 112) *buztina* dakusa lehen osagaitako eta *-tz* atzizki ngaritasunezkoa bigarrentako; amaierako *-e*-z ez du deus erraten, beharbada ematen dituen 1307ko *butintz*-en eta 1366ko *butztintz*-en oinarritzen delako.

Donazarre / Saint-Jean-le-Vieux

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Castro (1958): *Sant Johan el Vieio* (1413, XXX, 578. 281. or.).

Carrasco (1973): *Sent Johan lo Vieyl* (1366, 675. or.).

Zierbide (1993): *Sant Johan el Vieylo* (1350-1353, 53. or.), *Sent Miqueu lo Bieyll* (1412-1413, 107. or.).

Carrasco (1999-1): *En Sant Johan lo Vieyll* (1259, 104. or.), *En Sant Johan le Viell* (1266, 219. or.), *Dels molins de Sant Johan lo Vieyll*, 13 kafices (1266, 352. or.), *En Sanct Johan lo Vieyll* (1266, 356. or.).

Euskal Testuak:

– “Jakintsun, kalonje handi, orai badik ohore! / Aise dituk ahantziak, Cambo, **Donazarre**”, Ch. Bécas (Lafitte & Barbier, 1967: 144).

– “Atzo yakin dut Belloquen chaz nik erreplazatu nien istudiant-professora hil dela Verdunen. Jan-Pierre Muchikorekin yoana zen soldado, **Dona zaharreko zen**”, Orpustan (2002d: 259).

– “Egun zortziko berantegi jakinik, laburzki baizik ezin eman dugu Louis Etcheverry, **Donazarreko seme**, auzapez eta ongi-egile handi zena-ren hil berria”, J. Hiriart-Urruti (1971: 156).

– “Agorrilaren leheneko arratsean, larunbatetik iganderako gau erditsutan, gerlarat orotako lehen zoazilarik Doniane Garazirat buruz **Donazarren barna** (...)”, J. Hiriart-Urruti (1995: 169).

– “Zenbat yauregi diren oraino xutik Benabarra maithagarri hortan, lehengo denboretako Nafarroaren haunditasunaren lekukotasunak! Baigorri, **Donazarren**, Buzunaitzen, Garron, Laxharren, Donaphaleun, eta beste leku anitzetan”, Zubiri (1990: 156).

– “Bazter guziak etxe eta etxez betheak, lau edo bost herrixka agerian, Izpura, **Donazarre**, Azkarate, Uharte, Lasa eta beren eliza dorre xuri eta xorrotzak zerurat goititzen zirenak”, Zubiri (1990: 240).

“Egun hortan etortzen dira mendiz bertze aldekoak, Benafarroakoak, Doniane Garazikoak, Arnegikoak, Lasa, Ehiaralarre, Izpura, Aintzile, **Donazarre**, eta beste anitz, Luzaidekoak ahantzi gabe, erregebidez”, Zubiri (1990: 312).

– “Yuan den astian ukhan ginuen Luzaideko elizan **Donazarreko** (Saint - Jean le Vieux) bi gazteen ezkontza. Ezkongaiak benedikatu

zituen **Donazaharreko** yaun erretorak (...). **Donazarretik** Arnegiko zubiraino (...)", Zubiri (1990: 389).

- "...eta hirazka Arnegiraino, eta han beribilak harturik **Donazarretat** eztei othuruntza egiterat", Zubiri (1990: 389).
- "**Donazaharre** Garaziko herri eskualdunetarik da (...)", Zubiri (1990: 389).
- "*Jakintsun, kalonje handi, orai badik ohore! / Aise dituk ahantziak, Cambo, Donazaharre*", Barbier & Lafitte (1967: 144).
- "*Zer heroa! Erre nahi zuen Donazaharreko bidean*", Barbier (1987: 117).
- "*Zer boz ozena duen hatik egun Ellandek!... Donazaharrera* heltzean bizkitartean, unhatzen ere hasia (...)", Barbier (1987: 120).
- "*Madalena eta Harrieta ez dire herri: Donazaharreko kartier batzu dire orai*", Dassance (1966: 163).
- "*Haatik hura etzen lagunekin pinta erdiaren edaten gelditzen. Ez Izpuran, ez eta Donazarren*", Etxebarne (1989: 34).
- "*Madalenen gairi, Donazarren, Lakarran eta Monjolosen gairi, Lartabale eta Donaixtin barna (...)*", Barbier (1987: 225).
- "**Donazarren** Salha deitu jauregia salgei gertaturik, erosi zuen eta han bildu zen", Lafitte (1990: 225).
- "*Hil zen girixtinoki, 1907-ko urriaren 15-ean, 54 urtetan, Donazaharreko auzapez zelarik*", Lafitte (1990: 225).
- "*Hirugarren lagun bat bildu nuen, ni irudikoetan, Peio eta Leonen gainerat, bigarren urtekotz Uztaritzen, donazahartarra, Eñaut Elizondo, Zabaltza Sokarrokoa*", Larre (2001: 120).
- "...Senpereko herria, Luhuso, **Donazaharreko** kominione ttipia (...)", Larre (2001: 263).
- "*Orduko «Eskualduna» Baionako astekariak zabaldu zuen Luis Etcheverry, donazahartar deputatuaren deia karia horretara*", Aintziburu & Etxarren (2002: 83).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) **Donazaharre** jasotzen du, **Raymond**ek (1863: 149) **Don-Iban-Zahar** eta **Hatanek** (1895: 14) **Dona-çaharre**. **Azkuek** (*Las mil y una...*, 37, 41. orr.), **Lhandek** (1926: XXXVI, 212), **Dassancek** (1966: 163) eta **Orpustanek** (1990: 119-120) **Donazaharre** biltzen dute,

Lemoinek (1977: 256, 263) *Don Iban Zahar, Don Ibane Zahar*. Herritarren izena *donazartarr* (**Lhande**), *donazahartar* (**Dassance**), *Donazahartarr* (**Orpustan**) da.

Ahoz bildutako formak:

Dönazahárre (**A. Kaminondo**), *Dönazahárre, Donàzahárre, Dönazaárre, Donazárre, Dönazahárretik asté, Dönazaárretik lánda, Dönazaárren, Dönazahárreko kartjérrak, Dönazaárreko, Aintziletik Dönazaárreàt, Buztíntzetik Dönazaárreàt, dónazahártarrák* (**E. Etxarren**).

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 103) *Donazaharre* eta *donazahartar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Donazaharre* eta *donazahartar* hobetsi ditu.

Etimologia azalpenak eta oharrak:

Hatanek (1895: 14) berak biltzen duen *Dona-çaharre*-ren azpian *Dona* (*Joane*) *çahar* dagoela dio, hots, 'doue Joanes zaharra'; euskaraz 'jaun zaharra' erraten dela zehazten du eta *Joanes* ulertutzat ematen dela. **Orpustanek** (ibid., 121), irudi duenez **Raymond**i eta **Hatani** jarraikiz, *Donazaharre* **Donibane-zaharr*-en laburtzearen ondore dela erraten du eta honen lehen osagaia, bere aldetik, **jaun-doni-johane*-rena. **Aintziburu & Etxarren**en arabera ere (2002: 90) *Donazaharre Donibane Zaharre*-tik atera da.

Orpustanen bigarreu ideiak, *Donibane*-ren oinarrian **jaun-doni-johane* dugulakoak, oztopo larria du gainditu beharra, hain zuzen ere Garaziko herriaren izeuak, dakigun neurrian, ez baitu inoiz *jaun*-ik izan aitzinean. **F. Idoatek** (1969: 290) orain hogeita hamabost urte argitara emandako 1415eko Matxin Zalbakoren eta Martin San Martingoren arteko gutunean "Et[a] jaquiçu done Johane garacicoec dute[lal] gracia..." dugu, hots, aposizioirik edo *praenomen*-ik gabeko aldaera. Gai honetaz ari dela honela dio **Irigoienek** (1992-b: 204):

"...zeren, itxura guztien araura, euskaraz toponymian agertzen diren *Donibane, Donostia, Doneztebe*, eta abar, oso zaharrak baitira, *San Juan / Saint-Jean, San Sebastián, Santesteban*, eta abar, formak gure artean erdaraz finka zitezen baino zaharragoak, eta agian geminatu semantiko-ko *praenomen*-a daramatenak baino ere bai, hau da, *Jaun + done*

daramatenak baino zaharragoak. Gertatzen dena da neurri handi baten, konparazio baterako, *Donibane* toponymian batez ere agertzen den denbora berean euskaldunek sailduari *Iondone Ioannes* (Axular), *landoneanez* (Betolatza 1596, Kapanaga 1656, VJ, XVIII mendea) deitu izan diotela”.

Hortaz, *Donazarre*-ren azpian *Done Johane zahar* edo *Done Joane zahar* –*Johane*-ren tarteko <h> hori kontu grafiko hutsa izan daiteke– ikusi beharko dugu, izatekotz. Nolanahi ere, eta bestelako frogarik ez dagoen bitartean, seguruago iruditzen zaigu oinarrian *done zahar* edo *Done zahar* besterik ez dagoela kontu egitea.

Bestalde, eta segurua ez bada ere, baliteke Nafarroa Garaiko *Donazar* deitura Nafarroa Behereko *Saint-Jean-le-Vieux*-en euskarazko izenetik aterata izatea.

Donibane Garazi / Saint-Jean-Pied-de-Port

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 149): *Sancti-Johannis* (c. 1168), *Sanctus Johannes-de-Cisera* (XII. m.), *Sanctus-Johannes-sub-Pede-Portus* (1234), *San-Juan-del-Pie-de-Puertos* (1253), *Sant-Johan-deu-Pe-deu-Port* (1268), *Sant-Johan-del-Pie-de-Puerto* (1274), *Sant-Johan*, *Sant-Johans* (c. 1277), *Sanctus-Johannes-de-Pede-Portus* (1302), *Saint-Jean-du-Pied-des-Ports*, *Saint-Jean-du-Pied-pres-des-Ports*, *Jean-Pied-de-Port* (1794).

Goihenetxe (1966: 317): *Sancti Johannis de Cisera* (1150, 1170), *Sanctus Johannis sub pede portus* (1234), *Sant Johan do Pe de Puertos* (1249), *Sant Johan del Pie de Puertos* (1253), *Sant Johan deu Pe deu Port* (1268), *Sant Johan* (1294), *Sant Johan dou peu dou port* (1305), *Sent Johan dou Pey dou Port* (1319), *Sent Johan do Pe do Port* (1351), *Sen Yohan*, *Sen Johan* (1351), *Sant Johan del Pie del Puerto* (1368, 1774), *Saint Jehan de Pe des Portz* (1417).

Gartzia Larrageta (1976-77): *Johan de Ysarn*, *castellan de Sent Johan* (1305, 133, 590. or.).

Ostolatza (1978): *apud Sanctum Iohanem de Cisa: don [Peite Artus] de Sancto Johane*; *Sancho Ossociç de Sancto Iohanne* (1213, 37, 123. or. Donibane Garazi?), *apud Sanctum Iohanem de Pede Portus* (1253, 151, 227. or.), *Guillelmo d'Argaua de sancto Johane de pede Portus* (1273. 250, 330. or.).

Orpustan (1990): *sanctum johannem de pede portus* (1249), *sant johan del pie del puerto* (1350).

Zierbide & Santano (1990): *Martin d'Ivarrole, peager de la bieie de Sent Johan dou Pe dou Port* (1361, 22, 64. or.), *Feyte a Sent Johan dou Pe dou Port* (1367, 55, 86. or.), *en la bieie de Sant Johan dou Pe dou Port; bezins de la dite bieie de Sent Johan* (1373, 66, 95. or.), *a los jurados et conceyllo de nostra villa de Sant Johan de Pie del Puerto* (1376, 70, 98. or.), *Per Arnaut de Sent Martin, bezin de Sent Johan* (1378, 84, 109. or.), *au castet de Sent Johan deu Pee deus Portz* (1379, 144, 146. or.).

Zierbide (1993): *Sant Johan del Pie del Puerto* (1350-1353, 49. or.).

Zierbide & Santano (1995): *la dite hielle de Sent Johan dou Pe dou Port* (1385, 203, 29. or.), *Ço fo feit en la bieie de Sent Johan dou Pe dou Port* (1387, 219, 43. or.), *Miguel de Sant Johan del Pie del Puerto, notario* (1393, 249, 73. or.), *Bernat d'Arrantegui, porter, bezin de Sent Johan* (1395, 265, 95. or.), *Ço fo feit en le bieithe de Sent Johan de Pee deus Portz* (1395, 274, 101-102. orr.), *nuestra billa de Sant Johan del Piet (sic) del Puerto* (1421, 326, 155. or.), *Johan Ruyz d'Ochagabi, cabaler, castelan de Sent Johan do*

Pe do Port en lo merintat de Garris (1372, 354, 200. or.), *Johan Ruyz d'Ayvar, castelan de Sant Johan* (1372, 354, 201. or.), *Sant Joan deu Pe deu Port, Sant Joan del Pie del Puerto, la dicha bila de Sant Joan* (1406, 354, 208 eta 209. orr.).

Zabaltza (1995): *Sant Iohan de Pie de Puertos* (c. 1308, 257, 244. or.).

Barragán (1997): *Senti Iohan de Pie del Puerto* (1337, 114, 195. or.), *Sant Johan de Pie del Puerto* (1329, 44, 67. or.), *Sent Iohan de Pe de Port* (1329, 51, 77. or.; 1329, 52, 85. or.), *Saint Iohan du Pie de Pors* (1340, 135, 234. or.), *Sancti Iohanis de Pede Portus* (1329, 50, 76. or.; 1341, 142, 247. or.), *Sancti Iohanis de Pede Portum* (1342, 148, 257. or.).

Zabaltza (1997): *conceyo de San Iohan del Pie del Puerto* (1276, 15, 27. or.), *Sant Iohan del Pie del Puerto* (1277, 64, 78. or.; 1291, 131, 192. or.; 1293, 141, 207. or.; 1319, 292, 502. or.), *Sancti Iohannis de Pede Portus* (1294, 145, 213. or.), *Sant Iohan de Pie del Puerto* (1298, 157, 238. or.; 1317, 267, 460. or.; 1321, 316, 537. or.), *dompno Egidio d'Ayeta, uicino Sancti Iohannis de Pede Portus* (1303, 178, 286. or.), *Sent Iohan, Sent Iohan de Pe do Port* (1305, 184, 331-332. orr.).

Ruiz (1997): *Sancto Iohane de Pe de Portus* (1350, 3, 4. or.), *en la nuestra vylla de Sant Iohan de Pie del Puerto en el barrio clamado de Sant Miguel* (1351, 88, 116. or.).

Carrasco (1999-1): *Dels molins de Sant Johan* (1259, 101. or., 1266, 352. or.), *Castel de Sant Iohan* (1259, 102. or.), *A 4 omes de Sant [...] del Pie de Portz* (1259, 136. or.), *Per liurazon del omes de pie que estauan en Vilanoua et en Ostuuuyles et en Mongelos et en Sant Johan et en Arbeloa. 599 kafices, 3 arrobas, 2 quartales* (1266, 355. or.).

Euskal Testuak:

"Etla! jaquicu done Johane garacicoec dutefla! gracia...", 1415. F. Idoate (1969: 290).

- *"Done Juane Garaci"* (Pouvreau; Agud & Mitxelena, 1958: 12).

- *"Mauleric Donaioanera sei lecuu Orriagara - lau Trinitatera - sei"*, J. Haritzelharrek argitaratu eta A. Irigaraik bildutako XVIII. mendeko Zuberoako testua (1971: 54-55).

- *"Zazpigarren mendea hamasei urthetan. / Garcis erreguetzean eskalherrietan; / Donibane Garacic ala Nafarroac, / Biec nahi ohore emana khoroc"*, Hiribarren (1853: 51).

- *"Paispuntac donibanetic paqueta bat"*, (Luzaideko arotzaren kontu liburua, 1879; Satrustegi, 1969:170).

- "*Pantalon pare bat bi atorra **donibanetik***", (Luzaideko arotzaren kontu liburua, 1881; Satrustegi, 1969:184).
*"Erraten dute oraino, **Donibaneko** karrosak urdain bati lehertu diola urderik ederrena"*, Duvoisin (1987 [1884-1885]: 76).
- "*Baygorriko hegalian, / Ez urrun **Donibanetik** (...)*", J. Etxamendi "Bordel" (Satrustegi, 1965: 93).
- "*Jaun Belzagy **Doniane-Garaziko** aphez-nausiaren baimena*", Arbelbide (1890: XI).
*"**Doniane-Garazin**, martxoaren 25an, 1890an"*, Arbelbide (1890: XI).
- "*Bi gizon gazte, biak **garaztarrak**. bazoazin **Doniane-garazitik** Urruñara, pilota partida baten ikhusteko ariaz*", Arbelbide (1890: 13).
- "*...ez nahiz **Donibaneko** konkurra huts egin*", J. Hiriart-Urruti (1971: 159).
- "*Hilabete hunen hamarrean, etzi zortzi, **Doniane-Garazin** pesta baten egitera doazi **Eskual-Herriko** ta inguruetako framazonak*", J. Hiriart-Urruti (1971: 171).
- "***Donianen** sortua zen, bainan ez delarik hain aspaldi hila, nor ote da **Donianen** orroit (...)?*", J. Hiriart-Urruti (1971: 172).
- "*Bainan hauk ere ez **Doniane Garazin**. Aipatzen ere ez zuen **Donianen** sortuu zelakorik (...)*". J. Hiriart-Urruti (1971: 172).
- "*Agorrilaren leheneko arratsean, larunbatetik iganderako gau erditsutan, gerlarat orotako lehen zoazilarik **Doniane Garazirat** buruz **Donazaharren** barna (...)*", J. Hiriart-Urruti (1995: 169).
*"Luhusoko haran gixenak apur bat lilluraturik: jakinaren oldez eskuin gira motz-zeiharkatu, **Doniane-Garazirat** buruz"*, J. Etxepare (1987 [1931], 37).
- "*Bainan **Donianeko** zelai ederraren ikustea begiak zurituak igurikitu ondoan (...)*", J. Etxepare (1987 [1931], 43).
- "*Bihurtzen nitzaie bizi-bizia. Diotet **Doniane-Garaziz** gozatu nahi duenak ez duela (...)*", J. Etxepare (1987 [1931], 43).
- "***Donianeko** merkatian*", Zubiri (1990: 32).
*"**Donianeat**"*, Zubiri (1990: 32).
- "*Gaxura, **Doniane Garazirat** heldu bezain sarri yartzen da egarritua*", Zubiri (1990: 32).
- "*Ehiaralarre (frantsesez Saint Michel), **Doniane Garazitik** hiru kilometra urrundua da (...)*", Zubiri (1990: 104).

- "Detxepare (edo berak eskualdunki erraiten duen bezala Etxeparekoak) ageri da **Doniane Garaziko** khasik auzokoa dela", Zubiri (1990: 106).
- "Baxenabartar yakhintsu hau **Doniane Garazin** sorthua zen 1530-an", Zubiri (1990: 108).
- "Duque de Alba. Espainiako gudularien buruzagia ibili zen ere eremu hetan, Garaziko aldean, eta **Donianen** eta **Monyolosen** (...)", Zubiri (1990: 155).
- "Pello, Zaroko zapataina, bazoan **Donianeko** goiz-mezarat, bere boneta begietaraino sartua, zapatez mukurru alphotzak", Barbier (1987: 75).
- "...**Donianeko** ihiztari batek aintzineko astean huts egin erbi bat", Barbier (1987: 75).
- "Erran eguneko, seiak eta erdietan tank, hantxet zen Piarres, **Doniane Garaziko** garan", Barbier (1987: 92).
- "Batixtak hain nahiagoko zukeen bere moltsarekin, bakar bakarrik sartu Frantzian, **Donibane Garaziko** karrikan, Manjelainean", Barbier (1987: 185).
- "Oihenartek dio, hamaseigarren mende erditsutan Etchegaray delako batek **Donibane Garazin** Artzain Gorria agerrerazi zuela", Lafitte (1990: 45).
- "Ez zabilan jendetzeari ihesi: **Donibane**ko merkatua ez zuen deusetan huts eginen", Lafitte (1990: 258).
- "Anita Ferran operatia uxu **Donianeko** Fundazionian apendizetik; polliki omen duxu", Luzaideko gutun argitaragabeak.
- "Baionatik zortzitan partitu eta **Donianen** bederatzitako", Luzaideko gutun argitaragabeak.
- "Irakoitzian, 24an, izan ginen oseba Manex Haurra eta ni, hamarrak eterditako mezan **Donibanen**, mundia hantzen bainan atzeman gintin jarrik egoiteko lekiak; gauerditako kanpuan ginen", Uharte Garaziko gutun argitaragabeak.
- "Hehekin (sic) izan duxu astelehen batez ostatian bazkaiten eta ondotik pilota partidari **Donibanen**", Uharte Garaziko gutun argitaragabeak.
- "**Donibane Garazi** hor naukan beste alderat, Baigorriren ouzo herrietan gotorrena eta hemen beti **Donibane** deituko duguna egundainotik egin dugun bezala", Larre (2001: 88).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Salaberri Ibarrolakoak (1856: 44) *Doni Yoane* dakar, *Dona Phaleu* 'Saint-Palais'-en ondotik eta *Don Pedro* 'Saint-Pierre'-ren aitzinetik, baina

ez dakigu Garaziko hiriburuaz ari denez. **Raymond**ek (1863: 149) *Don-Iban-Garaci* jasotzen du, **Hatan**ek (1895:14) *Dona Jouane*, **Azkue** (1905: XXIX; *Las mil y una...*, 29, 41) *Donibane-Garazi*, *Donibane Garazi* eta **Lacomb**ek (1911-17: 17, 29) *Doniane Garazi*, *Doniane* (“Valcarlos xuka ari dira (sic) Doniane Garazin bezala”, “Xuka ardi (sic) dira Donianen”). **Lhande** (1926: 211, 212) *Donajuane*, *Donibane-Garazi* dakartza, **Dassance** (1966: 163) *Donibane-Garazi*, **Goihenetxe** (1966: 317) *Donibane Garazi* eta **Barandiaran**ek (1974: 79) *Donibane-garazi*. **Lemoine** (1977: 193) dio *Donibane Saint Jean-en* euskal izena dela (1977: 193), zeinez ari den zehaztu gabe, ordea; aitzinago (ibid., 256) *Don Iban Garazi* dakar. **Orpustan**ek (1990: 123), azkenik, *Donibane-Garazi* du.

Herritarren izena, pluralean, *Donabartarrak* da **E. Zubiriren** arabera (290), baina uste dugu badela tartean huts zenbait; **Lhande** *donajuane-tarr* du, **Dassance** eta **Barbierre** (1987: 77, 185, 187, 201, 227) *doniandar*, **Lafitte** *Donibane-Garaztarra* (Hiriart-Urruti, 1971: 171) eta **Orpustan**ek *Donibandarr*.

Euskaltzaindiaren lehenengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 103) *Donibane-Garazi* eta *doniandar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Donibane Garazi* eta *donibandarr*, *donibane-garaztar* hobetsi ditu. Bigarren gentilizioa Garazikoak Euskal Herriko beste *donibandarr* batzuetatik bereizteko erabil daiteke.

Ahoz bildutako formak:

Luzaiden *Donjane* erraten da; herritarren izena *dönjandár* da hemen (Kamino & Salaberri, 2001: 70). **E. Etxarren**engandik forma hauek bildu genituen: *Donjane Garázi*, *Donjánen*, *Donjáneko etxé bát*, *Donjánetik Uárterà*, *Izpúratik Donjaneát*, *donjándarrà*, *donjánegaráztarra*.

Etimologia azalpenak:

Hstanek (1895: 14) *Dona Johane* zatitzen du herri honen euskarazko izena eta ‘Jaun Joanes’, ‘Joan sautua’ –parrokiak duen zaindariaren izena– adiera ematen dio. **Lemoine** (1977: 193) *Donibane*-reu oinarrian *done*, *dona* ‘saint’ dagoela, baina ez du zehazten bukaera zer den. **Orpustan**ek izen honetaz pentsatzen duena jakiteko ikus *Donazaharre* sarrera. **Irigoiene** (1986: 150 eta 251, 1990: 10) *Done*-dun toponimoak *Saint* dutenak baino zaharragoak direla azaltzen du.

Duzunaritze / Bussunarits

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 37): *Buzunariz* (1513), *Buçunariz* (1621), *Busunarits* (1665), *Buznaritz* (sic) (1703). Autore honek dioenez herriaren izena *Bussunarits-Sarrasquette* da biak 1841ean batu zirenez geroztik.

Goihenetxe (1966: 126-127): *Bucinaritz* (1189, 1334), *Buçunariz* (1293-1294, 1497), *Butçunaritz* (1328), *Butçunariz* (1328), *Buçunaritz* (1358, 1388), *Buncuaritz* (1364), *Buccunaritz* (1364).

Carrasco (1973): *Buçungritz* (1366, 672. or. Hemen dudarik gabe *Buçunaritz*-en irakurketa ustel baten aitzinean gara), *Buçunaritz*, *Buçunariz* (ibid., 677 eta 681. orr., hurrenez hurren).

Lemoiue (1977: 192): *Buzunaritz* (1513), *Buçunaritz* (1621), *Busunaritz* (1665), *Busnaritz* (1703).

Orpustan (1990: 113): *buçunariz* (1264, 1291, 1309), *bucinariz* (1304).

Zierbide (1993): *Buçunariz* (1350-1353, 59. or.), *Bucunaritz* (1410-1412, 100. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Bucunaritz* (1415, 319, 146. or.).

Zierbide & Ramos (1997): *Pero Periz de Bucunariz* (1440, III.18, 92. or.).

Carrasco (1999-1): *En Buçunariç* (1266, 219. or.), *Arnalt de Buçunariz* (1266, 223. or.).

Euskal Testuak:

– “Zenbat yauregi diren oraino xutik Benabarra maithagarri hortan, lehengo denboretako Nafarroaren haunditasunaren lekhukotasunak! Baigorriin, Donazarren, **Buzunaitzen**, Garron, Lakharren. Donaphaleun, eta beste leku anitzetan”, Zubiri (1990: 156).

– “Aitak berak irakatsi zion makila hartaz baliatzen. Frantxoa zenak, **Duzunaitzeko** erretor sailduak ez ziozkan hiru mixterio printzipalak buruan oraino sarrarazten ahal”, Barbier (1987: 231).

– “Garazin badugu kasik sortu berri. Donianetik hamar kilometretan, **Duzunaritze-n, ETXARTIA**”, Otoizlari, 1985 (EEBS).

– “Ez haundien partea, hau Xemartin Pebet **duzunariztar** apez pilotari bipilaren eskuetan ezarria baitzen (...)”, Larre (2001: 140)

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek *Buzunaitze* dakar, **Hatanek** (1895: 14) *Bussunaritz* eta **Azkuek** (1905: XXIX) *Buzunaritze*⁴. **Lhandek** euskaraz *Buzunaritze-Sarrasketa* dela erraten du (1926: XXXVI); lan berean, aurrerago (193. or.), *Bussunaritz* (of.) / *Buzunaritze* (eusk.) aipatzen du herriaren izentzat. **Caro Barojak** - **Hariztoik** (1945: 110) *Buzunaritze* dute⁵, **Dassancek** (1966: 162) *Duzunaritze* eta **Goihenetzek** (1966: 126) *Busunaritze*. **Lemoinek** dio (1977: 192) euskaraz *Busunaritze* erraten dela; **Orpustanen** arabera (1990: 113) *Buzunaritze* edo *Duzunaritze* da.

Herritarren izentako **Lhandek** *buzunariztarr* jasotzen du, **Dassancek** *duzunariztar* eta **Orpustanek** *Duzunariztarr*.

Ahoz bildutako formak:

Duzunáitze, Duzúnaitzè, Duzunáitze Sahásketà órirè Garáziko dá, bagatzi Dúzunaitzeát, Duzunáitzeát, Duzundítzetik, duzunáiztarrák (E. Etxarren).

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Duzunaritze-Sarrasketa* eta *duzunariztar-sarasketar* (sic) proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Duzunaritze* eta *duzunariztar* hobetsi ditu.

Etimologia azalpenak eta oharrak:

Hatanek dio (1895: 14) toponimoaren adiera 'makal zuria', 'makal zuriak dauden tokia' dela, izan ere zuhaitz horretarik ausarkian baitago herrian, gazteluaren inguruan partikulazki. **Caro Barojak** (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Buzunaritze* biltzen du, ikusi bezala, eta erraten hau latineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atzizkia duten Hegoaldeko herri izenekin erlazonaturik dagoela.

Lemoinek (1977: 192) *bustin*, *buztin*-en eratorritzat jotzen du, eta hau goi-aleman zaharreko *buzzi* 'lohia'-rekin lotzen. Tarteko dardarkaria eufo-

4. Autore honek berak *Busunaritz* dakar bere *Las mil y una cancones...* 34, 40. orr.

5. Bibliografian ageri den Caro Barojaren urte horretako lanean biltzen da datua. Berako ikertzaileak dienez, Iparraldeko herrien euskarazko aldaerak Hariztoi abadearen lanetik hartuak dira.

nikoa dela dio eta bukaeran *-tze* atzizki multzokaria dagoela. **Dauzat & Rostaingen** irudiko (1983 [1963]: 125) izen honek segur aski 'makaldia', 'txipudia' adierazten du; osagaiak *buzun-* (hain segur ere *buzuntz-* 'makala' dendronimoaren erroa) eta leku balioa duen *aritz(e)* atzizkia (< *-ari*, gaskoi etorkikoa, eta *-tze*) dira.

Orpustanek (1990: 113) *Duzunaritze* aldaeraren horzkaria berria dela erraten du, eta segur aski bertakoei zor zaiela, toponimoak tokiaren gainean «lasterrago erabiltzen direlako». Ortzaitar irakaslearen ustean bi fitonimo ditugu izen honetan: *buzun* (sic) edo *buzuntz* lehenik (*buzun(tz)* 'peuplier tremble', 1999: 314), non *-tz* multzokaria baita, eta *haritz* gero. Adiera 'lertxunen haritzak edo haritzia' da autore honen iritzian.

Nafarroa Garaian *Buzunáriz* deitura dugu, bai eta honekin loturik dagokeen *Usunáriz* ere. Hau Manezaundik ikusia zuen, 1934an (Zubiri, 156). *Butçunaritz* (1328), *Butçunariz* (1328) aldaerak *butzu* ikustearen alde mintzo direla dirudi (Luzaiden *pützu* erraten da egun, hala ere), baina gaskoiz izkiriaturtako agirietan edo hizkuntza honek eragindakoetan, zenbait aldiz, <tz> itxuraz ez dagokion tokian ere kausitzen dugu. Cf. *Vitzcay lo mayor*, *Vitzcay lo menor* (Zaro, 1366; LPN, 678), *Ytzturitz* (ibid., 680), *Ytzturiz* (ibid., 682).

Eiheralarre / Saint-Michel-le-Vieux

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863): *San-Miguel-el-Viejo en Ultra Puertos* (1500). *Sant-Miguel* (1513).

Castro (1958): *Michelco de San Miguel el viejo* (1413, XXX, 76. 39. or.).

Goihenetxe (1966: 157-161): *Sancti Michaelis* (XII. m., 1189, 1243, 1334), *Sancto Michaelae* (XII. m., 1189, 1334), *Sancti Michaelis Veteris* (1251, 1253, 1285, 1334), *Sant Miguel le Vieill* (1350), *Sant Miguel el Biello* (1361), *Sant Miguel el Vieio* (1364), *Sent Miqueu lo Bieyl* (1378), *Sant Miqueu lo Vieyll* (1388), *Sant Miguel* (1389), *Sent Miqueu lo Bieylh* (1393), *Menaut de Saint Miqueu* (1393), *Sent Miqueu lou Bieyls* (1422).

Carrasco (1973): *Sen Miguel lo Vieyl* (1366, 677. or.).

Ostolatza (1978): *Sancho Ossoaiç de Sancto Michaelae* (1213, 37, 123. or.), *et ecclesiam Sancte Marie Magdalene Sancti Michaelis Veteris* (1251, 139, 217. or.), *Sant Miguel de Cixa* (1266, 203, 270. or.), *ad ecclesias (...) de Sancto Michaelae Veteri, et Sancti Martini de Çaro* (1285, 297, 381. or.).

Orpustan (1990): *villa sancti michaelis* (1140), *sant miguel lo vieyl* (1350), *eiheralarre* (XVI. m., 1657).

Zierbide (1993): *Sant Miguel el Vieyllo* (1350-1353, 68, 73. orr.), *Sant Miguel lo Vieyl* (1350-1353, 71. or.), *Sent Miqueu lo Bieyll* (1412, 107. or.)

Euskal Testuak:

- "Aita Hiriar **Eyhalarrekoa**, aita Hirigoyen eta aita Kurutchet (...)". Arbelbide (1890: 272).
- "**Eihalarreko** gizon bat da, xamarduna, begitarte on hezur larriko batekin", J. Etxepare (1980 [1910]: 141).
- "Bainan **Eihalarartarrak** zakon emaitetako azken uztarra, eta gaixtoena, kantuz, neurtuz hitzak", J. Etxepare (1980 [1910]: 142).
- "...gerlariak han-gaindi ere sartzen ohi baitziren Nabar-Goitin, **Eibalarreko** mazeler gora", J. Etxepare (1987 [1931], 47).
- "**Ehiaralarren** sortua zen. Luzaidetik hurbil, eskuaraz lehenbiziko liburua idatzi zuenak (...)", Zubiri (1990: 104).
- "**Ehiaralarre** (frantsesez Saint Michel), Doniane Garazitik hiru kilometra urrundua da (...)", Zubiri (1990: 104).

- "Bigarren saria Baigorriar batentzat. Hirugarren saritua Ezterenzubi-koa. Laugarrena, berriz, Erramouspe Bankararentzat. Bostgarrena, Irulegi-koa; eta seigarrena **Eiharalarre-koa**", Zubiri (1990: 289).
- "**Eiharalarre**, Banka eta Ezterenzubiko erreka xoko hohietarat (sic)", Zubiri (1990: 289).
- "Besteak mendiz gaindi, Orreaga, **Eihalarre** eta Doniane Garazi artean diren bideak harturik", Zubiri (1990: 303).
- "Garaztarra zen (**Ehialarrekoa**) Detxepare, eskuarazko lehen liburua-
ren egilea. Garazin (Donazaharren) sorthua da 'Eskualduna' astekaria (...)", Zubiri (1990: 381).
- "Zazpi urteko haurra eraman zuten **Ehialarre** (...)", Satrustegi (1965: 25)
- "Lenbiziko senarra, Arrosagaraytarra, **Ehialar**ko semea (...)", Satrustegi (1965: 25).
- "**Eihalarre**ko erretor batek egina zuen", Lafitte (1990: 103).
- "Bainan **Eihalarren** hizi zen eta hortik gidatzen zuen Garaziko eskualdea, elizako ekaietan", Lafitte (1990: 103).
- "Segur Mossen Bernard d'Etchepare **Eiharalarre**koa irakurria du", Lafitte (1990: 122).
- "Ana Josefa etxen ezkondu zen behin **Eihalarre**ko Arrosagaray batekin", Lafitte (1990: 187).
- "Garazin, **Eihalarre**ko ibar zolan bada herri pollit bat: **Ezterenzubi**", Lafitte (1990: 252).
- "Azken aldikotz kusi ginuen iragan Salbatoretan, / **Eiharalarre** herri maitean kantatu ginuen betan", Xalbador (1976: 143).
- "Nekazaritzaren osagarria, mendi-hegaletan topatzen dute Behorlegitarrek, eta hauen antzo, hauzokide zaizkien herriek: Mendibe, Lekunberri, Aintzila, Ahatsa, **Eihalarre**, Esterenzubi eta abar" (EEBS, 1969-1990).
- "Irulegi-Agerrean egon zen mutil gazte bat bertsularitzako dohaina zuena: Larramendy, **Eihalarre**-Gohanetx izanen dena", E. Larre (1969-1989, EEBS).
- "**Eihalarre**ko toberak pasatu berriak dira eta arrakasta haundia ukan dute", Herriz Herri, 1988 (EEBS).
- "**Ehialarre**ko Frantxix, / Zaldiakezin heziz, / Putar eta jauziz, / Untzi guziak hautsiz", Duny-Pétre (1996: 60).

– “Detxepare **Eiheralarre**koak nola ez zuen hori deitoratzen bere kantuetan!”, Larre (2001: 135).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Eihealarre* du, **Raymondék** (1863: 151) *Eyheralarre* eta **Lhandek** (1926: XXXVI, 230) *Eiharlarre*, *Eiharalarre*. **Dassancek** (1966: 163) *Eihalarre* jasotzen du, baina *Eiheralarre* aldaera osoa ere aipatzen du, parentesi artean besterik ez bada ere. **Goihenetxek** (1966: 157) *Eyheralarre*, *Eihalarre* biltzen ditu eta **Orpustanek** (1990: 125-1216) *Eiheralarre*. Herritarren izena *eiharaltarr* (**Lhande**), *eihalar*tarr (**Dassance**), *eiheralar*tarr (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Eiheralarre* eta *eiheralar*tarr proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Eiheralarre* eta *eiheralar*tarr hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

Ihalárre (**A. Kaminondo**), *Ejélarre*, *Ejalárre*, *Eihelárren*, *Ejálarrèn*, *Ejalárreät*, *Ejalárretik* *Ézterentzúbira*, *eihelártarràk*, *ejelártarràk* (**E. Etxarren**).

Etimologia azalpenak:

Orpustanek (1990: 125-1216), ikusi bezala, *Eiheralarre* eta *eiheralar*tarr biltzen ditu, eta toponimoari ‘lande du moulin’ adiera ematen; autore honen irudikoz *Saint Michel XIII*. mendean bihurtuko da “le Vieux”, erroresak Luzaiden gaindi igarotzen hasten direnean.

Oharra:

Nafarroa Garaian *Eyaralar* deitura dugu Garesen eta *San Miguel* leku anitzetan. Halarik ere, azken hau frantseseko *Saint-Michel-le-Vieux-en* gaztelaniako itzulpena ote den ez dakigu.

Ezterenzubi / Estérençuby

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Ez dugu testigantzarik aurkitu.

Euskal Testuak:

- "...borzgarren bat **Ezterenzubian**, seigarren bat (...)", Etxepare (1984: 333).
- "Garazin, Eiheralarreko ibar zolan bada herri pollit bat: **Ezterenzubi**" (Lafitte, 1972: 11).
- "Hango oihanetan lanean eman zen anaia batekin. Bertze lagun bat ere bazuen **Ezterenzubiarra**, geroxeago haren koinata beharra" (Lafitte, 1972: 14).
- "Legez egina izan da / herri... **Ezterenzubi** / Ondoko urtean aldiz / azkenean parropi (...)", Etxamendi (Lafitte, 1972: 111).
- "**Ezterenzubitik** ala Urepletik Baionaraino, noiz zabal, noiz hertsia (...)", J. Etxepare (1987 [1931], 41).
- "Sortzez **Ezterenzubikoa** zen, Baxenabartarra", Zubiri (1990: 76).
- "Bigarren saria Baigorriar batentzat. Hirugarren saritua **Ezterenzubi-koa**", Zubiri (1990: 289).
- "Baigorri, Banka, Irulegi, Eiharalarre, **Ezterenzubi!**", Zubiri (1990: 289).
- "Eiharalarre, Banka eta **Ezterenzubiko erreka xoko hohietarat** (sic)", Zubiri (1990: 289).
- "Tó, banindiokan, ba, hori etzela **Ezterenzubikoa...**", Zubiri (1990: 387).
- "Bankarrak, Baigorriarrak, Urepeldarrak, Aldudarrak, **Ezterenzubiárrak**, mendiz gaindi, eta denak, yakina, barurik, Yaunahartzeko Orriagan", Zubiri (Irigarai, 1958: 78).
- "Paulo **Ezterenzubikoari** galdegizok, ez denez hori egia?", Barbier (1987: 232).
- "Mañech Etchamendi, **Ezterenzuby'arra**", Etxamendi (Lafitte, 1972: 41).
- "Hetarik bat izan zen **Ezterenzubitar** bat Kalifornian bizi zena, oraino ere han baita Mañech Etchamendy", Lafitte (1972: 86).

- "Gure lanaren bururatzeko laguntza beharretan bait-ginen, Luis Ehuletche **Ezterenzubiko** Jaun ertorari dei egin ginion", Lafitte (1990: 252).
- "...baliteke haren kantu zenbait etare Frantzi aldeko herri horietan nunbait, asi Arneguy, **Ezterenzubi**... eta Aldude, Banka, Baygorri (...)", J. C. Arrosagarai (Satrustegi, 1965: 101)
- "**Ezterenzubi**'ko alaba da berez", Satrustegi (1965: 101).
- "Ez naiz Lille-koa, ez. **Ezterenzubikoa**", X. Arbelbide (1986: 16).
- "Azkenik Baxenabarren guk ezagutu edo ezagutzen ditugunak izenda ditzagula: horra Meltxor hegoaldetik etorria zena, Zubikoa-Ibarra Bankako baztandarra, dena izpiritu eta zirto, Manex Hiriart **Ezterenzubitarra** eta Xalbador haundia zenduetan, azken honen obrak eta "Odola" beti mintzo bait dira oraino, bai eta ere Jean B. Bide bertsuzale eta egile ere zena", E. Larre (1969-1990, EEBS).
- "Nekazaritzaren osagarria, mendi-hegaletan topatzen dute Behorlegitarrek, eta hauen antzo, hantzokide zaizkien herriek: Mendibe, Lekunberri, Aintzila, Ahatsa, Eiheralarre, **Ezterenzubi** eta abar" (EEBS, 1969-1990).
- "Bazkari on baten inguruan bildu dira denak **Ezterenzubiko** Andreinea ostatuan", Herria, 1992 (EEBS).
- "Hau zen Joanes Goyhenetche **Ezterenzubi** Intzabikoa", Larre (2001: 231).
- "...eta haren ondotik Uhart apeza, **Ezterenzubi** Xauxarrekoa", Larre (2001: 255).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 15) *Ezterenzubi* dakar, Azkuek (1905: XXIX) eta Lhandek (1926: XXXVI, 285) *Ezterenzubi*, Goihenetzek (1966: 133), Dassancek (1966: 162) eta Orpustanek (1990: 126) *Ezterenzubi*. Herritarren izena *ezterenzubiarr* (Lhande), *ezterenzubiar* (Dassance; Lafitte, 1990: 258), *Ezterenzubitarr* (Orpustan) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Ezterenzubi* eta *ezterenzubitar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Ezterenzubi* eta *ezterenzubitar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

Ēzten(t)zūbi (P. Kamino), *Ezteréntzubi*, *Ēzteéntzubi*, *éztarentzubitár* (EHHA). J. L. Lizundiak *ezterentzubiar* bildu du **E. Larrerengandik** eta *eztentzubitár* **Xipri Arbelbiderengandik**. **E. Etxarren** uhartearrak forma hauek erabili zituen gerok egindako grabaketan: *Eztérentzúbi*, *Ezteréntzubín*, *Ēzterentzúbin*, *Ēzteentzúbitih Aintzileát*, *Ejalárretih Ēzterentzúbira*, *ezteréntzubitarrák*, *éztérentzúbitarrák*.

Etimología azalpenak:

Hatanek (1895: 15) 'baserrekaren (edo baserrekako) zubia' adiera duela uste du; dioenez ubide azkar eta sakon batek bitan zatitzen du Ezterenzubiko «burgua» eta erreka zeharkatzeko herriari izena ematen dion zubia dago. **Coromioesek** (1972: 304) tarteko *-en-* osagai hori (*Ester-en-zubi*) lokarritzat hartzen du, izan dadin genitiboaren marka, izan dadin beste zeruahi (*Lehu-n-berri* ere aipatzen du).

Lemoinek (1977: 200) *istil*, *ixtil* dakusa lehen osagaian; bigarrena *zubi* da honeu iritzian. **Orpustanen** irudiko (1990: 126), berriz, lehen osagaitzat *eztari* (sic) 'eztarria, zintzurra' izena *eztera* 'geztera' eta 'itsaso ondoko kanala' baino egokiagoa da. Bigarren osagaia *zubi* da ortzaiztar irakaslearen arabera, eta erdiko *-en* hori genitibo plurala. Toponimoak, beraz, 'zintzurren zubia' adiera du.

Aintziburu & Etxarrenek (2002: 74) beste azalpen hau ematen dute: «Zer erran beste izen batez, Ezterenzubi? Iduri luke, lehen begi kolpean, erran nahi duela herri bat zubirik gabekoa... Egia besterik da: gisa hala, bazen artzain bat. Estebe izenekoa. Zubi bat egin omen zuen, zeina izendatu baitzuten: Esteren zuhi; euskarak laket baitu hitzen lahurtzea, hizkiak janez, horrek eman zuen Ezterenzubi, herri guziari ezarri zitzaiona».

Gure irudiko Orpustanen etimologian bi ahulgune daude: lehenik euskaraz *eztarri* da hitza, ez *eztari*; bigarrenik, izenaren etimologia 'pont de gorges' balitz euskaraz 'Eztarrietako zubia'-edo izanen genuke segur aski, ez 'Eztarren zubia'.

Gamarte / Gamarthe

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 66): *Gamoart* (1513), *Gamarte* (1767).

Goihenetxe (1966: 134): *Camarz* (1189, 1334), *Gamoart* (1293, 1328, 1364, 1369, 1388).

Lemoine (1977: 201): *Gamoart* (1513), *Gamarte* (1767).

Orpustan (1990: 189): *amoart* (1292), *gamoart* (1304, 1309, 1350, 1366).

Zierbide (1993): *Gamoart* (1350-1353, 51. or.), *Gamoart* (1412-1413, 96. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatane (1895: 14) *Gamarta* dakar, **Lhandek** (1926: XXVI, 331), **Dassance** (1966: 162), **Goihenetzek** (1966: 134) eta **Orpustanek** (1990: 109) *Gamarte*, eta **Lemoinek** (1977: 201) *Gamarthe*. Herritarren izena *gamartarr*⁶ (**Lhande**), *gamartiar* (**Dassance**), *Gamartiarr* (**Orpustan**) da.

Euskal Testuak:

– “*Arantxa Oxandabaratz Gamartiarra, Garaziko ikastolakoa*”, *Herria*, 1987 (EEBS).

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak *Gamarte* eta *gamartiar* proposatu zituen (1979: 101).

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Gamarte* eta *gamartear* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

Gamárthe / gamartiár (EHHA), *Gamárte, Gámartèn, gamártjarràk* (E. Etxarren).

Etimologia azalpenak:

Hatane (1895: 14) *Gamarta* dakar, ikusi bezala, eta *gan-arte* zatitzen. Autore honen ustean ‘erdiko, arteko gaina’, ‘gainen artekoa’ da izen honen

6. Lan berean (25. or.) *Akamarre* ematen du *Gamarthe*-ren euskal izentzat, eta *akamartarr* herritarren izentzat, oker bistan denez. Hor berean *Akhamarre Comes* herriaren zubere-razko izena dela zehazten du.

etorkizko erranahia. Izan ere, eta betiere Hatanen arabera, Gamarte mendi goren artean kokaturik dago. **Mitxelena** (*AV*, 255) **ganbo* erroa dakusa *Gambarte*, *Gambo*, *Cambo* eta bestetan, eta dio latineko *campus*-en ordezkaria izan daitekeela. Jarraian gehitzen du eskualde batean (Nafarroako iparraldean, eta hein txikiagoan Gipuzkoan eta Lapurdin) sendatzen laguntzen duten zenbait iturbururen izena dela. **Lemoine** (1977: 201) *kamino* dakusa toponimo honen oinarrian; bukaera *arte* 'à côté de' da autore honen arabera. Hemen garbi ikusten da Lemoine jaunak zenbateraino menderatzen zuen gure bizkuntza.

Orpustanek, Erdi Aroko *gamoart* aldaeran oinarriturik, erraten du (1990: 39, 58, 109, 163) izen honetan *gamo-arte* dugula; *gamo* (edo *gamu*) Nafarroa Behereko herri honetan ez ezik, Amikuzeko *Gamue*-n (*Camou* frantsesez) eta Zuberoako *Gamere*-n (*Camou* frantsesez) ere ageri da, bai eta, segur aski, Lapurdiko *Kambo*-n ere (*Cambo-les-Bains* frantsesez). Adiera hidronimikoa du; *Kambo*-ren kasuan 'ugalde bihurtun' erranahia topografiarekin bat heldu da autore honen arabera, baina Amikuzeko *Gamue*-n ez dago bihurtunerik, ubide baten ondoan badago ere. Hondarrekoan, *Gamarte*-n eta *Gamere*-n bezala, 'ur sendagarriak' adiera izan lezake, ikertzaile honen irudiko; Lapurdiko herriaren izenaren kasuan, gainera, latineko *campu(m)* maileguan ere pentsa daiteke. Beranduagoko beste lan batean (1999: 100, 319) erraten du *Gamarte*-ren 1304 eta 1309ko *gamoart* aldaeran Pirinioez iparraldean obikoa den *gamo*, *gama*- "peut-être 'point d'eau'" oinarria dugula.

Oharrak:

Nafarroa Garaiko *Gambarte*, *Gambart* deiturak aztergai dugun izenarekin loturik egon daitezke; deitura hauek, ikusten denez, herskari ahostuna dute hasieran, eta *-mb-* taldea barnean. Nabarmendu nahi dugu Iruñean den dokumentazioan segur aski Lapurdiko *Kambo* herria izendatzen dukeen *Gambo* aldaera kausitu dugula:

"Franco. de Echeverria vez" del Lugar de Arizcun del Valle de Baztan, y dijo que en la feria de la Villa de Lumbier ultima, há comprado à Pedro de Lorda vez, del Lugar de Gambo Reyno de Francia, un par de Bueyes..." (Eloko protokoloak, 50, 86, 1801).

Hiriberri / Iriberry

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Goihenetxe (1966: 135): *Yrierry* (1292, 1395), *Iriberry* (1354, 1364), *Iriberrri* (1395).

Ostolatza (1978): *dona Navarra dueyna de Villanoua e Cisa* (Hiriberri?, 1260, 183, 254. or.).

Zierbide (1993): *Villanova* (1350-1353, 53. or.).

Carrasco (1999-1): *Per liuraçon del omes de pie que estauan en Vilanoua et en Ostauayles et en Mongelos et en Sant Johan et en Arbeloa, 599 kafices, 3 arrobas, 2 quartales* (1266, 355. or.), *Per lo despens del senescal en Sant Johan et en Vilanoua et en Ostauayles et en Ronçasuals* (1266, 357. or.).

Euskal Testuak:

– “*Bere aldian mintzatzer a doha Geraxane Iriberrikoa, neskatxa gazte pinpirrina*”, Duvoisin (1987 [1884-1885]: 29. Herriaz beste zerbait –Baigorriko etxea?– dateke hemen *Iriberrri*, alabaina).

Autoreek biltzen dituzten formak (ikus Buztintze sarrera):

Hatanek (1895: 15) *Iriberry* dakar *Iriberry*-ren euskarazko aldaeratzat eta **Azkuek** (1905: XXIX) *Bustintze-Iriberrri*. **Lhandek** *Bustintze-Iriberrri* (sic, 1926: XXXVI) jasotzen du lehenik, baina lan berean, aitzinago (192), *Bustintze-Iriberrri* ematen du; **Dassancek** (1966: 162) *Iriberrri* biltzen du. Herritarren izena *iriberriarr* (**Lhande**), *iribertar* (**Dassance**), *Iribertarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Buztintze-Iriberrri* eta *buztintziar-iribertar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Hiriberri* eta *hiriberritar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

Hiribérri (**E. Larre**), *Iribérri*, *Iriberrri*, *Iribérri-Pekótxja*, *óri Iribérrin dá*, *Buztintze Iribérri*, *Buztintze-Iriberrin*, *Buztintze ta Iriberrri* (**E. Etxarreu**).

Etimologia azalpenak:

Luchairek dio (1874-75) euskal *Iriberry* frantsesezko *Villeneuve*-ren kidea dela; Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako *Uribarri*-ak eta Iparraldeko *Hiriberri*-ak gauza bera dira autore honen arabera, etimologiaren aldetik, jakina. **Hatanek** (1895: 14) *Iriberry* biltzen du, erran bezala, eta *Irri-berri* 'herri berria' azaltzen; gaineratzen du honi "berri" erraten zaiola inguruko herriak baino anitzez berantago eraiki zelako.

Iri-ren adiera dela eta, **Gavelek** erraten du (1931:45) egun edozein etxe metaketa adierazten duela, "burgu" ('partie groupée d'un village') hutsetik hiririk handienara, baina hasmentan nolabaitko garrantzia zuen baserria adierazten zukeela, gero inguruan etxe berriak eraiki baziren ere. Hau da, autore honek zehazten duenez, latineko *villa*-k izan duen bilakara. Honen ondorio dirateke *Irube* 'villa-ren oinetan', *Iriarte* 'villa-en artean', *Irisarri* 'villa-ren edo villa-ko muinoa' toponimoak, bai eta *Iruriri* ere, frantsesez hitzez hitz *Trois-Villes* itzuli dena.

Lafonek dio (1954: 249) zenbaitetan aldaeretakoa batek -izenak aldaera bat baino gehiago ditucenak, jakina- aldakuntza fonetiko ezaguna jasan duela, eta *Ullibarri* / *Iriberry* "ville (ou agglomération) neuve" bikotea aipatzen du. Ez du zehazten bietarik zeinek nozitu duen aldakuntza, baina uste izatekoa da lehena zuela gogoan, segidan Elneren (Ekialdeko Pirinioak) eta Granadaren izen zaharra zen *Hiberri* euskararen bidez azaldu behar dela eta «ville neuve» adiera duela erraten baitu. **Lemoinek** (1977: 199) toponimo honetan *Iri* 'ville, domaine' eta *berri* daudela dio.

Mitxelenaren arabera (1956: 174) euskalki batetik bestera bokal desberdina duten hitzak franko dira, eta adibidetzat *Huribarri* (A) / *Iriberry*, *Iriverri* (NG) eta *Essavarri* (A) ematen ditu. Gehitzen du *berri* / *barri* parearen -e-dun aldaera *Hiberri* toponimoan ageri dela eta menturaz Akitaniako *Hurberri*xo. *Hurberri*xon[i] (datiboau hau) jainko izenean ere bazgoketela.

Orpustanek (1990: 112-113) toponimoa testuetan beti erdarara itzulirik agertzen dela errateu du eta honako hau gaineratzen: «Il n'est pas besoin de rappeler l'ancienneté de ce toponyme dans l'aire basco-iberique».

Izpura / Ispoure

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 83-84): *Yspore de la terre de Sisie* (1472), *Izpura* (1513), *Yzpura* (1621), *Sanctus Laurentius d'Ispoure* (1685).

Goibenetxe (1966: 137): *Yzpura* (1189, 1328, 1334, 1388), *Izpura* (1293, 1294, 1396, 1428), *Ezpure* (1354), *Izpure* (1388, 1405), *Yzpure* (1394), *Izpuru* (1401), *Yspore* (1472).

Carrasco (1973): *Yzpure* (1366, 673 eta 678. orr.), *Izpure* (1366, 681. orr.).

Lemoine (1977: 196): *Izpure* (1472), *Izpura* (1621), *Ispoure* (1684).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 362): *Yspore* (1478).

Orpustan (1990: 121): *yzpura* (1264, 1304, 1350), *yzpure* (1366).

Zierbide & Santano (1990): *Izpure* (1376, 70, 98. orr.; 1381, 166, 163. orr.).

Zierbide (1993: 51): *Yzpura* (1350-1353; 54, 74. orr.), *Izpure* (1410-1412, 102. orr.).

Zierbide & Santano (1995): *Izpure* (1405, 296, 118. orr.).

Carrasco (1999-1): *En Yzpura, de pomas vendidas, 7 soltz* (1266, 219. orr.).

Euskal Testuak:

- "*Barkoize, Domiziñe, Lohitzune, Mitriña, Amendüze, Ispura, Larzebale (...)*", Tartas (1975 [1666]: 3).

- "...*eta garalat jautsi orduko, IZPURAKO eliz'ondorat igaitea duela hobere-
renik*", J. Etxepare (1987 [1931], 43).

- "...*nahi bezala handik ditzazkezu ikus hiru herri elgarri josiak, bat ber-
tzea bezain xoragarri, beren aldapa eta ordokiekin: IZPURA, Doniane
eta Uharte*", J. Etxepare (1987 [1931], 44).

- "*Bazter guziak etxe eta etxez betheak, lau edo bost herrixka agerian,
IZPURA, Donazaharre, Azkarate, Uharte, Lasa eta beren eliza dorre
xuri eta xorrotzak zerurat goititzen zirenak*", Zubiri (1990: 240).

- "*Doniane-Garazitik, Arnegitik, Uhartetik, Lasatik eta IZPURATIK yen-
dea trumilka doa Luzaiderat, karakotxetarat, erran bezala, hain aipha-
tuak direlaketz Garazi guzian*", Zubiri (1990: 328).

- "*IZPURA eta Arradoiko alderdira eskuin behaturik, ezker gero Uharte
eta Izpegiko lephoari, abiatu zen pipa bat erre behar zuela hantxet, goxo
goxoan*", Barbier (1987: 93).

- “*Eta treina, fiu, fiu, fiu, firurikan joan bethi joan; huna Izpura Agerrea, huna Baigorriateko zubi burdinazkoa!*”, Barbier (1987: 94).
- “...*Lexakaren etxean gero Izpuran, Madalenen berantxago, Donazaharre-Maiderrenean azkenik bost baso arno edanik (...)*”, Barbier (1987: 230).
- “*Izpura, Donibane-Garazitik 1844eko martxoaren 31-n berexia izan zen*”, Lafitte (1972: 112).
- “*Kataline jaunten duxu Izpurako fundazioneat*”, Luzaideko gutun argitaragabeak.
- “*Ordian operatia dixi zangua. Egon duxu seriokara Izpurako klinikan 48 egun*”, Uhartea Garaziko gutun argitaragabeak.
- “*Hazparneko San Josep ikastetxean ezartzen zituzten bestela buraso ainitzek holakoak, etxe horrek Gastellu izpurar apez famatuarekin bildua zuen fama berme*”, Larre (2001: 127).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 15) *Ispoura* biltzen du euskarazko aldaeratzat, izena bere nahierara makurtuaz, berak proposatzen duen etimologiaren mesedetan. **Azkuek** (1905: XXIX), **Lhandek** (1936: 572), **Dassancek** (1966: 162), **Goihenetxek** (1966: 137), **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 362) eta **Orpustanek** (1990: 121) *Izpura* jasotzen dute. **Lemoinek** (1977: 196) ere aldaera hori bera du, baina frantses grafiarekin idatzia (*Izpoura*). Herritarren izena *izpurtarr* (**Lhande**), *izpurar* (**Dassance**), *Izpurarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Izpura* eta *izpurar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Izpura* eta *izpurar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

Izpúra (**A. Kaminondo**, **P. Kamino**), *Izpurá*, *Izpúra* (*Játsutik Izpúra* ‘Jatsutik Izpurara’, *Izpúratik Donjáneat*, *Izpurán*), *izpúrrák* (hiru aldiz), *izpúraarrák* (behin) (**E. Etxarren**), *izpúraRak* (**E. Larre**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 15) *aïs-poura* azaltzen du izena, alegia, ‘haritz purpurra’ edo ‘baritz purra’, baina *aïs-pouru* ‘baritz basoa’, ‘haritz basoaren

muturra' ere izan daitekeela gehitzen du. Honen lagungarri edo argigarri dio Izpurako elizaren aldamenean haritzez besterik ez dagoen basoa badela. **Gavelek** (1934: 493) etimologia iluneko izenen artean sartzen du *Ispoure, Garris, Ossès* eta beste batzuekin batean. **Lemoinek** (1977: 196) izenean *aitz* eta *buru* ('à l'extrémité de la montagne [rocheuse]') daudela uste du eta **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 362) adiera 'ubidea' dela. **Orpustanen** irudiko (1990: 121-122) izena «zalantzarik gabe» hidronimia-rekin loturik dago, baina aztertzen zaila da.

Jatsu / Jaxu

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 85): *Jaxou* (1703).

Goihenetxe (1966: 139): *Saxo* (1249), *Jatssu* (1293), *Jadssu* (1332-1334), *Yatsu* (1350-1358), *Yacsu* (1354), *Jatsu* (1354), *Jasu* (1358, 1399), *Jatssu* (1364), *Jasccu* (1384), *Jadsu* (1386), *Jaçu* (1393), *Jacssu* (1393), *Jacsu* (1396), *Jassu* (1399), *Jasso* (1432?).

Carrasco (1973): *Jatssu* (1366, *LPN*, 671), *Jadssu* (ibid., 677), *Jatsu* (ibid., 681). Eiheralarren *Jatssutegui* etxea ageri da urte berean (ibid., 672).

Lemoine (1977: 200): *Jaxou* (1713).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 367): *Jaxou* (1703).

Orpustan (1990: 112): *jacsu*, *jassu* (1249), *jadssu* (1347, 1350, 1366).

Zierbide (1993): *Jadssu* (1350-1353, 69. or.; 1412-1413, 97. or.), *Jadsu* (ibid., 71. or.), *Jatssu* (ibid., 73. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Jatsu* (1415, 319, 146. or.; 1422, 329, 158. or.; 1423, 331, 160. or.; 1451, 348, 178. or.; 1454, 349, 179. or.), *Jacru* (1454, 350, 180. or.).

Zierbide & Ramos (1996): *Remon Erdara, oydor de los comptos reales, e Ynes de Jassu, su muger, vezinos de la ciudat d'Estella* (1488, 64, 244. or.).

Euskal Testuak:

- "Franzisco Zabierekoa aitaren aldetik Garaztarra zen, amaren aldetik Baztandarra. **Jatsuko** Jauna zuen aita, Azpilcuetako andrea ama. Zabiereko jauregian sorthu zen, Apherilaren 17an 1506an. Zabierekoa deitzen dugu, Zabiereko jauregia bere erorkia (sic) zuelakotz; **Jatsuarra** deithuko ginuen bertzenaz", Laphitz (1986 [1867]: 117).

- "Zure eskua galdatu duten guzien artean, Korbaran **Jatsu** Laskorrekoak izan du zure hautamena", Duvoisin (1987 [1884-1885]: 77).

- "Eskual-Herrian ere baditugu zombait abiatuak, hala-nola Bidarteko Ama-Birjina eta guziz **Garazi Jatsuko** San Frantsesen bederatzaurruna", Arbelbide (1890: 65).

- "San Frantsesen Aita Garaztarra zen, **Jatsu** Jauregiko Jauna, eta Ama Baztandarra; eta hortik San Frantses gure egiazko herritarra dugu. Eskualduna da, ez choilki odolez eta sortzez, bainan oraino **Jatsun** ira-

- gan *duelakotz bere haur demborako zathirik gehiena*", Arbelbide (1890: 65).
- "Bederatzi egun hetan, **Jatsuko** jendea bezala, auzo herriak ere baliatzen dire (...)", Arbelbide (1890: 66).
 - "**JATSUARRAK**: - Erlisioea ere, bertze asko gauza bezala, maiz aiphatzen dugu, zer den jakin gabe", Arbelbide (1890: 67).
 - "San Frantses **Jatsukoari**. Othoitza", Arbelbide (1890: 84).
 - "Ustariz, *Etxaleku, Etxepare, Irigoyen, Yatsu (Jaso) (...)*", Zubiri (1990: 156).
 - "Bainan herritik kanpo, **Jatsuko** lurren jabe lehena zitakelakotz, deitzen zuten *Jatsu, edo Jassu*", Narbaitz (1966: 34).
 - "**Jatsu** utzirik *Lascorreko* nausiak finkatuak zirela *Donibane Garazin*", Narbaitz (1966: 34).
 - "Gaitzeko gizona zen Lohilakat. Orai ehun bat urthe, iguzkiari zagon etxe batean, **Jatsu**-Lohilakatean sortua zen, *Garaziko herri pollitene-tarik batean, Suhuskuneko muga muga*", Barbier (1987: 200).
 - "Hor, orai duela ainixko urthe, Suhuskuneri hurbileko **Jatsuar** batek eresia zion bertz bat, *pandero bat... gero pagatzekotan*", Barbier (1987: 219).
 - "Eta, hain xuxen, hantzet, alhor mehe batean, bi behi txarren ondotik iraulden ari, ikusten du... bere **Jatsuar** zorduna, hiru edo laur urthe hartan bertz hat, *pandero bat zor diona. Jatsuar* maltzurak ere ikusia zuen *Bezkin kalamanka (...)*", Barbier (1987: 220).
- "Urte guziez, martxoko bigarren igandean, zernahi jende bildu da **Garazi Jatsurat**", J. Hiriart-Urruti (iloba) (1992: 30).
- "Biak zenduak dira, damurik, lehena *Heletako erretor eta bestea Garazi-Jatsuko*", Larre (2001: 172).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léchusek (1826: 170) *Yatsu* du, **Hatanek** (1895: 14) *Jaxu*, **Azkuak** (1905: XXIX), **Dassancek** (1966: 162) eta **Orpustanek** (1990: 112) *Jatsu*; **Lhandek** (1926: XXXVI) *Iatsu, Jatsu* (ihid., 474) dakar eta **Goihenetxek** (1966: 139) *Jatxu*. Herritarren izentako **Barbierrek** (1987: 219, 220, 222) *Jatsuar* darabil, **Lhandek jatsuar** biltzen du, **Dassancek jatsiar** eta **Orpustanek Jatsiarr**.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) (*Garazi-*) *Jatsu* eta *jatsiar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Jatsu Garazi* eta *jatsuar* hobetsi ditu. Hemen ez da *jatsugaraztar* proposatu, beharrezkoa ez delako. Izan ere, Lapurdiko *Jatsu* herrikoen gentilizioa *jatsuiar* da, eta, beraz, ez dago nahasteko arriskurik.

Ahoz bildutako formak:

Luzaiden *Játsu* erraten da; J. L. Lizundiak *jatsiar* bildu du E. **Larre**rengandik, baina ez da arrunt segurua, dirudienez. **E. Etxarre**nek forma hauek eman dizkigu: *Játsu*, *Játsun*; *bagatzi Játsura*; *Játsutik Izpura* (sic); *játsjarrák*.

Etimologia azalpenak:

Izenaren etimologiaz den bezain batean, **Hatanek** (1895: 14) *Jaxu*-ren azpian *iaxa* dagoela uste du, «sorgho et jaxu» bere hitzetan, isatsak, erratzak egiteko ibiltzen den «sorgoa» ugari dagoen alderdia adierazten duela alegia; *jaxa* izeneko belarra ere badela gaineratzen du. **Dassancek** (1949: 207) *jats* 'isatsa' dakusa toponimo honen oinarrian; **Mitzelenaren** arabera (*FHV*, 543) Garaziko *Jatsu* herri izena *i(s)ats* fitonimoaz eta *-zu* atzizkiaz osaturik dago; oinarriko lehen txistukaria disimilazioz lekutu dateke. **Lemoinek** (1977: 200), berriz, izenaren osagaiak *itsas*, *jats* 'isatsa, erratza' eta *-tzu* atzizki multzokaria direla uste du. **Dauzat & Rostaingek** ere (1983 [1963]: 367) *jax* 'genêt'-etik eratoritzen dute; Lapurdiko *Iatsu*, berriz, *jatze* 'ira emea' izenetik eta *-zu* ugaritasunezko atzizkitik heldu da, ikertzaile hauen irudiko.

Orpustanek dioenez (1990: 112) Lapurdiko *Jatsu* bera da, baina ez dago hau bezain erromanizatua, Lapurdikoa *Jatrou* baita frantsesez eta Garazikoa *Jaxu*. Guk ez dakigu, euskaraz biak berdin ebakitzen badira, zer dela-eta erraten duen hori Ortzaizeko irakasleak. Gentilizioa, nolahi ere, bana dute: *jatsiar(r)* da, erran bezala, Nafarroa Behereko herriarena, eta *jatsuiar* (**Dassance**, 1966: 160) edo *Jatsuar* (**Orpustan**, 1990: 38; *-r* bakunarekin oraingoan) Lapurdikoarena. Etimologia *jats* 'isatsa' eta *-tsu* ugaritasunezko atzizkia (*-tzu* edo *-zu* zenbaitetan) da **Orpustanen** iritzian, eta adiera 'isatsa ugari dagoen tokia'.

Oharra:

Jaso deitura usua da Nafarroan, aspaldidanik gainera, Xabierko Frantzisko santuaren deitura ere horixe baitzen, ezaguna denez. **Manezaundik** (1990: 156) *Yatsu* (*Jaso*) dakar deituratako.

Lakarra / Lacarre

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 88): *Lecarre* (XII. m.), *Lekarre* (1168), *Lacarra* (XIV. m.), *Sanctus Martinus de Lacarre* (1767).

Raymond (1873): *Arnaldi de Lacarra* (1119-1136; 1873, 85), *Bernardi de Lacarre* (1167; 1873, 180).

Castro (1957): *Martin de Lacarra* (1393, XX, 22, 14. or.).

Goihenetxe (1966: 145): *Lacarre* (1119-1136, 1167, 1391, 1393, 1402), *Lacarra* (1134, 1353, 1379, 1380, 1385, 1387, 1393, 1396, 1398, 1401, 1402, 1403, 1404, 1405), *Lecarre* (1150-1170), *Lekarre* (1168), *Lecarra* (1249, 1396), *La Carra* (1293-1294, 1369, 1380), *Laquarre* (1361), *La Carr* (1368), *La Carre* (1387).

Carrasco (1973): *Lacarra* (1366, 672 eta 677. orr.), *Lacarre* (1366, 681. or.).

Lemoine (1977: 202): *Lecarre* (XII. m.), *Lekarra* (1168), *Lacarra* (XIV. m. eta 1767).

Ostolatza (1978): *don Centol de Lacarr[fa]* (1213, 37, 123. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 376): *Lecarre* (XII. m.).

Orpustan (1990: 111): *lacarra* (1119-36, 1264, 1366), *lekarre* (1168), *lacarre* (1413).

Zierbide (1993: 51): *Lacarra* (1350-1353, 57, 59. orr.), *Lacarre* (1412-1413, 96. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Lacarre* (1387, 223, 46. or.; 1390, 228, 51. or.).

Ruiz (1998): *mosser Martin Henrriquiz, seynor de Lacarra, alferiz de Nauarra* (1362, Ruiz, 1998, 402, 93. or.).

Carrasco (1999-1): *Ibi, de ageros en Lacarra, 2 quarteles* (1266, 353. or.).

Euskal Testuak:

- "Zenbat yauregi diren oraino xutik Benabarra maithagarri hortan, lehengo denboretako Nafarroaren haunditasunaren lekukotasunak! Baigorriin, Donazarren, Buzunaitzen, Garron, **Lakharren**, Donaphaleun, eta beste leku anitzetan", Zubiri (1990: 156).

- "Eta badoazi berriz, **Lakharra** buruz", Barbier (1987: 121).

- "Madalenen gaindi, Donazaharren, **Lakarran** eta Monjolosen gaindi, Lartzabale eta Donaixtin barna (...)", Barbier (1987: 225).
- "**Lakarran** barna, Garaziko bortu goreri buruz nindohala (...)", Etxamendi (1988: 105).
- *Eta pixka bat laguntza horren ondorioz, Hiruak Bat taldea arrapartitu zen, Ainiza Monjolare **Lakarra** herrietako 20 bat gazteen inguruan*, Herriz Herri, 1988 (EEBS).
- "Aldi hontan ez ote zen **lakartarraren** adin hobea zaroarraren jakitateari nausituko", Herria, 1989 (EEBS).
- "...hek dira Pierre Etchegaray heletarra, Jean Hiriart-Urruty hazpandarra, Jean Irigoyen ainiztarra eta Jean-Louis Pecoits **lakartarra**. Jainkoak berekin dituela, gu ere haren ganatu artean!", Larre (2001: 214).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Garaziko herri honen euskarazko izena *Lakharra* (Lécluse, 1826: 170; **Dassance**, 1966: 163; **Orpustan**, 1990: 111), *Lacarra* (**Hatan**, 1895: 14), *Lakarre* (**Azkue**, 1905: XXIX), *Lakharre*, *Lakarre* (**Lhande**, 1926: XXXVI, 645), *Lakarra* (**Goihenetxe** (1966: 143) da. **Lemoinek** (1977: 202) *Lakharra* ematen du euskal izentzat, baina menturaz huts zenbait badagoke hemen, *Lakharra* normalagoa bailitzateke. Herriarren izena *lakartar*, *lakarrar* (**Lhande**), *lakhartar* (**Dassance**), *Lakartarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo proposamena:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Lakarra* eta *lakartar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Lakarra* eta *lakartar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

J. L. Lizundiak *lakarratar* jaso zuen **E. Larrerengandik**, baina irudi duenez, baigorriar euskaltzaina ez zegoen hagitz seguru aldaera horretaz. **E. Etxarrenek** forma hauek erabili zituen guk egindako grabaketan *Lākarrá*, *Lakárra*, *Lākarrán*, *Lakárraikin*, *Duzunáitzetik Lākarrát*, *Lākarratik Buztintzeàt*, *lakártarràk*.

Etimologia azalpenak:

Hatanek XIX. mendearen bukaeran (1895: 14) *lacu-ar* zatitzen du, eta 'kareharria' adiera ematen; gaztelua eta burgua ordoki harrizu eta karez-

koan dagoela ere badio, bere azalpen etimologikoaren lagungarri. **Mitxelena**ren arabera (AV, 385) *Lacarra*, *Lacarre* bizkaierazko *lakar* 'harri koskorra', 'hartxintxarra'-rekin erlazionatu behar da, eta gipnzkerazko *lakar* 'latza'-rekin (*zumalakar*); Nafarroa Behereko herriaren izenaz ez du deus erraten. Enskaltzaindiaren *Hiztegi Batua*-k «*Lakar batez ere Bizk. 'zakarra' dakar, eta Sarasolaren Euskal Hiztegia*-k 'latza, leuntasunik gabekoa'. Izen honek duen aspirazioa azentuaren lekunearekin loturik dagoela dirudi (ikus FHV, 216, 219 eta 409. Ikus, orobat, Mitxelena, 1988 [1951]: 218-219 eta 1988 [1957-58]: 235).

Lemoinek (1977: 202) *legar* 'gravier, caillou, pierraille'-rekin lotzen du izena; **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 376) Bizkaiko euskarakoa den *lakar* 'cailloutis, aspérité de terrain' dakusate oinarrian. **Orpustanek** dio (1990: 111) 'legardia, hartxintxardia' dela, 'legar, hartxintxar tokia' alegia, eta hau gehitzen: «le toponyme doit être pris avec la valeur oronymique conforme au site un peu surélevé du château et de la paroisse».

Oharra:

Nafarroa Garaia ezaguna den *Lacarra* deitura euskarazko aldaeratik atera izanen da; gogoratu beharra da, bidenahar, Deierri *Lakar* herria dugula.

Lekunberri / Lecumberry

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 98): *Saint-Martin de Lecumberry* (1703), *Sanctus Martinus de Janits vulgò de Lecumberry* (1763).

Goihenetxe (1966: 146): *Lecomberry* (1387), *Lecumberry* (1397, 1402).

Lemoine (1977: 203): *Lecumberry* (1703, 1763).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 394): *Lecumberri* (1402).

Orpustan (1990: 114): *lecumberry* (1703).

Euskal Testuak:

– “*Astotra bat, pago egurra, saltzen zuten hamar libera Lekunberri*”, Etxebarne (1989: 66).

– “*Handik beheitixagoño elgarretarik behexi ginen. Hura Lekunberri* eta *ni Bazkazanera*”, Etxebarne (1989: 66).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Azkuek (1905: XXIX) eta **Dassancek** (1966: 163) *Lekunberri* dakarte, **Lhandek** (1926: 672), **Léclusek** (1826: 170), **Gavelek** (1931: 46), **Lafonek** (1954: 249), eta **Lemoinek** (1977: 203) *Lekhunberri*, **Orpustanek** *Lekhunberri* (1990: 114), *Lekumerri* (1999: 105) biltzen ditu. Herritarren izena *lekhunberriarr*, *lekhunberritarr* (**Lhande**), *lekunbertar* (**Dassance**), *Lekunberriarr*, *Lekunberritarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) (*Garazi-*) *Lekunberri* eta *lekunbertar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Lekunberri* eta *lekunberritar* hobetsi ditu. Irudi luke Nafarroa Behereko herri hau Nafarroa Garaikotik bereizi beharra denean *Lekunberri Garazi* erabili behar genukeela, Akademiak horretaz deus erraten ez badu ere. Herritarren izenei dago-kenez, aldiz, ez dago arazorik, ez behintzat arazo larririk, Larraungoen gentilizioa *lekunberriar* delako (NHI, 74), garaztarrena, ikusi bezala, *lekunberritar* den bitartean.

Ahoz bildutako formak:

Lékunbérri (A. Kaminondo, P. Kamino), *Lekünberri*, *Lekünberri*, *Lekünberrin*, *Lekünberritik*, *Lekünberririkò* (Janise *Lekünberririkò* kartjér batá), *heméngo Lekünberrikoah*, *Aátsatik Lekünberrirát*, *lekünberritarrák* (E. Etxarren).

Etimologia azalpenak:

Luchairek (1874: 24) *Lecu-m-berri* zatitzen du Nafarroa Behereko herriaren izena eta 'leku berria' interpretatzen, tarteko *-m-* hori gehigarri hutsa baita ikertzaile honen arabera, Arabako *Larri-m-be-k* duena hezala. **Hatanek** ere (1895: 15) *Lecumberry lecu-berri* 'toki berria' ulertzen du eta, segur aski aitzinekoari jarraikiz, errateu du tarteko *-m-* hori izenari eufoniaz gehitu zaiola. **Vinsonek** (1909: 351), orobat, Nafarroa Behereko herriaren izenaren adiera "nouveau lieu" dela uste du.

Menéndez Pidalek (1962 [1918]: 76) Bizkaiko *Lecumbarri* mikrotoponimoa aipatu aipatzen du, baina ez du aztertzen. **Gavelek** (1931: 46) *Irumberri-u Iru-on-berri* dugula dio, 'nouvelle bonne villa' edo 'nouvelle bonne villa', *Lekumberri-n* (NG) eta *Lekhumberri-n* (NB) bezala, hau *lek(h)u on berri* besterik ez baita, hots, eta Gavelen hitzetan, 'ouveau Bonloc'. **Lafonek** ere (1954: 249) Nafarroa Behereko *Lekhumberri* toponimoa *lekhu on berri*-tik atera dela dio, laburtzez (kontrakzinz), *Zubiburu-tik* *Ziburu* atera den bezala; «nouveau bon lieu» adiera ematen dio.

Mitxelena (AV, 407, 488) *Lecumberri* 'leku-on-berri' interpretatu ohi dela dio, eta badirudi bera ados dagoela iritzi horrekin, *Lekuona*-ren eratorritzat hartzen baitu. Beranduago, *FHV*-n (149. or.) *Lekhuine*, *Lecufoina* toponimoekin lotzen du eta ninohar batean erraten Ibarguen-Cachopiuen kronikan «Lecumbarri es bocablo bascongado: quiere decir lugar nuevo y bueno» ageri dela. **Corominesek** (1972: 304) tarteko *-n-* osagai hori (*Leku-n-berri*) lokarritzat hartzen du, izan dadin genitiboaren marka, izan dadin beste zernahi (*Ester-en-zubi* ere aipatzen du).

Lemoinek (1977: 180) *leku-berri* «le coin neuf»-etik eratoritzen du eta erraten euskaraz knntsonante eufonikoak ez direla nrriak, *Lecumberry*-k duen tarteko sudurkaria horietakoa dela adierazi nahian, jakina. **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 394) *lekhu*, *on* eta *berri* dakuskite toponimo honen oinarrian. **Orpustanek** (1990: 114-115, 1999: 104) ohiko etimologia hori biltzen du, baina Lemoineri jarraikiz erraten du tarteko "*-n(b)-* edo *-m(b)-* sudurkaria" fonetiko hutsa dela edo eufonikoa bestela, *-b-* ezpainbikoa «iragartzen» baitu, euskal onomastika zaharrean ohikoa den moduan. Beraz, ortzaiztar irakaslearen arabera, **leku-berri* 'leku berria' da etimoa, frantsesez erranik 'nouvelline, défrichement nouveau', hau da, 'berro berria', 'luberria'.

Oharra:

Ez dakigu Nafarroa Garaiko egungo *Lecumberri* deitura Baxenabarretik etorria den, Larraunge hiriburutik edo bietatik.

Mendibe / Mendive

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 111): *Mendibe* (1513).

Goihenetxe (1966: 147): *Mendibe* (1396), *Mendive* (1397).

Carrasco (1973): *Mendive*, *Mendibe* (1366, 671, 676. orr.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 447): *mendibe* (1513).

Orpustan (1990: 114): *mendive* (1350), *mendibe* (1366).

Zierbide (1993): *Mendive* (1350-1353, 60, 62. orr.), *Mendibe* (1412-1413, 98. orr.).

Euskal Testuak:

“*Bertzea, mutila, Mendibeko, Gilentoinekoa*”, Etxebarne (1989: 57).

– “*Eta ereman zuten mandoan bere etxera, Mendibera*”, Etxebarne (1989: 57).

– “*Manez Etchemendi hor sortu zen. Ama etxeko alaba zen, Maria Josefa Larralde. Aita Pedro Etchamendi, Reklusako semea: hunen aita Mendibekoa*”, Lafitte (1990: 187).

– “*Beharbada daunatugotik, barbegotik jin zitzaioten izen hori. Officialdeguytarrak aldiz Mendibetik jalgiak ziren berrikiago*”, Lafitte (1990: 287).

– “*Mendibiarrek nahi izan zuten orduan herrirat ereman*”, Barbier (Ipuinak, 115).

– “*Nekazaritzaren osagarria, mendi-hegaletan topatzen dute Behorlegitarrek, eta hauen antzo, hauzokide zaizkien herriek; Mendibe, Lekunherri, Aintzila, Ahatsa, Eiheralarre, Esterenzubi eta abar*” (EEBS, 1969-1990).

– “*Irisarri, Suhuskune, Donibane Zahar, Mendibetik sartu gira Iratiko oihanerat*”, SoEg (EEBS, 1969-1990).

– “*Oroitarrri hau handizki desegina da eta Mendibetik Ahuzkira doan bide bazterrean aurkitzen da, guti gorabehera lehenagoko trazaketa bera jarraitzen duelarik bide honek*”, Lantziri, 1991 (EEBS).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170), **Hatanek** (1895: 15), **Azkuek** (1905: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI), **Dassancek** (1966: 163), **Goihenetxek** (1966:

147) eta **Orpustanek** (1990: 114) *Mendibe* dute. Herritarren izena *mendibetarr* (**Lhande**), *mendibar* (**Dassance**), *Mendibetarr* (**Orpustan**, “selon Lhande”) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Mendibe* eta *mendibar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Mendibe* eta *mendibetar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

J. L. Lizundiak *mendibar* bildu du **E. Larreren** ahotik eta *mendibear* **X. Alberbiderenetik**, baina bi informatzaileok ez ziren biziki segur. **E. Etxarrenek** forma hauek erabili ditu gerok egindako grabaketan: *Mèndive* (frantses eran ebakia), *Méndibè*, *Mendibeeré* ('Mendibe ere'), *Mendibén*, *mendibetarrà*.

Etimologia azalpenak eta oharra:

Hatanek (1895: 15) *Men-dibe* zatitzen du ('mendiaren beheko alde') baina gaineratzen du beste zenbait autoreren arabera *Mendi-bide* dela, 'mendiko bidea', bistan denez; herriareu kokagunea bi azalpenen alde mintzo da, gainera, autore honen irudiko. **Mitzelenak** AV-en, aski harrigarriro, ez du aipatzen; **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 447) *mendi* izena eta *-be*, *-pe* 'au bas de' atzizkia dakusate toponimo honetan. **Orpustanek** (1990: 114) «en bas de la montagne» itzultzen du.

Nafarroa Garaian deitura deu *Mendive* edozein tokitakoa izan liteke, baina ezin da baztertu mugaz harainditik heldu delakoa. Adiera garbia da: *mendi* izen arrunta eta normalean 'azpia' erranahia duen *-be* postposizioa, honek 'lurra' ere adieraz dezakeen arren, *Altube*-n adibidez.

Monjolose / Mongelos

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 115): *Monjelos* (1321), *Monjelos en Cize* (1477), *Saint-jean de Mongelos* (1703).

Castro (1958): *Martin de Montgelos* (1414, XXXI, 275, 151. or.).

Goihenetxe (1966: 148): *Mongelos* (1249, 1328, 1350, 1351, 1354, 1361, 1364, 1378, 1396, 1407), *Monjelos* (1321), *Monyelos* (1351), *Mongellos* (1406, 1407), *Mongelox* (1294), *Mongelous* (1293-1294), *Mont Gelos* (1293-1294), *Mont Gellos* (1406, 1407), *Mongeloux* (1294), *Mongelou* (1293-1294).

Orpustan (1990: 110): *mongelos* (1249, 1264, 1280, 1309, 1413), *mont gelos* (1292, 1307, 1350), *montis gelosi* (1304).

Zierbide & Santano (1990): *Mongelos* (1366, 50, 82. or.).

Zierbide (1993): *Mont Gelos* (1350-1353, 63, 65. orr.), *Montgelos* (ibid., 65. or. Cf., gainera, *la casa de Gelos*, Jatsu, ibid., 69. or.), *Mongelos* (1412-1413, 95. or.).

Zierbide & Ramos (1997): *Veltran de Montgelos* (1531, III.31, 168. or.).

Barragán (1341, 142, 247): *illi de Mongelos*, *de Ostasualles* (1341, 142, 247. or.).

Zabaltza (1997): "...*eta Bernart Arremon de Puy, et Pes de Montgelos Coçols de la dicha bastida de Clarença*" (1321, 316, 535. or.).

Carrasco (1999-1): *En Mongelos, d'agreros, 3 quartals* (1259, 103. or.); *En Mongelos, de agreros, 2 arrobas* (1266, 353. or.), *Per liuraçon del omes de pie que estauan en Vilanoua et en Ostauayles et en Mongelos et en Sant Johan et en Arbeloa, 599 kafices, 3 arrobas, 2 quartales* (1266, 355. or.), *En Mongelos, de agreros, 1 kafiz* (1266, 356. or.).

Euskal Testuak:

- "Duque de Alba, Espainiako gudularien buruzagia ibili zen ere eremu hetan, Garaziko aldean, eta Donianen eta **Monyolosen** (...)", Zubiri (1990: 155).
- "Madalengan gaindi, Donazaharren, Lakarran eta **Monjolosen** gaindi, Lartabale eta Donaixtin barna (...)", Barbier (1987: 225).
- "Eta pixka bat laguntza horren ondorioz, Hiruak Bat taldea arrapartitu zen, Ainiza **Monjolose** Lakarra herrietako 20 bat gazteen inguruan", Herriz Herri (EEBS, 1988).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Monyolose* biltzen du, **Hatanek** (1895: 14) *Mondolos* eta **Azkuek** (1905: XXIX) *Ainhize-Mondolose*. **Lhandek** (1926: XXXV) *Monyolos* du *Ainhize-Monyolos* deizioan, baina lan berean *Monyolose* ere biltzen du (*Ainhize-Monyolose*, ibid., 20). **Dassancek** (1966: 163), **Goihenetxek** (1966: 148) eta **Orpustanek** (1990: 110) *Monjolose* dute. Herritarren izena *munjulustar* (**Dassance**), *Monjlostarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Ainhize-Monjolose* eta *ainhiztiar-monjlostarr* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Monjolose* eta *monjlostarr* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

Monjlostarr (**E. Larre**²), *Monjolosè*, *Monjolosèn*, *Mönjolöse-Kasérna*, *Monjolóseko úk*, *mönjolóstarrà* (**E. Etxarren**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 14) *Mondolos* dakar *Mongelos*-en euskal izentzat, ikusi gisan, eta *Mondol* 'mendikoa' eta *os* 'lokia' zatitzen; osotasunak 'mendiko tokia' erran nahi du autore honen irudiko. Azalpen honen bermetako herriaren kokagunea aipatzen du, mendiko batean baitago. **Lemoinek** dio (1977: 223, 244) toponimo honen bigarren zatian *gelos* 'jaloux' dugula; lehen osagaia latineko *mons*, *montis*-en ondorengoa besterik ez da. **Orpustanek** (1990: 110), Lemoineri jarraikiz, betidanik gaskoi izan diren Euskal Herriko toki izen zahar hakanetakoa dela erraten du, eta jatorrizko formak "mont jaloux" adiera zuela.

Oharra:

Ez dakigu deitura oraindik bizirik dagoen, baina XVI-XVII. mendeetan *P. Mongelos* izeneko notaria bizi izan zen Nafarroa Garaian. Mancazundik (Zubiri, 1990: 156) bi Nafarroetan ohikoak diren deituren artean aipatzen du *Mongelos*.

7. J. I. Lizundiak bildutako datua.

Sarasketa / Sarrasquette

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 156): *Sarasqueta* (1513). Autore honek dioenez, 1841ean batu zen Duzunaritzerekin.

Goihenetxe (1966: 162): *Sarasqueta* (1243, 1334, 1388), *Sarasquete* (1293, 1353), *Sagasqueta* (1378), *Saraqute* (1293), *Sarassesque* (1378).

Lemoine (1977: 207): *Sarasqueta* (1513).

Ostolatza (1978): *C. de Sarasqueta* (1243, 119, 200. or.).

Orpustan (1990: 113): *sarasqueta* (1264, 1306, 1307, 1309, 1350), *sarasquete* (1413).

Zierbide (1993): *Sarasqueta* (1350-1353, 63, 65. orr.), *Sarasquete* (1410-1412, 100-101. orr.).

Carrasco (1999-1): *Ibi. de Santz de Sarasqueta, de agrer de 1 plaza del rey, 1 diner* (1266, 219. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Dassancek (1966: 163), **Goihenetxek** (1966: 162) eta **Orpustanek** (1990: 113) *Sarrasketa* dute; **Lemoinek**, berriz, *Sarasketa* ematen du euskarazko aldaeratzat (1977: 207). Herritarren izena *sarrasketar* (**Dassance**), *Sarrasketarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak *Duzunaritze-Sarrasketa* eman zuen *Bussunarits-Sarrasquette* ofizialaren ordaintzat (1979: 100); herritarren izena *duzunariztar-sarasketar* (sic) zen Akademiaren arabera.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Sarasketa* eta *sarasketar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

J. L. Lizundiak **E. Larre** euskaltzainaren ahotik *sarrasketar* bildu zuen. *Guk Saásketà, Sarásketà, Sahásketà* (*Duzunáitze Sahásketà órìrè Garáziko dá*), *Saásketa baitá, Saáskétan duk orí, Saráskétan, Saásketakò, saásketarrá* formak jaso genituen **E. Etxarren** jaunagandik.

Etimologia azalpenak:

Dassancek (1949: 207) *Sarasquette* toponimoaren oinarrian –ez dakigu xeheki aztergai dugun herri izenez ari den– *sarats* ‘sahatsa’ dagoela uste du. **Mitxelena** (AV, 538) *Sarasqueta* deitura biltzen du eta *sarats* ‘sahatsa’-tik eratortzen. **Lemoineren** iritzian (1977: 207) oinarria *saro*, *sari*, *tcharra*, *çara* ‘basoa, artzainek zuhaitzez inguratu duten etxola’ da; bukaera, autore honen ustean, –*keta* atzizki multzokaria da. **Orpustanek** (1990: 113), dokumentazioko –*r*-dun aldaeretatik abiatutik, oinarrian *sarats*, *sahats* dugula uste du eta bukaera lekuzko –*eta* atzizkia dela; tarteko –*k* hori loturazko fonematzat ematen du. Egungo –*rr*- berria dela dio, administrazio frantsesaren kontua.

Suhuskune / Suhescun

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 165): *Suescun* (1397), *Sanctus-Laurentius de Suescun* (1755).

Castro (1957): *Arnalt de Suhuscun* (1393, XX, 285, 122. or.).

Goihenetxe (1966: 163): *Suescun* (1353, 1358, 1388, 1396, 1404, 1407), *Suscun* (1353), *Suhescun* (1366, 1393), *Suhusqun* (1393), *Suhuscun* (1393), *Suascun* (1400).

Carrasco (1973): *Suescun* (1366, 671), *Suhescun* (1366, 672, 677, 681).

Lemoine (1977: 196): *Suescun* (1397, 1755).

Orpustan (1990: 111): *suescun* (1305, 1316, 1350), *suhescun* (1366).

Zierbide (1993): *Suescun* (1350-1353, 70. or.), *Suesqun* (ibid., 74. or.), *Suescun* (1412-1413, 97. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Suescun* (1405, 295, 117. or.), *Suhesqun* (1434, 339, 168. or.), *Suhuscun* (1393, 249, 72. or.).

Euskal Testuak:

- "Ilundiriko heldu ziren **Suhuskune** Jelosera. Etxeko andrea atean zagon", Duvoisin (1987 [1884-1885]: 66).
- "Duela zombait aste, **Suhuskundarrek** bazaukuten igorria sista bat, Bordalen gaindi: heien ihiziko tokia ez gurea bezain apaindua izanikan ere, guk baino urzo gehiagoren hatzemaitera zoala aurten. Geroztik, Sararen ondotik, lehen behar zela jarri **Suhuskune**, Aldude behin belikotz azpirat emanaz". J. Etxepare (1992: 341).
- "Armendaritzerraino, Ostagoa, Izura, Larzabale, Ainhiza, **Suhuskune** eta Iholdy barne, auzo eskasik ez du; bizkitartean ororekin du bakea", S. Ostopetarra (*Gure Herria*, 1933, EEBS).
- "Ozkiren gaindi ala **Suhuskunetik**, / Sarako mugaz edo Laphederretik (...)", Otsobi (1992: 294).
- "Gaitzeko gizona zen Lohilakat. Orai ehun bat urthe, iguzkiari zagon etxe batean, Jatsu-Lohilakatean sortua zen, Garaziko herri pollitenetarik batean, **Suhuskuneko** muga mugan", Barbier (1987: 200).
- "Hor, orai duela ainixko urthe, **Suhuskuneri** hurbileko Jatsuar batek erotsia zion bertz bat, pandero bat... gero pagatzekotan", Barbier (1987: 219).

- "...bazoan gure *Bezkin Kautera*, **Suhuskuneri buruz**", Barbier (1987: 220).
- "...*alta ez nakielarik ere orduan, Paxkalen herriko apez izanzen nintzala 15 urtez hunen lehengo Iholditik eta geroko Suhuskunerainokoa, Irisarrin eta Suhuskunen nihaur ere!*", Larre (2001: 181).
- "...*edo Gaxte, hazpandar baratzezaina, edo Xarlex suhuskundar mutila jatsarekin (...)*", Larre (2001: 200).
- "*Bat zen Dominique Irigoien herriko semea (Donibane Erroineko apez) eta bestea Domingo Eyherabide Suhuskundarra eta guk Donibanen apez-lagun ginuena*", Larre (2001: 351).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) eta Hatane (1895: 13) *Suhescune* dakarte euskarazko aldaeratako. Azkuek (1905: XXIX), Lhandek (1926: XXXVI, 945), Goihenetzek (1966: 163), eta Dassancek (1966: 163) *Suhuskune* dute; Orpustanek lehenik *Suhuskune* biltzen du (1990: 111), eta gero *Suhuskun(e)* (1999: 276). Herriarren izena *suhuskundarr*, *Suhuskundarr* (Lhande, Orpustan), *suhuskundar* (Dassance) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 103) *Suhuskune* eta *suhuskundar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Suhuskune* eta *suhuskundar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

Suusküne (P. Kamino), *Suuskunè bärne dà*, *Suusküne bärne dugú*, *Suuskunékilán*, *Suuskúnen*, *suuskúndarrák* (E. Etxarren).

Etimologia azalpenak:

Etimologiari doakionez, Hatane (1895: 13-14) herri izen honetan *su-hescune* 'bois à droite' dugula (*Suhescune* dakar herriaren euskarazko izentzat, ikusi gisan). Azalpen hau oinarritzeko edo zuritzeko Irisarri eta Suhuskuneren artean basoa badela azaltzen du, antzina handi xamarra zena. Oihan honen mendebaldeko edo ezkerreko alderdia Irisarrikoa zen eta ekialdeko edo eskuinekoa, aldiz, Suhuskunekoa. Hemendik herriaren

izena. **Mitxelenak** (AV, 377) bukaeran *-gu(n)e*-ren aldaera den *-kun*, *-ku(n)e* dagoela erraten du, baina ez du zehazten oinarrian zer dugun.

Lemoinek (1977: 196, 211) izen honetan *suhaitz* 'zuhaitzak', 'basoa' eta *-gune*, *-cune* 'lekua' daudela uste du. **Orpustanen** arabera (1990: 111, 1999: 120) bukaera *-kun* tokizkoa da, eta oinarria *zuha(i)tz*-en laburtzearen ondorena. Proposatzen duen etimoan oinarriturik, nahiz frogarik ez duen, *-a(i)-* > *-e-* pausoa XII. mendean burutu zatekeela uste du, *Orzaize* > *Ossès*-en kasuan bezalatsu (honendako XIII. mendea ematen du), eta ateratzen duen ondorioa da izena tradizio erromantzetik hartua dela (*La langue basque*-n [1999: 2253], berriz, jatorrizko *zuhatz*-etik *sues(cun)* ateratzea, hots, bokal hersketa, asimilazioari zor zaiola dio). Gero, izena berreuskaratu edo berreuskaldundu zela uste du *-hau* ez dugu ulertzen— mihi-puntako txistukariak sartuaz, etorkizko bizkarkarien ordainez. *-E-* > *-u-* asimilazioa geroagokoa dela dio, eta lekuko zaharretan bukaerako *-e* analogikoaren aztarnarik ez dagoela.

Oharrak:

Nafarroa Garaian ohikoa den *Suescun* deitura, bistan denez, aldaera ofizialek hurbilago dago euskarazkotik baino, segur aski izena mugaz alde honetara etorri zenean bi hizkuntzetako aldaerak elkarrengandik gertuago zeudelako. **Manezaundik** (1990: 156) *Sueskun* dakar deituratako.

Uharte Garazi / Uhart-Cize

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 170): *Uhart* (1193), *Huart* (1513), *Uharte* (1621).

Raymond (1873, 87): *Petrus de Ufart* (1135-1136).

Jaurgain (1913): *Elicetche d'Uhart della dicte terre de Cise* (1352, 407. or.).

Goihenetxe (1966: 166): *Ufart* (1150-1167), *Uhart* (1243, 1334, 1362, 1364, 1378, 1393, 1396, 1407), *Huart* (1292, 1293, 1364, 1388, 1399), *Uart* (1293, 1328, 1355, 1368).

Carrasco (1973): *Vhart*, *Uhart* (1366, 673, 678 eta 681. orr.).

Lemoine (1977: 209): *Uhart* (1193), *Huart* (1513), *Uharte* (1621).

Ostolatza (1978): [*Remon*] *Gassia de Vart* (1213, 37, 123. or.), *nos don Beltran, sennor d'Uart* (1283, 288, 369. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 689): *Uhart* (1193).

Orpustan (1990: 123): *uhart* (1193, 1366, 1413), *huart* (1350).

Zierbide & Santano (1990): *Uhart* (1367, 56, 87. or.; 1378, 79, 106. or.; 1378, 119, 130. or.).

Zierbide (1993): *Huart* (1350-1353, 55. or.), *Uhart* (1410-1412, 102. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Uhart* (Garazi?, 1393, 249, 80. or.).

Ruiz (1997): *Miqueu d'Uhart, Martin d'Ibarrole, peager, vezins de la dite viele de Sent Iohan* (1352, 102, 132. or.).

Ruiz (1998): *Nauarre d'Uhart, mouhier de Ferrando Henrriquis* (1362, 564, 232. or. Garaziko herria?).

Euskal Testuak:

- "Berehala **Uharte**. Hunen karrika-buruan (...)", J. Etxepare (1987 [1931], 37).

- "...nahi bezala handik ditzozkezu ikus hiru herri elgarri josiak, bat bertzea bezain xoragarri, beren aldapa eta ordokiekin: *Izpura, Doniane eta Uharte*", J. Etxepare (1987 [1931], 34).

- "Holakoak dira mendiez beste alderdian, *Luzaide, Arnegi, Lasa, Uharte, Garazin* (...)", Zubiri (1990, 203).

- "Ezkerretik, *Arnegiko erreka, eta haratago Uharte Garaziko bazterretxiak*", Zubiri (1990: 240).

- “*Yuan den egunian izan ginen **Uharte** ondoko bixkar batian, handik ikhusteko Doniane Garaziko ibarra edo harana*”, Zubiri (1990: 240).
- “*Bazter guziak etxe eta etxez betheak, lau edo bost herrixka agerian, Izpura, Donazaharre, Azkarate, **Uharte**, Lasa eta beren eliza dorre xuri eta xorrotzak zerurat goititzen zirenak*”, Zubiri (1990: 240).
- “*Doniane-garazitik, Arnegitik, **Uhartetik**, Lasatik eta Izpuratik yendea trumilka doa Luzaiderat. karakotxetarat, erran bezala, hain aiphatuak direlakotz Garazi guzian*”, Zubiri (1990: 328).
- “*Martin, behar ote zaitut anpallatu, **Uharte** Ibarnegaraiko arrano alegia bizi hek bezala?*”, Barbier (1987: 54).
- “*Izpura eta Arradoiko alderdira eskuin behaturik, ezker gero **Uharte** eta Izpegiko lephoari, abiatu zen pipa bat erre behar zuela hantxet, goxo goxoan*”, Barbier (1987: 93).
- “***Huarte**’ko Goyenetxe izan behar zuen bertsu auen egilea*”, Satrustegi (1967: 45).
- “*Irisarriko Larre, mediku zaharra deitzen ginuen. Sortzez **Uharte Garazikoa** zen, euskaldun garbia, Irisarriko auzapeza eta kantona-menduko kontseilu orokorra*”, Karrika (1990: 139).
- “*Batzu **Uhartetat**, bestiak Iholdirat*”, Etxamendi (EEBS, 1969-1990).
- “*Urte guziz Donibane ta **Uhartan** den beno geihago jende badoha*”, Etxamendi (EEBS, 1969-1990).
- “*Angeliquek 22 urte tixi; jockey batekin esposatu duxu **Uharteko** elizan. Pariseko ondo hortan bizi tuxu eta bizitzekuake Jinkuak nahi badu segurik*”, Uharte Garaziko gutun argitaragabeak.
- “*Hau Ybarnegaray jaunak sortua zuen eta bera minixtro izanik **Uharteko** deputatu zelarik, eskuinekoa, eta bera zen beti Pilotako Erakunde horren buru*”, Larre (2001: 172).
- “***Uharte-Garazin** bada kartier edo auzo bat (...)*”, Aintziburu & Etxarren (2002: 16).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Uharte* du, **Hatanek** (1895: 15) *Uhart* eta **Azkuek** (1905: XXIX) *Uhartehiri* (sic; Uharte Amikuze euskaraz *Uharte* dela dio, ibid.). **Lhandek** (1926: 999) *Uharte-garazi* dakar, **Dassancek** (1966: 163), **Goihenetzek** (1966: 166) eta **Orpustanek** (1990: 123) *Uharte-Garazi*, **Lemoinek** (1977: 209) *Uharte Garazi*. Herritarren izena *uhartiarr* (**Lhande**; toki berean Uhartehirikoan gentiliziotzat *uhartarr* dakar autore honek), *uhartiarr* (**Dassance**), *Uhartiarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 103) *Uharte-Garazi* eta *uhartiar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Uharte Garazi* eta *uhartear*, *uhartegaraztar* hobetsi ditu. Bigarren gentilizioa Garaziko herriko jendeak Euskal Herriko beste *Uharte*-ren batekoetarik bereizteko erabil daiteke.

Ahoz bildutako formak:

Luzaiden *Wärte* eta *wartjár* erraten da (Kamino & Salaberri, 2001: 70); **EHHAck** *uárte* eta *uártiar* jaso zituen. J. Lizundiak *uhartiar* hartu zuen **E. Larrerengandik**; guk **E. Etxarrenen** ahotik forma hauek bildu genituen: *Uárte*, *Wárte*, *Uárte Garázi*, *Uárte Garázi*, *Uártetik*, *Uárterà*, *Uárteko*, *Uártekwàk*, *Uárten*, *Uárte Garázikoa*, *uártjarràk*.

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 15) *u-harte* 'uren artean' ulertzen du izen hau eta dio herria alderdi guzietarik urez inguraturik dagoela. **Vinsonek** (1909: 354) *ur* izenaren eratorrietan sartzen du, *Uhalde*, *Ugalde*, *Urdazubi* eta besterekin; **Jaurgainek** (1912: 162-163) 'bi ubidereu artekoa' adiera ematen dio. **Mitxelenak** (AV, 572, 96) lehen osagaitzat bokal aurrean (*h*)*ur*-en aldaera den *u(h)*- dugula azaltzen du eta bigarrena *arte* 'tartea, bitartea' dela.

Lemoineren arabera (1977: 209) *ur* izenaren aldaera den *uh*- eta *arte* 'au bord de (la Nive)' ditugu hemen; **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 689) *ur*-en *uh* aldaera eta *arte* 'entre' ditugula uste dute eta adiera 'confluent' dela, bi uren bat egitea, alegia. **Orpustanen** irudiko (1990: 123) *Uharte* 'entre les eaux' izena Arnegiko errekaen eta Beheroibiako errekaen artean egoteari zor zaio.

Zaro / Çaro

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 41-42): *Sanctus Vincentius et Sanctus Martinus de Çaro* (1335), *Charo* (1525), *Saro* (1703).

Goihenetxe (1966: 131, 276): *Çaro* (1119, 1243, 1253, 1332, 1334, 1335, 1351, 1358, 1372, 1390, 1394, 1396, 1397, 1400), *Caro* (1189, 1334, 1353, 1378, 1388), *Zaro* (1189), *Saro* (1251, 1334), *Açaro* (1293-1294), *Çarro* (1328).

Carrasco (1973): *Çaro* (1366, 673, 678 eta 681. orr.). Eiheralarren *Anto Çaro* ageri da urte berean (ibid., 677. orr.).

Ostolatza (1978): *Zaro* (1208, 33, 119. orr.), *Arnaldus de Çaro, dominus de Çaro Jaureguia* (1243, 119, 200. orr.), *ecclesiam beati Martini de Çaro* (1251, 139, 217. orr.), *ecclesiam Sancti Martini de Caro* (1253, 151, 227. orr.), *ad ecclesias (...) de Sancto Michaele Veteri, et Sancti Martini de Çaro* (1285, 297, 381. orr.).

Zierbide & Santano (1990): *Caro* (1365, 45, 78. orr.).

Orpustan (1990: 125): *çaro* (1292, 1350, 1366).

Zierbide (1993): *Çaro* (1410-1412, 107. orr.).

Euskal Testuak:

- "**Zaro** Ithurbideko seme eta Hazparneko jaun Erretor horrek izena zuen Martin Etcheberry. Frantziako erreboluzioe edo nahasmendu handiaren demboran ez zen Espainiarat agertu beizik; bere sor-herrian, **Zaron**, iragan zituen egun lotsagarri hek", Arbelbide (1890: 264).

- "Ez daiteke erran lau aphez khartsu horiek zer ongia egin zuten **Zaroko** herri ttikiari", Arbelbide (1890: 264).

- "Eyheralarre-**Zaron** sortua zen", Hiriart-Urruti (1971: 149. *Eskualduna*, 1905).

- "Pello, **Zaroko** zapataina, bazoan Donianeko goiz-mezarat, bere boneta begietaraino sartua, zapatez mukurru alphotzak", Barbier (1987: 75).

- "Aldi hontan ez ote zen lakartarraren adin hobea **zaroarraren** jakitateari nausituko", Herria (1989, EEBS).

- "Baina 1200 urtekoztz jadanik, **Zaroko** S. Bixintxo eta S. Martinen parropiak Orriak bere eskuko zituen", Aintziburu & Etxarren (2002: 215).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170), **Azkuek** (1906: XXIX), **Lhandek** (1926: 1074), **Dassancek** (1966: 162), **Goihenetxek** (1966: 131) eta **Orpustanek** (1990: 125) *Zaro* dute. Herritarren izena *zarotarr* (**Lhande**), *zaroar* (**Dassance**), *Zarotarr* (**Orpustan**, “selon Lhande”) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Zaro* eta *zaroar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Zaro* eta *zaroar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

J. L. Lizundiak *zaroar* bildu zuen **E. Larrerengandik**; **E. Etxarrenek** *Záro*, *Záron*, *zaróarrà(k)* formak eman zizkigun.

Etimologia azalpenak:

E. Etxalarrek dio (1911-1925: 1081) *Zaro*-k toponimian ‘lur puska’ adiera duela, adibidez *Zarate*, *Zaragueta*, *Zarikieta* eta *Zaro*-n. **Mitxelena**k (AV, 607) Azkuek hiztegian biltzen duen *zar(h)io* ‘belagia, belatsorua’ bitzetik eratortzen du *Zaro*. **Orpustanen** iritzian, berriz, egungo *xara* ‘basotxo, sastraka’ izena dugu oinarritzat, Lapurdiko *Sara*-n bezala, eta *-o* atzizki toponimikoa. Alegia, **zara-o* dateke *Zaro*-ren iturburua, eta adiera ‘lien de taillis’ edo ‘basotxo, sastraka tokia’.

Oharrak:

Beste zenbait aldiz gertatzen den moduan Nafarroa Garaiko toponimia txikian ere ageri da izen hau, inoiz apelatiboa izan zelako seinale; guk Gautzan kausitu dugu, Estellerrian beraz, 1703. urtean:

“otra pieza...en el terno del dho lugar de Ganuza llamado Zaro” (Jaizko protokoloak, 155)

Oroin beharra da, gainera, Oibar haranean *Zare* herria dugula, erdaraz *Sada* deitzen dena. Nafarroa Garaian *Zaro* deitura Iruñean ageri da, gutxieneko kontuan.

2. BAIGORRI ETA ORTZAIZE ALDEA

Aldude / Les Aldudes

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 4): *Alduide* (1614).

Castro (1958): *los Alduides* (1413, XXX, 80, 41. or.).

Goihenetxe (1966: 181): *Alduyde*⁸ (1353, 1374, 1381, 1382, 1392).

Gartzia Larrageta (1976-77): *Alduyde* (117. agiria, 562. or., 1302).

Ostolatza (1978): *sobre la bustaliça que es clamada por nomne Bagaadar Varte, la qual se tiene con la carrera por qual ua homne de Erro a Alduide* (1243, 116, 197. or.), *Alduyde* (1284, 290, 371. or.), *les altres bustalizes que us aviem en Alduide en Erro d'Alduide* (1300, 343, 458. or.).

Orpustan (1990: 137): *montes de alduides* (1237), *alduyde* (1374, 1381, 1392), *alduide* (1614).

Arbizu (1992): *...et yermos de Alduide, y de Luzaide, clamado Valcarlos, et con los terminos de las tierras de Sisa, et de Oses, et de*

8. Guretako ez dago arrunt garbi *Aldude* den ala *Alduyde*, lehenu dela irudi badu ere. Gertatzen dena da hondarreko letra zirriborratua dagoela eta gainean *de* idatzi dutela (Goihenetxek berak, antza). Hondarraitzineko letra *y* dela ematen du, baina bukaerako zirriborrotik sobera hurbil dago gauzak garbi ikus eta erran ahal ditzagun.

Baztan (1400, 338. or.), *Les differends d'Aldudes, nostre betail d'Aldude, les monts d'Aldude* (1612, 256. or.), *pour raison des bois et montagnes d'Aldude* (1612, 263. or.).

Euskal Testuak:

- “Çu içan çara Echaus, mendi Pyrinioetan, **Alduideco** hegaletan, be-thiere centinela, eta beguiraille beçala, iratçarriric dagoen iauregui eta gaztelu handi, eder, noble hartaco seme”, Axular (Guero, 1643: 6)
- “Bidachunetic hasiz higan **Alduderat**, / Eta Arneguain gaindi ethor Heletarat”, Hiribarren (1853: 77)
- “Michel Dibildox, erretor egon denak **Alduden**, / Du egun gogotik hartzen Iriburu, dena den (...)”, Bécas (Lafitte & Barbier, 1967: 139).
- “Baigorric, **Aldudec**, Garacico herriec urrun dituzte burdin bideac”, Adéma (1877: 89).
- “Baigorriar, **Aldudar**, garaztar eta Zuberotar gutiz gehienec, heren oinez egin cituzten beren 60, 70, 80 kilometrac”, Adéma (1877: 89).
- “Pesta ederra, aurten, **Alduden**. Elektri-ka-argiak edertzen ere baitzuen (...)”, J. Etxepare (1988: 45).
- “**Alduden** abere merkatu puska bat egiten baita, guziz neguan, baluke bertzalde tresna harek zer egin”, J. Etxepare (1988: 66).
- “Bertze zerbeit, orai. Eskualdunak ez du **Aldudan** berri heltzale harturik nehor”, J. Etxepare (1988: 68).
- “Egun, betan, eskualde beretat, badoatzi **Aldudetik** hamar mutiko eta neskato bat”, J. Etxepare (1988: 70).
- “1856an, Napoleon hirugarrena zelarrik Frantziako buruzagi, etorri zen **Alduderat** haren ministroetarik bat”, J. Etxepare (1988: 7).
- “Elizondotik, Auritzerraino ohi den harat hunata urririk eginen dute, **Aldudan** gaindi, Baztaneko kabalek, bidean jaten gelditzea ez zeielarik bizkitartean sori”, J. Etxepare (1988: 71).
- “Bainan hortakotz nahi lituzke lehenik bildu zortzi edo bederatzi mila libera, Banka, **Alduda**, eta Urepel hiru herrien artean”, J. Etxepare (1988: 73-74).
- “Iturri maiteñoaren galtzea nahigabe zitaken **Aldudar** guzientzat”, J. Etxepare (1988: 81).
- “Goizeko bederatzietan, bleka partida esku huts; hiru **Aldudar** hiru Bankarren kontra”, J. Etxepare (1988: 109).

- "**Aldude** eta **Banka** (...) **Alduden** gizonik ez", Azkue (*Las mil y una...*, 5).
- "Alta, badakitenek diote bidia aise egin ditaikeela, Iruñetik **Aldudetako** mendi azpiraino, dena erreka sahetsetik goiti", Zubiri (1990: 398).
- "Gure alkatia (mera) Madrid-en arizan da lanian Ministroarekin nahiz Iruñetik **Alduderako** erregebidea egin dadien. Badakizie **Aldudeko** eskualdeak bere muga sartzen duela Iruñeko alderat eta arras hurbiltzen direla", Zubiri (1990: 407).
- "Eskualdun zonbeit plazer handirekin ikusi ditugu saristatutak, hala nola, Durquet bastidar liotinant apheza bigarren aldikotz eta harekin batean bertze bi eskualdun, bi sarjant, Erreka **Aldudakoa**, eta Gey Uztaritzekoa", Saint-Pierre (1998: 144).
- "Zaldubi zela -diote berriz- urez **Alduden** arrailtzen, / Han zituela koplak mendian aingirak bezala biltzen (...)", Otsobi (1992: 256).
- "Irakur hortako zer duen kantatzen Baigorri, **Aldude**, Urepele, Hazparne herrieri, bai-eta Nafarroa eta Gipuzkoari. Baina ezkila bakoitzak bere danga mota izaki, eta Xalbadorrena, egia errateko, berezia da, berak dioen bezala (...)", E. Larre, Xalbador (1976: 16).
- "Gure hauzoan bazen, orai hemen bizi ez bada ere, gizon bat **Aldude**'tik hunarat ezkontzaz jina", Xalbador (1976: 32).
- "Kantatu izan nuen ere **Aldude**'ko Harriet edo Premundo zenarekin", Xalbador (1976: 43).
- "**Aldudarri** ez omen zitzaioten ontsa iduritu gauza hori, eta urepel-dar gizon heiek, Meharoztegi'n barna Banka'rat, **aldudarrek** etzitzaten ikus zertan zabiltzan, joaiten omen ziren apezpikutegirat", Xalbador (1976: 89).
- "Lekornen iragan zituen lau urtbe eta Elosu mirikuak **Alduderat** joan-arazi zuen", Lafitte (1990: 276).
- "Nun nor zitakeen ez zuten aise xilatu; bainan, azkenean jakiten ez denik ez baita, aho-mihitan kurritu zuen **Aldudako** Jaun mirikuaren famak", Lafitte (1990: 277).
- "...ohartzen zenean eri bat diru-beharretan zela, bazakien nola alha, alegia deus-*ez*, osagarriarekin, haren moltsa! **Aldudan** bezala Kanbon ere hainitzek frogatu dute miriku gixako horren arrabots gabeko urri-kalmendua", Lafitte (1990: 284).
- "Ezagutzen ginuen elgar guti-aski **Aldudeko** Marcel Montlong (...), eta Kanboko enpresa-buru izanzen zen Aleman (...)", Larre (2001: 110).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 16) *Alduda* du, **Léclusek** (1826: 170), **Azkuék** (1905: XXIX; *Las mil y una...*, 39), **Lacombek** (1911-17), **Lhandek** (1926: XXXV, 31), **Dassancek** (1966: 162), **Goihenetzek** (1966: 181) eta **Orpustanek** (1990: 137) *Aldude*. Herritarren izena *aldudarr*, *aldudetarr*, *Aldudarr*, *Aldudetarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *aldudar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Aldude* eta *aldudar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Aldude* eta *aldudar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Aldudé, áldudar (**EHHA**), *Aldúde, áldudár* (**A. Kaminondo, P. Kaminondo**), (*etxé horí*) *oro hár Aldúden dá* (**E. Etxarren**), *Aldudé, áldudaRá, Áldudén* (**E. Larre**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 16) euskarazko *Alduda* izena *Altuda* 'gaina'-tik atera dela uste du, *Aldude* hagitz toki gora baita, autore honen irudiko; soinuez kestone, dio adibidez *Trinidadia* eta *Trinitatia* bi modutara erraten dela.

Gavelek azaltzen du (1938) J. Etxepare medikuak zenbaitetan *Alduda* aldaera erabili zuela, baina hau, **Lacombek** aitortu zionez, idazleak berak *aldudar(r)* herritarren izenetik abiatuta asmatu forma besterik ez zela. Erraten du espainoleko *Los Alduides* izenean oinarriturik –ez bide zen ohartu Axularrek *Alduideco* erabili zuela– *Alduide* forma zaharragoa atera daitekeela eta hemendik, mendebaldeko behe-nafarreran bokal arteko *b* erortzea ohiko gauza baita, *Aldubide* ondoriozta daitekeela etimotzat. Honetan, bestalde, bizkaierazko eta gipuzkerazko hizkera ugaritan gordetako *altu*-ren *aldu* aldaera eta *bide* ezaguna dituzkegu; alegia, 'chemin du haut' edo 'chemin de la hauteur' besterik ez dateke *Aldude*. Frantsesez eta espainolez erabiltzen diren pluraleko formak azaltzeko **Lacombek** proposamena onartzen du, hau da, herriak behiala gutxienez bi zati zituela dioena, Urepele berandu arte *Aldudeko* auzoa baizik ez baita izan.

Lacombek (1938) Gavelen lantxoak osatzeko egin gehigarri ttipian akort da honek proposatzen duen etimologiarekin eta oroitazten du 1610eko *Alduide* forma **Raymondek** aipatzen duela, **Yanguas y Mirandaren** *Antigüedades del reino de Navarra* lanetik hartuta. Urte gutxi batzuk

beranduago idatzi artikuluxkan (1942) Gavelen teoriarekiko adostasuna azaltzen du berriz eta gogorarazten *Alduda* aldaera J. Etxeparek *aldudar* herritarren izenetik ateratako forma asmatua baizik ez zela. Nolanahi ere, gehitzen dugu guk, J. Saint-Pierre "Anxuberro"-k eta Lafittek ere erabili dute aldaera hori.

Lemoinek (1977: 115-116), izen hau euskararen bitartez ezin azal daitekeenez gero, latineko *altitudinem* proposatzen du etimotzat. **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 9) mendi baten izenetik atera dela uste dute.

Orpustanek zehazten du (1990: 137-138) herri honen populatze iraunkorra XVII. mendekoa baizik ez dela eta lehenago mendiko belagi aldea adierazten zuela, Kintoa alegia. Honen iritzian erdarazko izenaren bukarako *-s* analogikoa edo komunztadurakoa da, *montes de alduides* sintagman. Jatorriari doakionez, *Luzaide*-ren ahaidea dela uste du eta hemen ere bigarren osagaia *bide* datekeela; lehen osagaiaren nondikakoa, ordea, ez da hain argia: *alde* *-alda-* elkarketan izan liteke, baina ez du *-a-* *-u-* aldaketaren zergatikoa garbi ikusten, ez eta balio semantikoa ere. Bukatzeko dio espainoleko *alto* mailegua egokiagoa izan daitekeela, Lemoinek proposatzen duen latineko *altitudinem* baino. **Mítxelenak** (AV, 34) **aldu*, *altu-z* dioena ere ikus daiteke.

Anhauze / Anhauz

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 6): *Anauz* (1513), *Hanauz* (1621), *Anhausse* (1686).

Raymond (1873): *Nodz*, *Onoz* (XI. m., 11. agiria. Autoreak «le lieu qui semble correspondre à ce nom est Anhauz» dio, eta, beraz, badirudi bien arteko lotura ez dela erabat segurua. Erdi Aroan eta egun *Anos* ebakitzen zela ere badio Raymondek), *Guilhem du Notz*, *Onodz*, *Onoz* (XI. m., 27. agiria).

Goihenetxe (1966: 181): *Notz* (1068-1072), *Nodz* (1105-1119), *Onoz* (1105-1119; 1068-1072), *Anhauz* (1332), *Anhaultz* (1332, 1372, 1381), *Anauç* (1353), *Hauze* (1353), *Hauze* (1354), *Anauz* (1354), *Hanch* (1359), *Anuauz*⁹ (1378, 1388), *Anhauz* (1405).

Carrasco (1973): *Anhaultz* (1366; 676. or.).

Lemoine (1977: 187): *Anauz* (1513), *Hanauz* (1621), *Anhausse* (1686).

Orpustan (1990: 129): *onodz* (1068-72), *nodz* (1105), *naoz* (1264), *hanauz* (1350), *anhaultz* (1366, 1413).

Arbizu (1992): *d'Inchauspe jurat de Lasse*, *Uhalde jurat d'Anhauz*. *Irongaray jurat d'Iruleguy* (1704, 295. or.).

Zierbide (1993): *Hanauz* (1350-1353, 19. or.), *Anhaultz* (1412-1413, 109. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Anhauz* (1416, 322, 148. or.).

Euskal Testuak:

- "Germietatik, Urdosetik, Haritzaldetik, Banka eta Aldudetik, **Anhauze**, Lasa eta Azkaratetik, gizon gazteak mairu dantzan heldu ziren, tanburin, xirola eta atabalak aintzinean", Duvoisin (1987: 78).
- "**Anhauz**tarrena da ederra (...) Ama Birjinaren letaniac errepicatzu heltzen ari ciren **Anhauceco** plazara", Adéma (1877: 90).
- "Gainerat-eta, horra **Anhauze** eta Irulegikoak, Menta, Irungaraia, Uhaldea haratxago eta Garazi guzia han beheiti...", Larre (2001: 89).
- "Darraidou haundiaren lagun pilotari ohia, **Anhauz**ko Albandoz jaun erretora (...)", Larre (2001: 255).

9. Ez dakigu ez ote den *Anhauz* irakurri behar, izena guk dugun fotokopian ez baita txoil garbi ageri.

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Anhauze* jasotzen du, **Hatanek** (1895: 16) *Anhauz* eta **Orpustanek** (1990: 129) *Anhause*. **Azkuek** (1905: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 44), **Caro Barojak - Hariztoik** (1945: 110), **Dassancek** (1966: 162), **Goihenetxek** (1966: 181) eta **Lemoinek** (1977: 187) *Anhauze* biltzen dute. Herritarren izena *anhauztarr*, *Anhauztarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *anhauztar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Anhauze* eta *anhauztar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Anhauze* eta *anhauztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Anáuze, anáuztaRà, Anáuzén (**E. Larre**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 16) *An-hauz* zatitzen du izena eta 'haran ebakia' dela gehitzen. Etimologia honen lagungarri, *Anhauze* errekatxo batek zeharretara erdibitzen duen ibar ttikia dela zehazten du. **Caro Barojak** (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Anhauze* biltzen du eta errateu hau latineko *-icus*-etik ateratako *iz* atzikia duten Hegoaldeko herri izenekin erlazonaturik dagocla. **Lemoinek** (1977: 187) *aintzi*, *aintzika*, *aintzira*, *aintzur* 'bourbier, marécage', hots, 'lohidia, urgunea, inta'-ren eratorrietan sartzen du.

Orpustaneudako (1990: 129-130) izen iluna da hau, baina hipotesi bat baino gehiago jaulki daitezkeela iruditzen zaio. Inguruetako zenbait mendi eta etxe izendatzen dituen (*hauz* erro toponimikoarekin lot daiteke (*Hauza*, *Etxauz*...)); lehen osagaia, gainera, Amikuzeko eta Zuberoko *hano* Erdi Aroko etxe izenarekin erlazioa daiteke, menturaz latineko *fanu(m)* 'tenplua'-tik datorkeenarekin. Bestalde, atzikia *-os* akitaniarra (*-oz* euskal-akitaniarra edo *-auz*) izan daiteke. Osotasunak, hortaz, 'tenpluaren gaina' edo 'tenpluaren lekua' balioa dukeela uste du. Aurreneko osagaia *ona* «elementu gaizki identifikatua» ere izan daiteke Ortzaietako irakaslearen irudiko *-etimologia* **ona-oz* 'muino tokia' litzateke orduan; *a-* asimilazioaren fruitu litzateke-, baina antzinako **a(h)un-autz* 'ahuntzen gaina' ere ezin dela baztertu erants-teu du. Bukatzeko erraten du izen hau Biarnoko *Anos*-ekin aldera daitekeela, baina fonetikak *aintzi* 'inta, urgunea' zeharo debekatzen duela.

Beranduagoko beste lan batean (1999: 58) ez du garbi ikusten toponimo honen bukaeran *-oz dagoen* *-gero itxi* eta *-uz bihurtu zatekeena* edo dokumentazioko *-oz-dun* aldaera diptongoa monoptongatzearen ondorio den. Orain gutxioko beste lan batean (2002f: 72) erraten du ia ezinezkoa dela zenbait toponimo (*Okoz*, *Otikoren*, *Germieta*, *Anhauz*) aztertzea, akitaniar edo euskal itxura izanagatik ere.

Azalpeu ugaritasuna ikusirik pentsa daitekeenez, topouimoaren nondikakoa ez dago garbi; gu segurik ez gaitu hipotesi bakar batek ere asebetetzen eta ez gara gai bestelakorik eskaintzeko. Zernahi gisaz, erran dezakegu irudiz sobera fidagarriak ez diren lehen lekukoak alde bat utzirik *Anhau(t)z* dela XIV. mendearen lehen erditik sinkatu den aldacra, egungo *Anhauze*-en oinarrian dagoena.

Arrosa / Saint-Martin-d'Arrossa

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 150): *Sanctus Martinus d'Ouses* (1302), *Saint-martin de Osses* (1529), *Grand Pont* (1783).

Lemoine (1977: 264): *S. Martinus d'Ouses* (1302), *Saint Martin de Osses* (1529).

Orpustan (1990: 104): *erlausse* (1249), *de rause* (1249), *s. martinus dous-es* (1302), *herlaussa* (1347), *arlausse* (1347), *erlausse* (1366, 1413).

Orpustan (2002c: 94): *Rosa* (1632).

Zierbide & Santano (1995): *Joan d'Arrose*, *Johan d'Arrosa* (1406, 354, 208. or.).

Euskal Testuak:

- "Bizi gireno, agian, nahiko dugun aldi bakotx edo berdin uste gabetarik erakutsiko dauzkigu, harek, **Arrosako** ibarra bere bizitegi apainekin, **Arrosako** mendia, aztaparkatzen zaizkon laborari-etxe xuriekin, **Arrosako** eliza (...)", J. Etxepare (1987: 42).
- "Nahi dut **Arrosan**, urak derabiltzan mekanika batzuetan gaztenakia porroskaturik tinkatuz, egin dezaten acide tannique deitzen den jusetik behar dena", J. Etxepare (1988: 32).
- "Hogoi-ta-bian bazen hotz bat, saminenetarik. Termometrak markatzen zuen, gauaz, -8º. Luhosoko erreka, **Arrosako** harana eta Doniane-Garazikoa baitira gure eskualdetan hotzenak, baditake han airea oraino meheago zen, bipilago", J. Etxepare (1996: 45).
- "Pazko astelehenean besta bat gaitza baginuen **Arrosako** herri pollitean, tobera-mustra bati esker", J. Etxepare (1996: 54).
- "Bidarrai, Ortzaize, **Arrosa**, / Nora nahi jo dezan, lotsa, / Ezin ez pausa, / Ikaran, daldaran kokotsa", Otsobi (1992: 102).
- "Galtzak eskuetarik joan zaizkit treinean eta Piarreño **Arrosako**aren ganat noa, bere galtza pare bat prestuz emanen dautalakoan...", Barbier (1987: 96).
- "**Arrosako** garatik Donapaleukorat egun guzietz ibiliz, Iholditik Armendaritzeko itzulia behar zuen egin", Karrika (1990: 105).
- "Auzo herrietan, hurbil hurbilenak aipatuz, banuke ere nik **Arrosa**", Larre (2001: 90).

– “*Horra zer eginen dukan, ni berme; hartu ene bizikleta gibelego hortatik, eta kurri Arrosarat hartan, eztei-bazkarirat, gu bazkaiten sartzearekin*”, Larre (2001: 91).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170), **Azkuék** (1905: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 76) eta **Dassancek** (1966: 163) *Arrosa* dute, eta **Orpustanek** (1990: 104, 1999: 46) *Arrossa*, *Arrosa*. Herritarren izena *arrostartar*, *Arrostartar* (**Lhande**, **Orpustan**), *arrosatar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 103) *Arrosa* eta *arrosatar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Arrosa* eta *arrosatar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Árrosá, *Árrosán*, *árrosatarrá* (**E. Etxarren**), *Arrósa* (**A. Kaminondo**, **P. Kamino**), *ARósa*, *aRósataRá*, *ARòsán* (**E. Larre**).

Etimologia azalpenak:

Mitxelenak (AV, 93) *Arrosa* eta *Arrossagaray* deiturak *arrosa* lore ize-netik eratoritzen ditu; **Lemoinek** (1977: 188) *arotz*-ekin lotzen du izen hau, eta burdin meatzeekin.

Orpustanek (1990: 104-105) egungo horria XX. mendearen hastapenean baizik ez zela eratu erraten du. Autore honen arabera, toponimoa patroiarren izenari Eihartz auzoko bi etxerenak –*Erlausa* edo *Arlausa*; *Arrossa* eta *Arrossagarai* egun– itxekitzetik atera da. Geroko bilakaera fonetikoa *Ortzaize*-renaren parekoa da: hasierako bokala *a*- bihurtu da (nahiz hokal irekia etimologikoa ere izan daitekeen), *-rl-* berriz *-rr-* bilakatu da eta *-au-* diptongoak *-o-* eman du. Ikertzaile honen irudiko, *harri*-ren aspaldiko elkartu baten aitzinean gaudeke hemen, izan dadin hau *harlauza*, izan dadin lapurterazko *erlax* ‘horma’, ‘lauza’. *Erle*-ren eratorria ere izan liteke Orpustanen arabera, baina hau egiantz gutxiagokoa iruditzen zaio. Autore berak, heranduagoko beste bi lanetan (2002: 9, 2002b: 39), *Arrossa*, *Arrosa* izena *Arlausa* edo (*H*)*erlaus*a-ren bilakaeraren emaitza dela dio. Ikus, orobat, autore honen 1999ko lana (46 eta 53. orr.).

Laborde-Salak (2002: 20) erraten du bertako errekek agerian uzten dituen harlauzek (*arlauza* aipatzen du) Eihartzeko kartierreko Erdi Aroko bi etxeri izena eman dietela, eta azkenean *arlauza* izen horrek *Arrossa* eman duela.

Azkarate / Ascarat

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 15): *Azcarat* (1513), *Azkarate* (1621), *Sanctus Julianus d'Ascarat* (1763).

Goihenetxe (1966: 182): *Escarat* (1256, 1332, 1368), *Ascarat* (1274), *Azcarat* (1358, 1372, 1378, 1388), *Azquarat* (1372), *Oscarate* (1400), *Ezcarat* (1403).

Carrasco (1973): *Aizcarat* (676; 1366). Iholdin *Aizcarat* izeneko etxea zegoen urte berean (681).

Lemoine (1977: 195): *Azcarat* (1513), *Azkarate* (1621), *Ascarat* (1763).

Ostolatza (1978): *Johanne d'Açcarat* (1274, 265, 347. or.), *frayre Arnalt Gassia d'Azcarat* (1284, 290, 370. or.).

Zierbide & Santano (1990, 84, 109. or.): *Azcarat* (1378).

Orpustan (1990: 161): *azcarat* (1350), *atzcarat* (1366), *asquarat* (1413).

Arbizu (1992): *Aguerre d'Iruleguy*, *Goyheneche d'Anhauz*, *Borda d'Ascarat*, *Chancho de Lasse et Arreguy de Sorhouette* (1716, 297. or.).

Zierbide (1993): *Azcarat* (1350-1353, 21. or.), *Azquarat* (1412-1413, 108. or.).

Euskal Testuak:

- “*Germietatik, Urdosetik, Haritzaldetik, Banka eta Aldudetik, Anhauze, Lasa eta Azkaratetik, gizon gazteak mairu dantzari heldu ziren, tanburin, xirola eta atabalak aintzinean*”, Duvoisin (1987: 78).
- “*...eta jarri zen bertze Garaztar aphez batekin; eta hau zen jaun Eyharabide, Azkaraten sorthua eta orduan Donaistiko erretor eta Akizeko Bikario-Jeneral zena*”, Arbelbide (1890: 264).
- “*Han baziren orduan hospasei aphez eskualdun, hatzu bertzeak baino maitagarriago: etzakiten zer egin guretzat. Bat Azkaraten erretor da egungo egunean: bertze bat irakasle edo holako zerbeit Miarritzen*”, Elizalde (1995 [1914-18]: 31).
- “*Errekatik landa, Azkarateko herriaren hegitik aitzinat goazelarik (...)*”, J. Etxepare (1987: 42).
- “*Alduden zen, igandean, Louis Etcheverry, Larratepe Azkaratekoarekin, Heguy Ortzaizekoarekin*”, J. Etxepare (1988: 102).

- .. “*Nun ari haiz lanean? / -To, mementoan **Azkaraten***”, Etxebarne (1989: 90).
- “*Agian ba! **Azkaraten**, 1955eko Urtatsez P Arradoy*”, P. Narbaitz (1999: 14).
- “*Migel Ondarla Axinean bizi izan da ezkontuta, Francisco **Azkarate** Ferranyoinean, Ana Josefa etxen ezkondu zen behin Eiheralareko Arrosagaray batehin, gero Gortari batekin*”, Lafitte (1990: 187).
- “*Girixtinoek ere ara berriak ari dituzte hartzean: laboraria Ezterentzubitik Donibanera bere bankoarendako jinen den bezala, edo **Azkarate**koa Izpurako Laborarien Etzerat bere onkailu edo tresnen erosteko (...)*”, Larre (2001: 320).
- “*Hemen zuxun l'abbé Narbaitz, harek in dixi, kasik oro eskuaraz. Anitz jende bazuxun; atsaldian juan behar homen zixin **Azkaate**at bere ilobain bataiatzea*”, Luzaideko gutun argitaragabeak.
- “*Batzu xuxen, besteatzu makur, ez diakixut konpreintuko duxun eta ohono Claudine Eguerriko **Azkaate**at juan eta ez baita jin, ez dela untsa*”, Luzaideko gutun argitaragabeak.

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 16) *Askate* dakar, **Azku**ek (1905: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 94), **Dassancek** (1966: 162), **Goihenetzek** (1966: 182) eta **Orpustanek** (1990: 128) *Azkarate*, eta **Lemoinek** (1977: 195) *Askarate*. Herritarren izena *azkaratarr* (**Lhande**), *azkaratiar* (**Dassance**), *Azkaratiarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Azkarate* eta *azkaratiar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Azkarate* eta *azkaratear* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukatasunak:

Azkáate (A. Kaminondo, P. Kamino), *Azkáate*, *azkaátjaRá*, *Azkaátén* (E. Larre).

Etimologia azalpenak:

Luchairek (1873: 183) Nafarroako *Azcarate* *Az-gara-te* zatitzen du eta errotzat *gar* duen *garai* ‘haut, supérieur’ hitzaren eratorrietan sartzen du,

Garai, *Garayoa* eta besterekin batean. **Hatanek** (1895: 16) 'arro tokia' dela dio eta karrikaren itxura arro baten antzekoa dela; gehitzen du beste batzuen arabera *As-garate* 'gainaren oina' dela. **Gavelek** (1931: 42) *aitz*-etik atera den *az* 'harría, haitza' eta *garate*-z osaturik dagoela uste du; bigarrenaren lehen ahostuna ahoskabetu egin da, euskaraz ohikoa den bezala, -z-ren ondoan. Toponimoaren adiera "lieu de la roche haute" da autore honen arabera.

Mitxelena (AV, 21, 107, 257) *haitz* dakusa lehen osagarritzat eta *garate* bigarrentzat; hondarreko honen barrenean, bestalde, *gara* 'gaina' eta *ate* 'atea, zintzurra, potxea' daude errenteriarren iritzian. Nolanahi ere, lan berean (AV, 256) *gara*-ren izaera zalantzan jartzen du:

"En cuanto a *gara* 'elevación, altura', sigue siendo para mí un enigma lexicográfico: lo único de cuya realidad no se puede dudar es *garai*"¹⁰

Lemoinek (1977: 195) beste hanka-sartze handi bat egiten du oraingoan, *ezkaratz* baitakusa bai Baxenabarreko *Ascarat*-en eta bai Nafarroa Garaiko *Azcarate*-n ere. **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 31) lehen osagaia euskarako *as*, *aitz* 'pointe rocheuse' dela uste dute, eta bigarrena latineko *quadratus* 'karratua'-tik atera dela. **Orpustanek** (1990: 128-129) bi bide dakuski izen honen nondikakoa azaltzeko: *azkar* fitonimoa + *ate* lehenik, hau da, 'lieu d'érables' edo 'porte des érables', edo bestela, egiantz handiagokoa iruditzen zaiona, **aitz-garate*. Beranduagoko beste lan batean (2002f: 71-72) *Azcarate* euskal toponimian ohikoa dela dio eta honen adiera 'hauteur rocheuse' datekeela.

10. Ikus Gavel (1929: 194).

Baigorri / Saint-Etienne-de-Baigorri

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Oihenart (1992: 765 [1656: 248]): “Sed mihi otioſum videtur in *Bigorria* ſitu quaerendo longius errare & vagari, cum in propinquo ſit quo Roderico & aliis, qui Eneconis gētem hinc arceſſunt, ſatisfacere poſimus. Eſt in Vaſconiae Aquitanicae regione montana, quae Nauarræ citerioris fines attingit (quamque inhabitant *Vaſcones* ij qui vulgò *Vaſci* dicuntur) in eo nimirum tractu, qui eò quod Nauarræ Regibus paruierit *inferioris* ſeu *ulterioris Nauarræ* adhuc nomen ſeruat, pagus *Baigorria* dictus, decem tantum leucis Vaſconicis Pompelonē diſtans: Hunc priſcis temporibus *Biguriæ* etiam nomine nuncupatum fuiſſe, || pluribus veteribus monumentis patet, quæ in Cartulario Eccleſie primariae Bajonenſis & alibi habentur, pro qua voce aliquando etiam *Beygur*, ſæpius *Baigoer* ſcriptum reperitur”.

Raymond (1863: 19, 148): *Vallis quæ dicitur Bigur* (c. 980), *Beygur* (1168), *Baigur* (1186), *Baigueir* (1302), *Baiguer*, *Bayguer* (1328, 1402), *Sanctus-Stephanus de Bayguerr* (1335), *Beygorri* (1397), *Sierra de Vaygurra* (1446), *Sant-Esteban* (1513).

Raymond (1873): *Beguer* (1120, 7. agiria), *Beygur*, *Beigur* (1167, 180. agiria).

Jaurgain (1912: 167): *Baigorri* (1057), *Bigur* (c. 1106), *Beguer* (c. 1120), *Beigur* (1167), *Begur* (1170), *Baigur* (1194, 1249), *Baiguerr* (1276), *Vayguerr*, *Bayguerr*, *Bayguer* (XV. m.).

Goihenetxe (1966: 175-177, 180): *Bigur* (980, 1106), *Beguer* (1120), *Beigur*, *Beygur* (1167, 1168), *Baigur*, *Baygur*, *Baygurr* (1194, 1249, 1332, 1335, 1356), *Begur* (1249), *Baiguerr*, *Bayguer*, *Vayguerr*, *Bayguerr* (1253, 1327, 1328, 1329, 1350, 1353, 1368, 1378, 1387, 1388, 1393, 1398), *Baygor*, *Baygorr* (1258, 1354, 1358, 1378, 1385), *Baygnerr* (sic)¹¹ (1293, 1294, 1327, 1328, 1357, 1328, 1329, 1335, 1350, 1353, 1354, 1368, 1388, 1393), *Baygorry*, *Baygorri*, *Vaygorri* (1249, 1358, 1376, 1378, 1381, 1385, 1387), *Bayguorr* (1368), *Beygorri* (1397), *Baigori* (1401), *Vaygurra* (1446).

Carrasco (1973): *Baiguer*, *Bayguerr* (1366, 676 eta 681. or.), *Baygorritegui* (Eihalarreko etxea, 1366, 677. or.).

Gartzia Larrageta (1976-77): *Baygorri vizcaya* (117. agiria, 562. or., 1302), *Aznar Larrea de Bayguerr*, *Aznar Andia de Bayguerr* (121. agiria, 571. or., 1302), *Stancho Baygorri*, *escudes d'Ureta* (156. agiria, 630. or., 1313).

11. Hain segur ere *Bayguerr*-en tokian dagoko *Baygnerr* bitxi hau.

Lemoine (1977: 198 eta 262): *Baigur* (X. m.), *Bayguerr* (1335).

Ostolatza (1978): *in medietate ecclesiarum Sancti Stephani de Baigorrie* (1236, 90, 173. or.), *en las iglesias de Sant Estuean de Bayguer e de Sant Pedro e de Sant Eulalia de Arberoa* (1264, 195, 262. or.), *Sancio de Hequieta presbitero ecclesie Sancti Stephani de Bayguerr* (1274, 265, 346. or.).

Zierbide & Santano (1990): *Baygur* (1356, 9, 52. or.), *Bayguer* (1371, 62, 91. or.; 1378, 100, 118. or.; 1384, 193, 181. or.; 1384, 195, 183. or.), *Bayguerr* (1371, 63, 92. or.).

Orpustan (1990: 127): *uaigorri* (1072), *bigur* (1106), *beguer* (1120), *beigur*, *beygur* (1167, 1249), *baigur* (1167, 1249), *haigor* (1258, 1309), *beyguerr* (1264), *biguer* (1292), *bayguerr* (1366), *baygorriteguy* (1366), *bayguherr* (XIV. m.).

Arbizu (1992): *la bustalia (sic) clamada Yaima, que es de la parte de Coarreta et Hunciguiharana de el agua enta Baiguer Bizcaia en el qual Baiguer Bizcaia son nuestras bustalizas* (1400, 338. or.).

Zierbide (1993): *Sancho Baygorri* (Ahaizeko artzaina, 1350-1353, 7. or.), *Bayguer* (1350-1353, 13. or.), *Baygorre* (1412-1413, 108. or.).

Larrañaga & Tapia (1993): *el balle que se diçe Baigur* (1194, 2, 3. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Bayguer* (1388, 224, 47; 1393, 244, 67. or.; 1397, 289, 112. or.; 1454, 349, 179. or.), *Baygor*, *Baigorr* (1414, 317, 137. or.; 1423, 332, 162. or.), *Baygore* (1434, 342, 174. or.).

Martínez (1995: 98): *Johan d'Echauz, vizconte de Bayguer* (1423).

Zabaltza (1995): *vicecomitatus de Baygueirs, vicecomitatus de Baiguerr* (1294, 193, 177 eta 178. or.).

Barragán (1997): *la villa nuestra de Baygorre, la dicha nuestra villa de Baygorri* (1331, 67, 105. or.).

Zabaltza (1997, 157, 238. or.): *Et los de la tierra de Luyguerr* (1298).

Ruiz (1997): *don Semen Garcia, vizconte de Bayguerr que fue* (1350, 6, 8. or.), *filz de l'abbat de Baygorri* (1355, 124, 156. or.).

Carrasco (1999-1): *En Bayguer, d'agreros en Yrurlegui, 2 quartals* (1259, 102. or.), *En Bayguerr et en Sant Esteuen* (1266, 353. or.).

Euskal Testuak:

- "**Baigorrico** Biscondea, Beldurrac diacarquec ahalguea", (Oihenart, 1935 [1657]: 65).

- "**Baigorri**n baxera lurren, nic haraguei nüeneam vrres", (Oihenart, 1935 [1657]: 66).

- "*Hedaduraz Baigorri herri handiena; / Sudun arnoz Larzabal nashi yoriena*", Hiribarren (1853: 74).
- "*Hoic bezala Baigorri Echauz cen sorthua*", Hiribarren (1853: 76).
- "*Beihalako egunetan, behin bulez, Baigorriko jauregi zaharrean ziren arto-xuritzeak (...). Halako solasak Baigorriko herjaunaren gogoko ziren (...)*", Duvoisin (1987: 17).
- "*Jaunak eta andreak, zuetarik norbait lehiatsu balitz jakitera noiz gertatuak diren sendagaila horiek, lehenik berak erran beza zenbat ur ehun urtez goaten den Baigorriko zubiaren azpitik, zenbat hosto duen oihanak, zenbat xori dabilan airetan*", Duvoisin (1987: 34).
- "*Maréchal Harispe Baigorri-ar-da hastapenez*", Salaberri Ibarrolakoa (1856: 184).
- "*Haux-kor dira hanitz lekhotako burdinak bena Baigorriko-a ezda hala*", Salaberri Ibarrolakoa (1856: 192).
- "*Ohoreetan urriko holabethe-an, 1856-an, khaussitzen zelarik Morde d'Abbadia-ren etchi-an, Echauz-ko yaurei-an, Baigorri, Bassa-Nabarren, estudiatzen ziela heskuara, Iberanoen mintzaye zaharra, begiratia Pyreneetako mendietan*", Salaberri Ibarrolakoa (1856: 203).
- "*Eskual-herriko seme hobeenetarik bat ehortzi da Baigorri*", Hiriart-Urruti (1971: 178. *Eskualduna*, 1910).
- "*Lekornen maipulis beltza derabilate; poneta, lorez landaturik. Baigorri aldiz maipulis gorria (...)*", J. Etxepare (1988: 62).
- "*Gogoan erabilia du jaun horrek karrosa baten astean bietan ezartzea Aldudetik Baigorriat; bereziki astelehen guziez. Donianeko merkatuaren gatik*", J. Etxepare (1988: 73).
- "*Hitz batez, edozoin eskualdetarat itzul giten, ez zauku iduri otobusak ezarririk dauzkala erran dugun bilkuak, hainitz eta hainitz hilabetez, Aldudaren eta Baigorriren artean*", J. Etxepare (1988: 75).
- "*...badakigu ahaide-adixkide guziek Piarres erraiten ziotela bai Jatsun, bai Baigorri, Izengoitiz haatik Bettiri*", Lafitte & Barbier (1967: 14).
- "*Lau herriko aritzea, lau arrotzi pilotan; / Han ginela aurkhituren Baigorriko bestetan*", Ibarriart (Lafitte & Barbier, 1967: 77).
- "*Ordenatu'ta laster fama zen ethorri, / Enetzat hautatua zutela Baigorri (...)*", Bécas (Lafitte & Barbier, 1967: 109).

- "**Baigorri**, utz nezazu zutaz mintzatzera, / oraiko gudua da hortik atera; / moldatu baituzue Oilandoi'n kapera, / suiet berri bat da jin hortik gutartera", Xalbador (1976: 91).
- "Aldude, Urepele, Banka ta **Baigorri**, / zuentzat ditut egin zonbait per-tsu berri", Xalbador (1976: 94).
- "Duela mende laurden bat, Martxoko egun batez, / jauna, egin izan zira **baigorriarren apez**", Xalbador (1976: 157).
- "Agerrean, Aita, Pierre Babaquy zuen, etxekoa. Ama, aldiz, Graziana Arrambide, **Baigorriarra**", Lafitte (1990: 245).
- "Beti erraiten ginuen: '**Baigorriat**', edo '**Baigorriin izana**', '**Baigorriin erosia**', beste herri bat, kasik auzokoa bezala, ginaukan **Baigorri**", Larre (2001: 17).
- "...gure ait'amek elgar konprenitzen zuten ederki **baigorriar** apez eta erakasleekin, gutiago aldiz baiones andere gazte diplomatu frantxi-mentarekin", Larre (2001: 24).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 15) *Baigorry* dakar eta Azkuek (1905: XXIX) *Baigorri*. Lacombe (1911-17: 8, 17, 27, 29) *Baigorri*, *Baigorriko borda*, *Baigorriin gerthatia*, *Baigorriat juain niz*, *Ernaud notaria Baigorriin egoiten dena jasozten ditu*. Lhandek (1926: XXXVI, 101) *Baigorri* biltzen du herriaren izentzat eta *baigorriarr* 'Baigorriko biztanle'-tzat; beste lan batetik hartutako erranairu hau ere aipatzen du: *Baigorriarrak*, *kaputxa txarr* 'les gens de Baigorry: mauvais capuchons'. Dassancek (1966: 162) *Baigorri* eta *baigo-rriar* ditu, Goihenetxek (1966: 175) *Baigorri* eta Orpustanek (1990: 127) *Baigorri*, *Baigorriarr*.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak 1979an (103) *Baigorri* eta *baigorriar* proposatu zituen.

Akademiuren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Baigorri* eta *baigorriar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotaaunak:

BàigoRí, BaigóRjaRá, BàigoRín, BaigóRirà jwaiten... BaigóRitík hunat éldu nintzálaik, BaigóRriko áuzwak, Beléxi BaigóRikoà, óri BaigóRin dá (E. Larre), *Baigorri*, *baigorriar* (EHHA), *Bàigorri*,

*Bàigorri*n, *hàigorri*járra (E. **Etxarren**), *Baigórri*, *hàigorri*járra (A. **Kaminondo**, P. **Kamino**).

Etimologia azalpenak:

Luchairek (1873: 94) Akitaniako *Baicorixus*, *Buaicorrix* jainko izenean *gorri* izenondoa dagoela uste du; teonimoa *Baigorri* toponimoaren "jainko-tzearen" ondorio izan liteke. Aitzinago (143. or.) **Bonaparteren** arabera *Baigorri* ibar izena *ibai-gorri* "rivière rouge" dela erraten du, nahiz berak beste lan batean *Bigur* (*Beygur*, *Bayguerr*) forma zaharra ikusirik *bi-gur* 'bi gain' (cf. *Viguria*, *Bigorre*) proposatu zuen.

Hurrengo urtean argitaratu emandako beste lan batean (1874b: 99; lehenago idatzia ote?), ordea, bukaerako *-gorri* hori 'gorria' dela dioen hipotesia ezesten du, hastapeneko *bai-* azaldu gabe gelditzen baita; izan ere, ordu arte aipatutako erro edo oinarri guztiak desegokiak dira, adieraz eta formaz. Luchaireren iritzian 980. urtean dokumentatzen den *Bigur* aldaeran bilatu behar da *Baigorri*-ren jatorria; *Bigur* honek heste ibar baten izena dakar gogora, *Bigorre*-rena hain zuzen ere, zein Humboldten arabera *bi* + *gur* "deux hauteurs" baitateke. Alemaniarraren iritzia ez ezik Luchairerena ere bada hau, "cette interprétation, appliquée au nom d'une vallée, nous paraît, quant au sens, très-admissible et très-vraisemblable" gehitzen baitu.

Bigur aipatu *Bigorre*-ren eta Nafarroako *Viguria*-ren etorki berekoa da Luchaireren arabera¹², hots, eta erran bezala, *bi* 'bi' eta *gur* genituzke hemeu, hau *go* errokoa delarik, *gorena* "le plus haut"-en ahaidea edo. Proposatzen duen bilakaera *Bigur* > *Beygur* (*lizar* / *leizar* bezala) > *Baigur* edo *Baygur* (*yeiki* / *yaiiki* bezala) da. Bukaerako *gorri*, erran *gisan*, *gur*, *goren* aldaera da eta 'gaina' adiera du. Dokumentazioko *Bayguer* aldakia gaztelaniaren edo probentzeraren eraginari, diptongatzeari, zor zaiola erraten du; *Baigorri* mendi izena ere aipatzen du.

Nolanabi ere, **Humboldt**ek dioena (1959 [1821]: 82, 109) da *Bigerra*, *Bigorre* 'gaineko eskualdea' dela eta *Bigorra*-ren osagaiak *bi* zenbakia eta *gora* 'gaina' direla. Ez du, ordea, dakigunez, *Baigorri* aipatzen, baina bai *Baetis* ibai izena, zein autore honen arabera *ibaia*-tik atera baitzikeen, hasierako *i-* galdu ondoan. Galtzapen hau bera dago *Iturissa*, *Iturisa* / *Turissa* klasikoan eta bestetan (ibid., 48). **Hatanek** (1895: 15) *Ibai-gorri* 'fleuve rouge' ulertzen du; honen arabera *Baigorri*ko ibaiaren ubidea harri gorritz egina da eta bertatik burdin mea ateratzen dnte. Lehen bokala *ego-tseme* > *gotseme* 'semebitxia'-k bezala galdu du.

12. Herri izen hau *Beguria*, *Beoguria* zen XIII. mendean (NHI, 164).

Schuchardtek (1908: 3-4, 1909: 240) *Bai-gorri* izen iberikoan 'ibai gorria' dakusa eta 'roter Fluß', 'Rotbach' itzultzen. Hau austriarraren arabera ados dago euskararekin, hizkuntza honetan *iri berri-a* 'die neue Stadt', *ibai gorri-a* 'der rote Fluss' erabiltzen baitira. Herri izena, bestalde, Akitaniako *Baigorixo*, *Bvaigorixe*, *Baicorisco*, *Baico(r)rixo* -'dem baigorrischen (Gott)', 'baigorriar(jainko)ari' itzultzen du- teonimoarekin loturik dago, nahiz "die Inschriften, welche den Dienst der Gottheit bedeuten, sind, wenn auch in Aquitanien, doch ziemlich weit von dem baskischen Baigorrytal gefunden worden".

Vinsonek dioenez (1909: 351) *Baigorri* herri izena *Bigur* dokumentatzen da XII. mendean, eta, beraz, Bonapartek proposatzen zueu *Ibai-gorri* "rivière rouge" 'ibai gorria' adiera baztertzekoa da. **Jaurgainek**, aldiz, *Baigorri*-ren oinarrian *ibai gorri* dagoela uste du (1912: 166-167), *Baiona*-n *ibai ona* eta *Iruña*-n *iri ona* dagoen bezal-bezala. Autore honen irudiko *Baigorri*-ren izenondoa herriko errekak ohi duen kolorea deskribatzen du, zein Okoze, Etxauz, Ustelegi eta Bankako burdin mee'i zor baitzaie.

Vinsonek beste lan batean (1912: 408) Jaurgainen lanak iruzkintzean *Baigorri ibai-gorri* 'rivière rouge' delako ustea ez du guztiz arbuatzen, baina *Baiona* 'ibai ona' dela ez du onartzen. Honela dio: "Que *Baigorri* soit *ibai-gorri* 'rivière rouge', passe encore malgré la chute de l'i initial. Mais que *Bayona* soit *ibai-on-a* 'la bonne rivière' je le conteste très catégoriquement".

J. Etxepare (1980 [1910]: 146) idazleak aurreko gehienek ustea biltzen du *Baigorri* toponimoa *Ibaigorri*-tik heldu dela erratean. Honela dio hitzez bitz:

"Aipatu dut oixtitan Baigorri. Lehenago, herri hau deitzen zuten *Ibaigorri*, neguko uharretan horko ur handi edo ibaia Bankako lurra gorri ezartzeu zuelakotz, arabez (...).

Xahar eta gazte zenbeit aditzen ohi dira bizkitartean oraino Baigorriin, diotenak, ezpainak ontsa idekiz: *Ibaigorri*. Xuxen bezain pollita da.

Halaber da Baionaren izen egiazkoa: *Ibaiona*".

Menéndez Pidalak (1952 [1918]: 43 eta 1986 [1926]: 463) Nafarroa Garaiko *Baigorri*-z ari delarik erraten du diptongatzerik ez duela eta 'río rojo' dela. **Gavelek** (1920: 94-95, 1931: 39) *Baiona* izenaren etimologia aztertzean horren oinarrian *ibai* eta *ona* dituzkegula dio, eta *ibai*-ren forma zaharra *bai* zatekeela, **Schuchardtek** nahi zuen bezala (1912: 282)¹³ *i*-esahia galdu duen aurrizki zaharra izan baitaiteke. Hipotesi honen baiesgarri *Baigorri* 'ibai gorria' izena aipatzen du eta erraten Baigorriko ibaiaren

13. Ikus. berebat, Agud & Tovar (1992: 852).

urak kolore gorria hartzen duela euri franko egiten duenean. Beraz, izenak balio grafikoa luke. *Ibai*-ren hasierako *i*- horretan aurizki hila ikustearren kontra mintzo da, Gavelen iritzian, hitz hau aragoierazko *ibon* 'mendiko lakua'-rekin, euskarazko *ibai* 'ugaldea'-rekin, *ibar* eta *ibi* edo *ibide*-rekin erlazionatua egotea, baina hau halabeharreko kontu hutsa izan daiteke. Zernahi dela, hasmentako goiko bokal itxiaren galeraren aferu hau, gorago ikusi bezala, Humboldtengandik dator, gutxieneko kontuan.

Moralejok (1944: 64) Galiziako toponimia aztertzen ari delarik Estraboneu pasarte bat dakarkigu gogora, non Miñori *Minion* eta *Bainis* deitzen baitzaio. Azken honetaz kestione, Humboldten oinatzetan, *Bainis*-en lehen silabaren eta *Baitis* (*Betis*)-en aurrenekoaren batetortzea nabarmentzen du, bai eta ere euskarazko *ibai* izen arruntarekin eta *Baigorri* 'ibai gorria' "nafar toponimoarekin" duen antza; iberierazko *baika* 'vega, veiga'-rekin ere lotzeu du. **Iglesias**ek (1998: 2; 2000: 218-219), aitzineko ikertzaileari jarraikiz antza, Galiziako *O Miño*-ren izen zaharra *Bainis*, *Baenes* edo *Baites* zela dio, Antzinateko autoreetan oinarriturik, eta hau Guadalquivir-*eu Baitis* izen zaharrarekin alderatu behar dela. Hauek duten *bai*- 'ubidea' osagaia *Baigorri*-n eta *Baiona*-n dugun bera dateke, *ibai*-n duguna alegia, hasierako *i*- hori Schuchardtek nahi zuen bezala aurizkia izan baitaiteke.

Mitzelenaren arabera (AV, 289, 308) hidronimo honetan *ibai* eta *gorri* ditugu. Liburu berean (19. or.) Akitaniako *Baicorisco deo*, *Baigorixo* izena *Baigorri* toponimoaren biziki antzekoa dela erraten du eta bigarren osagaia itxuraz *gorri* dela. Garai bertuko beste lan batean (1954: 438), berriz, *Baigorri*-ren lehen osagaia aztertzeau "parece ser *ibai* 'río'" dio, erabateko segurtasunik gabe, beraz; oraingoan toponimo hau Akitaniako *Baigorixo*, *Baico(r)rixo* jainko izenaren berdina dela erraten du, ez bakarrik antzekoa. **Lafonek** (1956: 56) Akitaniako *Baicorrixo deo* eta *Baigorixo deo* idazkunak *Baigorri* euskal toponimoarekin lotzekoak direla uste du, baina *DEO BVAI-GORIXE* iuskripzioan *BVAI*- azaltzen zaila dela. Gehitzen du grabatzaileak beharbada ebakera espirantea adierazi nahi izan zuela, *deo*-ren hondarreko bokalaren eta *ai* diptongoaren artean.

Irigoinek (1974: 225) *Baigorri* Iparraldeko eta Hegoaldeko toponimoa erromatarren garaiko *Baicorrixo deo*, *Baigorixo deo*-rekin erkatzen du. Beranduagoko beste lan batean (1986: 183-185) *Bigorra* (*Vic-en-Bigorre* egun) eta *Baigorri* alderatzen ditu, eta lehenaren oinarritako **Bigorre(m)* zehar kasua proposatzeu (*Calagurre(m)* / *Calagorre(m)* > *Calagorra* > *Calahorra* bezala). Honen nominatiboa **Bigorris* zatekeela ontzat har daiteke, baina ez dakigu ongi nondik atera den *Baigorri*-rekin erkatzen duen **Bigorri* forma, alegia, ez dakigu zer kasuri dagokion. Nolanahi ere, *Baigorri* gorago aipatu den teonimoarekin lotua dagoela uste du bizkaitar ikertzaileak, alegia, izen bera dela, ez baita harritzekoa, gogoau hartzen

bada *Tutera* / *Tudela* toponimoa *Tutela* jainko izenetik atera dela. *Bigorra*-n *ai* > *i* gertatuko zen Irigoienen arabera, *nai*z > *niz*-en bezala, erraterako. Beranduagoko lan batean (1990: 64) aurreko artikuluetara igortzen du irakurlea eta azaltzen du *Baiona* izenean *bai* hidronimikoa ez dela ageri eta *Baigorri*-n ez dela argia.

Lemoinek (1977: 198) *ibai*, *hibai*, *hibi*, *ibaiondo* ('embouchure') izenen eratorrien artean kokatzen du *Baigorri* eta 'ibai gorri, rivière rouge' adiera ematen dio; gorritasuna Bankako burdin meatzeei zor zaie. Dena dela, *ibai* toponimian gutxitan baizik ez dela ageri dio eta *ibar*-en aldaera zaharra izan behar duela; *Baigura* mendi izenarekin ere lotzen du.

Coromines-Pascualek (1991 [1983], V, 754), espainoleko *vega* sarrera aztertzen ari dirclarik, *i*- "antzinako iberieran edo euskaran" maiz erortzen dela diote, *ibai*-ren eratorriak diren *Baetis*, *Baetulo* eta *Baigorri*-k erakusten dituzten moduan. **J. Gorrotxategik** (1984: 312-313) Luchaireren lanez geroztik Akitaniako *Baicofrrixo*, *Baigorixo*... izena *Baigorri* euskal ibararekin lotu izan dela erraten du, eta azken batean osagaiak *ibai* 'ugaldea' eta *gorri* dirola.

Orpustanek (1990: 127-128) *Baigorri* forma etimologikoa dela uste du eta ez dela behin ere **ibaigorri*-rik izan, Pirinioez iparraldean *bai* osagaia agertzen baita (cf. *Baiona*), berriagoa den *ibai*-ren zentzu hidronomiko bera-ekin. Beranduagoko beste lan batean (2002e: 26) egungo *ibai* 'cours d'eau' Erdi Aroko aipuetan (ia) ez dela agertzen erraten du, baina *bai* haren arbasoa den *bai*, besteak beste *Baiona*-n eta *Baigorri*-n dagoena. *Baicofrrix* hitza gutienez hirutan agertzen dela dio, bosgarren mendearen aurreko Comminges goieneko idazkUNETAN. Ortzaiztarraren irudiz leku izena zen orduko, nahiz tokiko "jainkoari" ematen zitzaion. Liburu berreko beste atal batean (2002f: 71) *Baigorri* 'rivière rouge' itzultzen du eta gaineratzen toponimoak lur gorrien kolorea izendatzen duela.

Banka / Banca

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Orpustan (1990: 137): *Banca* (1832).

Euskal Testuak:

- "Nola menditik denboraz jautsi baitzen Arkulo, / Gasnaz kargaturik zakuu **Bankatik** heldu Duclos (...)", Bécas (Lafitte & Barbier, 1967: 145).
- "Bainan hortakotz nahi lituzke lehenik bildu zortzi edo bederatzita mila libera, **Banka**, Alduda, eta Urepel hiru herrien artean", J. Etxepare (1988: 73-74).
- "Gero diruaren biltzea, daukagu ez den egun batetik bertzean eginen, Aldudan, **Bankan**, eta Urepelen", J. Etxepare (1988: 74).
- "Gizon hanitz badabila han gaindi egun hotan, izar eta izar, iduri han hasi gogo dutela **Bankari** buruz egitera doatzin erreka, herri huntan ala dadien elektrika eihera bat, Baionako hiria argituko duena", J. Etxepare (1988: 81).
- "Goizeko bederatzietan, bleka partida esku huts; hiru Aldudar hiru **Bankarren** kontra", J. Etxepare (1988: 109).
- "Asteazkeneko partida zen ederrena: hiru Aldudar hiru **Bankarren** esku huts", J. Etxepare (1988: 111).
- "**Bankan** ez badukezu irakas eskuara, / Bertze nehun ez duzu sarturen burura... / Debruren ondotik joan zitela fuera / Ai ei ai mutila, joan zitela fueral", Otsobi (1992: 250).
- "**Banka**'tik hasi zen norbait obra horiek aipatuz bertsu igortzen. Aldude'tik Premundoh ihardetsi zion, Urepele ere aipatuz", Xalbador (1976: 88).
- "Aldudarreri ez omen zitzaioten ontsa iduritu gauza hori, eta urepeldar gizon heiek, Meharoztegi'n barna **Banka**'rat, aldudarrekk etzitzaten ikus zertan zabilizan, joaiten omen ziren apezpikutegirat", Xalbador (1976: 89).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 16), Azkuek (*Las mil y una...*, 40. or.), Lacombe (1911-17: 8), Lhandek (1926: XXXVI, 107), Dassancek (1966: 162), Corominesek (1972: 314) eta Orpustanek (1990: 137) *Banka* dakarte.

Herritarren izena *bankarr*, *Bankarr* (**Lhande**, **Orpustan**) edo *bankar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Banka* eta *bankar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Banka* eta *bankar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Bánka, *Bankán*, *bánkarrà* (**E. Etxarren**), *Bánka*, *bánkaRá*, *Bankán*, *báina óri Bánkan dá*, (*h*)*óri Bánkakò páRtea dá*, *Bánkakoàk* (**E. Larre**), *Bánka*, *bankárra* (**A. Kaminondo**, **P. Kamino**).

Etimologia azalpenak:

Raymondek (1863: 20) toponimoa euskarazko *banca* 'forge de fer' izenetik atera dela uste du; **Hatanek** (1895: 16) Bankan burdin meatzeak dau dela dio eta enskaraz mea zaina «banca» erraten dela. **Lhandek** (1926: XXXVI, 107) ideia hori berori bilduaz «La Fonderie» dela dio.

Corominesek (1972: 314), Raymondek aipatzen duen burdin arragoan oinarrituz, latineko *fabrica*-tik eratoritzen du, hots, katalanez *fargu* eman zuen izenetik. Ikertzaile honen irudiko, **báreka* edo **barka* bihurtuko zen aurrena, eta hemendik *banka* aterako zen, beste hitz (erdarazko *banco*, *Barranca*, Baztango *balanka*...) baten eraginez. Nolanahi ere, sudurkariaren ondoan herskari ahoskabea agertzeak *-nk-* multzoa bigarrenkaria dela frogatzen du, ikertzaile katalanaren ustean.

Lemoinek (1977: 230) hearneseko *bencilh* 'verge, lien végétal'-ekin (< *vinculum*) lotzen du, autore honen arabera *Banca* ezin baita euskararen bidez azaldu. **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 50) euskarazko *banca* 'forge de fer, fonderie'-tik atera dela uste dute. **Orpustanek** (1990: 137) Corominesen etimologia aipatzen du eta ez du arbuiatzen. Arbuiatzen du, ordea, Lemoinek proposatzen duen gaskoiko *bencilh* 'landarez egindako estekadura'. Uste du erdaratikako *banc* mailegua ezin dela arrunt baztertu, mea zaina adieraztera igaro dela ontzat hartzen bada. Beranduagoko beste lan batean (2002f: 82) erraten du *Banka*-k frantseseko *banc*-en etorki bera duela eta hau *La fonderie*-ren izenagatik hartu duela.

Bidarrai / Bidarray

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

- Raymond** (1863: 31): *La encomienda de Vidarray* (1621).
- Castro** (1958): *Remonet de Vidarray* (1413, Castro, XXX, 125, 61. or.).
- Gartzia Larrageta** (1976-77): *don fray Arnalt de Bidarray mayoral de Egançelia* (1302, 120, 567. or.).
- Lemoine** (1977: 229): *La Encomienda de Vidarray* (sic) (1621).
- Ostolatza** (1978): *Sancte Marie de Bidarrain* (1218, 49, 136. Honen aitzinean *Sancti Thome de Larrassoain* ageri da), *frere Michel, commandeur de Bidaray* (1270, 219, 286. or.), *frater Michael comendator de Bidarray* (1273, 241, 321. or.; 252, 331. or.), *Bidarray* (1287, 301, 391. or.).
- Orpustan** (1990: 106): *bidarray* (1268, 1292).
- Barragán** (1997): *Et en autre lieu appelle l'Ospital de Bidarray* (1340, 135, 231. or.).
- Orpustan** (2002b: 56): *Bidarraye* (1666).
- Orpustan** (2002c: 94): *biderray* (1632).

Euskal Testuak:

- "Jaunac didala gracia / Salborie naizen gucia, / Hel nadin arren bici-ric, / **Bidarraya** iraganic", XVIII. mendearen bukacra (Orpustan, 2002d: 265).
- "Bikari egon zen sei urte Hazparnen; erretor **Bidarrin** hamar urte; gero Atarratzen hemezortzi" (Hiriart-Urruti, 1971: 161. *Eskualdun Ona*, 1907. Cf. I. Caminoren argitalpeneko aipua [1994: 141]: "Bikari egon zen sei urthe Hasparnen; erretor **Bidarrain** hamar urthe; gero Atharratzen hemezortzi").
- "Multxoan, **Bidarraiko** auzo bat egiten dute", J. Etxepare (1987: 38-39).
- "Gure oton zalua! Ikusmenean dugu ja **Bidarraiko** herria (...)", J. Etxepare (1987: 39).
- "Murtutsen besta hurbiltzen ari zaiku. Zer pentsatuko dute auzo-herrietakoek, Luhuso, Kanbo, **Bidarrai**, Ezpeletarre?", Iturralde (1982: 75).
- "**Bidarrai**, Ortzaize, Arrosa, / Nora nahi jo dezan, lotsa, / Ezin ez pausa, / Ikaran, daldaran kokotsa", Otsobi (1992: 102).

- "**Bidarrain** gora Harpeko Saindu, saindu izenik gabea (...)", Otsobi (1992: 112).
- "*Gure Jainkoak bakharrik dahi noizpeit gerthatu en berri; / Baztango urak zer aro moldez abiatu ziren kurri; / Noiztik Erratzu eta **Bidarrai** diren eskual auzo herri (...)*", Otsobi (1992: 112).
- "*Elizaberritik **Bidarrairat** ez da josteta gero!*", Otsobi (1992: 124).
- "*...orai Baztango erreka gora, **Bidarraitik** Erratzurakoan, muga dugun inguruetan*", Otsobi (1992: 125).
- "*Orok gogoan dituzkegu Itsasuko Zanpagarayen omeliak, **Bidarraiko** 24 agotak aipu dituen epixtola (...)*", Lafitte (1990: 36).
- "*Holetan eta omen andana bat erabiliz, jenden artean bazabilan haren balentria harrigarri baten istorioa. **Bidarraiko** mendi zoko batetarat deitu omen zuten, eta eria gaizki aurkitu zuen*", Karrika (1990: 144).
- "***Bidarraitarrak** erraiten dugu kanpokoek ai horrekin, herri horren izena bere osoan erabiliz bastidarren lehen auzoendako. Bere aldiz **bidarritar** laburtzen dute, a hori kenduz, hango berekoek*", Larre (2001: 63).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170), Hatanek (1895: 16) eta Lemoinek (1977: 239) *Bidarray* dute, Lhandek (1926: XXXVI, 163) *Bidarray*, *Bidarrai*, Gavelek (1929: 40) eta Dassancek (1966: 162) *Bidarrai*, eta Orpustanek (1990: 106) *Bidarre*. Herritarren izena *bidarraitarr* (Lhande), *bidarraitar* (Dassance), *Bidarretarr* (Orpustan) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Bidarrai* eta *bidarraitar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Bidarrai* eta *bidarraitar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Bidárri, *bidarraitár* (EHHA), *Bidarráin*, *bidarráitarrá* (E. Etxarren), *BidaRái*, *bidaRáitaRá*, *BidáRaitaRá*, *BidaRáin* edo *BidaRín*, *BidaRín* eré *eRáiten* da (E. Larre).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 16) *bide-array* 'bide harrizua' ulertzen du toponimoa, eta azalpen honen euskarriztat herriko bide guztiak haitzean eginak direla

gaineratzen. **Lemoinek** (1977: 239) gaskoiko *béde(r)*, *béze(r)*-ekin lotzen du, hau da, latineko *videre*-ren eratorriekin, *Biarritz*, *Miarritze* bezala, eta 'talaia' adiera ematen. Honela dio: "*Bidarray* (...), promontoire d'où on surveille la Vallée de la Nive et celle de Bastan; une explication par le basque, *bide array*, ruisseau du chemin, n'est pas convaincante". **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 82) izen honetan, *Bidaxe* eta *Bidart*-en bezala, *bide* dagoela uste dute, baina bigarren osagaia zein den ez dute zehazten.

Orpustanek ere (1990: 106-107), Hatanen haritik, **bide-arrai* dakusa herri izen honetan, eta 'chemin dans les épineux' adiera ematen dio, argi eta garbi gainera, "sans doute" eranstean baitu. Gerok (1997: 33) Nafarroa Garaiko *Arraitz*, *Arraitza* eta *Arraioz* herri izenekin eta *Arradia*, *Arrazu* mikrotoponimoekin lotu dugu *Bidarrai*, denen oinarrian zer dagokeen ikus-tera iritsi gabe, ordea.

Irulegi / Iroulégy

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 83): *Irulegui* (1513), *Yrulegui* (1621), *Sanctus Vincentius de Iruleguy* (1764).

Uranga (1952: 94): *don Miguel d'Yrurleguy* (1350).

Goihenetxe (1966: 185, 332): *Irurlegui* (1350, 1354, 1367, 1378, 1380, 1381), *Yrurlegui* (1359, 1362, 1379), *Irulegui* (1378), *Yrulegui* (1388).

Carrasco (1973): *Irulegui* (676, 681; 1366).

Zierbide & Santano (1990): *Yrulegui* (1376, 70, 98. or.; 1379, 148, 149. or.), *Yrulleguy* (1378, 99, 118. or.).

Orpustan (1990: 131): *yrurleguy* (1264, 1350, 1366), *yrulegui* (1413).

Arbizu (1992): *d'Inchauspe jurat de Lasse, Uhalde jurat d'Anhauz, Irongaray jurat d'Iruleguy* (1704, 295. or.).

Zierbide (1993): *Yrurlegui* (1350-1353, 14. or.), *Yruloqui* (1412-1413, 110. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Yrulegui* (1338, 224, 47. or.; 1392, 232, 54. or.).

Zabaltza (1997, 300, 515. or.): *Petro Martiniz d'Irulegui* (Lesaka, 1329).

Orpustan (1999: 186): *hyrulegui* (1230), *irulegui* (1240), *yrurleguj* (1264, 1366), *irurlegui* (1280), *yrurlegui* (1330, 1350), *iruleguy* (1366).

Carrasco (1999-1): *En Bayguer, d'agreros en Yrurlegui, 2 quartals* (1259, 102. or.), *En Yrurlegui, de agreros, 1 quartal* (1266, 356. or.).

Euskal Testuak:

- "*Irulegiko arno hoberenetik, Paregabekotik, flasko bat hustu zuen oso-oso* (...)", Barbier (1990: 156-157).

- "*Arrosatik, lehenik Baigorri alde, Bortzirietara jinen baitzen Baionatik trein bera, eta gero Irulegin eta Azkaraten barna Donibaneraino helduko*", Larre (2001: 89).

- "*Hau pisuegia zela oharturik, bereziki Okoz eta Irulegiko maldetan tiratzeko* (...)", Larre (2001: 89).

- "*Bere kabala maite du, eta urrikari beti laborariak. Hortakotz ez ginion beti Irulegiko malda pasaraziko behorrari nere karga guzia tiratuz, bereziki ernari gertatzen zelarik*", Larre (2001: 89).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 16) *Iroulégu* dakar; **Lhandek** (1926: XXXVI, 541), **Dassancek** (1966: 162), **Goihenetxek** (1966: 185) eta **Orpustanek** (1990: 131) *Irulegi* biltzen dute. Herritarren izena *irulegiarr* (**Lhande**), *irulegitarr* (**Dassance**) edo *Irulegitarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Irulegi* eta *irulegitarr* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Irulegi* eta *irulegitarr* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Iruléi (A. Kaminoodo, P. Kamino), *Irulegi*, *irulegitaRa*, *Irúlegín* (E. Larre).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 16) toponimoaren adiera *Iroul-heguy* 'hiru tontor' dela uste du, Irnlegiko herria bata bestetik hurbilxko dauden hiru gainttoz osaturik baitago. Soinuei datxekienez, *irauli* eta *irauri* 'répandre' erraten dela azaltzen du, *l* albokoa *r-z* ordezkatuaz. **Vinsonek** (1909: 351) *Irulegi iru*, *irun*-ekin lotzen du; autore honen arabera *hiru hiri*-ren aldaera *dateke*, eta honen forma osoa *irun* edo *hirun*, *Irun* eta *Irunberri*-n duguna, alegia. Toponimoaren zentzua segurua ez dela ere badio **Vinsonek**, *legi* ezezaguna delako, nahiz *Behorlegi*-n eta *Ustelegi*-n (hurdir meatze baten izena da hau) kausitzen dugun, bai eta bi errekaen izenak diren *legarra*-n eta *legatze*-n ere. Autore honak *legar*-ekin aldera daitekeela uste du eta erroa *leg* 'coupure, passage, fente' datekeela.

Mitxelenak (AV, 194, 335) *-egi* atzizkiak *-legi* aldaera dukeela erraten du ("var. acaso de *-egi*", hitzez hitz) eta maizenik *-r*-ren ondoan agertzen dela. Oinarrizko atzizkia, *-egi*, usu argiak ez diren oinarriekin azaltzen dela gaineratzen du errenteriarrak. Dio, orobat, batzuetan *-legi*-ren balio bera duela irudi badu ere, bi aldaeren arteko erlazioak ez daudela ongi fiukatutik, ez etorkiari dagokionez, ez banaketari dagokionez. *Irulegi*-ren oinarria menturaz *hirur* datekeela uste du errenteriarrak; horrela izatera bigarren dardarkariaren disimilazioa burutu dela pentsatu beharko dugu.

Dauzat & Rostaingek (1983 [1963]: 362) hemen euskarako *irulea* 'fi-leuse' eta *-egui* 'chez' ditugula uste dute. **Orpustanek** (1990: 131) gauza franko erraten ditu toponimo honen gainean: lehenik Dauzat & Rostaingen

“maison de la fileuse” edo ‘irulearen etxea’ etimologia arbuiazen du, zuzen onez; gero XIII-XIV. mendeetako lekukoetan oinarriturik (*h*)*irur* ‘hiru’ eta (*h*)*egi* ‘gailurra’ etimologia aipatzen du, baina dio ‘hiru gailur’ adiera jabego edo eremu bakar batendako ez dela onartzeko modukoa, eta alde bat uzten du. Hurrengo posibilitatea, baxenabartar irakaslearen iritzian, toponimoaren etorkitzat **ira-ur-l-(h)egi* “bord de l’eau des fougères” ‘iratzeen uraren ertza’—edo proposatzea da, baina *iraur* konposatua egiantz gutxikoa iruditzen zaio. *Iralur* toponimoa badenez *Irulegi*-ren jatorritzat **ira-lur(h)egi* eman daitekeela uste du; hemendik Erdi Aroko *Irurlegi* aterako zatekeen. Gainera, gauzak estu hartuz gero, Erdi Aroko *-r-(h)irur*-en gaineko forma analogikoa izan daitekeela ere badio, eta, beste azalpen etimologiko posible bat emanez, lehen osagaia *irola* ‘iratzeen etxola’ ere izan daitekeela. Hastapeneko **iról(a)-(h)egi* ‘crête de la cabane des fougères’-en bigarren bokala *Irun*, *Irunberri* eta beste batzuekiko analogiaz itxiko zen; ondorioztat hau dio: “tout ceci reste hypothétique, quoique vraisemblable”.

La langue basque-n (1999: 186) bigarren osagaia *-egi* ‘demeure’ edo *hegi* ‘bord, crête’ besterik ezin izan daitekeela dio, azkenekoa segur aski; beranduagoko beste lan batean (2002f: 72) erraten du osagaiak *ir-(a)-ola* eta *hegi* direla, hots, ‘crête de la cabane des fougères’.

Oharrak:

Ez dugu aiantzi behar Iruñe ondoko Aranguren ibarreko Lakidainen *El Castillo* toponimoa dugula, behiala garrantzi handikoa izan zen *Irurlegi* edo *Irulegi*-ko gaztelua gogora dakarrena (*NTEM-XXXVII*, 59; Carrascok [1999: 98] 1259ko *por retenence de Yrullegui et de Aycita* jasotzen du). Zernahi gisaz, *Irulegi* Iruñeko deitura da egun.

Lasa / Lasse

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 96): *Lasa* (1513), *Santus Martinus de Lasse* (1764).

Goihenetxe (1966: 186-187, 347, 355): *Lassa* (1235, 1274, 1333, 1334, 1364, 1368, 1381, 1385, 1387, 1388), *Laatssa* (1266), *Lasse* (1273, 1334, 1368, 1378, 1384, 1388, 1395), *Laessa* (1326), *Laxa* (1353, 1372), *Lasa* (1369), *Laxa* (1374, 1377, 1381, 1388), *Lase* (1378), *Las* (1396, 1398).

Carrasco (1973): *Lasse* (1366; 676, 681. orr.).

Ostolatza (1978): *B. rectore ecclesie de lasse* (1273, 258, 339. or.), *B. de Lassa notario nostro* (1274, 265, 347. or.).

Zierbide & Santano (1990): *Lasse* (1378, 77, 105. orr.).

Orpustan (1990: 129): *laatssa* (1266), *lassa* (1305, 1306), *laxa* (1350), *lasse* (1413).

Arbizu (1992): *...d'Inchauspe jurat de Lasse, Uhalde jurat d'Anhauz, Irongaray jurat d'Iruleguy* (1704, 295. orr.).

Zierbide (1993): *Laxa* (1350-1353, 18. orr.), *Lasse* (1412-1413, 108. orr.).

Zierbide & Santano (1995): *Lasse* (1395, 276, 103. orr.; 1398, 290, 113. orr.).

Ruiz (1997): *Iohan de Lassa* (1351, 17, 22. orr.).

Euskal Testuak:

- "Germietatik, Urdosetik, Haritzaldetik, Banka eta Aldudetik, Anhauze, **Lasa** eta Azkaratetik, gizon gazteak mairu dantzan heldu ziren, tanburin, xirola eta atabalak aintzinean", Duvoisin (1987: 78).

- "Ameriketan dotzena bat urte pasaturik jina zena eta ezkondua bi urte hartan **Lasara**", Etxebarne (1989: 19).

- "Bigarrena, 75na libera, J.B. Cachenaute Itsasuarrari eta A. Idiart **Lasarrari**", J. Etxepare (1996: 178).

- "...Donianeko ihiztariak oro, beren harmak utzirik, bikhe-opilak eskuan, erbiaren ondotik ibili ziren Arradoiko pareta guzian, **Lasa-Mendin** hala-hala", Barbier (1987: 77).

- "Baño ene eskolako laguna: Martirene Dominik, eta bertzea **lasarra**, Xuxurru deitzen zena eta oraiko mementoan mundu hau utzia duena", Etxebarne (1989: 76).

- “2 ilabete Ligin; 8 Atarratzen; 2 **Lasan**”, Lafitte (1990: 198).
- “Eta, guziz, hau izan nuen oroitzapen haundia: Sauveur Auzqui apezaren erretor sartzea **Lasan** (...) hango gazte ta herritar oste haundi batekin lagundu ginuena **Lasarat**”, Larre (2001: 202).
- “Ordutik, atxiki dut nihauk lokarri zerbait **Lasako** herriarekin eta herritarrekin”, Larre (2001: 202)
- “Pettitto Berterreche **lasar** erakasle eta J.B. Etcharren uhartiarra (...)”, Larre (2001: 229).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Izen ofiziala *Lasse* da, baina euskaldunek *Lasa* erraten diote (**Lécluse**, 1826: 170; **Lhande**, 1926: XXXVI, 658; **Dassance**, 1966: 162; **Goihenetxek** 1966: 186; **Orpustan**, 1990: 129); **Hatanek** (1895: 15), berriz, *Lassa* biltzen du. Herritarren izena *lasatarr* (**Lhande**), *lasar* (**Dassance**), *Lasarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Lasa* eta *lasar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Lasa* eta *lasar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Luzaiden *Lása* erraten diote auzo herriari eta *lasár*, *lasárria* horko jendeari; bada, gainera, *Lasarráinja* izeneko etxea. **E. Larrek** *Lása*, *lásaRá*, *Lásan* eman zizkigun.

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 15) ‘erreka’ adiera duela dio; etimologia honen bermeztat-cdo *Lasa* erreka-sto batetik hurbil dagoela gehitzen du. **Mitzelenak** (*AV*, 397) ‘latsa, erreka-stoa’ adiera ematen dio *Lasa*-ri, **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 389) bezala, nahiz hondarreko hauek “segur aski” bat sartzen duten, guztiz ziur ez daudelako seinale. **Orpustan** (1990: 129) akort da aipatu azalpenarekin eta herrian ubide txiki ugari daudela gaineratzen du. Beranduagoko beste lan batean (2002f: 72) *lats* ‘cours d’eau’ izena dakusa *Lasa* toponimoan, “le village étant tourné vers la Nive d’Arnéguy et ses affluents”. Afrikatuaren galtzea toponimoa ez ulertzeari zor zaioke, nahiz eratorrietan (*latsalde*, *latsaga*...), txistukaria barneko bihurtu baita, ongi gordetzen den (1999: 123).

Ortzaize / Ossès

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 128): *Vallis quæ Ursaxia dicitur* (c. 983), *Vallis quæ dicitur Orsais* (1186), *Ossais* (XII. m.), *Ouses* (1302), *Osses en la Sierra* (sic) *de Vaygurra* (1446), *Oses*, *Orza* (1513), *Horça*, *Orseys*, *Orça* (1675), *Orses* (1783).

Luchaire (1874: 142): *Ursaxia* (X. m.), *Orzais* (XII. m.).

Goihenetxe (1966: 196-197): *Ursaxia* (980), *Ursaxia* (1106), *Ossais* (1141, 1149, 1150, 1170, 1188), *Orsais* (1150-1170, 1186, 1194), *Osseis* (1188), *Orses* (1249, 1394), *Ossers* (1249), *Osses*¹⁴ (1249, 1273, 1274, 1293, 1356, 1388, 1402, 1446), *Oses* (1249, 1358, 1381), *Ouses*, *Ousses* (1249¹⁵, 1302, 1364), *Ausses* (1356; 1381), *Ossez* (1392, 1400), *Orcaitz* (1358), *Ostes* (1363, 1374).

Carrasco (1973): *Osses* (1366; 675, 678, 681.orr.).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en Sanz de Villenaue d'Osses* (Donibane Garazi, 1305, 133. agiria, 592. or.).

Lemoine (1977: 228): *Vallis quæ Ursaria dicitur* (983), *vallis quæ dicitur Orsais* (1186), *Ossais* (XII. mendea), *Ouses* (1302), *Osses* (1446), *Oses*, *Orza* (1513), *Horça*, *Orseys*, *orça* (1675), *Orses* (1783).

Ostolatza (1978): *P. de Salinis rectore ecclesie d'Osses* (1273, 258, 339. or.), *Osses* (1273, 259, 340. or.; 1274, 265, 347. or.).

Zierbide & Santano (1990): *Osses* (1305, 1, 39. or.; 1378, 108, 123. or.).

Orpustan (1990: 99): *urxasia* (c. 980), *ursaxia* (1106), *ossais* (1141-1149, 1150-1170, 1188, 1194), *orsais* (1150-1170, 1188, 1194), *orses* (1249), *orseys* (1249), *osses* (1249, 1350), *dou sees* (1249), *oses* (1292), *ouses* (1302), *orseys* (1675).

Arbizu (1992): *et yermos de Alduide, y de Luzaide, clamado Valcarlos, et con los terminos de las tierras de Sisa, et de Oses, et de Baztan* (1400, 338. or.).

Zierbide (1993): *Osses* (1350-1353, 7. or.; 1412-1413, 94. or.).

Larrañaga & Tapia (1993): *el balle Orgais* (1194, 2, 3. or.).

14. Goihenetzek «VIA SANCTI Johannis à Osses» dakar 1150ean eta 1170ean, baina ez dakigu hemen «Osses» hori, nahiz azenturik ez duen, ez ote dagoen erabilia, eta ez aipatua.

15. 1249ko lekukotasunean «Arnaldus Guilleimi dou Saes» dago.

Zierbide & Santano (1995): *en lo dit terminat de Osses* 1408, 311, 130. or.).

Zabaltza (1995): *Osses* (1278, c. 1308, 115, 257, 96 eta 245. orr.).

Barragán (1997): *separacion des boys d'Arboree et d'Osses* (1340, 135, 231. or.).

Zabaltza (1997; 1305, 184, 332. or.): *Sanz de Villenaue d'Osses*.

Carrasco (1999-1): *En Osses, de Peytas* (1259, 102. or.), *En Hosses* (1259, 103. or.), *En Osses* (1266, 353. or.).

Euskal Testuak:

- "Egia honetan eman dügü gure siñadüra **Orzaizen** üztaillaren lehenian 1665", Tartas (1975 [1666]: 9).
- "Aita Basilio **Orçaiztar** Capuchina Theologiaco Professora, eta Predicaria", Gazteluzar (1983 [1686]: 24).
- "**Orçaicen** ediren çuian çorriac", Bertrand de Saugis (XVII. mendea; 125. atsotitza, 718. or.)."
- "Haran ceina deitzen baita **Orçaiz**. Haran ceina deiteen baita Cizia", Joanes Elxeberri Sarakoa (1907 [1712]: 78).
- "Partiada tristea **Hortçaizetic**", J. B. Bordenave?, XVIII. mendea (Orpustan, 2002d: 265).
- "Berri handi / **Hortzaize** aphezpicutoqui, / Berri handi, (...)", M. Otxamendi, 1766 (Orpustan, 2002d: 263).
- "Borthagarai **Ortzaizeko** / Borthairu Ezpeletako / Hi Bordelen ni Baionan Oi! Zer gizonak galduko!", XIX. mendearen hasiera (Orpustan, 2002d: 268).
- "Amodioa zer den hasi niz frogatzen. / Hortarik parte bazen enetzat **Ortzaizen**, / Ni despejitu gabe bertzeekin ezkontzen, / Zer estatutan zagon etzuien pentsatzen!", Otxalde, XIX. mendearen bigarren erdia (Orpustan, 2002d: 277).
- "Nork erranen zaukun, duela zortzi urte! **Ortzaizeko** jaun ertorarekin ginabiltzalarik herriz herri, etxez etxe, harentzat boz galdez (...)", Hiriart-Urruti (1971: 101. Jatorrizkoa *Eskualduna*-n atera zen karrikara, 1902an).

16. Urkixok honela dio errofraua iruzkintzean: "Orzaize puede ser también Orzaze ú Ozaze pueblo de Zuberoa cerca de Saugnüs", *ibid.*, 149. or. Agud & Mitzelenak (1958: 21), orden. "Orçaice = Ossés" ulertzen dute.

- "**Orzaizetik** abiatu, bere populuari erranik otoitz egin zezaten harentzat (...). Itzuli zen, bihotza deskantsu, bere **Orzaizeko xokho maitera**", Hiriart-Urruti (1971: 106; *Eskualduna*, 1902).
- "Zenbeitaldi geroztik erran baitu: ez ziola Jainkoari bertzerik galdatzzen, baizik ere **Orzaizen** bizitzea eta hiltzea", Hiriart-Urruti (1971: 106; *Eskualduna*, 1902).
- "Ez zen harentzat halako jende onik (banazka), nola Camboarrak... ez izaitekotz, gerozago, **Orzaiztarrak**", Hiriart-Urruti (1971: 110; *Eskualduna*, 1902).
- "**Behinik** behin ez da hain zokoa, **Orzaize** (...)", Hiriart-Urruti (1971: 115; *Eskualduna*, 1902).
- "Etsi etsia mintzatu Louis Etcheverry, **Ortzaizekoa**; hunek hitzeman baietz, jarriko zela (...)", J. Etxepare (1988: 102).
- "Alduden zen. igandean, Louis Etcheverry, Larratepe Azkaratekoarekin, Heguy **Ortzaizekoarekin**", J. Etxepare (1988: 102).
- "Eskola laikoa lanjerean Urepelen!... Horren erraitera joan izan balitz **Ortzaizera** edo Donianera, nunbait hor!", J. Etxepare (1988: 211).
- "Kantonamendu hortan, hiru herritan bildu izan dira haurrak: Baigorriin, **Ortzaizen** eta Alduden. **Ortzaizen** andanarik handiena", J. Etxepare (1996: 179).
- "Orotara, **Ortzaize**, Hazparne, Azkaine, Uztaritze eta Senpere dira euskaldunenak agertu aurtan", J. Etxepare (1996: 181).
- "Bidarra, **Ortzaize**, Arrosa, / Nora nahi jo dezan, lotsa, / Ezin ez pausa, / Ikaran, daldaran kokotsa", Otsobi (1992: 102).
- "...huna Izpura Agerrea, huna Baigorriateko zubi burdinazkoa! Oh Oh! Ixtantean **Ortzaize!**...", Barbier (1987: 94).
- "Zer ikusi behar ere baitzuen, ez othe zuen hobe oraino, han berean, **Ortzaizen** gelditzea?", Barbier (1987: 95).
- "Baietz eta baietz, guarda-ondoa bera bidali zuten Maria Pipa, **Ortzaizteko** sorgin famatuaren ganat. Jauregibehere guarda-ondoa **Ortzaizterat-eta**, galdegin zion itzain bati...", P. Iturralde (1982: 74).
- "Jendeak eta gauzak gaingiroki azaltzen zituen: gehienetan ezin jakin Karlomanen jauregi ederrak zer zuen bada hain ederrik, edo **Ortzaizeko** sorgin itsusiak zer hain itsusirik!", Lafitte (1990: 67).
- "Aita Basilio **Orzaiztar** kaputzina (...)", Lafitte (1990: 125).

- "Uste gabean berri triste bat egun zeraut arribatu: / **Ortzaizen** dela lehen kusi bat mundu huntarik partitu (...)", Arrosagarai (1983: 129).
- "Dalësen samurgoa! Lehenagoko **Ortzaizeko** bezperetan bezala, han zirenek han ez zirenentzat egin erasiak jasan behar!", Kattika (1990: 100).
- "Lehena izan zen Leon Oxarango, joan deneko hogoi ta zenbait urtean neure erroter atzo on ere dudana **Ortzaizen**: ez nintzana ni Irisarriko erroter sartu igande arratsalde huntan bezala, eta hura ondoko zortzian **Ortzaizen** 1980 irail hartan, bi igande segidako, bat eta hestea", Larre (2001: 119).
- "...Jean Irigoyen ainiztarra, Jean Donetx uztariztarra, J.P. Belhagorry **ortzaiztarra**, Jean Loustau amikuztarra, eta nor ez oraino!", Larre (2001: 191).
- "Isturitzeko eta **Orzaitzeko** ahaide adixkide andana baziren jinak eta bertze zorbait ere handik edo hemendik", Lafitte (2002 [1966]: 438).
- "...ez zegoen biziki ados ikuspegi horrekilan, J. B. Orpustan, **ortzaiztar** erakasteak dioenez", Aintziburu & Etxarren (2002: 16).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Euskaraz *Orzaize* (**Lécluse**, 1826: 170; **Raymond**, 1863: 128), *Orsaïze* (**Hatan**, 1895: 16), *Orzaize* (**Lhande**, 1926: XXXVI; **Jaurgain**, 1912: 166; **Dassance**, 1966: 163, **Goihenetxe**, 1966: 196), *Ortzaize* (**Lhande**, 1926: 826; **Lemoine**, 1977: 228; **Orpustan**, 1990: 99) edo *Orzaize* (**Orpustan**, 1999: 144) da, autoreen arabera. Kontuan hartu behar da azken ikertzailea bertan jaioa dela eta bere sorterriaren izenaren ebakera ongi ezagutzen dukeela. **Cara Barojak** - **Hariztoik** (1945: 110) *Orzaize*, *Urhaize* biltzen dituzte.

Herritarren izena *ortzaiztarr*, *Ortzaiztarr* (**Lhande**, 1926: 826, **Orpustan**), *orzaiztar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Orzaize* eta *orzaiztar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Ortzaize* eta *ortzaiztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Orzaizé, *Orzáizeko jakintsun bát*, *Orzáizeat*, *Orzáizen*, *orzáiztarrá* (**E. Etxarren**), *Orzaizé*, *OrzáiztaRá*, *Orzáizen* (**E. Larre**).

Etimologia azalpenak:

Luchairek (1874: 7) *Ossès* erdarazko deizioa *Ortzaize* euskal aldaeraren desitxuraketa dela uste du, Euskal Herriko beste herri izen frankotan ere kausitzen duguna, X. mendean *Ursaxia* baitzen eta XII.ean *Orzais*. Aitzinxeago (ibid., 10) *Orsaiz* > *Ossès* aldakuntza asimilazioari zor zaiola dio eta biarnesaren eraginari leporatu behar zaiola. **Hatanek** (1895: 16) *orsasi* 'ur zikina' dugula uste du; honen euskarritako, Hariztoi apezaren historia lanetan oinarriturik, Irisarritik Ortzaizera doan "Laca" errekek bigarren herrira iritsi aurreko zelaia estaltzen zuela azaltzen du, XI eta XII. mendeetan, zingira edo inta bihurtuz.

Gavelek (1934: 493) etimologia iluneko izenen artean sartzen du *Ossès*, *Garris*, *Ispoure* eta beste batzuekin batean. **Caro Barojak** (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Orzaize*, *Urhaize* jasolzen ditu, ikusi bezala, eta erraten hau latineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atzikia duten Hegoaldeko herri izenekin erlazonaturik dagoela. **Mitzelenak** (*FHV*, 284, 362) *Orzaize* aipatzen du *Ossès* ofizialaren euskal aldaeratzat, eta dio *Osses* agertzen dela Nafarroa Garaiko agiritan, XIII. mendeaz geroztik. Errenteriarren arabera oinarrian **rz* multzoa dago, mugaz hegoaldeko *Gorza* / *Giessa*-n bezala; multzo horretatik *-s-* atera da eta gero lehen hortz-hobietako honek bere artikulaziogunera erakarri du beste txistukaria.

Lemoinek (1977: 228) latineko *ursus* 'hartza'-ren eratorrien artean kokatzen du *Ossès*, dokumentazioko aldaeretan oinarriturik, antza. **Orpustanek** (1990: 99) **urzaiz* toponimo zaharra dakusa *Ortzaize*-ren azpian, izenaren lehen aldaerak *ursaxia* (980) eta *ursoxia* (1106) diren arren. Izan ere, irakasle baxenabartarrak *Hortza* eta *Ahaize* (*Ahaize* edo *Ahize* euskaraz) auzo izenekin lotu beharra dela uste du, hura hauetaz osaturik baitago. Aurreneko zatia Amikuzeko *Orsanco*-rekin ere erlazonatu behar da, hots, Akitaniako *urd-* 'plat, plateau'-ren aldaera edo "forme altérée" den *urz-* ikusi beharra dago hor. Bigarrena, berriz, eta erran gisan, *Ahaize* da, zein Orpustanen arabera *aiz* oronimoaren bokal errepikatudun aldaera baita. Honekin alderatu behar dira, autore honen irudituan, *Ahaxe*, *Ahetz* eta *Hasparren*-en izen zaharra, "ainsi que tous les toponymes composés de *aiz*, qui ont en commun l'élévation du site, et la construction des bâtiments sur des socles rocheux" (1990: 100). Oraingo izenak hasierako bokalaren "irekitze arina" eta "bukaerako *-e*-ren eransketa" ditu etorkizko haren aldean; erdarazko aldaerak, berriz, honako aldakuntza hauek izan ditu Orpustanen arabera: *urz-* > *-orz-* irekitzea, *-rz-* > *-ss* (XII. mendean) eta *ai-* > *-ei-* > *-è-* laburtzea (XIII. mendean).

Beranduagoko beste lan batean (1999: 54, 144) erraten du 980ko *ursaxia* aldaera *-kakografia* bat, segur aski 1150erako *orsais* bilakatzen dela eta 114lean, hotsez erromanizaturik, *ossais* dokumentatzen dela.

Oharrak:

Nafarroa Garaiko deiturak (*Osés / Orzaiz, Urzaiz*) erdal nahiz euskal aldaeretatik heldu dira. Honetaz landara, Arangurengo Labio herriko dokumentazioan *Orzait(z)ena* izeneko etxea ageri da:

- "*Mas una pieza...en el termino llamado conporta aldea que afrenta con piezas de las cassas de orcaicena y de gongora*" (1646, Eloko prot., 2).
- "*Mas otra pieza...en zelaya...afrentada con piezas del ospital y orcayzena*". (1654, Eloko prot., 2-bis).
- "*Otra (pieza) en Olace bidea...otra (pieza) en Olazebide bizcarra...que afronta con piezas de Orzaizena y Alzorricena y Martinbillaba y dho (dicho) Camino de Olaz*", (1793, Eloko prot., 46-27).

Hau berau *Orchaichena* moduan ere azaltzen da (Ekiza & Monreal & Izko, 9, 15. orr.); hemen garbi ikusten da *Orzaitzena* ebakitzen zela, afrikariz. **Manezaundik** (1990: 156) *Orzaiz* biltzen du Nafarroa Garaiko deituratako, eta *Ortxaix* Ondarrolako oikonimotzat (ibid., 240). Egun *Péko Ortxesénja*, *Peko Ortxaisénja*, *Gáineko Ortxesénja*, *Gáineko Ortxaisénja* erraten da euskaraz, bi etxe (izan) baitira, eta *Ortxáís* erdaraz.

Bestalde, gogoan eduki beharra da Erronkariko *Urzainki* herriaren izena, 1270ean, pare bat aldiz *Vrçaniç* eta *Urçainc* moduan agertzen dela (NHI, 124. or.), eta forma hauek ez direla biziki urrun *Orzaize*-tik.

Urepele / Urepel

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Goihenetxe (1966: 195): *Urepel* (1378).

Lemoine (1977: 194): *Hourepeleco* (XVIII. mendeko mapa batean ageri da forma hau, Lemoineren arabera).

Orpustan (1990: 138): *urepel* (1276), *hourepeleco* (XVIII. m.).

Euskal Testuak:

– “Zonbat ez da igan Othe-Lastorat, begi ukaldi batez nahiz bihotzean sartu hegi huntan diren Frantziako bi azken herriak, Aldude eta **Urepel!**”, J. Etxepare (1988: 52).

– “Elizaz **Urepeleri** dagozi. Ez dute herriko-etxerik ez Frantzian, ez Espainian”, J. Etxepare (1988: 72).

– “Bainan hortakotz nahi lituzke lehenik bildu zortzi edo bederatzita mila libera, Banka, Alduda, eta **Urepel** hiru herrien artean”, J. Etxepare (1988: 73-74).

– “Iduri luke holako batasun batek beti danik lotuak atxik behar zituzkela Banka, Aldude, eta **Urepel...**”, J. Etxepare (1988: 86).

– “**Urepeldar** zakur bat omen da, hola hola joana beheiti, errabiatu rik”, J. Etxepare (1988: 119).

– “Bainan zonbeitak ezagutu dute **Urepeldarrek** bazutela halako bat guretzat eta gogotik etxeratekoan oihu zuten egiten omen: «Biba **Urepele**»”, J. Etxepare (1988: 172).

– “Alegrantzia bazter guzietan zen, gelditzerik ez zuena: atzo holako Indianoa jin zaiku; egun holakoaren beha gaude! **Urepele**, Aldude, Baigorri, Uztaritze (...)”, J. Etxepare (1988: 268).

– “**Urepeldarri** (2). Beti danik (**Urepele**) herri huntako bizizale hanitzekin, erien artatzia medikiarentzat neke izan da”, J. Etxepare (1996: 209).

– “Euskarari haize garbi eta indartsua ekarri diola, **Urepele** Xalbadorrenean, duela berrogei eta hamasei urte jaio zen Ferrando Aire-k, hori ere noski ezagutu duela A. Zabala-k, horregatik deritzat liburu gotor hau eskaintzen digula **urepeldar**ren bertso sailak hemen bilduta”, E. Larre, Xalbador (1976: 11).

– “**Urepele**-ko jaun ertora, Errexil, Uztapide, Mattin (...)”, E. Larre, Xalbador (1976: 14).

- "Orroit naiz behin nik irabazi nuela lehen saria **Urepele'n**", Xalbador (1976: 26).
- "Aldudarrerri ez omen zitzaioten ontsa iduritu gauza hori, eta **urepeldar** gizon heiek, **Meharoztegi'n** barna **Banka'rat**, aldudarrekin etziztaten ikus zertan zabiltzan, joaiten omen ziren apezpikutegirat", Xalbador (1976: 89).
- "Gaur, **Urepele**, zuri hasten naiz kantari, / zu baitan munduratu naitzenaren sari", Xalbador (1976: 107).
- "Galdezka hasten bazaut nehoiz kanpotarra / nongo semea naizen edo nongotarra, / goraki erraiten dut: «Ni **urepeldarra**»", Xalbador (1976: 107).
- "Herria Hazilaren 16 ekoa paja 6 an **Urepele** Heriotze azaroaren 10ean eta gero sail berean **Aldude Hazilaren 11-an (...)**", Arrosagarai (1983: 135).
- "Bada hemen Euskaldun asko eta jadanik **Urepele** eta **Aldudeko** zombaiten ezagutzak eginak ditut", Etxarren (1985: 80).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 16) eta **Lhandek** (1926: 1008) *Urepele* dakarte, **Lacombeck** (1911-17: 8, 17) *Hurepele*, *Hurepelen gerthatia*¹⁷, **Dassancek** (1966: 162), **Lemoinek** (1977: 194) eta **Orpustanek** (1990: 138) *Urepele*. Herriarren izena *urepeltarr* (**Lhande**), *urepeldar* (**Dassance**), *Urepeldarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehenengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 103) *Urepele* eta *urepeldar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Urepele* eta *urepeldar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Urèpelé, bérze kartjérrik...Urèpelén ba(d)ñitazhè bizhitártian, urèpeldarrá (**E. Etxarren**), *Urèpelé, Urèpelén, urepeldarrá* (**E. Larre**), *Urèpél* (**A. Kaminondo, P. Kamino**).

17. Oroitu behar da Garazin *ur* hitzak aspirazioa duela hasieran, hots, *húr* erraten dela. Bonapartek (1881: 163) *h*-rik gabeko aldara jasotzen du, baina Salaberri Ibarrolakoak (1856: 89) *hur* 'eau' du.

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 16) *ur-epel* datokeela uste du, baina nonbait ez du arrunt garbi ikusten, galdera ikurra ezartzen diolako; garai batean ur epeleko iturri zenbait bazatekeela gaineratzen du. **Mitxelena** (AV, 212, 582) toponimo honetan *ur* eta *epel* ditugula uste du; izenaren nolakoa dela eta, *ur* aldaera toponimoaren sortze berantiarri edo analogiari lepora dakiokela dio (bestela *u-* ageri da kontsonante aitzinean eta *u(h)-*, *ug-* bokal aurrean). Errenteriarrek, beste lan batean (1951b: 581), *epel* indoeuroperako **tep-*ekin eta latineko *tepidus*-ekin lotzen du.

Lemoinek (1977: 194, 209) *ura* eta *ephel* dakuski izen honetan, eta uste du izenondoa *tepidus*-etik atera dela ("cp." dio); **Dauzat & Rostaingen** (1983 [1963]: 690) eta **Orpustanen** (1990: 138) irudiz euskarako *urepel* 'eau tiède' dago toponimoaren oinarrian. Hondarreko ikertzaile honek, beranduagoko beste lan batean (2002f: 82), 'eau tiède' adiera errepikatzen du eta azalpen hau ematen: "Il paraît que l'une des sources jaillit toujours à 13-15 degrés".

Oharra:

Nafarroa Garaian, besteak beste, Beratsainen, Beuntza-Larrean, Garraldan, Leitzan eta Zarrantzen dago bizirik *Urepel* mikrotoponimoa.

3. ARBEROA / PAYS D'ARBÉROUE

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 8): *Erberua* (c. 980), *Arberoe* (1080), *Alberoa* (1120), *Vallis Aberoa* (1186), *Arberoa* (1194), *Pays d'Arbore*, *Aberoe* (1501).

Raymond (1873): *Garsie Sanz de Arbera* (1072-1105, 31. agiria), *Arberoe* (1119-1136, 5. agiria), *Alberda** (1120, 1134, 81. agiria).

Castro (1957-58): *Arberoa* (1393, XX, 352, 151. or.; 1413, XXX, 932, 462. or.).

Goihenetxe (1966: 244, 245, 251, 254, 255, 257, 309): *Erberna* (c. 980?), *Arbera* (1072-1105), *Arberoe* (1080, 1119-1136, 1136-1147, 1125, 1150-1170, 1193, 1273, 1293, 1340, 1349, 1405), *Alberoa* (1120, 1134), *Alberda* (1134), *Arberoa* (1194, 1249, 1252, 1253, 1293-1294, 1321, 1334, 1381, 1428), *Erberoa* (1249), *Esberoa* (1249), *Arbeora* (1249), *Arberroa* (1284), *Arbeloa* (1294, 1358), *Arberoe* (1349), *Arrberua* (1388), *Arrheroe* (1405).

Carrasco (1973): *Arberoe* (1366, 675. or.), *Arberoa* (1366, 680. or.).

Lemoine (1977: 284): *Erberua* (c. 980), *Arberoe* (1080).

Ostolutza (1978): *en las iglesias de Sant Esteuan de Bayguer e de Sant Pedro e de Sant Eulalia de Arberoa* (1264, 195, 262. or.), *et arcipresbitero d'Arberoa* (1273, 258, 339. or.).

Orpustan (1990: 85): *erberua* (c. 980), *arberua* (1106), *arbera* (1072-1105), *esberoa* (1249), *arbeloa* (1264, 1292, 1305, 1309, 1350), *arberoa* (1280).

18. Raymondek "il faut lire *Alberoa*" dakar oin-ohar batean.

Zierbide & Santano (1990): *castelan deu casteyt d'Arroquefort d'Arberoe* (1356, 12, 55. or.), *la terra d'Arberoe* (1361, 20, 62. or.), *la medisse terre d'Arberoe* (1374, 68, 96. or.).

Zierbide (1993): *Arbeloe* (1412-1413, 91. or.).

Zierbide & Santano (1995): *le terre d'Arberoe* (1394, 256, 88. or.; 1405, 292, 115. or.), *Guaxen, seynor de la Sale de Senta Marie de Helete, bezin de la terre d'Arberoe* (1408, 311, 132. or.), *la terre d'Arberoa* (1409, 312, 133. or.), *la dite terre d'Arberoa* (1409, 312, 133. or.), *don Joan Periz d'Arberoa* (XIII-XIV. m., 354, 208. or.).

Zabaltza (1995): *Arberoa* (1278, 115, 96. or.).

Zierbide & Ramos (1997): *Sancho d'Arberoa* (1440, III.18, 90. or.).

Barragán (1997): *separacion des boys d'Arboree et d'Osses* (1340, 135, 231. or.), *sub castro de Rocafort in Arberoa* (1341, 142, 248. or.).

Zabaltza (1997): *la tierra [de] Arbeloa* (1298; 157, 238. or.), *la tierra de Arberoa* (1321; 316, 535. or.), *et que ayan pazto los de Arberoa en el dicho termino de la dicha bastida, et los de dicha bastida de Clarença en el dicho termino de Arberoa de sol a sol como villa fazera* (1321; 316, 536. or.).

Carrasco (1999-1): *Als monters de Arbeloa* (1266, 222. or.), *Per la garnizon de Vilanaua, et de Ostauaylles, et de Sant Johan, et de Mongelos et de Arbeloa* (1266, 228. or.), *Pero Arnalt de Arbeloa* (1266, 262 eta 286. or.), *Per liuraçon del omes de pie que estauan en Vilanoua et en Ostauaylles et en Mongelos et en Sant Johan et en Arbeloa, 599 kafices, 3 arrobas, 2 quartales* (1266, 355. or.).

Euskal Testuak:

- "*Haran ceina deiteen baita Arberoa. Haran ceina deiteen baita Orçaiz. Haran ceina deiteen baita Cizia*", J. Etxeberri Sarakoa (1907 [1712]: 78).
- "*1764'an Baxenabarra'ra itzuli zan, Meharin'go bere lur-zatietara, Amikuze'n, Ziberoa'n eta Arberoa'n zeuzkanetara*". S. Oinandia (1973, EEBS).
- "*Heleta da Baxenabarre Arberuko herri pollit bat*", Lafitte (1977, EEBS).
- "*Baxenabarrakoak jende xeheari hurbilago zauden; hogo'ita sei ziren oroturat: hiru Amikuzetik, bat bedera Iholditik, Arnaitzetik eta Irissarritik, bira Garazitik, Baigorritik, Ortzaizetik, Arberutik eta Oztibarretik; berdin biga bakotxetik: Donibane-Garazitik, Donapauletik, Garruzetik, Bastida-Klairantzatik eta Larzabaletik*", Otto Pierre (Herria, 1987, EEBS).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Dassancek (1966: 161) eta **Goihenetzek** (1966: 244) *Arbela*, *Arberu* dituzte, **Lemoinek** (1977: 229) *Arbela* eta **Orpustanek** (1990: 85) *Arberoa*, *Arbela*. **Barandiaranek** (1974: 17) *Arberua* jasotzen du; ataundarrak bertatik igarotzen den ugaldea ere *Arberua* dela dio (ibid., 17, 83). Autore bakar batek ere ez du herritarren izena zein den erraten.

Akademiaren lehengo erabakia:

Ez dago, guk dakigula.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Arberoa* eta *arberoar* hobetsi ditu.

Etimologia azalpenak:

Luchairek (1873: 172-173, 1874: 26-27) ez du *Arberoa* aztertzen, baina *co*, *go*, *coa*, *goa* bukaerak ukitzean lehenik Astarloaren errana ("terminaison possessive locale") biltzen du eta gero, bere baitarik, dio *go* (*co*)-k goitasuna, goratasuna adieraz lezakeela, *go gora*, *goronz*-en erroa baita; zernahi gisaz, cdozein baieztapen egitea arriskugarria dela iruditzen zaio. Jarraian bukaera hori toponimian maizenik leku atzizkia dela gehitzen du eta *harrizkoa*-n dugunarekin erlazioa daitekeela. Honela bada, *Amez-coa* 'la chèneaie' da, *Larrain-goa* 'lieu de pâturage'... e.a. *Aezcoa* ere jasotzen du eta *aitz* 'haitza'-tik eratortzen (1873: 179).

Vinsonen (1925: 630) ziurtasunik gabe *Arberoue* 'la roche chaude' datekeela dio, *Zuberoa* 'la futaie chaude' eta *Garmendia* 'la montagne enflammée' diratekeen bezala. **Azkuen** (1927: 182), Luchaireren oinatzetan, 'lurraidea' ("errialdea", "territorio") adiera duen atzizkia dakusa *Arbeloa*-n, *Aezkoa*, *Ameskoa* (*Amezkoa* dakar lekeitiarrak, eta *ametz* + *-oa* interpretatzen), *Belarroa*, *Gipuzkoa*, *Nafarroa*-n eta bestetan bezala.

Mitzelenak *Arbeloa* (AV, 72, 472) *arbel* izen arruntaren eratorrietan sartzen du; bukaera *-oa* da, zein menturaz *-ola*-ren aldaera baitateke, hots, jatorrizko **Arbelola* batetik bigarren kontsonanteuren disimilazioaz *Arbeloa* atera izanen da, *Apalloa*, *Astarloa*, *Epeloa*, *Mutiloa* eta bestetan gertatzen den antzera. **Orpustanek** (1990: 85, 1999: 53) *arbel* dakusa toponimo honen oinarrian eta "(le pays de) la pierre noire" interpretatzen du, izan dadin 'lapitza' adieran, izan dadin zentzu orokorrago batean. Beste lan batean (1996: 217) *Arberoa* izena mugatua dela dio, *Iruñeleja*, *Bizkaia* eta *Zuberoa* bezala; hemen, bistan denez, lehen biak horrela dira, baina *Zuberoa*-n eta *Arberoa*-n artikulua ote dngun zalantzazkoa da, gutxieneko kontuan. *La langue basque*-n (1999: 241) *Arberoa* X. mendiaz geroztik

“l'Arbéroue”-ren izena izan dela dio, baina maiz albokariz izkiriaturik azaltzen dela (*arbeloa*), “ce qui fait hésiter sur l'hypothèse étymologique (*bel* “noir”, ou *bero* “chaud” ou *bera* “tendre?”)”.

Salaberriren arabera (1997: 22-25) hainbat toponimoren bukaerako *-oa* horrek, Luchaire eta Azkuek nahi zuten bezala, ‘lurralde’, ‘eremua’ adierazten du, *Epeloa* (= *Epel*, *Epela*, *Epelaga*, *Epeleta*), *Itzoa*, *Intzoa* (= *Itza*, *Intza*) eta *Ubilloa* (= *Ubillo(t)s*, *Ibillo(t)s*, *Ibillosketa* > *Inbuluzketa*, *Ubiltzieta* > *Ibiltzieta*, *Ubillegi*) toponimoetan ikus daitekeen moduan. Hauekin lotzekoak dira *Aezkoa* (< *aetz* gentilizioa + *-oa* ‘lurralde’, ‘aetzen lurralde’), *Ipuzkoa*, *Gipuzkoa* (< *iputz*, *giputz* + *-oa*, ‘(g)iputzeu lurralde’), *Nafarroa* (< *nafar* + *oa* ‘nafarren lurralde’). Honek, alabaina, ez du erran nahi *-oa* guztiak jatorri berekotzat hartu bebar direla, besteak beste *-ona* bukaeratik atera den *-oa* (> *-o*) ere badugulako: *A(i)zkona* > *A(i)zkoa*, *Aramaiona* > *Aramaio*, *Arrona* > *Arroa*, *Artaxona* > *Artaxoa*, *Lemona* > *Lemoa*, *Likona* > *Likoa*, *Zestona* > *Zestoa*...

Oharra:

Nafarroa Garaian *Arbeloa* deitura aski ezaguna da.

Aiherra / Ayherre

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 18): *San Per de Aiherre* (1321), *Ajarra* (1513), *Ayherre* (1754).

Goihenetxe (1966: 245): *Sant Pere d'Ayerre*, *Sanctus Petrus d'Ayerre*, *Ayerre* (1321, 1328, 1403), *Sancti Petri de Hayherre* (1330), *Sancti Petri de Ayherre* (1330), *San Pedro d'Ayerra* (1346), *San Pedro d'Iarra* (1347), *San Pedro d'Iharra* (1347), *Sant Pedro d'Ayherr* (1364), *San Pedro d'Aherr* (1364), *Ayherra* (1388), *Ayhere Suzon* (1495)¹⁹.

Carrasco (1973): *Ayherre* (1366, 675. or.), *Ayherre Garay*, *Ayherre Behere* (Aiherrako etxeak, 1366, 680. or.), *lo caperan d'Ayherre et de Yzturiz* (1366, 682. or.).

Lemoine (1977: 193): *Aiherre* (1321), *Ajarra* (1513), *Ayherre* (1754).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 43): *Aiherre* (1321).

Orpustan (1990: 90): *ayherra* (1244), *aiherre* (1321), *ayherre* (1350, 1413).

Zierbide (1993): *Ayherre* (1412-1413, 91. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Guilhem Arnaut de Santz, rector d'Ayherre* (1394, 257, 89. or.), *Guillem Arnaut de Switz, caperan d'Ayherre* (1394, 258, 90. or.).

Zabaltza (1997, 316, 535. or.): *Sant Pere d'Ayerre* (1321).

Euskal Testuak:

- "Kartier huntarat biltzen baitira **Aiherre**-Bildarritzeko haur asko", J. Etxepare (1988: 16).
- "Makea, Mendiondo eta Lekuine, batek; bertzeak, Doneztiri, Dona-Martiri, Isturitze eta **Aiherre** (...)", J. Etxepare (1988: 28).
- "Ez ahantz, guziz D. Lohizunen, Milafrangan, Makean, Bidarrain, Bardozen, Armendaritzen, Larzabalen, Atarratzen, Zalgizen, **Aiherren**, D. Garazin", J. Etxepare (1996: 187).
- "Hunen aita **Aiherratik** kostaratu zen, Albert Goyeneche mirikuaren karrosa-zain bezala", P. Lafitte, Hiriart-Urrutiren lanari (1971) egin hitzaurrean.

19. *Ayherregaraya sartu da testuan, honen aldamenean, espimarraturik.*

- “Haren etxeokak hor ziren, **Aiherra**-tik, **Donamarti**-tik eta **Lekuine**-tik etorriak; hor ziren ere **Beloke**-ko fraide guziak beren otoitz kartsuenekin, **kantu ederrenekin**”, (Otoizlari, 1986, EEBS).
- “Nork ezagutzen zuen **duela 15 bat urte birla jokoa?** **Hazparneko kartieretan eta inguruetak**o herrietan haizik (**Aiherra**, **Donamartiri** eta **Donoztiri**) ez zen ezagutua”, A. Garat (*Herriz Herri*, 1988, EEBS).
- “...eta hortik zenbait urteren buruan igorri zuten **Aiherrara** ertor”, Etxebarne (1989: 111).
- “**Aita Larre, Aiherrako** jaun erretora (...)”, J. L. Davant, in J. Hiriart-Urruti (iloba) (1992: 353).
- “**Hori badakite oraino, ezagutu duten lekuindar eta aihertar** laborari-langile zaharrenek, besteak beste”, Larre (2001, 211).
- “**Baditugu** bai herriak lagundu eta kuraieztatu gaituztenak hala-nola **Sara, Urruña, Azkaine, Zuraide, Itsasu, Aiherra, Bidarra, Heleta, Arberatze, Irisarri, Aldude, Urepele, Baigorri** eta **ahantziek barka**”, Larre (2001: 248).
- “**Orduan ninduten Aiherrara** igorri”, Larre (2001: 271).
- “...arras hartua nuen **Aiherrako** herria. Nola egonen nintzan **Aiherrara**inoko jauzi bat egin gabe noiztenka”, Larre (2001: 273).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170), **Dassancek** (1966: 162), **Goihenetzek** (1966: 245) eta **Orpustanek** (1990: 90) **Aiherra** dakarte, **Hatanek** (1895: 19) **Ayhara**, **Azkuek** (1905: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXV, 19) eta **Lemoinek** (1977: 193) **Aiherre**. Herritarren izena **aihertarr**, **Aihertarr** (**Lhande, Orpustan**) edo **aihertar** (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) **Aiherra** eta **aihertar** hautatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) **Aiherra** eta **aihertar** hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Ajerra, Ajérran nintzán, ajértarrà, ajértarrák (**E. Etxarren**). **Tx. Peillenek M. Arbelbide, J. L. Davant, E. Larre** eta **M. Pagolari** egindako galdeketa **Aiherra, aihertar** azaltzen dira.

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 19) *Gay-hara* 'haut plateau' ulertzen du berak biltzen duen *Ayhara*; ematen duen azalpena da eliza eta lehengo gaztelua goi ordoki batean kokatuak direla. **Bähr-ek** (1948: 37) Aragoiko *Ayerbe* toki izena aztertzean *ayer* 'aldapa, jaiera'-rekin lotzen du eta 'unter dem Hang' adiera ematen. **Mitxelena** (AV, 17), Bähr-i jarraikiz, *ai(h)er* 'joera, jaiera, aldapa' dela dio, ustez etorkizkoa den 'aldapa' adiera hori inon dokumentatzen ez bada ere. **Orpustan** hamarkada batzuk beranduago (1990: 90, 1999: 65) errenteriarraren irizkide ageri da.

Lemoinek (1977: 181) bokalek euskaraz aski balio aldakorra dutela dio, eta *a / e* aldizkatzea gertatzen dela, *Ayherre*-n erraterako, "bistan denetz" *Eiher* (sic) 'errota'-ren eratorria baita; **Dauzat & Rostaingek** ere (1983 [1963]: 42) *aihera* (sic) 'errota'-tik eratortzen dute izena.

Gerok (1997: 8-9) Nafarroako *Ageza* (*Ayesa* erdaraz) eta *Aierza / Aiarza* mikrotoponimoak *aiher* + *-(t)za* 'aldapan dagoen tokia' azaldu genituen; ez dakigu *aiher* hau Añibarrok eta Astarloak aipatu zuten *ai* 'aldapa, pendiza'-ren eratorria denetz (cf. *Aia* eta *Aiegi* maldan kokatutako herriak, besteak beste).

Oharra:

Nafarroa Garaian *Ayerra* deitura franko hedaturik dago.

Armendaritze / Armendarits

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 10): *Armendariz, Sancta Maria de Armendaridz* (1256), *Armendaritz* (1428), *Arbendaritz* (1529).

Goihenetxe (1966: 204): *Armendariz* (1245, 1256, 1270, 1293, 1294, 1368, 1379, 1388, 1393, 1396, 1428, 1429), *Armandaryz* (1249?), *Armandars* (1252), *Ermandars* (1352), *Harmandars* (1352), (*Sancta Maria de*) *Armendaritz* (1256, 1364, 1385, 1387, 1428, 1451), *Armendarids* (1256), *Armendaridz* (1256), *Ermendariz* (1307), *Arbendaritz* (1351, 1529), *Hermendiz* (1378), *Armendaris* (1378, 1469), *Armendariz* (1405).

Carrasco (1973): *Armendaritz, Lassale de Armendariz* (1366, 675. or.), *Armendaritz, lo caperan d'Ihot et d'Armendaritz* (1366, 681. or.).

Lemoine (1977: 108): *de Armendaridz* (1256), *Armendaridz* (1293), *Armendaritz* (1428).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 26): *Armendariz* (1256).

Orpustan (1990: 97): *armandarys* (1249), *armendaridz* (1256), *armendariz* (1264), *armendaritz* (1366, 1413).

Zierbide (1993): *Armendaritz* (1412-1413, 90. or.). Herri honetan berean "la Sale d'Armandarytz", "la Sale d'Armendariz" ageri da (ibid.).

Zabaltza (1995): *Ermendariz* (1307, 227, 213. or.), *Blasc d'Armendaris, Iohan d'Armendariz, Guillem d'Armendaris* (c. 1308, 257, 243-244. orr.).

Zierbide & Ramos (1997): *Per Arnaut, seynnor del palacio de Armendariz* (1465, III.21, 107. or.).

Carrasco (1999-1): *De francage de Yot et de Armendariz, 30 soltz* (1266, 220. or.), *Guillem d'Armendariz* (1266, 281. or.), *A don Guillem de Armendariz, per establizon de Armendariz, 15 kafices per lo senescal* (1266, 355. or.), *A don Guillen d'Armendariz et al seynnor de Belçunça, 8 kafices, 2 arrobas en Ostauaylles* (1266, 357. or.).

Euskal Testuak:

- "Hola-hola solasean hari direlarik, gure ikusketariak **Armandaritzera** heltzen dire", Duvoisin (1987: 63).
- "Iluntzea zen **Armandaritzeko** jauregira heldu zirenean bi arrotzak", Duvoisin (1987: 64).

- "Ez ahantz, guziz D. Lohizunen, Milafrangan, Makean, Bidarrain, Bardozen, **Armendaritzen**, Larzabalén, Atarratzen, Zalgizen, Aiharren, D. Garazin", J. Etxepare (1996: 187).
- "Paueko zazpi grenadieretarik sei eskualdunak ziren. Gogoan atxiki balin badut xuxen, huna sor herriak: Donaphaleo, **Armendaritze**, Donaixti, Domintxine, Itsasu, Milafranga", Saint-Pierre (1998: 146).
- "...Euskal-herri barne huntarik beste batzu: Donapaleu, Aiziritze, Behauze, **Armendaritze**, Irisarri", J. Hiriart-Urruti (iloba) (1992: 189).
- "Aitatxi Eñaut Urruti, **Armendaritze** Meharrian sortua (...)", Landart (1978: 15).
- "Alta, ez zen urrunekoa, otto Joanes. Pentsa... sortzez **Armendariztarra**. Aitatxi bezala, halabaina", Landart (1978: 111).
- "**Armendaritze** Haur Begiez", Karrika (1990).
- "**Armendaritzeko** herri miresgarriari", Karrika (1990: 7).
- "Bai-eta, nahi baginuen, bazituzkeela zenbait oroitzapen xahar kondatzeko, **Armendaritze** bere haurreko herriaz", E. Lareren hitzauerrea, Karrika (1990: 10).
- "Bortz urtetarik hamabi urtetaraino **Armendaritzen** bizi izan naiz (...)", Karrika (1990: 13).
- "Geroztik **armendariztar** pilotariek trinket eder bat badute beren eskuho (...)", Karrika (1990: 16).
- "Bainan 1924-eko urte hastean **Armendaritzerat** etorri ziren heiek ez nituen begi onez ikusi", Karrika (1990: 53).
- "Deneri goraintzi, eta gora **Armendaritze!**", Karrika (1990: 53).
- "Alta, adinez baginuen 12 urte gu bien artean. **Armendaritze** Mehaberriko semea (...). Eta, Hazparnen, baginuen gelaria, Mañexen kusia, **Armendaritze** Urrutiko Margarita (...)", Larre (2001: 219).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Arbendaritz* jasotzen du, **Hatanek** (1895: 13) *Armendaritz*, **Azkuek** (1905: XXIX) *Arbendaritze*, **Lhundek** *Arbandaritze* (1926: XXXVI), *Arbendaritze* (ibid., 53), **Dassancek** (1966: 164), **Goihenetzek** (1966: 204), **Barandiaranek** (1974: 79) eta **Orpustanek** (1990: 97) *Armendaritze*. **Lemoinek** orrialde batean (1977: 108) *Arbendaritz* erraten dela dio eta beste batean (ibid., 181) *Arbendaritze* ebaikitzen dela. Herritarren izena *arbendariztarr* (**Lhande**), *armendariztar* (**Dassance**), *Armendariztarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Armendaritze* eta *armendariztar* hautetsi zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Armendaritze* eta *armendariztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Armendaitze, *Arréndaitzé*, *arméndariztár*, *árrendaiztár* (EHHA), *Armendaritzé*, *arméndariztarrák* (E. Etxarren), *Armendáitze*, *aRmendáiztaRák* (L. Xuri), *Árrendáritz* (A. Kaminondo, P. Kamino). Tx. Peillenek M. Arbelbide, J. L. Davant, E. Larre eta M. Pagolari egindako galdeketa *Armendaritze*, *armendariztar* ematen dira ontzat.

Etimologia azalpenak:

Godoy Alcántarak garbi ikusi zuen XIX. mendean (1871: 96) *Armenteros*, *Armentariz* eta *Armendariz* deituren jatorria *armentarius* 'aziendazaina'²⁰ zela. **Luchairek** (1873: 147, 1874: 11) euskarazko *b* > *m* aldakuntza azaltzen ari delarik *Biarritz* > *Miarritz* eta *Arbendaritz* (XVI. m.) > *Armendaritz* aipatzen ditu; pixka bat beranduago (1881: 153) Leireko kartularioko *Armentari* izena biltzen du²¹ eta honela erraten: "c'est très probablement le même mot qui entre dans la composition du nom de ville hasque française (canton d'Icholdy, département des Basses-Pyrénées): *Armendaritz* (en 1256, *Armendariz*)".

Hatanek (1895: 12-13) gero Dauzat & Rostaingek oker eta Orpustanek zuzen berenganatuko duten *Armendi-aritz* etimologia proposatzen du eta honako azalpen hau ematen: "Armendaritz est un endroit couvert de beaux *chênes* au bas de la montagne d'*Armendi*". Azkeneko hau *Ar-mendi* "montagne de pierres" interpretatzen du eta erraten Armendaritze eta Heletaren arteko mendia dela, eta hemen "plusieurs carrières de pierre" daudela, zenbait harrobi alegia. **Vinsonek** (1909: 354) *-itz*, *-iz* bukaera duten izen ugari artean sartzen du *Armendaritz*, baina ez du gehiago sakontzen.

Godoy eta Luchaireren bidetik dabilta **Piel** (1947: 176), **Mitzelena** (AV, 82), **Díez Melcón** (1957: 145), **Dolç** (1960: 402; bouen arabera *nomina*

20. *Armentarius*-en oinarrian dagoen *armentum* izenaren balioaz ikus Ernout & Meillet (1994: 47).

21. Ezkarozen *Armentari Sanz* eta *don Armentari* ageri dira 1072an (Martin Duque, 1983: 97).

humilitatis-etako bat da *Armentarius*, *Asinarius* eta *Porcarius* bezala), **Menéndez Pidal & Tovar** (1962: 390) eta **Lemoine** (1977: 108, 181), baina ez **Dauzat & Rostaing** (1983 [1963]: 27-28). Hondarreko hauen arabera *Armendaritz*-en *arr*- 'rocher', *mendi* 'montagne' eta *aritz* 'chèvre' (sic) ditugu, nahiz gero beste Departamendu batzuetako *Armenteule*, *Armentières*, *Armentieux*, *Armentieux* azaltzeko *armentum* 'gros bétail' izena baliatzen duten. **Orpustanek** (1990: 97) Dauzat & Rostaingen etimologia hobesten du, "pixka" bat zuzendu ondoren, hots, *chèvre* → *chêne* aldakuntza egin ondoren; alegia, aipatzen ez badu ere Hatanen etimologia bere egiten du. Honela mintzo da *Armendaritze*-z:

"Ce toponyme est un triple composé que Dauzat et Rostaing avaient fort bien analysé: (*h*)*arr(i)* "rocher", *mendi* "montagne", (*h*)*aritz* "chêne".

Lemoinereen lanari erreferentzia eginez honela jarraitzen du:

"Toute autre analyse entraîne des complications inutiles et peu vraisemblables, comme le latin *armentaria*".

Irigoién (1990: 29-32) ez da, uste izatekoa zenez, Orpustanekin akort eta gorago ikusi beste hizkuntzalarien bidetik erraten du *Armendaritze*(e) Erdi Aroko *Armentari* (< *armentarius* 'behizaina', 'aziendazaina') antroponimoaren gain moldatutako patronimikoa besterik ez dela. Bizkaiko euskaltzaina lehenago ere mintzatua zen gai honetaz (1983: 18).

Bastida / Labastide-Clairence

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 23): *La Bastida nueva de Clarenza* (1312), *La Bastide de Clarence* (1354), *La Bastide* (1380), *La Bastida de Clarença* (1398), *La Bastide de Clarense* (1422), *Bastida de Clarenzia* (1513), *La Bastide de Clerance* (1665), *Beata Maria de la Bastide de Clarence* (1767).

Goihenetxe (1966: 309): *Bastide nostre de Clarença, ville de Clarenzia* (1312), *La Bastide de Clarence* (1313), *La Bastida de Clarença* (1321, 1375), *bastide nove de Clarenzia* (1339), *Bastida de Clarenzia* (1388).

Carrasco (1973): *lo vicari de Labastide; lo prebender de Labastide* (1366, 682. or.).

Gartzia Larrageta (1976-77): *Per d'Arremes, baylle de Labastide de Clarence; Guiraut Gayrart, vezin et habitant de la dite Bastide* (158. agria, 633. or., 1313), *maestre Guiraut de Viaue, Bernart de Monclar, vezins eta habitantz de Clarence* (ibid., 634. or.).

Zierbide & Santano (1990): *Ejo, Pes de Puy, notari public de Labastide de Clarença* (1356, 9, 53. or.), *Johan de Garris, baille de Labastide de Clarence* (1362, 25, 65. or.).

Zierbide (1993): *la Bastide de Clarença* (1412-1413, 93. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Bernat d'Arroncesbaus, bezin de La Bastide de Clarence* (1395, 269, 98. or.).

Barragán (1997): *la bayllia de la nuestra Bastida de Clarença* (1336, 104, 169. or.), *la nuestra uilla et eglesia de Santa Maria de la Bastida de Clarença* (1336, 107, 173. or.), *Item ad supplicatione gentium bastide de Clarenzia* (1341, 142, 248. or.), *la rectoria de la eglesia de la Bastida de Clarença* (1347, 172, 289. or.).

Ruiz (1997): *Data en la Bastida de Clarença* (1355, 133, 166. or.), *Donne a La Bastide de Clarençe; Scripta en Labastida de Clarença* (1355, 134, 167. or.), *baylle de la Bastide de Clarence* (1359, 183, 219. or.).

Zabaltza (1997, 316, 535. or.): *el conceylo de la bastida Clarença* (1321).

Ruiz (1998): *...a Guillem Arremon de la Via, en la yglesia de Santa Maria de Clarença; otrossi de los gages de siete meses que eill touo en goarda por de la dicha Bastida* (1362, 572, 240. or.), *...otrossi li pagassedes veynte libras de carlines por razon de la goarda et mession que fezo teniendo cercado a Guillem Arremon de la Via en la eglesia de Santa Maria de Clarença*

(...) touo en goarda por nos el bayllio de la dicha Bastida (1362, 573, 241. or.). ...García Arnald d'Iuarrola (...) dio a Iohan de Garra, baile de la Bastida de Clarença (...) (1363, 943, 585. or.).

Euskal Testuak:

- "**Bastidako** kantonamenduan eta Akhamarren goldeak idukitzen ditu 34 ara eta 19 zantiara hurren", Duvoisin (1986 |1858|: 66).
- "Aita Pergilhem igorri zuten **Bastida-Klerantzerat** erretor; aita Zarrote gisa berean Lekhoinerat", Arbelbide (1890: 271).
- "Donibaneko kantonamenduak eman zion esku-gain handia. Bertze kantonamenduetan gibeletik zen; bertzeari hurbilenik **Bastidan**, eta urrunenik Bidachunen", Hiriart-Urruti (1971:105).
- "Betidanik bazuen komentuentzat gaitzeko atxikinendua. Uztaritze, Angelu, Maule, Donibane, Betarrame, **Bastida**, eta bertze komentu (...) ", Hiriart-Urruti (1971: 148).
- "...beneditano batzu igorri dituela; bat edo biga **Bastidako** hoitarik (...) ", Hiriart-Urruti (1972: 101).
- "Han dire Hazparneko, **Bastidako**, Donibane-Lohitzuneko, Uztaritzeko, Iholdy-ko, bartz kantonamenduetako elizei ebatsi ontasunen zehetasunak", Hiriart-Urruti (1972: 190).
- "Eta bertze egilerik nehor ez Eskual-herri guzian, **Bastidan** baizik!", J. Etxepare (1980 |1910|: 66).
- "Panpilaren Garrozeko arreba hil supituki bezela, hiru hilabeteren burian **Bastidako** ahizparen senharra odoleko kantzerrarekin", Amorotzeko 1970eko gutun argitaragabea.
- "Ondoko urtean, 1567an, Leizarragak Pauen minixtro-gaien etsaminak pasatu zituen eta minixtro egin zuten, apirilaren 15ean **Bastidarat** izendatzen zutelarik", Lafitte (1990: 109)
- "**Bastida** (erdaraz La Bastide-Clairence), bere portu ttipiarekin, Baxenabarreko herri bat zen, frango ttarroa, kaskoin kofoin bat, nahiz (paper zabarrak lekuko) Eskualdun hainitz ere bazaukan", Lafitte (1990: 109).
- "Paueko Sinodak orduan erabaki zuen Leizarraga alde bat jarriko zela **Bastidan**", Lafitte (1990: 110).
- "...itzegilea, ikusiz zakurra behingotz eri zuela eta ez nahiz sehirik hartu, **Bastidarat** joana zela bertze zakur baten bila", J. Etxepare (1980 |1910|: 68).

- "*Nahiz administrazioak azken bi horiek **Bastidari** lotzen dituen eta ere Mehaine Donapaleutik Hazparnera ekartzen*", P. Charrittonen oharra, J. Etxepare (1988: 33).
- "*Baxenabarraoak jende xeheari hurbilago zauden; hogoïta sei ziren orotarat: hiru Amikuzetik, bat bedera Iholditik, Arnaitzetik eta Irissarritik, bira Garazitik, Baigorritik, Ortzaizetik, Arberutik eta Oztibarretik; berdin biga bakotxetik: Donibane-Garazitik, Donapaleutik, Garruzetik, **Bastida-Klairantzatik** eta Larzabaletik*", Otto Piarre (Herria, 1987, EEBS).
- "***Bastida** Pesarrukoek Larzabaltarren kontra eta Iholdiarrek Ezterenzubitarren kontra irabazi ondoan elgar atxemaiten zuten pare hoberenaren izendatzeko*" Herriz Herri (1988, EEBS).
- "*Hain segur, esperientzia hori ez dezakegu den bezala sar beste leku bartzuetan, hala nola Hazparne, **Bastida**, Bidaxuneko eskualdeetan*". Herria (1989, EEBS).
- "***Bastidarrak** jende maltsoak ziren*", Lafitte (1990: 110).
- "*Tardets izan baitzen bost urtez **Bastidako** lehen ministro (...)*", Lafitte (1990: 110).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Dassancek (1966: 164) *Bastida*, *bastidar* biltzen ditu eta **Orpustanek** (1990: 90-91) *Bastida*, *Bastida-Klarentza* ("dit-on parfois en basque") eta *Bastidarr*.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) (*Nafarroa behekoa*) *Bastida* eta *bastidar* hautetsi zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Bastida* eta *bastidar* hobetsi ditu; Euskal herriko beste *Bastida*-ren batetik bereizi beharra denean *Bastida Arberoa*, *Bastida Arberoako*... erabiliko dira.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Bastida, *bastidar*, *bastidóta*, *bastidó* (EHHA), *Bastida*, *bastidarrà* (E. Etxarren), *Bastida*, *bastidàRàk* (J. Xuri). Tx. Peillenek M. Arbelbide, J. L. Davant, E. Larre eta M. Pagolari egindako galdeketa *Bastida*, *bastidar* ematen dira ontzat.

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 19) *La Bastide-Clairence* euskal izena ez dela besterik ez du erraten; **Palayk** (1991 [1974]: 111) *bastide* izen arruntzat hartzen du eta honela definitzen: "Lieu retranché avec domaine environnant et groupe d'habitations; ville fortifiée, édifiée d'un seul coup au XIII^e eta au XIV^e siècles". **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 57) *Bastia*, *La Bastide*, *La Bastidette*, *La Bastit* bezalako toponimoak latineko *bastita* aditz partizipio izendutik eratortzen dituzte; hastapenean 'gotorlekua' adiera zuela diote eta gero XIII-XIV. mendeetan sortu ziren hiribildu txikiak izendatzera igaro zela. **Coromines & Pascualek** diotenez (1987: 538-539), gaztelaniazko *bastir* okzitaniarazko *bastir*-etik atera da eta hau germanierazko **Bastjan* 'eho, ehundu'-tik. 'Eraiki' adiera dirudienez mailegua da gaztelaniaz, *bastir* aditza erranahi horrekin zaharra bakarrik frantsesez, okzitaniaraz eta katalanez baita.

Lemoinek (1977: 266) *Labastide-Clairence* Clarence-ko duke ingelesak fundatu zuela dio, 1312. urtean; **Orpustanen** arabera (1990: 91) izenaren bigarren osagaia (*Clairence* / *Klarentza*) ilun dago, baina ez du baztertzen erlijio izen zenbait datekeelakoa. **Grosclaudek** (1991: 62-62) Biarnoko *bastidez* (*Labastide-Cézéracq*, *Labastide-Monrêjeau*) ari delarik Dauzat & Rostaingen definizioa errepikatzen du eta gehitzen okzitaniarazko *bastida* *bastir* aditzaren iraganeko partizipio femeninoa dela. **Nietok** (1997: 207) Arabako *Labastida*-z (*Bastida* euskaraz) ari delarik Lugoko *A Bastida*, Salamancako *La Bastida*, Lleidako *La Bastida de Bellera*, *La Bastida d'Hortons*, *La Bastideta de Corroncui* aipatzen ditu eta erraten izena latin berantiarreko *bastita*-tik (*i* luzearekin) atera dela; *Villafranca* (cf. *Villefranche* / *Milafranga* Lapurdin), *Les Franqueses del Vallès* eta besteren eremu semantikoan sartzen dela ere badio.

Oharra:

Bastida Baigorriko auzoa ere bada, hain zuzen ere E. Larre euskaltzaina sortu zena.

Donamartiri / Saint-Martin d'Arbérroue

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 150): *Sant-Martin* (1513).

Goihenetxe (1966: 256, 316): *Beelhoriz* (1249), *Sant Martin* (1249, 1321, 1343, 1347, 1369, 1371, 1387, 1389, 1398, 1404, 1405, 1406, 1407, 1408, 1428), *Belhoriz* (1256), *Sancto Martino de Belhorritz*, *Sanctus Martinus de Belhorritz* (1285, 1334), *Saint Martin* (1293), *Sant Martin de Heloriz* (1321), *Sant Martin d'Arbeloa* (1358), *Sant Martin de Belhoritz* (1374, 1394), *Sent Martin* (1385).

Carrasco (1973): *Sent Martin* (1366, 675 eta 680. orr.), *lo caperan de Sent Martin* (1366, 682. orr.).

Lemoine (1977: 264): *Sant Martin* (1513).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 614): *Sant Martin* (1513).

Orpustan (1990: 87): *sent martin* (1249), *belhoriz* (1249), *sant martin de beloriz* (1350), *sent martin* (1366).

Zierbide & Santano (1990): *Johan, seynor de Sent Esteven eet Bernard, son filh, hereter; Santz filh de Garris. e Johan, seynor de Çabalçu de Sent Martin* (1356, 9, 53. orr.).

Zierbide (1993): *Sent Martin* (1412-1413, 92. orr.).

Zabaltza (1997, 316; 535, 536. orr.): *los parroquianos de Sant Martin de Beloriz* (1321), *don Arnalt, capeyllan de Sant Martin de Beloriz e Santz Martin d'Arrayda esleytos et puestos por los dichos de Arberoa* (1321).

Euskal Testuak:

- "Doneztebe-hiritik, lehenbiziko urhatsak eramán zituen **Donamartihirira**", Duvoisin (1987: 63).
- "Makea, Mendiondo eta Lekuine, batek; bertzeak, Doneztiri, **Dona-Martiri**, Isturitze eta Aiherre (...)", J. Etxepare (1988: 28).
- «Gure Herriak» zor dako oroitzapen bat, Pierre Etchepare, berriki hila den, **Donamartihiriko** ertor zenari (...)", J. Etxepare (1996: 197).
- "... 1919an, igorri zuten buruzagiek, **Donamartihirirat** ertor", J. Etxepare (1996: 198).
- "**Donamartihiri**, 403 arimako herri ttipi bat da, Hazparne-ren iuzpe-girat", J. Etxepare (1996: 198).

- "...baditake bertze itzal handirik ez duken **Donamartihirik**", J. Etxepare (1996: 198).
- "Bederen -eta ez da hau guti- elizako kantuaren beraztasunari, musika lagun, ohartarazi ditu **Donamartihiritarrak**", J. Etxepare (1996: 199).
- "Segur, nahi baino lasterrago heldu ginen **Donamartiri Elixabehereko ostatu aitzinera (...)**", Landart (1978: 48).
- "**Haugi** orain hunat, **Donamartiritarrek** bezala egin behar diuk", Landart (1978: 49).
- "Zeren **Donamartiritik** Oragarrera, patarrez-patar oinez joan behar baikenuen Isturitzeko mendietan han-hara", Landart (1978: 49).
- "Dominixe URKHET **Donamartiri-Etzartia-n** sortua zen, 1899-an, abotzuaren 14-an" (Otoizlari, 1986, EEBS).
- "Haren etxeoak hor ziren, Aiherra-tik, **Donamarti-tik** eta Lekuine-tik etoriak; hor ziren ere Beloke-ko fraide guziak beren otoitz kartsuenekin, kantu ederrenekin", (Otoizlari, 1986, EEBS).
- "**Donamartiriko** soka tira ekipa ere hor izanen da, kostaldeko [...] aurka ariko zaukuna", Herriz Herri (1988, EEBS).
- "Ene ustez segurik, Armendaritzeko lurretan aurkitzen zen **Bahasiko** etxe bakarra zen, beste etxeak **Donamartiriko** lurretan ekarriak baitira", Karrika (1990: 147).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Donemarthiri* dakar, **Raymondék** (1863: 150) *Don-Amarti-Hiri*, **Hatanek** (1895: 17) *Dona-martine* eta **Azkuek** (1905: XXIX) *Donamartihiri*, **Lhandek** (1926: XXXVI, 211), **Mitzelenak** (AV, 434) eta **Dassancek** (1966: 162) *Donamarthiri* ematen dute. **Barandiaranek** (1974: 68, 74) *Donamartiri* deitzen zaiola dio eta Landibarren badela *Jandenamartine* izeneko auzoa; **Orpustanek** ere (1990: 87) *Donamartiri* jasotzen du. **Lemoineren** arabera (1977: 264) -eta honetan Raymondi jarraikitzen zaio- euskaraz *Don Amarti Hiri* erraten zaio herriari.

Herritarren izena. **Lhandek** dioenez, *donamartiarr*, *donamartarr*, *donamartihiritarr* da; *donamartiarrak*, *haitzak* 'les gens de St-M.-d'A. sont des chènes' erranairua ere biltzen du. **Dassancek** *donamarthitar* dakar eta **Orpustanek** *Donamartiriarr*.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 103) *Donamartiri*, *donamartiritar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Donamartiri* eta *donamartiritar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Dönamartí, *dönamärtitarrá* (E. Etxarren), *DónamaRtíri*, *dónamaRtjáRtaRák* (L. Xuri). M. Arbelbide, J. L. Davant, E. Larre eta M. Pagolari Tx. Peillenek egindako galdeketan *Donamartiri*, *donamartiritar* aldaerak hobesten dira.

Etimologia azalpenak:

Hatanek dio (1895: 17) *Dona-martine* “seigneur Martin” dela. Mitxelena & Irigaraik (1955: 417) XVI. mendean *St. Martin d'Arbéroue*-ren euskal izena *Donamarthiri* zela diote eta azken osagaia *hiri* ‘hiribildua’ datekeela, baina gehitzen dute Lhanderen arabera Hiribarrenek *Dona Marthiri* ematen duela “(fiesta de) San Martín”-en baliokidetako. Errenteriarrak dioenez (AV, 434) izena *Marti(n)* izan daiteke, kasu honetan *Marti*, jakina. Orpustanen iritzian (1990: 87) izen elkartu honetan *iri-k*, *Donoztiri*-n bezala, ‘domaine noble’ erran nahi du.

Gure ustean hukaerako *hiri* osagaia *Donoztiri*, *Dohoztiri*-n (< *Done Eztebe hiri*) eta *Uhartehiri*-n dugun bera dateke. Hasierako *Dona-* hori *done* ‘santua’ ezagunetik atera dela zalantzarik ez dago; lehen osagaiaren bukarerako *-a* elkarketan joateari zor zaioke (cf. Agud & Mitxelenak [1958: 12] biltzen duten *Dona-Phetri*: “Ni niz Urthubiaco alhaba eta Dona-Phetrico madama”), asimilazioari edo bi gauzei.

Donoztiri / Saint-Esteben

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Iruñeko protokoloak (Iruñea, 1635, 50, 368): "...*Joanes de Santesteban molinero residente en esta dicha ciudad y natural de la villa de Santesteban en la vaxa nauarra...y marido de...Catalina Usuroz al presente residente en la dicha villa de santesteban*".

Raymond (1863: 147): *San-Estevan de Arberoa* (1321), *Sant-Esteban* (1513), *Saint-Esteve d'Arberoue* (1703).

Goihenetxe (1966: 254, 313): *Sancto Stephano* (1249), *Sant Esteuan de Arberoa*, *Sant Esteuan d'Arberoa* (1321, 1428), *Sant Esteuan*, *Sant Estevan*, *Sant Esteban* (1321, 1347, 1353, 1357, 1362, 1368, 1385, 1387, 1388, 1397, 1400, 1401, 1404, 1405, 1406, 1669), *Sant Esteuen*, *Sant Esteben* (1343, 1347, 1353, 1371, 1405), *Sent Esteben*, *Sent Esteuen* (1356, 1360, 1363).

Carrasco (1973): *Sent Esteben* (1366, 675 eta 681. orr.), *lo caperan de Sent Esteben et de Helet* (1366, 682. orr.).

Lemoine (1977: 262): *San Esteben de Arberoa* (1321)²², *Sant Esteban* (1513), *Saint Esteve d'Arberoue* (1703).

Dauzat & Rostaing (1983 | 1963]: 596): *San Estevan* (1321).

Orpustan (1990: 87): *de sancto stephano* (1249), *sant esteven* (1350), *sent esteben* (1366, 1413).

Zierbide & Santano (1990): *Johan, seynor de Sent Esteven et Bernard, son filh, hereter; Santz filh de Garris. e Johan, seynor de Çabalçu de Sent Martin* (1356, 9, 53. orr.), *Sapien totz que jo, Arnaut Lup, seynhor de Luxe, confessi aver recebut de vos, Guasernaut de Sent Esteben, et Johan de Sossaute, tributados deus peatges d'Ostabat, de Sent Palay et de Guarris* (1363, 33, 70. orr.).

Zierbide (1993): *Sent Esteben* (1412-1413, 92. orr.).

Zabaltza (1997, 316, 535. orr.): *los parroquianos de la parroquin de Sant Esteuan de Arberoa* (1321).

Carrasco (1999-1): *En Bayguerr et en Sant Esteuen* (1266, 353. orr.), *En Sanct Esteuen* (1266, 356. orr.).

22. Raymondena kopiatu du Lemoinek, baina oker.

Euskal Testuak:

- "Athano **Doneztebe-hirikoak** noiznahi erraten ohi zuen (...)", Duvoisin (1987: 61).
- "Parise **Doneztebe-hiri** baino handiago, zer erran nahi zuen horrek? Uste zuen **Donestebe-hiritarrak** nongonahiko jendeen idurikoak zirela", Duvoisin (1987: 62).
- "**Doneztebe-hiritik**, lehenbiziko urhatsak eraman zituen **Donamarti-hirira**", Duvoisin (1987: 63).
- "**Lekuindar, Doneztihiritar, Luhustar, Hazpandarrek, zapatainak**", Etxepare (1980 [1910]: 41).
- "Urepelekin batean behar ginituzke ezarri: Bidarra, Makea, Baigorriko zokoak Irisarri, Eiheralarre, Esterenzubi, Beskoize, **Donestihiri**, Bidarte, Mendibe, Oragarre, Lasa, Donazaharre, eta bertze asko herri", Etxepare (1985: 291).
- "Makea, Mendiondo eta Lekuine, batek; bertzeak, **Doneztiri**, Donamartiri, Isturitze eta Aiherre (...)", J. Etxepare (1988: 28).
- "2. J.B. Etcheberry, **Doineztihiritarrak**, 50 libera", J. Etxepare (1996: 190).
- "**Doneztihiriko** elizatik, alditzar ereman zutenean hilerrirat, eta hemen etzan, harri gora baten gainean (...)", J. Etxepare (1996: 204).
- "Hau **Dohoztiritarra** dugu, Baionako Ospitaleko jaun omonier maitagarria, eskuarazko liburu balios andana baten egilea", Lafitte (1990: 215).
- "O zoin lakhet zuen Baionako edo **Donoztihiriko** buruzagien bilkura ttipietan!", Lafitte (1990: 281).
- "Eta zer eguna! Negu guztiko bortitzenetarik bat... Horma beltza ari; eta denbora haizetan, **Donoztiri** Harrigainbordako ganbarak ez ziren berotuak", Landart (1978: 13).
- "Mila aldiz nahiago nuen **Donoztiri** neure sort-herri maiteak eskaintzen zidan apaindura goxo", Landart (1978: 31).
- "Hasi nintzen beraz irakurtzen eta hain xuxen, Oxobik bere eskaintzan **Donoztiriko** haurrak aipatzen zituen. **Donoztirikoak** eta **Arrangoitzeakoak**", Landart (1978: 53).
- "Beste leku batzuetan "Odei" izena ematen dioten ireluari, **Dohozti-n** (Done Esteban) "ortzia" deitzen diote", J. M. Barandiaran (*Euskal Herriko Mitoak*, 1988, EEBS).

- "Nork ezagutzen zuen duela 15 bat urte birla jokoa? Hazparneko kartieretan eta inguruetako herrietan baizik (Aiherra, Donamartiri eta **Donoztiri**) ez zen ezagutua", A. Garat (*Herriz Herri*, 1988, EEBS).
- "Gure jendakia parte bat **Donoztiri**, Amoroitze eta Mehainen izanki eta, hiru herri horietako berri nihork ez zakien Juanak baino hobeki", Karrika (1990: 54).
- "Beti amaso harat ezkondu eta haurrideak, bixtan dena, kanporat. Aitaso **Donoztiri** Urrizeko semea zen (...)", Karrika (1990: 147).
- "Ez zena han Jean Batixta Etcheberry, **Donoztiri** Basugaitzeko apeza, 52 urtetan oraino!", Larre (2001: 241).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Donestihiri* dakar, **Raymond** (1863: 147) *Don-Este-Hiri*, **Hatanek** (1895: 17) *Dona-stie* eta **Azkuek** (1905: XXIX) *Donestehiri*. **Lhandek** *Donestihiri* jasotzen du (1926: XXXVI, 212), **Dassancek** (1966: 162) *Donestiri*, *Dohoztiri*, **Goihenetxek** (1966: 254) *Donestiri* eta **Orpustanek** (1990: 87) *Donoztiri*. **Lemoinek**, Raymondend urratsetan, euskaraz *Don Este Hiri* erruten dela dio.

Dauzat & Rostaingek (1983 [1963]: 596) *St-Esteben* izenburupcan Donoztiriren 1321eko *San Estevan* lekukoa sartzen dute eta hurrengo hau gehitzen: "Forme basque du grec *Stephanus*, le premier martyr, et de nombreux autres saints". Guk ez dugu ongi ulertzen autoreok erran nahi dutena; menturaz *Esteben* edo *Esteban* grezierazko *Stephanus*-en eta beste anitz hagianimoren euskal ordaina dela? Honek, jakina, eta horrela ulertu behar bada, ez du ez bururik ez buztanik.

Barandiaranen arabera (1974: 17) *Dohozti* da herriaren izen herriko laburtua, euskarazko idazki eta argitalpen batzuetan *Doneztebiri* gisa agertzen dena, haina oinohar batean *Dohoztiri*, *Donestiri* eta *Donestihiri* ere erraten zaiola gehitzen du. Hondarreko aldaera hau Donoztiritik Lekuñera doan bideko harrizko gurutze handian ageri da (ibid., 73. or.): *1683 / PREDO / DE PEL / ERETE / GVI : EG / VIN DV / HARRI / HAUR / DONE / STIHIRI / QVO* 'Pedro de Pelcete[gi]k] egin du harri hau Donoztirirako'. Ataundarrak dioenez, sobera lotsatiak ziren haurrak herriatik 80 bat metrora dagoen *Yandohozteixiloa* izeneko iturrira eramaten zituzten, ahalkearen kentzeko.

Herritarren izena *donestiarr*, *donestiriarr* (**Lhande**), *donestiritar*, *dohoztiritar* (**Dassance**), *Donoztiriarr*, *Dohoztiriarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 103) *Donostiri*, *donostiritar* aukeratu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Donoztiri* eta *dohoztiritar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

E. Etxarrenek Donoztirin berean *Doóztí*, *doóztítarrá* erraten dutela jakinarazi zigun; **L. Xuriri** *Dóností*, *donóstjaRak*, *Donóstiittk héldu niz etxerát* hartu genion. **Tx. Peillenek** **M. Arbelbide**, **J. L. Davant**, **E. Larre** eta **M. Pagolari** egindako galdeketan *Dohoztiri*, *dohoztiritar* ematen dira on-tzat.

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 17) *Dona-Estebe* dakusa *Dona-stie*-ren azpian, eta 'seigneur Etienne' halioa ematen dio. **Mitzelenak & Irigaraik** (1955: 414) Zuberoako *Saint-Etienne* 1790ean *Don-Eztebe-hiri* gisa dokumentatzen dela diote eta oinarrian *Estebe*, *Eztebe* 'Esteban' dagoela.

Orpustanen arabera (1990: 87) *Saint-Esteben* izen ofizialak Erdi Aroko forma gaskoia atxiki du hein hatez, eta enskarazko aldaera haren laburtze fonetikoaren ondorioa da, bukaeran eratxiki zaion *iri* baldin badarama ere. Hondarreko izen honek, ortzaiztarraren arabera, ez zuen artean egungo 'ziutatea' erranahia eta latin zaharreko *villa*-k bezala 'etxaldea', 'bazterretxaldea' ("domaine rural") adierazten zuen, edo Erdi Aroko latineko *villa*-k bezala 'etxalde multzoa' ("ensemble de domaines").

Ikus, gainera, *Donamartiri*-n errian duguna.

Obarra:

Eztebe aldaera da, zernahi gisaz, Zuberoako eta Nafarroa Garaiko *Doneztebe* herri izenetan duguna, eta *Donoztiri*, *Dohozti*, *Dohoztiri*-n dagoena ere bai, tarteko -z- horrek salatzen duenez.

Heleta / Hélette

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 77): *Helete* (1302), *Eleta* (1513), *Beata Maria de Helette* (1757).

Goihenetxe (1966: 250): *Heleta* (1245, 1249, 1360, 1388), *Helete* (1302), *Helleta* (1385), *Eleta* (1391, 1513), *Elete* (1353).

Carrasco (1973): *Heleta*, *Aguirre de Helet* (1366, 675 eta 681. orr.), *lo caperan de Sent Esteben et de Helet* (1366, 682. or.).

Gartzia Larrageta (1976-77): *Martin de Eleta* (Zangoza, 1309, 144. agiria, 608. or.).

Ostolatza (1978): *don Arnalt Aremon de Eleta* (1213, 37, 123. or.).

Lemoine (1977: 199): *Helete* (1302), *Eleta* (1513), *Helette* (1756).

Orpustan (1990: 86): *helieta* (1249), *heleta* (1249), *elete* (1350), *helete* (1366, 1413).

Zierbide (1993): *Helete* (1412-1413, 93. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Guaxen, seynor de la Sale de Senta Marie de Helete, bezin de la terre d'Arberoe* (1408, 311, 132. or.), *Johan d'Elet* (1422, 329, 158. or.), *Johan d'Eleet* (1423, 331, 161. or.).

Euskal Testuak:

- "Bidachunetic hasiz higan Alduderat, / Eta Arnegin gaindi ethor **Heletarat**", Hiribarren (1853: 77).
- "**Heletako** goldeak badagokitza 28 ara eta 57 zantiara (...)", Duvoisin (1986 [1958]: 66).
- "**Heletako** feriak ziren orduan", Duvoisin (1987: 67).
- "Bidea ez dugu beharrik galtzen, hanitzek egiten ohi duten bezala **Heletako** alderat xuxen aitzinatuz (...)", J. Etxepare (1987 [1931]: 37).
- "Aro bat bazen ordea..., ezin hitsagoa. **Heletako** feriak osoki opor egin du", J. Etxepare (1996: 38).
- "Oroit ginen izan zirela halaber **Heletako** plazan (hortaz hemengo etxe batek ate-gaineko harrian beti lekukotasun dakar)", J. Etxepare (1996: 76).
- "Orduan Duvoisin **Heletan** zagon, oraino teniente izaki; eta huna Hiriart-Urrutyk kondatzen daukun gertakaria", Lafitte (1990: 198).

- "**Heletako** feiriaz Panpilah xerkatu zien Ximun; goraintzi Karmelori", Amorotzeko 1970eko gutun argitaragabea.
- "Badakizu Garruze eta **Heletako** feirian nola kargatzen dituzten aratxe edo zerriak?", Arbelbide (1986: 124).
- "Gaixo enuxenta! Etxebazterreko ondorat heltzean, senditu nuen barneko hisdura bat, eta **Heletatik** Baiona arteko bide guzian (...)", Karrika (1990: 92).
- "Gero **Heletan** eraman baitzuen bere erretorgoako kargua, **heletarrer**i ez zela harentzat deus gaixtorik atera behar!", Karrika (1990: 106-107).
- "**Karrikaren** pentze zolako erregebidean. **Heletako** merkaturat zozalarik, bat batean zaldia lauhazka abiatu zitzaion", Karrika (1990: 121).
- "Biak zenduak dira. damurik, lehena **Heletako** erretor eta bestea Garazi-Jatsuko", Larre (2001: 172).
- "...hek dira Pierre Etchegaray **heletarra**, Jean Hiriart-Urruty hazpandarra, Jean Irigoyen ainiztarra eta Jean-Louis Pecoits lakartarra. Jainkoak berekin dituela, gu ere haren ganatu artean!", Larre (2001: 214).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Helleta* du, **Hatanek** (1895: 13), **Lhandek** (1926: XXXVI, 430), **Dassancek** (1966: 162), **Goihenetxek** (1966: 250), **Barandiaranek** (1974: 79), **Lemoinek** (1977: 199) eta **Orpustanek** (1990: 86) *Heleta*. Herritarren izena **Lhanderen** arabera *heletar* da; *heletarrak*, *saindu mokhorrak* 'les gens de H. sont des saint bourrus' esamoldea ere badakar. **Dassancek** ere *heletar* biltzen du eta **Orpustanek** *Heletarr*.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Heleta*, *heletar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Heleta* eta *heletar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Heléta, *Elétan*, *helétarrà* (**E. Etxarren**), *Héletá* (**L. Xuri**). Tx. **Peillenek** **M. Arbelbide**, **J. L. Davant**, **E. Larre** eta **M. Pagolari** egindako galdeketan *Heleta*, *heletar* hartzen dira ontzat.

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 13) hizkuntza-fikziozkotzat jo dezakegun etimologia proposatzen du: honen iritzian *Heleta*-ren jatorria *Hal-eta* da eta adiera “élevé-lieu, lieu élevé”. Honen azalpentzat dio herria biziki leku goran kokatua dela eta hara iristeko igo egin behar dela, alderdi guztietarik. Latinez *ala* ‘aile’ erraten da eta *éle* ebakitzen, autore honen arabera.

Lemoinek (1977: 199) *ira* ‘garoa’-ren eratorrien artean sartzen du, irndi duenez Lopez-Mendizabalen ildotik, nahiz hondarreko honen lana dela-eta “il est difficile de le suivre complètement” gehitzen duen. **Orpustanen** arabera (1990: 86) toponimoaren bukaeran *-eta* lekuzko atzizkia dago, eta oinarrian *eli* ‘troupeau’, *elhe* ‘parole’ ez baita egokia. *Eli*, gainera, Garazi eta Orzaizeren arteko *Erretelia* erregearen gorte izeucan ageri da, ortzaiztar irakasleak dioenez.

Oharra:

Nafarroa Garaiau *Eleta* deitura dugu egun.

Iholdi / Iholdy

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 82): *Sanctus Joannes d'Iholdy* (1755).

Goihenetxe (1966: 206): *Hyhout* (1249), *Yhoc* (1270), *Hihoc* (1270), *Hiot* (1293), *Ihot* (1293, 1294, 1399), *Yot* (1293, 1294), *Hyot* (1294), *Ihost* (1294), *Sihoinc* (-e?, 1307), *Ioc* (1328), *Ihoc* (1356), *Uaut* (1358), *Iot* (1358).

Carrasco (1973): *Ihot* (1366, 675 eta 681. orr.), *lo caperan d'Ihot et d'Armendaritz* (1366, 681. orr.).

Lemoine (1977: 199): *Iholdy* (1755).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 359): *Iholdy* (1755).

Orpustan (1990: 97): *hyhout* (1249), *ihout* (1258), *yot* (1264), *ihot* (1292), *hyot* (1307), *yhot* (1350).

Zierbide (1993): *Ihot* (1412-1413, 89. orr.).

Carrasco (1999-1): *De francage de Yot et de Armendariz, 30 soltz* (1266, 220. orr.).

Euskal Testuak:

- "Handik jo zuten **Iholdi** Agerrera. Etziren han baratu", Duvoisin (1987: 65).
- "Han dire Hazparneko, Bastidako, Donibane-Lohitzuneko, Uztaritzeko, **Iholdy**-ko, bartz kantonamenduetako elizei ebatsi ontasunen xehetasunak", Hiriart-Urruti (1972: 190).
- "Armendaritzeraino, Ostagoa, Izura, Larzabale, Ainhiza, Suhuskune eta **Iholdy** barne, auzo eskasik ez du; bizkitartean ororekin du bakea", S. Ostopetarra (Gure Herria, 1933, EEBS).
- "Kontseilu Jeneraleko azken bil-aldian, de St-Jayme, **Iholdiko** kantonamenduko Jaun kontseilariak goraki galdatu du (...)", J. Elxepare (1988: 224).
- "Baxenabarrakoak jende xeheari hurbilago zauden; hogoï'ta sei ziren orotarar: hiru Amikuzetik, bat bedera **Iholditik**, Arnaitzetik eta Irissarritik (...)", Herria (1987, EEBS).
- "Bastida Pesarrukoek Larzabaltarren kontra eta **Iholdiarrek** Ezterenzubitarren kontra irabazi ondoan elgar atxemaiten zuten pare hoberenaren izendatzeko", Herriz Herri (1988, EEBS).

- "Gure artean, haren izenik ez jakinez, **Iholdiko** kurriera edo Buruxabala deitzen ginuen. Nago haren bizi bidea zer zitakeen. Zaldizko karro batekin ibiliz, **Iholdi** eta Armendaritzeko letrak bildu eta Mehaineraino bederen heltzen zituela iruditzen zait", KARRIKA (1990: 23).
- "**Iholdiko** bide bazterrean zuten pentze batetako pasu baten tapatzerat zoalarik (...)", KARRIKA (1990: 64).
- "Beti, hiruek **Iholditik** beren paperñoarekin etxerat itzuli ziren (...)", KARRIKA (1990: 66).
- "**Iholdi** Antsoineko parrean idi zuriari zer gertatu ote zitzaion? Zerek hunki edo xixtatu ote zuen?", KARRIKA (1990: 121).
- "Gaizo **iholdiarra**, apez saindu hila da oraino gazterik (...)", LARRE (2001: 158).
- "...alta ez nakielarik ere orduan, Paxkalen herriko apez izanzen nintzala 15 urtez hunen lehengo **Iholditik** eta geroko Suhuskunerainoan, Irisarrin eta Suhuskunen nihaur ere!", LARRE (2001: 181).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170), **Hatanek** (1895: 12), **Azkuek** (1905: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 496), **Dassancek** (1966: 164), **Goihenetxek** (1966: 206), **Lemoinek** (1977: 199) eta **Orpustanek** (1990: 97) *Iholdi* biltzen dute. Herritarren izena *iholdiarr*, *Iholdiarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *iholdiar* (**Dassance**) da. **Barandiaranek** (1974: 75) Donostiriko ohiturez ari delarik dio "Senbladi" eguncan *Iholdiko* ermitara joaten direla erromerian eta honi *Iholdy'ko* beila erraten zaiola.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Iholdi*, *iholdiar* eman zituen aldaera araututzat.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Iholdi* eta *iholdiar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Ihóldi, *Ióldi*. *Ióldiko* kantonaméndja, gáuzo bitxiá dá zeènetá kantonaménduz góraberá *Ihóldiri* lotjáktirá, bizkitártjan *Ihóldira* jwáiteko (...), *ihóldjarrá* (**E. Etxarren**), *Ihóldi*, *ihóldjaRák* (**L. Xuri**), *Ijóldi* (**A. Kaminondo**, **P. Kamino**). Tx. **Peillenek** **M. Arbelbide**, **J. L. Davant**, **E. Larre** eta **M. Pagolari** egindako galdeketa *Iholdi*, *iholdiar* ageri dira.

Etimologia azalpenak eta oharrak:

Hatanek (1895: 12) *Ihi-ol-ti* 'jonec, abundant en, lieu abundant en jonec' interpretatzen du toponimoa; autore honek dioenez, herria aski geldia den urak zeharkatzen du eta honen ertzak ihiz estalirik daude. **Lemoinek** ere (1977: 199) *ih* dakusa izen honen lehen osagaitako eta *alde*-ren ordainez dagoen *oldy* ("oldy pour alde, à côté de") bigarrentako.

Mitxelenak (AV, 78) ez du zehazten oinarria zer izan daitekeen, baina bukaeran *-di* (*-doi*, *-dui*-ren aldaera eta ondorengoa dena) atzizkia dakusa; **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 359), aurrekoaren ildotik, erroa iluna dela diote eta hukaera segur aski ugaritasuna adierazten duen euskarazko *-di* atzizkia dela. **Orpustanen** irudiko (1990: 97-98) hemen *ih* 'txunka'-ren eratorri baten aitzinean gaude, zehazkiago erran, **ih(i)-un-alde* 'règion où pousse le jonec'-en aitzinean. Honetatik *Iholdi*-ra iristeko bigarren *-i*-ren galtzea, bokal arteko *-n*-ren erortze erregularra eta bukaerako *-e* > *-i* hersketa gertatu direla pentsatu beharra dago, Ortzaizeko irakasleak dioenez. Hondarreko aldakuntza hori *-i*-z hukatu gainerako toponimoen alderako analogiaz gauza zitekeen (*Baigorri*, *Irissarri*, *Arboti*...), edo hasierako *i*-ren alderakoaz.

Gure ustez Orpustanen proposamenean ilungune gehiegi daude, ongi azaldu gabe dauden gauza gehiegi, besteak beste ikertzaile horrek aipatzen ez duen tarteko **-u-* > *-o-* pausoa. Zernahi gisaz, *Yoldi* Nafarroa Garaiko deitura da egun; Iruñeko hotel ezagun baten izena ere bada.

Irisarri / Irissarry

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 83): *Hospital et oratorium de Irizuri* (1186), *Irissarri* (1352), *Ospital de Sent Johan de Irisarri* (1518), *Yrisarri* (1621).

Goihenetze (1966: 207): *Irizuri* (1194), *Irrisari* (1249), *Ierissari* (1249), *Irisairi*, *Irissairi* (1249, 1356), *Yrissayrry* (1328), *Irisari*, *Irisary*, *Yrissary* (1350, 1353, 1354, 1358, 1385), *Irissarri*, *Yrissarri* (1352, 1364, 1393), *Irisarri* (1356, 1391), *Yrixarry* (1388), *Irricarry* (1393).

Carrasco (1973): *Yrissarri* (1366, 676. or.).

Lemoine (1977: 197): *Hospital et Oratorium de Irizuri* (1186), *Irissari* (1352), *Ospital Sent Johan de Irissari* (1518), *Yrissari* (1621)²³.

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 362): *Irizari* (1186).

Orpustan (1990: 98): *irizuri* (1186), *irrisarri* (1249), *irissairi* (1269), *irissarri* (1300, 1349).

Zierbide (1993): *Irissarry* (1412-1413, 90. or.).

Zierbide & Santano (1995): *l'ostau d'Echevelce d'Irissarry* (1408, 311, 130. or.), *Johancoche, fil d'Aroztegui de Yrissarry* (1408, 311, 130. or.).

Zabaltza (1995): *Arnalt de Irissarri* (sic) (c. 1308, 257, 243. or.).

Euskal Testuak:

- "Berriz lotzen dira bideari eta heltzen **Irisarri** Samaura", Duvoisin (1987: 66).
- "Zera zen bat, eskualduna baitzuen ere andrea, **Irisarriko** (...)", Hiriart-Urruti (1995: 75).
- "Buru huntarik edo bertzetik, edo bietarik, **Irisarri**, Doniane-Garazi, Hazparne, Baigorri, Aldude (...)", J. Etxepare (1996: 34).
- "Aste berean, **Irisarri**n egin izan zen, tüberkulosaz, Hazparneko bilkura-ren iduriko bilkura bat (...)", J. Etxepare (1996: 57).
- "Artekoetan Aiherra leheneko Andre Dithurbide eta Filipe Barbiererek irabazi frango aise **Irisartarri** 45 eta 19", Herria (1986, EEBS).

23. Hemen, berriz, garbi ikusten da kopiatu ere gaizki egiten duela jaun honek, Raymond-en datuak, agerian denez, oker tokialdatu baititu.

- "Azkenean, **Irisarriko** bi atxo pollit ohartzen zaizko eta ustez eta toki bat badaukan han (...)", Barbier (1987: 95).
- "Aitarenekin **Irisarritik** etorri ziren Donibane huntarat hemezortzigarren mendean (...)", Lafitte (1990: 287).
- "Beraz, egun batez, iluntze aintzinttoan, **Irisarritik** heldu ziren aita idien aintzinean eta ene anaia orgetan", Karrika (1990: 121).
- "**Irisarriko** Larre, mediku zaharra deitzen ginuen. Sortzez Uharte Garazikoa zen, euskaldun garbia, **Irisarriko** auzapeza eta kantona-menduko kontseilu orokorra", Karrika (1990: 139).
- "Egun batez, hango azken etxetiarra etortzen zaio **Irisarri**rat, behor eder baten gainean, baizik eta andrea eri zuela", Karrika (1990: 141).
- "Saritzat, arrebarekin, Fabianen autobusean **Irisarri**rainoko piaia pagatu zautan", Karrika (1990: 171).
- "Uste dut gisa horretan ezohiko bidetik abia litekeela gure gogoeten itzulia: ezen oroitzen naiz, Klaudio Harluxeten gorputza pausatu dugularik **Irisarriko** elizaren itzalean, Emile Larre erroitorak irakurri digula Klaudiok berak "HERRIA" astekarian aitzineko Pazkoetan izkiriatu artikulua pasarte bat, honelatsu zioena", P. Charriton (Egan, 1997, EEBS)
- "...ez nintzana ni **Irisarriko** erroitor sartu igande aratsalde huntan (...)", Larre (2001: 119).
- "Erran behar dut ez zirela **irisartarrak** lehenetarik batera sail hortan", Larre (2001: 299).
- "**Irisartarra** berez kantaria, koralararen lokarriak ere ez du guti lagundu eta herriarazi parropiako liturgia", Larre (2001: 302).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 13) *Irassarry* dakar; Azkuek (1905: XXIX), Lhandek (1926: XXXVI, 549), Dassancek (1966: 164), Goihenetzek (1966: 207) eta Orpustanek (1990: 98) *Irisarri* biltzen dute. Lemoinek, berriz, *Irissari* (1977: 197) jasotzen du. Herritarren izena *irisartarr*, *Irisartarr* (Lhande, Orpustan), *irisartar* (Dassance) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Irisarri*, *irisartar* aldaerak hautatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Irisarri* eta *irisartar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Iisarri, isartar (EHHA), *Írisárri* (A. Kaminondo, P. Kamino), *Irisarri*, *irisartarrà, irisártarrà* (E. Etxarren), *ÍrisaRi, iR(isaRtaRàk* (L. Xuri). Tx. Peillenek M. Arbelbide, J. L. Davant, E. Larre eta M. Pagolari egindako galdeketa *Irisarri, isartar* ageri dira.

Etimologia azalpenak eta oharra:

Hatanek (1895: 13) *Irassarri, Iras-ari* interpretatzen du eta dio "filtre-pierre, pierre à filtre" dela, egon ere herritik hurbil "pierre à filtre" anitz, iragaz-harri anitz baitaude. **Mitxelena**ren arabera (AV, 332, 540) toponimo honen osagaiak *hiri* 'hiribildua' eta *sarri* 'baso trinkoa' dira; bigarren hau errenteriarrak dioenez Lapurdiko *Basusarri*-n ere ageri da.

Lemoinek (1977: 190, 197) *hiri* 'ville' eta *char* 'mauvais, maigre' dakuski toponimoan; **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 362), berriz, *iri* 'ville' eta *sarra* 'vieux' interpretatzen dute. **Orpustanek** (1990: 98), Mitxelena bezala, *iri-sarri* ikusten ditu toponimo honetan, baina 'domaine dans les broussailles' ulertzen du, ez behar lukeen moduan 'broussailles du domaine'. *La langue basque*-n (1999: 200) 'domaine des (ou "dans les") fourrés' adiera ematen dio; beste lan batean ere (2002b: 65) *sarri* 'fourré' dakusa *Irisarri*-n.

Gure iritzian *hiri* euskaraz 'ziutatca' eta 'hiribildua' ez ezik 'herria', 'populaziogunea' ere izan daiteke, edozein herrixkaren *Iriegoien / Iriarte / Iribarren* auzo banaketan (*Irigibel, Iriondo...* eta beste ere badira) ongi ikus daitekeen bezala. *Sarri* dela eta, Nafarroa Garaiko toponimian franko azaltzen dela erran behar da, Arberoaatik urruti beraz: *Sarria* jauretti ezaguna dugu Itzarbe ibarrean (*Señorío de Sarria*), *Sarria* Lizarran (*Sarrea*) eta Uxuen (*La Sárria* orain, *sarria* generikoa dokumentazioan)... Bestalde, *Irisarri* Nafarroa Garaiko deitura da egun (ikus **Zubiri**, 1990: 156).

Izturitze / Isturits

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 84): *Isturiz* (1321), *Izturiz* (1513), *Sancta Eulalia d'Isturits* (1754).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 363): *Isturiz* (1321).

Goihenetxe (1966: 251): *Yzturiz* (1321, 1402), *Sancta Eulalia d'Isturiz* (1328), *Sancta Olalia de Yzturiz* (1346), *Sant Olalia de Izturiz* (1364), *Yçturiz* (1364), *Izturiz* (1388), *parropi d'Isturitz* (1395).

Carrasco (1973): *Yzturitz* (1366, 675. or.), *Yzturitz* (1366, 680. or.), *lo caperan d'Ayherre et de Yzturiz* (1366, 682. or.).

Lemoine (1977: 200): *Isturitz* (1321, 1515, 1754).

Ostolatz (1978): *Sancte Eulalie d'Esturiz* (1236, 90, 173. or.).

Orpustan (1990: 88): *isturitz* (1300), *izturiz* (1309, 1350), *izturitz* (1413).

Zierbide (1993): *Izturitz* (1412-1413, 91. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Arnaut, senihor joven d'Iriberry, de le parropi d'Isturitz* (1395, 275, 103. or.).

Zabaltza (1997, 316, 535. or.): *Yzturiz* (1321).

Gipuzkoan XV. mendearen bigarren erdian "Martin de Ysturiçaga, escrivano e notario publico del dicho sennor rey" ageri da (Usurbil, 1470, Larrañaga & Lema, 1995, 59, 109-110. orr.). Liburu berean "Iuan Bono de Durango e Martin Martinez de Ezturizaga, nottarios" ere azaltzen da (Donostia, 1492, Larrañaga & Lema, 1995, 72, 139. or.).

Euskal Testuak:

- "Hirurgarrena deitçen da Errobi, edo Nivi, ceina jausten baita **Izturiztic** Itsatsura, handic Cambora eta Vztaritça, eta azquenean Bajonara", J. Etxeberri Sarakoa (1907 [1712]: 79).

- "Baginian apez Euskaldun bat ere bigarren klasean, **Isturiztarra**", J. Etxepare (1988: 315).

"SUSSUARREGUY, Bayonnesa, **ISTURITZ**-a joaitekoa da, 12 ourthe egonik maite dugun etchian", Herria (1946, EEBS).

- "Badakizue noski nola aurkitu zuen Passemard'ek hegazti hezur bat **Izturitzeko** lezean, euskal turrean", Mitxelena (1988 [1955]: 61).

- “EZKONTZA. Huna hiru ezkontza terro-lerro gure herrian: Arnaud Arhancet Etiennette Hillon-ekin. Ariston Sauveur **Isturitzekoa** Jeanne Elissethekin. Jaureguiy Jean Uharte-hirikoa Marie Çamalbidekin. Gure konplimenduak dener bihotz-bihotzetik” *Herria*, (1962, EEBS).
- “Ospital jaun kontseilari jenerala, Charritton **Isturitzeko** jaun mera, eta oste bat fededun. Segur elizkizun hunkigarriak ziren”, *Herria* (1962, EEBS).
- “**Isturiztarrek** badakite nor den, urte guzietz ospatzen baitute Sarhiko apezaren orroi-tzapena”, J. Hiriart-Urruti (iloba) (1992: 80).
- “...hain hurbil dituen **Isturitzeko** eta Otsozelaiko harpeetan laminak hizi ziratekeen bezala”, Landart (1978: 15).
- “...aita Batita Landart, sortzez **Isturitze** Larrondokoa (...)”, Landart (1978: 16).
- “Zeren Donamartirilik Oragarrera, patarrez-patar oinez joan behar baikeuen **Isturitzeko** mendietan han-hara”, Landart (1978: 49).
- “Nik, konfirmazione egunean **Isturitzen** ikusi kalonje ospetsu hura, hantxe, inprimeriako xoko batean aurkitu behar nuela, hori ere bada ez nuen sekulan asmatuko”, Landart (1978: 145).
- “...Ainhoa, Bardoze, **Isturitze**. Milafranga, Sara (...)”, Larre (2001: 263).
- “Sortzez **Isturiztarra** zen, laborari-semea”, Lafitte (2002 |1966|: 436).
- “Egin ditu ikertze baliosak, bai **Isturitzeko** harperi buruz, bai Protestanten berri zaharrez, bai Baionako Semenariorearen hastapenez, bai bertze asko gaiez”, Lafitte (2002 |1966|: 438).
- “Atzo izan nixin Buruxuringo Margarita bere senarraikin, eta alta, arras mutiko plantakuain itia dixi. **Isturitzeko** dixi. Mezat eremain nutela, eta eharrikore ba”, Luzaideko gutun argitaragabeak.

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Isturitz* dakar, HataneK (1895: 19), Dassancek (1966: 162), Goihenetzek (1966: 251) eta Lemoinek (1977: 200) *Isturitze*, Azkuek *Isturitze* (1905: XXIX) eta *Isturitz* (*Las mil y una...*, 35, 38, 42)²⁴, Lhandek (1926: 572) *Isturitze*, Caro Barojak – Hariztoik (1945: 110) *Isturitze*, Dauzat & Rostaingek (1978: 363) *Isturitz(e)*, Orpustanek lehe-

24. Ez dakigu seguru *Isturitz* hau euskal aldaeratzat ematen duen Azkuek, baina badirudi baitetz.

nik (1990: 88) *Ixturitze* du eta gero (1999: 276) *Izturitz(e)*. Herritarren izena *izturiztarr* (Lhande), *isturiztar* (Dassance), *Ixturiztarr* (Orpustan, 1999: 276) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Isturitze*, *isturiztar* hautetsi zituen aldaera araututzat.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Izturitze* eta *izturiztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

İsturitze, *isturiztar* (EHHA), *İsturitze*, *isturiztarrà* (E. Etxarren), *İsturize*, *İstürizè*, *istüiztaRak*, *İsturitzeat abja nız*, *İsturizetik*²⁵ (L. Xuri). Tx. Peillenek M. Arbelbide, J. L. Davant, E. Larre eta M. Pagolari egiudako galdeketa *Isturitze*, *isturiztar* ematen dira ontzat.

Etimologia azalpenak eta oharrak:

Hatanek (1895: 19-20) *Isturitze este-ur-itze* ulertzeu du, hau da, 'fermée eau lieu, lien d'eau fermée, pays d'eau fermé'. Izan ere, autore honen arabera, bertan bada laku tiki bat, inolako isuririk ez duena; orain kaperaño batean dago hetsirik sendatzeko indar handia duen ur hori. Bada, gainera, Donamartiritik heldu den ubidea, Izturitzera gabe lurrean sartu eta herri-tik haratago berriz azaleratzen dena.

Caro Barojak (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Ixturitze* bilzen du, ikusi bezala, eta erraten hau latineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atzizkia duten Hegoaldeko herri izenekin erlazonaturik dagoela. **Lemoinek** (1977: 200) oinarrian *isur*, *ixur*, *ixuri* 'écoulement, versant' dagoela dio eta atzizkia *-tze* ugaritasunezkoa dela; hau, bistan denez, erabat ezinezkoa da fonetikaren aldetik. **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 363) erroa iluna dela diote eta *-itz* bukaerak ugaritasuna adierazten duela.

Orpustanek (1990: 88-89) garbi dakusa toponimoak *-itz* atzizkia duela, baina gainerakoa franko ilun zaio. Bi azterketa desberdin proposatzen ditu eta bietan lehen osagaia *aitz* da: lehenaren arabera toponimoaren iturrama **aitzauritz* edo **aitz-uritz* da; hemendik *Latsaga* / *Lastiri*-n bezala **aizt-uritz* atz-rako zen, hots, *Aiziritz* izenetik hurbil dagoen forma *-baliokideak* izan daitezkeela dio-, eta azkenean, *aizt*-en diptongoaren laburtzearen ondorioz, *izturitz*

25. Hondarreko hiru formetan azentu nagusia dieresidun bokalaren gainean da.

aterako zen. Toponimoaren adiera 'lieu de la côte du rocher' da Orpustanen ustean.

Bigarren interpretazioa egiantz handiagokoa iruditzen zaio, fonetikoki eta morfologikoki errazagoa eta semantikaren aldetik oztopo gutxiagokoa. Bigarren honen arabera, bada, *aiztur-itx* dukegu toponimoan, hau da, 'guraizea' erranahia duen *aiztur* eta tokia edo ugaritasuna adiera duen *-itz* atzizkia, hots, 'guraize multzoa' edo 'guraize tokia', bertan agertu diren historiaurreko lanabes eta aztarnei erreferentzia eginez.

Beranduagoko lan batean (1996: 218) erraten du egungo "cuskal" aldaeraren *-s* erdal grafiaren eraginari zor zaiola: "Les sifflantes dorso-alvéolaires sont sans équivoque avec ç ou z dans *çavalça*, *çavaroz*, *yzturiz*: la forme moderne *ist-* est, dans les graphies qui se veulent basques de ce nom, altérée à partir de la graphie romane".

Ortzaiztarrak egiten duen proposamena aski zalantzazkoa da gure irudiko (ikus, *aizkora* izenerako proposatu diren etimologien gainean, Agud & Tovar [1989: 647]), besteak beste *haitz*-ek Iparraldeko hizkeretan duen edo izan duen hasierako aspirazioa "ahantzi" zaiolako eta *aiztur* + *itz*-etik euskaraz **aizturritz* izanen genukeelako, ez **aizturitz*, *aizturra* erraten baita, ez **aiztura*. Bestalde, *Istúriz* Nafarroa Garaiko deitura da egun.

Mehaine / Méharin

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 111): *Mearin* (1513), *Sanctus-Laurentius de Méharin* (1770).

Goihenetxe (1966: 253): *Mearin* (1249, 1294, 1328, 1351, 1388), *Meharren* (1249), *Mehari* (1249), *Meharin* (1364, 1387, 1405), *Mocharin* (1294).

Carrasco (1973): *Meharin* (1366, 675. or.).

Lemoine (1977: 127): *Sanctus Laurentius de Meharin* (1770).

Orpustan (1990: 86): *meharren* (1249), *mehari* (1249), *mearin* (1264), *meharin* (1292, 1413).

Carrasco (1999-1): *Santz de Mearin* (1266, 281. or.), *Al seynnor de Belçunça et a don Pes de Mearin et a don Jacube de Beguios, 60 kafices dono per litteras regis* (1266, 354. or.).

Euskal Testuak:

- "...bayeta orduan çure Loctenant general Agramondeco Iaunaren ezhortatione handiac, eta Belçunçeco eta **Meharin**eco Iaunén eta cēbeit berce ene adi]quiderē [ollicitatze ardurazcoac, (...)", Leizarraga (1990 [1571]: 252).
- "**Meharin**-dar zen sortzez Belsunce Marzeillaco aphezpicu famatia", Salaberri Ibarrolakoa (1856: 185).
- "...duela zenbeit urte Donapaleuk **Mehaine** hartu zautzuen bezala", J. Etxepare (1988: 31).
- "**Nahiz** administrazioak azken bi horiek Bastidari lotzen dituen eta ere **Mehaine** Donapaleutik Hazparnera ekartzen", P. Charrittonen oharra, J. Etxepare (1988: 33).
- "**Badut** beldurra ez den hotarik gehiago ageri -eta han ere bakan-**Mehaineko** eskualdean baizik", J. Etxepare (1988: 332).
- "**Etzazula, othoi, deus athera Mehaindarren kontra**", P. Soubelet (1947, EEBS).
- "**Eta Mehaindar**rak denak unthutsik emaiten dira, othoitza eta kantua kartsuago egiteko", P. Soubelet (1947, EEBS).
- "**Horrela** biltzen dituzte beren saretara, berzeak bertze: Bidaxuneko Agarramont, Makeako Belzuntze, **Meharin**eko jauna (...)", Lafitte (1992: 107).

- "Agarramunt. Belzuntze, **Meharine** jaunek eta zorbait adixkidek Leizarroga hazkarki sustatu zuten, ez etsitzeko", Lafitte (1990: 108).
- "Beila egunean, **Mehaindar** gazte batek bere botuak egiten ditu, Betarramixten kongregazionean sartzeko", J. Hiriart-Urruti (iloba) (1992: 80).
- "Euskal-Herriko berriketariek jakin-arazi daukute, zuzen den bezala, iragan uztailen **Mehainen** apeztu dela herriko seme bat (...)", J. Hiriart-Urruti (iloba) (1992: 187).
- "Zaldizko harro batekin ibiliz, Iholdi eta Armendaritzeko letrak bildu eta **Mehaineraino** bederen heltzen zituela iruditzen zait", Karrika (1990: 23).
- "Gure jendakia parte bat Donostiri, Amoroitze eta **Mehainen** izanki eta, hiru herri horietako berri nihork ez zakien Juanak baino hobeki", Karrika (1990: 54).
- "...Oztibarre-Jutsi-Arantsusin (Darritchonekin), **Mehainen** (...)", Larre (2001: 268).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170), Lhandek (1926: 722), Dassancek (1966: 162), Goihenetxek (1966: 253), Lemoinek (1977: 127) eta Orpustanek (1990: 86) *Mehaine* biltzen dute, Hatanek (1895: 16) *Mehaine* eta **Azkuek** (1905: XXIX) *Mehaire* (hutsa dateke hau; oker ez bagaude *Mehaine* izkiriatu nahi zukeen lekeitarrak). Herritarren izena *mehainfejdarr* (**Lhande**), *mehaindar* (**Dassance**), *Mehaindarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Mehaine*, *mehaindar* eman zituen aldaera araututako.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Mehaine* eta *mehaindar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Meaine (A. Kaminondo, P. Kamino), *Mehaine*, *mehaindarrak* (E. Etxarren), *Mehaine*, *mehaindarrak*, *Mehainat*, *Mehainetik*, *Mehainen* (J. Xuri). Tx. Peillenek M. Arbelhide, J. L. Davant, E. Larre eta M. Pagolari egindako galdeketa *Mehaine*, *mehaindar* ageri dira.

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 16-17) *mehe-aine* 'maigre endroit' ulertzen du *Mehaine*; dioenez *mehaine* leku "mehea" da Lapurdiko herrien aldean eta, gainera, hemen hasten da "pays maigre" adiera duen *Amekuse*. **Lemoinek** (1977: 127) erraten du izena ezin dela enskararen bitartez azaldu eta bukaerak *-anum* sudurkarituaren eitea duela; oinarritako, ziurtasunik gabe, *Metellus* izena proposatzen du. Hemen garbi ikusten da autore honek ez duela enskararen fonetika historikoa ezagutzen, bokal arteko *-ll-*tik gure hizkuntzan *L-* aterako baitzen, ez *-r-*, Lapurdiko *Angelu*-n ikus daitekeen moduan.

Orpustanek (1990: 86) Lemoineren proposamena arbuiatzen du, baina dio izenaren etorkia ez dela argia eta hau haren zahartasunaren adierazgarri datekeela. Usaiakoa ez den *in* bukaerak laburtze baten ondorea irudi duela gehitzen du eta iturburua **meharain*-en moduko zerbait datekeela. Toponimoari ongi doakion antroponimorik ikusten ez duenez gero, zentzu topografikoan pentsatu beharra dagoela uste du, eta osagaitzat *mehaka* eta *gain* 'hauteur étroite' ematen ditu.

Bigarren interpretazio bat badaitekeela ere erraten du, bukaerako *-n* analogikoa dela ontzat hartzen bada: *meha* + *iri* 'domaine (du lieu) étroit', eta hirugarren bat ere bai, *meha* izena *mena* (*mina*)-ren laburtze fonetiko arrunta baita euskaraz. Kasu honetan 'domaie (du lieu) de la mine' genduke, baina gaineratzen du hau onesteko meatzeak aurkitu behar liratekeela inguruetan.

Oharrak:

Nafarroa Garaian honeu antz handia duen *Bearin* dugu Deierri orain, *Bearin*, *Bearien* XIII-XIV. mendeetan, *Beherin* 1176an (*NHI*, 166). *Beriain* ere badago, Galarren, *Bearin*, *Beeriang*, *Beeriayn*, *Beerin*, *Beherian*, *Beheriein*... dokumentatua, XII-XIV. mendeetan (*NHI*, 151).

4. OZTIBARRE / PAYS D'OSTABARRET

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 128): *Terra Ostabaresii* (XII. m.), *Ostavales* (1247), *Terra de Hostebarezio in Navarra* (1305), *Ostabares* (1308), *Hosta-Barisium* (1351), *Ostaberesium* (1361), *Ostabarees* (1405), *La terre d'Ostabare* (1481).

Goihenetxe (1966: 210): *terra Ostabaresii* (XII. m.), *Ostavales* (1247), *Osteuales* (1247), *Ostavayles* (1247), *Ostebares* (1249), *Ostabares* (1249, 1293-1294, 1308, 1352, 1387, 1392, 1405), *Ostrabares* (1249), *Hostabares* (1294), *terra de Hostabarezio* (1305), *Ostabarea* (1312), *Ostabarres* (1328), *terra de Hosta Barisio* (1351), *terra de Hosca Barisio* (1352), *Ostabaresium* (1361), *Ostabailles* (1392), *Ostabare* (1481).

Castro (1957): *Ostavalles* (1393, XX, 277, 118. or.).

Gartzia Larrageta (1976-77): *mosseyner n'Amaniu, seyor de Labrit, ves-compte de Tartas e seyor naturau de Mixe e d'Ostabares, fos viencut en la dite terre de Mixe (...)* (1316, 166. agiria, 650. or.), *E io G. Arnalt de Garat notari public de Mixe e d'Ostabares* (ibid., 657. or.).

Lemoine (1977: 255): *Terra Ostabaresi* (XII. m.), *Ostavales* (1247).

Ostolatza (1978): *Ostasvalles* (1232, 80, 166. or.).

Zierbide & Santano (1990): *Guillem Arnaut de Saut d'Ostabares* (1356, 11, 54. or.), *Ostaval* (1360, 19, 61. or.), *Ostavailles* (1361, 20, 62. or.), *la terre d'Ostabares* (1365, 48, 80. or.), *las perropis d'Ostabares, las terres de Micxe et d'Ostabares, la dite terre d'Ostabares, los gentyus d'Ostabares* (1365, 48, 81. or.), *Pes de Lucxe, escuder, sennor de la Sale de Eliçaguaray, de la terre*

de Ostavares (1373, 66, 94. or.), *sober la recepte de Mixe e d'Ostebares* (1377, 75, 103. or.).

Orpustan (1990: 74): *terra ostabaresi* (XII. m.), *ostavales* (1247, 1264), *ostabares* (1249, 1309, 1350), *ostauales* (1264), *ostasvaylles* (1281), *ostavaylles* (1306).

Zierbide & Santano (1990): *Guillem Arnaut de Saut d'Ostabares, seynnor de la Sale de Sent Bizentz* (1356, 11, 54. or.).

Zierbide (1993): *Ostasvaylles* (1350-1353, 38, 41. orr.), *Ostabarre* (1412-1413, 85. or.), *Ostavayt* (ibid. 88. or.).

Zierbide & Santano (1995): *mossen Garçia, capeillon de Ostavaylles* (1393, 249, 73. or.), *Pes, seynnor de Senta Gracie d'Ostavares* (1378, 84, 109. or.), *Ostabares* (1406, 354, 208. or.).

Barragán (1997): *Enguitart de Labrit, vizconde de tartas, seynnor de Mixa et de Ostabares* (1329, 45, 71. or.), *illi de Mongelos, de Ostasualles* (1341, 142, 247. or.).

Zabaltza (1997): *seyor naturau de Mixe e d'Ostabares* (1316, 265, 452. or.), *seynnor de Mixa et de Ostabares* (1319, 288, 494. or.), *en la tierra de Mixa et de Ostabares* (1320, 297, 511. or.), *E io Garcia Arnalt de Garat, notari public de Mixe e d'Ostabares* (1316, 265, 458. or.), *Nos Amaneo, seynnor de Labrit, vizconte de Tartas et seynnor de Mixa et de Ostabares* (1319, 288, 494. or.).

Ruiz (1998): *A Garçia Arnald de Sant Esteuan e a maestre Iohan de Sessaute, tributadores de los peages de Ostasuaylles, de Sant Pelay et de Garriz, salut (...). Data en Ostasuaylles (...)* (1362, 343, 35. or.), *don Arnalt Lup, seynnor de Lucxa, sobre los peages de Ostasuaylles, de Sant Pelay et de Garriz (...)* (1363, 699, 352. or.).

Carrasco (1999-1): *763 kafices, 1 arroba, 3 quartales en Sant Johan et en Ostauales* (1266, 354. or.), *Per liuraçon del omes de pie que estauan en Vilanoua et en Ostauayles et en Mongelos et en Sant Johan et en Arbeloa, 599 kafices, 3 arrobos, 2 quartales* (1266, 355. or.), *Per lo despens del senescal en Sant Johan et en Vilanoua et en Ostauayles et en Ronçasuals* (1266, 357. or.), *A don Guillen d'Armendariz et al seynnor de Belçunça, 8 kafices, 2 arrobos en Ostauaylles* (1266, 357. or.).

Euskal Testuak:

- "*Oztibarreko goldean badira 25 ara eta 35 zantiarra; 51 libera haziren eraintza*", Duvoisin (1986 [1858]): 66.
- "...xuberotar, amikuztar, *oztibartar*, *erronkari*, bakotxa bere herrialdeko hizkuntzan (...)", J. Etxepare (1984: 306).

- "Egun hoitarik batez, Paristar batekin banindabilarik zoko ikusten **Ostibarreko** eskualdean, ohartu nintzan (...)", J. Etxepare (1985: 263).
- .. "Gerezi xuriaren aipatzeak emaiten daut gogora berriki aditua dutan **Ostibarreko** ohitza bat, hain segur gutik dakitena", J. Etxepare (1988: 400).
- "Artoa, mingoza, eta xardina begi-gorria, hiruek ditaken jakirik hobere-rena egiten dautzute, **Ostibartarren arabera**", J. Etxepare (1988: 400).
- "Aitaren etxe-ondokoa Dona-isti-Etxeparea zen; egoitza zaharraren izena behar zuen **Oztibarretik** urrun ereman eta barreatu", Lafitte (Etxepare, 1980 [1910]: 6).
- "...hunaindian barne hartzen zituen, Baigorriko eskualdea, Garazi guzia, **Ostibarre** eta Amikuzeko zati on bat", Etxepare (1996: 173).
- "Ohar: Phagola herriaren zathi bat **oztibarreko** da; bertze bat, aldiz, Ziberoko", Dassance, (1966: 164).
- "...ezen **Oztibarreko** Donaiti-tik Ameriketara joan ondoan, hiru anaiek bedera etxalde erosi baitzuten Mendiondon", Charritton (Etxepare, 1988: 280).
- "Hartan zauden Amikuze, Landibarre eta **Oztibarre**", Lafitte (1990: 154).
- "Clément Urrutibehety jaun mirikuak **Oztibarre** zaharrari buruz aurkitu dituen dokumentu balios batzuetarik (...)", Lafitte (1990: 155).
- "«Michel Garikoitz» (1797-1863) **Oztibarre** Ibarre Garaikotzean sortua, apeztu eta Kanbon egona eta gero Beharramera igorria, han baitzuen sortu Bihotz Sakratuko Apezen Elkartea", Charritton (Etxepare, 1996: 39).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek Ostibare dakar (1895: 13); **Hariztoik** (1977 [1883]: 290), **Dassancek** (1966: 163), **Goihenetzek** (1966: 210) eta **Orpustanek** (1990: 73) **Oztibarre** biltzen dute. **Lhandek** (1926: XXXVI, 831) eta **Lemoinek** (1977: 255), berriz, **Ostibarre** dute, eta **Gavelek** (1931: 39) **Oztabarre**, **Ostibarre**. Herritarren izena **Oztibartarr** da **Orpustanen** arabera.

Akademiaren lehengo erabakia:

Ez dago, dakigunez, izen honen inguruko erabakirik.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) **Oztibarre** eta **oztibartar** hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Oztibarre, Oztibarrè; Oztibarren *bauzú leénik érrí baitézpadakwená Larzábalé etá hári datxikola Donáaxtí leénik, Bunúze, Donáaxtí, gjó Arantsúsi, Jútsi, Izúrà, Hóztá; bihár banoá Oztibarreát, Oztibarretik (h)éldu niz, oztibartarrák (E. Etxarren), óztibartaRà (E. Larre), OztibaRè, oztibaRtaRák (L. Xuri).*

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 13) *Osta-ibar* zatitzen du izena eta 'ospitalearen, ospitaleko, Ostako ordokia' adiera ematen dio. **Gavelek** (1931: 39) *Baiona, Baigorri, ibai, ibar...* eta besteaz ari delarik *Oztabarre* aipatzen du eta dio *ibar*-en hasierako *i* «*uu* accesoire» besterik ez dela, euskarazko izenak eta gaskoiko baliokideak duen *bat*-ek frogatzen duten moduan. *Oztabarre*-ren *Ostibarre* aldaera ere badela aitortzen du Gavelek, baina uste du aldaera berregina dela, ez etorkizkoa.

Lemoinek (1977: 255) okzitanierazko *ostal* eta biarneseko *oustau, ous-talàs* 'maison, demeure' dakuski izen honen oinarrian eta dio bigarren osagaiak 'ibarra' erran nahi dukeela. Lan berean, aitzinago (286. or.), *Ostabarès*-ek Garazi baino adiera zehatzagoa duela azaltzen du, 'ostau-en ibarra' erran nahi baitu, hots, Espainiarako bideetan ohi ziren erromesentzako ospitaleen ibarra.

Orpustanek (1990: 72-73) uste du *Oztibarr*-en 'Hozta ibar' dugula eta Izuraren *Ostabat* erdarazko izena haren aldaera latindua besterik ez dela; *Ostabarès*-en, berriz, *Roncesvalles* edo *Roncevaux*-en eragina dakusa, *-barès valles*-en kidea baita. *Oztibarre*-ren sorkuntzan *Donaxiti*-ren *Ibarre* izen zaharrak ere zerikusia izan duke *Ortzaizeko* irakaslearen iritzian (ibid., 75). Beranduagoko lan batean (1999: 145) erraten du *Ortzaizen* 1350. urtean *horce* ageri dela egungo *Horza* adierazteko, eta hau arrunt ongi bereizten dela 1140ko *hostavallem*-etik eta 1307ko *oste*-tik, egun *Ostabat* eta *Hozta* bihurtu direnetarik.

Oharra:

Bitxi kausitzen dugu, baina ez dugu aipatu gabe utzi uahi Carrascok zuzendu duen 1999ko lanean *Ostauales*-en hurrengo aipamena *Nantauayles*-i dagokiola: *De francage de Ostauales, 100 soltz...* *De francage de Nantauayles, 15 soltz* (1266, 219-220. orr.).

Arhantsusi / Arhansus

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 10): *Aransus* (1513), *Aransusi* (1621).

Goihenetxe (1966: 211): *Arhansus* (1291, 1378, 1393), *Aransus* (1353, 1368), *Aranssus* (1353), *Aransu* (1354), *Ransus* (1393), *Eransus* (1402).

Lemoine (1977: 188): *Arhanssus* (1291), *Aransus* (1523), *Aransusi* (1621).

Zierbide & Santano (1990): *Case Mayor d'Arhansus* (1365, 48, 81. or.).

Orpustan (1990: 80): *arhanssus* (1291), *eranssus* (1350), *arhansus* (1413), *aransusi* (1621).

Zierbide (1993): *Eranssus* (1350-1353, 43. or.), *Arhansus* (1412-1413, 88. or.).

Zierbide & Santano (1995): *parropiantz d'Arhanssus* (1393, 248, 70. or.).

Euskal Testua:

– “*Izan nuen misionea Bidarrain (P. Iratzabal lagunarekin, hau orduantxe gure ganat etorri misionest gaztea, pagolarra), Oztibarre-Jutsi-Arantsusin (Darritchonekin), Mehainen (...)*”, Larre (2001: 268).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek *Aransousi* dakar (1895: 13), **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX) eta **Lhandek** (1926: XXXVI, 58) *Arhantsuse*, **Caro Barojak** – **Hariztoik** (1945: 110) *Arhansuse*, *Arhanzuze*, **Dassancek** (1966: 163) *Arhantsusi*, **Goihenetxek** (1966: 211) *Arhantsuso*, **Lemoinek** (1977: 188) *Arhanxusse* eta **Orpustanek** (“selon Lhande”) *Arhantsusi*, *Arhantsuse*. Herritarren izena *arrantsuarr* (**Lhande**), *arhansusitar*, *arhansusiar* (**Dassance**), *Arhantsusarr*, *Arhantsuarr* (**Orpustan**, “selon Lhande”) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Arhantsusi*, *arhantsusar* eman zituen aldaera araututzat.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Arhantsusi* eta *arhantsusiar*, *arhantsusitar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Arántsusi, Arántsuirát banoá, éldu níz Arántsusitik, arántsusitarrák, ahántsusitarrá; Oztíbarren bauzú leénik érrí baitezpadakwená Larzábalé etá hári datxíkola Donáxtí leénik, Bunúze, Donáxtí, gjó Arantsúsi, Jútsi, Izurá, Hósta (E. Etxarren), ARántsusi, aRántsustaRák, aRántsustaRék eskwára úntsa emaiten duté (L. Xuri).

Etimologia azalpenak eta oharrak:

Hatanek (1895: 13) 'lahar, elorri eremua' erranahia ematen dio, segur aski izena *arantza*, *arantze*-rekin erlazionatzen duelako. **Caro Barojak** (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Arhansuse*, *Arhanzuzc* biltzen ditu, ikusi bezala, eta erraten hau latineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atzizkia duten Hegoaldeko herri izenekin erlazionaturik dagoela.

Lemoinek (1977: 188) *aran*, *arhan*, *ahan* 'prune' dakusa oinarrian eta *-tze*, *-tzu* atzizki multzokaria bukaeran. **Orpustanek** (1990: 80-81) etorkiz **arhantz-oz* 'lieu de prunelliers' dela uste du, hots, osagaiak *arhantz*, *arrhantz* 'épine, prunellier' eta *-oz* euskaldun-akitaniarra direla; bukaerako *-i* apika *Jutsi*-ren eta bokal beraz amaitzen den toponimo sailaren (*Arboti*, *Baigorri*, *Irisarri*...) alderako analogiari zor zaiola erraten du.

Nolanahi ere, ez dago **Arhantzoz* horren inolako lekukotasunik, eta beraz, ortzaiztarraren etimologia frogakizun gelditzen da, ustekarien arloan²⁶. Puntu honetan kontuan hartu beharra da Iruñetik hurbil, Eguesibarren, J. Lizarragaren sorterritik gertu, *Erantsus* izeneko herria dagoela, zein *Aransus* (1264, 1269), *Aransos* (1280) moduan ere agertzen baita (NHI, 135). Bestalde, *Eransus* egun deitura ere bada Nafarroa Garaian, herri izena ez ezik.

26. Belaskok erraten du (1999: 180) '-inversómil-' dela.

Arroze / Arros

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Goihenetxe (1966: 212): *Arros* (1351, 1366, 1396, 1401).

Orpustan (1990: 78): *arrosium* (1100), *arros* (1350, 1413).

Zierbide (1993): *Aros* (1350-1353, 45, 48. orr.), *Arros* (1412-1413, 87. orr.).

Zierbide & Santano (1995): *Ramon, senhor d'Arros, senescalt de Bearn* (1408, 307, 127. orr.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Lhandek (1926: XXXVI, 76) *Arrotz, Arrotze* dakar, **Caro Barojak** – **Hariztoik** (1945: 110), **Dassancek** (1966: 163) eta **Goihenetxek** (1966: 212) *Arroze*, **Rohlfsek** (1952: 229) *Arrotze*; **Orpustanek** *Arrotz du* (1990: 78, “selon Lhande”). Herriarren izena *arroztarr, Arroztarr (Lhande, Orpustan), arroztar (Dassance)* da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Arroze, arroztar* eman zituen aldaera araututako, *Larزابale-Arroze-Zibitze, larزابaldar-arroztar-zibiztar* segidetan.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Arroze* eta *arroztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Árrozè, Arróze, arróztarrà, arróztar bát iltzen délaik, Arrózetik héldu níz, Arróze Etxebarnétik héldu níz, Arróze Galárretik héldu níz, Arróze Jaurégitik héldu níz, Salabéri bizi dá Árrozèn (E. Etxarren), Arótze (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Caro Barojak (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Arroze* biltzen du, ikusi bezala, eta erraten hau latineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atzizkia duten Hegoaldeko herri izenekin erlazonaturik dagoela. **Rohlfsek** (1952: 229-230) *Arròs* izeneko bost herri aipatzen ditu, horien artean hemen aztergai duguna; ikertzaile honeu arabera Espainia eta Lusitaniako idazkuntan ageri den *Arro* “cognomen”-a dugu topouimoartn oinarrian. Beranduxeagoko

beste lan hanean (1956: 57, 119) gauza bera errepikatzen du eta gehitzen antroponimo hori Aran ibarreko *Arrès-en* eta Basses-Pyrénées-ko *Arracq-en* ere badatekeela.

Lemoinek (1977: 188) *arotz*, *harotz*, *arrotz* 'forgeron' dakusa izen honetan; **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 29) *harr*- 'pierre, rocher' -*Arruta-n* ere badagoke- eta -*ossum* akitaniar atzizkia dakuskite toponimoan. **Orpustanek** (1990: 78-79) Lemoineren azalpena arbuiatzen du, baina akort da Dauzat eta Rostaingek ematen dutenarekin, hots, (*h*)*arri* edo gutxienez honen erro oronimikoa den *arr*- eta -*oz* atzizki "locative et peut-être fréquentative" dakuski "fonetikaren eta semantikaren aldetik *Bunus-en* analogikoa" den izen honetan, alegia, 'leku harrizua' dugu hemen.

Irigoiene (1990: 70) toponimoa *Arro* antroponimotik eratortzen duen Rohlfsen ustekaria arrazoizko iruditzen zaio, Orpustanena baino aise arrazoizkoago, edozein kasutan ere. **Grosclaudek** (1991: 285) ez du ontzat hartzen Dauzat eta Rostaingen azalpena Biarnoko *Arrès* herri izenarendako, baina ongi ulertu badugu besteendako -bost *Arros* zerrendatzen baititu- (*h*)*arr* 'harrria' akitaniar euskalduna edo *Arro* antroponimoa eta -*ossum* akitaniar atzizkia proposatzen ditu. **Iglesias** (1998: 6) Rohlfsen errandakoa aipatzen du eta dio, Galiziako toponimoari dagokionez, *Arro* cognomenetik atera zitekeela, baina hau ez dela inola ere segurua. Euskal Herrikoaz, ordea, ez du argitasunik ematen.

Gure ustean Gipuzkoako *Arroa-n*, Nafarroa Garaiko *Arroitz-en* eta Nafarroa Behereko *Arroze-n* *Arro* antroponimo dokumentatua dugu (cf. Donibane Garaziko 1254ko *don garcia d'Arro*, Zierbide & Ramos, 1997: 56); ez dakigu Larraungo *Arroitz* ere etorki berekoa ote den. Atzizkia, halarik ere, desberdina dateke *Arroitz-en* eta *Arroze-n*, lehen izena, erdarazko *Arróniz* aldaerak erakusten duenez, *Arroa* (< *Arroa*)-rekin lotu behar baita, **Mitxelena** (AV, 347) nahi zuen bezala, bigarrenak horrelako loturarik ez duen bitartean. Gure irudiko *Arroitz* > *Arróniz* / *Arroitz* toponimoan patronimiko atzizkiaren modukoa dago, eta *Arroze-n*, berriz, Rohlfsen eta bestek proposatu duten akitaniar atzizki zaharra. Hau **Mitxelena** adierazi bezala (1954: 422, 426) -*ox* izanen zen berez, gero -*ossum* moduan latindu bazen ere.

Azme / Asme

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 15): *Azme* (1481).

Goihenetxe (1966: 213): *Azme* (1481).

Lemoine (1977: 200): *Azme* (1481).

Orpustan (1990: 82): *azpun jauregui* (1350), *azpe* (1413), *azme* (1481).

Zierbide (1993): *Azpe* (1412-1413, 88. or.). Herri honetan berean *Azpe* izeneko sala ere bazen (ibid.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek *Asme* dakar (1895: 13), **Dassancek** (1966: 163), **Goihenetzek** (1966: 213) eta **Orpustanek** (1990: 82) *Azme*. Herritarren izena *azmetar* (**Dassance**), *Azmetarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Azme*, *azmetar* aukeratu zituen aldacra araututzat, *Izura-Azme*, *izuratar-azmetar* segidetan.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Azme* eta *azmetar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Àzmerát jwán beár nuké; Àzmé érten dúte; àzmétarràk erráiten dukéte; Azmé Pettánoinetik héldu níz; Azmé Etxébarbarnètik héldu níz (E. Etxarren), Azma²⁷ (L. Xuri).

Etimologia azalpenak eta oharrak:

Hatanek (1895: 13) *aïs-me* 'chênes minces' ulertzen du izena. **Orpustanek** (1990: 82), biltzen dituen aldacretan oinarriturik (ikus goraxeago), erraten du ezpainbikoaren sudurkaritzea, aski ezohikoa, XV. mendearen burutu dela; Corominesen 1973ko lanari jarraikiz azaltzen du lehenago *Azpe* zela, alegia, *aitz-pe* 'en bas de la hauteur rocheuse'.

27. Sudurkariaren aitzineko igurzaria ahostuna da kasu honetan.

Guk ez dakigu ortzaiztarrak jasotzen dituen *azpun* eta *azpe* *Azme-ri* dagozkion, baina ongi bildurik badaude ez dago dudarik *-zp-* > *-zm-* aldakuntza aski bitxia dela; bestalde, *haitz* hitzak aspirazioa behar duela dirudi. Nafarroa Garaian Orpustanek bildutako lekukotasunen iruditsuak diren *Aizpun* eta *Azpa* herri izenak ditugu.

Bunuze / Bunus

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 37): *Bunos* (1439), *Bunuz* (1621).

Goihenetzek (1966: 215): *Bunos* (1327-1328, 1374, 1377, 1378, 1385, 1439), *Bunoz* (1378, 1385), *Bynoz* (1387).

Lemoine (1977): *Bunos* (1439), *Bunuz* (1621).

Zierbide & Santano (1990): *lo rector de Bunos* (1365, 48, 81. or.), *la Sale de Bunes* (1365, 48, 81. or.), *Pes de Lucze, seynor de la Sale d'Eliçagaray de Bunos* (1375, 69, 97. or.).

Orpustan (1990: 76): *bunos* (1304, 1309, 1350, 1413).

Zierhide (1993): *Bunos* (1350-1353, 46, 48. orr., 1412-1413, 86. or.). Zibitzen *Bunosbide* izeneko etxea ageri da (1412-1413, 86. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek Mounhouse dakar (1895: 12); **Azkuek** (1969 |1905]: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 185), **Caro Barojak** – **Hariztoik** (1945: 110), **Dassancek** (1966: 163), **Goihenetzek** (1966: 215), **Lemoinek** (1977: 124) eta **Orpustanek** (1990: 76) *Bunuze* biltzen dute. Herritarren izena *bunuztarr*, *Bunuztarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *bunuztar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Bunuze*, *bunuztar* hautatu zituen aldaera araututzat.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Bunuze* eta *bunuztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Bjár góizjan jwán beár nuké Bunúze Auztéirat, Bunúze hérrí ttípi bát(d)á, Bunúzen sártzen zira; hángwak bunúztarrák dirá, Bunúze Auztéjetik héldu níz. bárdá Bunúze Zubíburutik jíniz; Oztíbarren bauzú leénik érrí baitézpadakwená Larzábalé etá hári datxíhola Donáaxtí leénik, Bunúze, Donáaxtí, gjó Arantsúsi, Jútsi, Izúrà, Hózta (E. Etxarren),

Bunüzendakò anitz entzúten dá Múnuzè, Búnuzè bèzenbát entzúten dá Múnuzè, múnuztaRà (E. Larre), Bünüze, bünüztaRà²⁸ (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 12-13) *Mon-hus* 'montagne nue' dela uste du eta erabat soildurik dagoen Buuzzeko mendiak izena eman diola herriari. **Caro Barojak** (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Bunuze* biltzen du, ikusi bezala, eta erraten hau latineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atzizkia duten Hegoaldeko herri izenekin erlazonaturik dagoela. **Lemoinek** (1977: 111-118, 124) *-anum* atzizkiaren *-anos* plural maskulinoa ducu antroponimo batean oinarritutako toponimotzat hartzen du, baina ez du zehazten izen hori zein den; bakarrik dio euskararen bidezko azalpena hagitz nekeza litzatekeela. **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 124) Basses-Pyrénésko *Hunos* aipatzen dute (Nafarroa Beherekoa, itxuraz) eta diote oinarrian latinaren aurreko **bun-* 'gaina' dagoela, eta atzizkia *-ossum* akitaniarra dela.

Orpustanen arabera (1990: 76, 1999: 313) Erdi Aroko "grafia" guztiak *-os* dute, eta, beraz, egungo *us* bokal asimilazioaren ondorio dela pentsa daiteke; bonetan *-uz* bukaera duten toponimoek lagundu dukete. Dauzat & Rostaingi jarraikiz oinarrian latinaren aurreko eta euskarazko *bun-* (sic) dagoela uste du, gero *muno*, *munho*, *muño* bihurtu den bera; atzizkia lekuzko eta maiztasunezkoa ("fréquentative") den *-oz* dugu eta izen osoaren itzulpena 'hauteurs', 'collines'.

Oharra:

Uxueko lurretan gehienbat *Munos* moduan agertzen den herrixka zegoen antzina; 1994ko gure laneau diogunez (850. or.) *Munuz*, *Muñoz*, *Munus* aldaerak ere azaltzen dira.

28. Bi forma hauetan azentu nagusia bigarren *ü*-ren gainean da

Donaixti / Saint-Just

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 149): *Sent-Just deu pays d'Ostabares* (1477), *Sant-Just* (1513).

Raymond (1873): *De Sancto-Justo* (1135-1136, 87. agiria), *juxta Sanctum-Justum* (1150-1167, 121. agiria).

Goihenetzxe (1966: 242): *Sent Just deu Pays d'Ostabares* (1477).

Lemoine (1977: 198): *Sent Just deu pays d'Ostabarès* (1477).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 609): *Sent Just* (1477).

Orpustan (1990: 75): *sancto justo* (1150-67), *yuarra* (1350), *ybarre* (1413).

Barasoingo protokoloak (Iruñea, 1620, 4): *domingo de donejuste Mançebo natural del lugar de doneJuste en la baxanabarra hijo de Domingo de Donejuste de la casa de echetorena*.

Euskal Testuak:

- "...eta jarri zen bertze Garaztar aphez batekin; eta hau zen jaun Eyharabide. Azkaraten sorthua eta orduan **Donaistiko** erretor eta Akizeko Bikario-Jeneral zena", Arbelbide (1890: 264).
- "...erakasteko lanik ukan ez duenean, hala nola **Donaixtin**, atxiki ditu gora eta garbi kantoreko ohiturak. Denboran ez dugu uste bazen bertze herri bat, kantorez **Donaixtiri** nausi zenik, non etzen Bardotze", Etxepare (1992: 370).
- "Paueko zazpi grenadieretarik sei eskualdunak ziren. Gogoan atxiki balin badut xuxen, huna sor herriak: Donaphaleo, Armendaritze, **Donaixti**, Domintxine, Itsasu, Milafranga", Saint-Pierre (1998: 146).
- "Aitaren etxe-ondokoa **Dona-Isti-Etxeparea** zen; egoitza zaharraren izena behar zuen Oztibarretik urrun ereman eta barreatu", Lafitte (Etxepare, 1980 [1910]: 6).
- "Madalenan gaindi, Donazaharren, Lakarran eta Monjolosen gaindi, Lartzabale eta **Donaixtin** barna, bazoan bethi Aitaxo, tink-aldi bat artetan bere zahakoari emanaz", Barbier (1987: 225).
- "...ezen Oztibarreko **Donaixti**-tik Ameriketara joan ondoan, hiru anaiek bedera etxalde erosi baitzuten Mendiondon", Charrilton (Etxepare, 1988: 280).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Donausti* du, **Raymond**ek (1863: 149) *Don-Isti*, **Hatane**k *Donasti* (1895: 13), **Azku**ek (1969 [1905]: XXIX) *Donaisti-Ibarre*, **Lhande**k (1926: XXXVI, 211) *Donaisti*, *Donaixti*, **Dassance**k (1966: 163) eta **Goihenetxe**k (1966: 242) *Donaixti*. **Lemoineren** arabera (1977: 198) *Saint-Juste-Ibarre* euskaraz *Donaisti Ibara* erraten da; **Orpustane**k (1990: 75) *Ibarra* eta *Donaixti* ematen ditu erdarazko *Saint-Just-Ibarre*-ren euskarazko kideztat. Herritarren izena *donaixtarr* (**Lhande**), *donaixtiar* (**Dassance**), *Ibartarr*, *Donaixtiarr* (**Orpustan**) da.

Akademiareu lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 103) *Donaixti-Ibarre*, *donaixtiar-ibartar* aukeratu zituen aldaera araututzat.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 716) *Donaixti* eta *donaixtiar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Donáaxti, Donáaxtin sórtja déla, Donáaxti Beátenekò Anttón, donáaxtjarràk; Oztíbarren bauzú leénik érrí baitézapadakuená Larzábalé etá hári datxíkola Donáaxti leénik, Bunúze, Donáaxti, gjó Arantsúsi. Jútsi, Izúrà, Hozta (E. Etzarren), Donáxti, donáxtjarràk, juntátja dá Donáxtikin (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 13) *Dona-Justi* biltzen du eta 'Seigneur Just' itzultzen; hau herriko zaindaria edo patroia dela ere badio. **Orpustane**k uste du (1990: 75) herria osatzen duten bi herrixken izena *ibarra* 'la plaine', 'la vallée' izan dela, eta erraten du hastapenean elizari bakarrari ematen zitzaion patroia-
ren izena berandu baizik ez zaiola gaineratu euskal toponimoari. *Ibarre*-k haranaren izenaren sorkuntzan –*Oztibarre*-renean alegia– zerikusia izan dukeela ere uste du.

Nafarroa Garaian aurkitu dugun 1620ko *Donejuste*-k eta oraingo aldaerak garbi uzten dute lehen osagaia *done* ezaguna dela. Bigarrena, gure irudiko, egungo aldaera bokal palatalarekin bukatzen denez gero, *Justi* da. Barasoingo protokoloetan bildutako forman gaztelaniaren eragina ikusi behar da, beste batzuetan bezala, hizkuntza horrek, bitz bukaerako –i-rik ez izatearekin, euskal toponimoetan –i > -e egiteko joera bultzatu baitu, *Mugairi* > *Mugaire* eta *Zudairi* > *Zudaire* ongi dokumentatuek erakusten dutenez. *Justi*. bestela, Jacques de Belaren *jondone Justic hegalaç bousti* atsotitzean ageri da (ikus TAV, 185).

Hozta / Hosta

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Goihenetxe (1966: 219): *Osta* (1353, 1355, 1357), *Ozte* (1354, 1358, 1378, 1404), *Oztes* (1378), *Oztet* (1378), *Otzça* (1387), *Ozta* (1393, 1402), *Hoste* (1472).

Lemoine (1977: 255): *Ozta* (1402), *Hoste* (1472), *Osta* (1513), *Hozta* (1621).

Zierbide & Santano (1990): *Bernat d'Ibargaray, cuma tutor de l'ereter de la Sale d'Ozte* (1365, 48, 80. or.), *Per Arnaut, rector d'Ozte* (1365, 48, 81. or.).

Zierbide (1993): *Guillem Arnal, seynor de Ozta* (Labetze, 1350-1353, 37. or.), *Ozta* (1350-1353, 46. or.).

Orpustan (1990: 74): *oste* (1307), *ozta* (1350), *ozte* (1413).

Euskal Testuak:

– “*Bai, zer nahi. Ori, iragan egun batez, Hoztar bat izan zaio, usto bat galdurik. Zubietan izan, eta biharamunean, bi asto itzuli dira Hoztara*”, Barbier (1987: 132).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) eta **Hatanek** *Hosta* dakarte (1895: 13); **Azkuek** (1969|1905: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 456), **Dassaneek** (1966: 163), **Goihenetzek** (1966: 219), **Lemoinek** (1977: 255) eta **Orpustanek** (1990: 74) *Hozta* biltzen dute. Herritarren izena *hoztarr*, *Hoztarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *hoztar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Hozta*, *hoztar* aukeratu zituen aldaera araututzat.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Hozta* eta *hoztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Ózta, óztarrà, hóztarrà, bjár jwán be(h)árra níz Ózta Xurrútaru, Ózta Ahánja, Ózta Uártja, Ózta Ólaberrjéta; Oztibarren bauzú leénik érrí baitéz-

padakwená Larzabalé etá hári datxikola Donáaxti leénik, Bunúze, Donáaxti, gjó Arantsúsi, Jútsi, Izúrà, Hózta (E. Etxarren), Ózta, óztaRák (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 13) *hôpital* hitzarekin lotzen du; autore honen iritzian izena antzina herrian zegoen ospitaletik heldu zaio. **Lemoineren** arabera (1977: 255) *ostal, oustâu, oustalàs* 'maison, demeure' dago honen oinarrian (ikus *Izura* eta *Oztibarre*). **Orpustanek** (1990: 74-75) izen honen aspirazioa berria datekeela dio, lekuko zaharretan horrelakorik ageri ez delako. Izena Zokozeko *Izozta* 'izotz lekua' oikonimoarekin lotzekoa dela uste du eta etimologia (*h)otz* + *-ta, -eta* dela, hots, 'toki hotza'; hau ongi doakio herriaren kokaguneari. Beste azalpen bat ere ematen du, gaingiroki bezala, ziurtasun handirik gabe alegia: *Hozta*-n "mendiei ezartzen zaien gaizki identifikatutako *auz*-termino oronimikoa" egon liteke, baina diptongoa inoiz ez agertzeak bide honetan aitzina jarraikitzeak gibelatzen du. Beranduagoko beste lan hatean (1999: 2622-263) *-eta* atzizkitik atera den *-ta* dakusa *Hozta*-n; bilakaera, ongi ulertu badugu, *-eta* > *-ate* > *-te*, *-ta* izan dateke.

Oharra:

Osta Nafarroa Garaiko deitura da egun.

Ibarre / Ibarre

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 81): *Nostre-Done d'Ibarre* (1472), *Ibarren* (1513).

Goihenetze (1966: 220): *Ibarre* (1359), *Colin d'Iuarbeitz* (1378), *Ibarrbetz* (1387), *Ybarbeyti* (1389), *Nostre Dobe d'Ibarre* (1472).

Lemoine (1977: 198): *Nostre Done d'Ibarre* (1472), *Ibarren* (1513).

Zierbide (1993): *Yarra* (1350-1353, 45, 48. orr.), *Ybarre* (1412-1413, 85. orr.).

Euskal Testuak:

- "...*Pierre Haristoyek salatzen dauku Lopez hori sortzez Jutsikoa zela, Jean Etcheberri Jutsitarraren herritarra, eta hunen gatik jakina zuen Lopez Ibarreko erretor saindu bat izan zela, aizina zuelarik herriko xaharrentzat galtzerdi egiten ari zela, eta Ibarreko elizan ehortzi zutela*", Lafitte (1990: 154).
- "*JANBATTIT ETCHEBERRY Michel Garicoits sainduaren lehen kusia zen. Ibarre-Ordokian sortu zen 1806eko abendoaren bian*", Lafitte (1990: 213).
- "*Zer nahi den, orhoitu behar dugu J.B. Etcheberry Ibartarra izan dela hemen orai artio, ez bakarrik Almanaka eskuara-ren lehen egilea, bainan iraunkorra*", Lafitte (1990: 215).
- "*Salatu behar dugu gure laguntzalerik nasaienak -izenak egiten ote duen!- J.B. Etcheberry duela izena, Ibartar famatuak bezal-bezala*", Lafitte (1990: 215).
- "*Hilabete bat barne, bi Eliza-biltzar handi izanen dira Euskal-Herrian: apirilaren 29 eta 30-ean, Donapaleun eta Ibarren, gaztena; ekainaren lehenean, Hendaian eta Pausun, hirugarren adinekoak deitzen ditugun horiena*", Hiriart-Urruti (iloba) (1992: 152).
- "*Igande goizean, Ibarrerat joanen dira elgarrekin*", Hiriart-Urruti (iloba) (1992: 154).
- "*Kantari ttipiak Baiona eta Miarritzen ziren egun beretan, Euskal-Herriko zombait ehun gazte bildu dira, larunbatean Donapaleurat, igandean Ibarrerat*", Hiriart-Urruti (iloba) (1992: 160).
- "*Michel Garikoitz' (1797-1863) Oztibarre Ibarre Garaihotzean sortua, apezte eta Kanbon egona eta gero Beharramera igorria, han baitzuen*

sortu *Bihotz Sakratuko Apezen Elkartea*", P. Charriton (Etxepare, 1996: 39).

Autorcek biltzen dituzten formak:

Azkuek (1969 [1905]: XXIX) *Donaisti-Ibarre* dakar, **Lhandek** (1926: XXXVI, 478) *Ibarra*, **Mitzelenak** (1956: 333), **Goihentzek** (1966: 220) eta **Dassancek** (1966: 163) *Ibarre*. **Lemoineren** arabera (1977: 198) *Saint-Juste-Ibarre* euskaraz *Donaisti Ibara* erraten da; **Orpustanek** (1990: 75), azkenik, *Ibarra*, *Ibartarr* biltzen ditu. Herritarren izena *ibarrifaltarr* (**Lhande**), *ibartar* (**Dassance**), *Ibartarr* (**Orpustan**) da. Ikus *Donaixti* sarrera.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 103) *Ibarre*, *ibartar* aukeratu zituen aldacra araututzat, *Donaixti-Ibarre*, *donaixtiar-ibartar* segiden barnean.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Ibarre* eta *ibartar* hobetsi ditu.

Ahoz hildutako lekukotasunak:

Mixel Garikóitz säindja Ibarre hörtan sörtja zén; Mixel Garikóitz Garakótzeko sémja zén, Ibarre Garakótzeko sémja; bihär jwánenitz Ibarre Garakótzerà / Ibarrè Garakótzerà, ibártarrák (E. Etxarren).

Etimologia azalpenak:

Lemoinek (1977: 198) hemen *ibar*, *ybar* 'vallée' dagoela dio; **Orpustanen** iritzia ezagutzeko ikus *Donaixti* sarrera.

Ibarrola / Ibarrolle

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 81): *Yvarole*, *Yvarola* (1168), *Yvarrola* (1402), *Ibarrole* (1441), *Ybarrole* (1477), *Ibarrola* (1513), *Ybarrola* (1621).

Raymond (1873, 153. agiria): *Sanz Gale de Yvarole*, *Wilelmi de Yvarola*.

Goihenetxe (1966: 221): *Yvarola* (1167), *Yvarole* (1167), *Iuarrola*, *Yuarrola*, *Ibarrola* (1353, 1385, 1386, 1387, 1394, 1397, 1400, 1402, 1403, 1407), *Iuarrolla*, *Yuarrolla* (1377, 1378, 1384, 1389, 1394, 1397), *Yuarolla* (1389), *Ibarolle*, *Ybarolle* (1441, 1477).

Carrasco (1973): *Garcia Arnalt d'Yvarola*, *Garcia Arnalt d'Yuarrola* (Donibane Garazi, 1350, 406-407. orr.).

Lemoine (1977: 198): *Yvarola* (1168), *Yvarole* (1168), *Ibarrole* (1441, 1477), *Ibarrola* (1513), *Ybarrola* (1621).

Zierbide & Santano (1990): *Gassernaut d'Ivarrolle* (1355, 8, 51. or.), *Guassernaut d'Ivarrole* (1356, 11, 54. or.), *Martin d'Ivarrole* (1361, 22, 64. or.), *Gassernaut d'Ivarrole* (1362, 25, 65. or.), *Case Mayor d'Ivarrole* (1365, 48, 81. or.), *Case Mayor d'Ybarrolle* (1378, 84, 109. or.).

Orpustan (1990: 75): *yvarole* (1168), *yvarola* (1168), *yvarrola* (1350), *ivarrole* (1413).

Zierbide (1993): *Garcia Arnalt de Yvarrola* (Arroze, 1350-1353, 45. or.), *Yvarola* (1350-1353, 46. or.), *Ivarrole* (1412-1413, 85. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Guassernaut d'Ybarrolle* (1385, 210, 35. or.), *Machingo d'Ivarrole*, *Machingo d'Ybarrolle* (1405, 293, 116. or.) = *Martin d'Ibarrole* (1407, 301, 121. or.), *Charles de Ybarrola*, *notario* (1479, 353, 183. or.), *Garcia Martinez d'Ivarrola* (XIII-XIV. mendeetan, 354, 207. or.).

Ruiz (1997): *Garçia Arnalt d'Iuarrola*, *vezino de Sant Iohan del Pie de Puerto* (1355, 135, 167. or.), *Miqueu d'Uhart*, *Martin d'Ibarrole*, *peager*, *vezins de la dite viele de Sent Iohan* (1352, 102, 132. or.).

Ruiz (1998): *Garcia Arnald d'Iuarrola* (...) *dio a Iohan de Garra*, *baile de la Bastida de Clarença* (1363, 943, 585. or.).

Euskal Testuak:

- "Baina bereciqui Beltran de Lehet Bajonaco Ippizpicuac, eta Dotor de Ibarrola Bordeleco parlamentean, Erregueren conseillariac, bata Leheteco etche nobleco semea, eta bertzea **Ibarrolacoa**", Etxeberri Sarakoa (1907 [1712]: 75).

- "*Ibarlako Salaberryren Ebanjelioa, Jutsiko J. Etcheberriren Almanaka eta lau liburua, Bertrand Erdozaincy-Etcharten Michel Garicoitsen bizia*", Lafitte (1990: 159).
- "*Lau urtetan Ibarlako ahaide batzuek, haurrik ez izanez, hartu zuten semetzat eta beren etxean altxatu*", Lafitte (1990: 213).
- "*Ibarla Pekotxeko harriak bizi diren bezala (...)*", Landart (1995: 110).
- "*Ibarla, Nafarroa Behereko udalerrria da, Iholdiko kantonamenduan eta Oztibarre ibarrean kokatua*", Borda (1995: 1, Euskara CorpUSA).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170), **Hatanek** (1895: 12), **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX), **Dassancek** (1966: 163), **Goihenetxek** (1966: 221) eta **Orpustanek** (1990: 75) *Ibarla* ematen dute herri honen izentzat. **Lhandek** (1926: XXXVI, 478), eta honi orpoz orpo segika **Lemoioek** (1977: 198), *Ibarrola*, *Ibarla* biltzen dute; **Vinsonek** (1912: 407) *Ibarola* lehen *Ibarola* zela dio, *Beskoitze Berazkoitz* bezala, baina badirudi huts egin duela eta erran nahi zuena zera dela, *Ibarla* lehen *Ibarola* zela. **Irigoienek** (1986: 144) *Ibarrola* laburtu egin dela dio eta *Ibarla* bihurtu dela. Bizkaian eta Gipuzkoan ere badira, autore honek azaltzen duenez, *Ibarrola* toponimoak; hauetako bat, Aulestikoa, *Ibarla* erraten da, baina forma ofiziala *Ibarrola* aldaera osoa da. Herritarren izena *ibarlatarr*, *Ibarlatarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *ibarlar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Ibarla*, *ibarlar* hautatu zituen aldaera araututzat.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Ibarrola* eta *ibarrolar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Ibárlat sártzjan, Ibárla, (h)erri ttípi-ttípi bát, Bunúzek eta Ibárlak apéz béra zutén, ibárlarrák, ibárlarrà, bihár jwáneníz Ibárla Urrútira, (h)éldu níz Ibárla Urrútítik, atzó izáníz Ibárla Urrútjan (E. Etxarren), ibárlataRà (E. Larre), IbáRla (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 12) *Ibarola* *ibar*-en txikigarria dela uste du eta 'bi uren arteko ordokia' adiera duela. **Mitxelena**k (AV, 310, 484) *ibar* 'vega' eta *ola*

tokizko eratorpen atzizkia, 'etxola', 'burdinola' dakuski izen honetan; garai bereko beste lan batean (1956: 173) eta beranduxeagoko beste batean (*FHV*, 419) azaltzen du zenbait toki izenek azentua bigarren silaban zegoela pentsarazten dutela, eta horrexek ekarri zuela azentu ondoko silabaren galtzapena (*Ibarla*). **Corominesek** ere (1972: 305-306) tarteko -o-ren erortzea ekarri zuen izenaren jatorrizko azentuaketa proparoxitonoa nabarmentzen du.

Lemoinek (1977: 198) *ibar*, *ybar* 'vallée' eta *ola* 'cabane' dakuski; **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 358) euskarazko *ibar* 'vallée'-ren txikigarria dela uste dute, baina aipatzen dute **Lognonen** arabera 'la forge de la vallée' dela. **Irigoiñek** (1986: 144) 'sel de la ribera' erranahia ematen dio; **Orpustanen** iritzian (1990: 75-76) *ola*-ri ematen zaion adieraren arabera 'cabane de la vallée' edo 'forge de la vallée' izan daiteke.

Oharra:

Ibarrola Nafarroa Garaiko deitura ezaguna da.



Izura / Ostabat

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 128): *Ostebad* (1167), *Ostavayll* (XII. m.), *Aussebat* (1243), *Ostabailles* (1383), *Sent-Johan d'Ostabat* (1469), *Ostabag*, *Hostabat* (1472), *Nostre-Done de l'espitau d'Ostabat* (1518), *Ostabat-Asme* (1841ean elkartu zirenez geroztik).

Castro (1958): *Arnaut Guillem de San Jayme de Ostabat* (1414, XXXI, 304, 170. or.).

Goibenetxe (1966, 240): *Hostavalla* (XII. m.), *Ostavayll* (XII. m.), *Ostebad* (1167), *Ostavals*, *Ostauals* (1228, 1350, 1354...), *Aussebat* (1243), *Ostauaylles*, *Ostabailles* (1293, 1383), *Ostauals* (1293, 1350), *Estauals* (1350, 1354...), *Ostabagt*, *Ostebagt* (1351), *Ostasuailles*, *Hostasuailles* (1353, 1366), *Ostasuails* (1353), *Osteuailles* (1360), *Oultreaiux*, *Outreiaux* (1364), *Osteualz* (1366), *Ostabat* (1388, 1469), *Ostauayt*, *Ostauait* (1393), *Hostavach* (1417), *Ostabag* (1472), *Hostabat* (1473?).

Lemoine (1977: 255): *Ostebad* (1167), *Ostavayll* (XII. m.), *Aussebad* (1243), *Ostabailles* (1383), *Sent Johan d'Ostabat* (1496), *Ostabag* (1472), *Hostabat* (1472), *Nostre Done de l'espitau d'Ostabat* (1518).

Zierbide & Santano (1990): *bezins d'Ostabat* (1361, 20, 62. or.), *peatges d'Ostabat* (1363, 33, 70. or.), *bailhe d'Ostabat*, *bezins d'Ostabat* (1365, 48, 81. or.), *Pejen d'Ostabait* (1370, 60, 90. or.), *Ço fo feit Hostabat, davant la porta deu Cabat Blanc d'Ostabat* (Izura, 1384, 200, 186. or.).

Orpustan (1990: 81): *ostasvaylles* (1350), *ostavayt* (1413).

Zierbide & Santano (1995): *bezins de la bielle d'Ostabat* (1386, 216, 39. or.), *la parropie d'Ostavayt, la parropi d'Ostavayt* (1393, 249, 77-78. orr.), *Machin, seynor de la cauce d'Ostabat* (1394, 259, 91. or.), *Pes d'Ostebad, cleric* (1409, 312, 133. or.).

Zabaltza (1995): *Ostebad* (1280, 152, 129. or.).

Carrasco (1999-1): *don Bertholomeo d'Ostauales* (1259, 101. or.), *Ostauales* (1266, 219, 293 eta 354. orr.), *de Sant Johan a Ostauals et a Vilanoua* (1266, 222. or.). *Ostasuaylles* (1266, 228, 285 eta 357. orr.), *Ostasuals* (1266, 261. or.), *Ostauayles* (1266, 355 eta 357. orr.).

Euskal Testuak:

- "Armendaritzeraingo, Ostagoa, **Izura**, Larzabale, Ainhiza, Suhuskune eta Iholdy barne, auzo eskasik ez du, bizkitartean ororekin du bakea".
Gure Herria, 1933 (Euskara CorpUSA).

- “Orduan, **Izurako** Daunatuak bazuen lan, zombait egunez, Lohilakaten makilak hautsi hexurren xuxentzen!”, Barbier (1987: 202).
- “**Izura** Pazientziako semeak ere amor eman zuen Bezkin thematsuaren aintzinean (...)”, Barbier (1987: 221).
- “Frantziatik pasatzen zirenentzat, lau bide handi baziren: bat, Arles, Tolosa eta Oloronen gaindi, Somporteko lepotik Zaragozarat zeramana; beste hiru aldiz: Le Puy, Vézelay eta Parisetikakoak, Euskal-Herrian sartzen zirenak **Izuran** junt egiten zuten hiruek, eta hortik beilariek segitzen zuten Larzabale, Donazaharre eta Donibane Garazin gaindi, Orriarat buruz”, Hiriart-Urruti (iloba) (1992: 183).
- “Hemen dauzkagu heien herrestoak toki orotan. Donibane ta Garazi erran dugu, bainan lehenago hor ziren **Izura-Ostabat** eta Xuberoko Ospitale-Pia, eta Irisarrikoa (...)”, Larre (2001: 322).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Pouvreauk (XVII. m.) “Içura, petite ville de bassen. En gascon Ostabat” biltzen du (1892: 9); **Léclusek** (1826: 170) *Ostabat* du eta **Hatanek** (1895: 13) *Issoua*. **Raymondek** (1863: 128), **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX), **Vinsonek**²⁹ (1909: 354), **Jaurgainek** (1912: 166), **Lhandek** (1926: XXXVI, 572), **Dassancek** (1966: 163), **Goihenetzek** (1966: 239), **Lemoinek** (1977: 255) eta **Orpustanek** (1990: 81) *Izura* jasotzen dute. Herriarren izena *izur-tarr* (**Lhande**), *izuratar* (**Dassance**), *Izuratarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Izura*, *izuratar* aukeratu zituen aldacra araututzat, *Izura-Azme*, *izuratar-azmetar* segidetan.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Izura* eta *izuratar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Ìzurako kartjér batá, Izúra dùzu horrékilán segidán; erri ortán badá eliza bát, ez arrás bérrí-berriá; Izúra, izúratarrák, Izúrat jwán beárria níz, Izúratik, Izúra Ojénartetik (h)éldu níz, Izúrán hízi dá, Izúran, Oztíbarren bauzú leénik érrí baitézpadakwená Lorzàbalé etá hári datxíkola Donàaxti

29. Beste lan batean (1912: 407) herrien erdarazko eta euskarazko izenen arteko aldea aipatutakoan *Ostabat* eta *Izura* bi izen erabat desberdin direla erraten du.

leénik, Buntúze, Donáaxti, gjó Arantsúsi, Jútsi, Izúrà, Hózta (E. Etxarren), Ízugàn, Izúgan; juntátjak etá..., Izúgaikin (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 13) *iche-oura, ich'oura* 'ihi ura' ulertzen du izena eta dio Oztibarreko beheko alderdia aski leku istiltua dela. **Vinsonek** (1909: 354) uste du *Izura* toponimoa biziki interesgarria dela, bertan *itz* 'eau permanente, large, étang, lac, mer'—Azkueri jarraitzen zaió honetan— eta *ur* 'eau courante, étroite' batean daudelako. Ez du azaltzen, halarik ere, **Itzura* > *Izura* aldakuntza nola eta zergatik burutu den.

Lemoinek (1977: 255) lehen osagaia *ostal, oustàu, oustalàs* 'maison, demeure' dela uste du (ikus *Oztibarre* sarrera) eta bigarrena gaskoiko *bat* 'en bas, an dessous (d'Hosta)' dela. Honek, aipatu autorearen arabera, *Pays d'Ostabarès* delakoari izena eman dio, Oztibarrerri. Zernahi ere den, nabarmentzekoa da *Ostabat*-en kasuan *bat*-i, ikusi bezala, 'en bas, au dessous' adiera ematen diola eta *Ostabarès*-en kasuan —hemen ere *bat* baitakusa—, aldiz, 'vallée'-rena. Herriaren euskarazko aldaera (*Izura*), herriz, *isur, ixur, ixuri* 'écoulement, versant', *itsuralde, ixurki* 'versant de montagne'-rekin lotzen du (ibid., 200).

Irigoienek *Ostabat*-en bukaeran gaskoiko *bat, baigt* 'ibarra' dagoela dio (1986: 144 eta 181), *Lantabat*-en bezala, baina huts egiten du *Ostabat* euskaraz *Ostibarre* dela erratean. **Orpustanen** arabera (1990: 81-82), euskaldunek beti alde batera utzi dute ibarretik herrira lekualdatutako erdarazko izena. Euskarazkoak, bestalde, 'le versant', 'isuria' edo 'le pli', 'izurra' adiera du, Aiherrako *Ixuri* izeneko oikonimoek bezala.

Oharra:

Izura Nafarroa Garaiko deitura da egun.

Jutsi / Juxue

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 86): *Judsue* (XIII. m.), *Jutsue* (1472).

Goihenetxe (1966: 223): *Judsue* (XIII. m., 1345), *Yutssue* (1293-1294, 1351), *Yutssue* (1293-1294), *Juzue* (1351), *Sant Pedro de Jussua* (1366), *Sant Pedro de Jussue* (1366), *Jucsue* (1366, 1374), *Jucssue* (1366, 1384), *Jutsue* (1472).

Lemoine (1977: 200): *Judsue* (XIII. m.), *Jutsue* (1472).

Danzat & Rostaing (1983 [1963]: 372): *Judsue* (XIII. m.).

Zierbide & Santano (1990): *Judsue*, *Jutsue* (1359, 18, 60. or.), *Bernal, seynnor de la Sale de Jutssue* (Donibane Garazi, 1384, 194, 182. or.).

Zierbide (1993): *Judssue* (1350-1353, 42, 45. orr.), *Judsse* (1412-1413, 80. or.), *Yudsse* (1412-1413, 87. or.).

Orpustan (1990: 79): *judssue* (XII. m., 1350), *judsse* (1413).

Zierbide & Santano (1995): *Jutssu* (1424, 334, 163. or.).

Euskal Testuak:

- "Zerbait berri dakienak hel araz ditzala **Jutsiko** jaun merari. Saristatua izanen da", *Herria*, 1945, 1 (Euskara Corpusa).
- "...Pierre Haristoyek salatzen dauku Lopez hori sortzez **Jutsikoa** zela, Jean Etcheberri **Jutsitarraren** herritarra, eta hunen gatik jakina zuen Lopez Ibarreko erretor saindu bat izan zela, aizina zuelarik herriko xaharrentzat galtzerdi egiten ari zela, eta Ibarreko elizan ehortzi zutela", Lafitte (1990: 154).
- "Marc d'Abense hori ez dakigu noiz sortu zen ez bainan **Jutsin** hil zen 1780ko Ekainaren 24ean eta kalostrapian ehortzi zuten", Lafitte (1990: 155).
- "Marc d'Abense horri zor zaizkola **Jutsiko** apeztegia bere inguramen ederrekin. Artetik erraiteko hemezortzigarren mendean herri horrek **Jutsia** zuen izena eta ez **Jutsi** motz-motza", Lafitte (1990: 155).
- "Ibarlako Salaberryren Ebanjelioa, **Jutsiko** J. Etcheberriren Almanaka eta lau liburuak, Bertrand Erdozaincy-Etcharten Michel Garicoitsen bizia", Lafitte (1990: 159).
- "Izan nuen misionea Bidarrain (P. Iratzabal lagunarekin, hau orduantxe gure ganat etorri misionest gaztea, pagolarra), Oztibarre-**Jutsi**-Arantsusin (Darritchonekin), Mehainen (...)", Larre (2001: 268).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Yutsue du*, **Raymond**ek (1863: 86) *Yutsia*, **Hatanek** (1895: 13) *Juxia*, **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX), **Dassancek** (1966: 163), **Goihenetzek** (1966: 223) eta **Orpustanek** (1990: 79) *Jutsi*, **Lhandek** (1926: XXXVI, 559) *Jutsia*, *Jutsia*, **Lemoinek** (1977: 299) *Jutsia*. Herritarren izena *jutsiarr*, *Jutsiarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *jutsitar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak *Jutsi* eta *jutsiar* eman zituen (1979: 101) izen araututzat.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Jutsi* eta *jutsiar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Jútsi, yutsiar, yutsitar (EHHA), éldu níz Jútsi Berrókitik, Jútsi, jútsi-tarrák, bihár juán behárra níz Jútsi Berrúkirát; Oztíbarren bauzú leénik érrí baitézpadaquená Larzábalé etá hári datxíkola Donáaxti leénik, Bunúze, Donáaxti, gjó Arantsúsi, Jútsi, Izúrà, Hózia (E. Etzarren), jútsi, jútsjaRák, Jútsirát, Jútsitík (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 13) *Tchuttchia* azaltzen du izena eta 'lieu élevé' adiera ematen dio, segur aski *zut*-ekin lotzen duelako. **Lemoinek** (1977: 200) *itsas, jats, itsatz, isatz, jun-tzi, hunzi* 'genèt, balai' dakusa honen oinarrian; ez dago garbi bnkacran *-zu* atzizki multzokaria ikusten duenez. **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 372) etimologia ilunekoa dela uste dute; **Orpustanek** (1990: 79-80) Lemoineren etimologia arbuiatzen du eta Rostaingek latinaren aurrekotzat hartzen duen *juh-* ('gaina' *vel sim.*) toponimia zaharreko elementua oinarritako proposatzen. Hau Baigorriko *Jokoberro* 'taillis des hauteurs' oikonimoan dago ortzaiztarraren arabera, baina ez du azaltzen *juh-* > *joko* pausoa nola gertatu den. *Juxue*-ren jatorria **joko-tsu* edo **juh(v)-tsu* 'où les hauteurs abondent' da autore honen ustez; bukaerako bokal itxia *-u*-ren zuberotar moduko ebakerari zor zaio.

Guri Orpustanen azalpena aski alegiazkoa iruditzen zaigu eta izenaren nondikakoaz erran dezakeguna da gure sorterrria den *Uxue*-ren eitea badue-la, batean afrikaria eta bestean igurzkaria egon arren, eta bukaerak Nafarroa Garaiko *-ue* 'gune'-dun hainbat toponimo dakarzkigula burutara.

Aldaerarik zaharrena eta gehien azaltzen dena *Jutsue* da, dokumentazioan ikus daitekeenez, *Jutsua* 1366an ageri da —grafiak grafia— eta *Jutse* 1412an. Ez dakigu egungo aldaera horietako zeinetatik atera den, baina Lafitteren 1990eko iritzia aintzat hartzen badugu bilakaera *Jutsua* > *Jutsia* > *Jutsi* izan dela pentsatu behar genuke. Zernahi gisaz, eta erran bezala, gehienxkoenetan dokumentatzen den forma *Jutsue* da, modu batera edo bestera izkiriaturik.

Oharra:

Jusué Nafarroa Garaiko deitura da orain.

Landibarre / Lantabat

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Goihenetxe (1966): *Lantabayt* (1293-1294), *Lantambait* (1328), *Lantabat* (1388, 1468).

Orpustan (1990: 83): *lantasvayles* (1264), *lantavayl* (1292), *lanthabayt* (1304), *lantabat* (1304), *lantabayt* (1309), *lantabach* (1350).

Zierbide (1993): *Lantabach* (1350-1353, 48, 49. orr.).

Euskal Testuak:

- "Mende osoak, ibarra zathitan egona da; **Landibarre** eiki ez da orai-koa; ukhan ere ospa gehiago eta hazi jendetze handiagoa", S. Ostopetarra (*Gure Herria*, 1933, 304, Euskara CorpUSA).
- "Horrela, tokiko bi erretorak urrundua izana gatik, **Landibartar** fededunek bazakiten apezketa norat jo", S. Ostopetarra (*Gure Herria*, 1933, 499, Euskara CorpUSA).
- "Bainan herritarrak direla erran badugu ez othe dugu erran behar zoin herritakoak? **Landibarrekoak** dire", Elizalde (1995 [1914-18]: 67)
- "Erretortzeko tenorea jitearekin, **Landibarreko** parropia tokatu zitzaion eta han entseatu zen arimen saindutzera, denu larderia, bainan dena othoitz eta bihotz", Lafitte (2002 [1966]: 436).
- "Sorgina puies, akherra khen! / Ez duk akherrik **Landibarren!** (...)", Otsobi (1992: 139).
- "(Bertso) bat, **Landibarren** nik emana, handik denboraren buruan ere kantatzen zuen (Xalbadorrek)", M. Treku (1981: 138).
- "Jokoan bederen hala omen zen, eta ikustekoa zela diote gure xapelduna arratsari buruz, eskolarat itzultzen, mutiko lerdan eta zalu, burua gora, begia bipil, ondoan zuela, morroin gisa, Migel Landibar deitu beste Nafartar bat, tresna ona diotenaz, ez batere **Landibartarra**", Narbaitz (*San Frantses Jatsukoa*, 90, Euskaltzaindia, OEH-ko testu corpUSA).
- "Hartan zauden Amikuze, **Landibarre** eta Oztibarre", Lafitte (1990: 154).
- "**Landibarren** gertatuaren arabera, ez zitakeen Athor ere beti debrua- ren abokat bezala mintzo", Mendisko (1990: 107).

- “Asteazken arratsean berean bildu dira **Landibarreko** hamabost gazte ikusteko nola kudeatuko den Panpiren etxaldea bera Parisen deino”, *Herria*, 1992, 3 (Euskara Corpusa).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170), **Raymondék** (1863: 93), **Hariztoik** (1977 [1883]: 290), **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 649), **Dassancek** (1966: 164), **Goihenetxek** (1966: 208), **Irgoienek** (1986: 181) eta **Orpustanek** (1990: 83) *Landibarre* jasotzen dute eta **Hatanek** (1895: 13) *Landibare*, *Landibarre*. Herritarren izena *landibartarr*, *Landibartarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *landibartar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Landibarre*, *landibartar* hautatu zituen aldaera araututako.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Landibarre* eta *landibartar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Landibarré, landibartár ((EHHA), izaniz *Landibarre Arribeltzjan*, atzó izaniz *Arribeltzeko Danjelen ikústen*, *Lándibarré, lándibatarrák; bíziki edátja dá hérrja, badiré kartjérrak: Azkónbegi, Donámarti ta bérzeat bére elízaikin: Beháune* (**E. Etxarren**), *LándibaRè, landibaRtaRák* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 13) *Landa-ibar* ‘landes-plaine, plaine des landes’ ulertzen du izena eta dio Landibarrek badituela landa artean galdutako zenbait auzo; **Mitxelenak** (AV, 310, 389) *landa* ‘campo’ eta *ibar* ‘vega’ dakuski *Landivar* toponimoan. **Lemoinek** (1977: 217-218) *Lantabat* izen gaskoia dela uste du (*bat* ‘d'en bas’), baina gaineratzen du *landa* euskarak hartua, beretua duela, *Landakochoko*, *Landetcheberria* bezalako izenetan; **Irgoienek** (1986: 144 eta 181) *Lantabat*-en bukaeran gaskoiko *bat*, *baigt* ‘ibarra’ dagoela dio, *Ostabat*-en bezala.

Orpustanek (1990: 83) izen honen lekukotasunen eta *Ostabat*-enen arteko berdintasuna nabarmentzen du eta dio bukaerako *-bat* euskarazko *ibarr* ‘vallée’-ren itzulpena besterik ez dela; *landa-* > *lanta-* aldakuntza *Ostabat*-en analogiari zor zaioke menturaz. Ortzaiztarraren arabera toponimoa Amikuzeko *Larribar*-en kide zehatza da, baina “erdi euskal-

duna” baizik ez da aipagai hartu dugun hau, *landa* euskaraz *larre* erra-
ten baita.

Gure ustez izenaren “erdi euskalduntasuna”-ren kontu horri ezin zaio
eutsi, *landa* euskaraz erabili eta erabiltzen den hitza delako, nondikakoa
baita ere.

Oharra:

Landibar Nafarroa Garaiko deitura da orain.

Larzabale / Larceveau

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 94): *Larsaval* (1119), *Larseval* (1167), *Larsabau* (1477), *Larcabau* (1513), *Larsabau* (1518), *Larçaval*, *Larçabal*, *Larzabal* (1621).

Raymond (1873): *Brasc Auriol de Larsaval* (1120, 7. agiria), *per manum A. De Sevis eta Garsie de Barsaval* (1150-1167, 121. agiria. Raymondek berak dio "A. De Cibits" eta "Larsabal" irakurri behar direla), *Gasiou de Larceval* (1167, 153. agiria).

Goihenetxe (1966: 228): *Larsaval* (1119, 1120), *Larseval* (1167), *Larceval* (1167), *Larsebau* (1249), *Larcebau* (1351, 1353), *Larcabau* (1353), *Larsabau* (1368), *Larçaval*, *Larçabal* (1350, 1354, 1355, 1358, 1362, 1368), *Larçabala* (1368), *Larçabau* (1385), *Larssabau* (1477).

Lemoine (1977: 202): *Larsaval* (1119), *Larseval* (1167), *Larssabau* (1477), *Larçabeau* (1513), *Larsabau* (1518), *Larçaval*, *Larçabal* (1621), *Larzabal* (1621).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]): *Larsaval* (1119).

Orpustan (1990: 78): *larsaval* (1120), *larceval* (1167), *larçabau* (1292, 1350, 1413).

Zierbide (1993): *Larçabau* (1350-1353, 44, 45. orr.).

Zierbide & Santano (1995): *Uchbusco de Lassagua, seynor de la Sale de Larçabau* (1407, 301, 121. or.), *Menaut de Liçaray, costurer, bezi de Larçabau* (1408, 311, 132. or.).

Euskal Testuak:

- "Barkoize, Domiziñe, Lohitzune, Mitriña, Amendüze, Ispura, **Larzebale** (...)", Tartas (1975 [1666]: 3).

- "Candelié, **Larzabalgo** errotor ernea", Hiribarren (1853: 156).

- "Hedaduraz Baigorri herri handiena; / Sudun arnoz **Larzabal** nashi yoriena", Hiribarren (1853: 74).

- "... Euskal Herri bereko arno zaharretik duela behar hartu, hurru-paka, pindar. Zibitze Aphalo-ko bat bazuen hauta. Hobeia oraino Buztintze-ko bat. Urrustoi-ko bat agertzen zuen, noizean behin, gain-gainekoa. Irulegiko batzu halaber, ahotik ezin utziak. Jastorazten ere zuen, artetan, **Lartzabale**-ko Ixkirot xuri garratxa", J. Etxepare (1992: 371).

- “*Ez ahantz, guziz D. Lohizunen, Milafrangan, Makean, Bidarrain, Bardozen, Armendaritzen, Larzabalen, Atarratzen, Zalbizien, Aiherren, D. Garazin*”, J. Etxepare (1996: 187).
- “*Armendaritzeraino, Ostagoa, Izura, Larzabale, Ainhiza, Suhuskune eta Iholdy barne, auzo eskasik ez du; bizkitartean ororekin du bakea*”, Gure Herria, 1933, 204 (Euskara CorpUSA).
- “*Madalengan gaindi, Donazaharren, Lakarran eta Monjolosen gaindi, Lartzabale eta Donaixtin barna, bazoan bethi Aitaxo, tink-aldi bat artetan bere zahakoari emanaz*”, Barbier (1987: 225).
- “*Hatsantuak, joan ziren hola Larzabaleraino, eta han gelditu, leher eginak oro. Bainan Larzabalen, Larzabaldarrak eman ziren, beren aldiak, haur gaztea segitu beharrez (...)*”, Barbier (Ipuinak, 116, Euskaltzaindia, OEH-ko testu corpUSA).
- “*Frantziatik pasatzen zirenentzat, lau bide handi baziren: bat, Arles, Tolosa eta Oloronen gaindi, Somporteko lepotik Zaragozarat zeramana; beste hiru aldiz: Le Puy, Vézelay eta Parisetikakoak, Euskal-Herrian sartzen zirenak Izuran junt egiten zuten hiruek, eta hortik beilariek segitzen zuten Larzabale, Donazaharre eta Donibane Garazin gaindi, Orriarat buruz*”, Hiriart-Urruti (iloba) (1992: 183).
- “*Baxenabarre eta Ziberoako mugan aurkitzen da Ozkixe edo hobeki erran Otxaxe-ko lepou; Lartzabale eta maule-ren artean biderdi*”, P. Charritton (Etxepare, 1988: 53).
- “*...Laborantxako eskola bat hik sortzeko Donibanen, Garazi, Baigorri eta Larzabaleko kantonamenduetako*”, Larre (2001: 229).
- “*Ez baitzen orduan Euskal-Herrian orai ditugun fama haundiko ardi gasna horietarik, Belokeko Ardiga, Makeako Berria-Onetik, edo Larzabale, Irati eta holakorik*”, Larre (2001: 282).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Raymondek (1863: 94), **Lhandek** (1926: XXXVI), **Dassancek** (1966: 163), **Irigoienek** (1986: 144) eta **Orpustanek** (1990: 78) *Larzabale* jasotzen dute; **Hatanek** (1895: 13) *Larçabale* dakar eta **Lemoinek** (1977: 202) *Larzabal*. Herritarren izena *larzabaldar* (**Dassance**), *Larzabaldarr*, *Larzabaltarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Larzabale*, *larzabaldar* eman zituen aldaera arautulako, *Larzabale-Arroze-Zibitze*, *larzabaldar-arroztar-zibiztar* segiden barnean.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Larzábale* eta *larzábaldar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Larzáale, *larzáaldár* (**EHHA**), ezta *Lárzalè*, *Larzábalè*, *Larzábaletik*, *larzáltarràk*, *larzááltarràk*, *larzáaldarrá*, *larzáaltarrà dák mutiko hóri*, *(h)éldu níz Larzábale Goienétxetik*, atzó *Larzábale Gojénétxekò Janpjérraikín nintzan*, izaniz *Larzábale Gojénétxjan*; *Oztíbarren bauzú leénik érrí baitézpádakwená Larzábalé etá hári datxikola Donáaxti leénik*, *Bunúze*, *Donáaxti*, *gjó Arantsúsi*, *Jútsi*, *Izúrà*, *Hózta* (**E. Etxarren**), *LaRzálekondwàn*, *LaRzálekóndo-ondwàn*, *LaRzáalè*, *LaRzáleikin* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 13) *Larre-çabale* ‘touya-étendue, étendue de touyas’ ulertzen du toponimoa. **Mitxelena** (**AV**, 381, 596) *lahar* fitonimoa eta *zabal* izenondoa edo izena dakuski; gaineratzen du Biarnon *Larzábal*-etik atera den *Larçabaig* erreka izena ere badela. **FHV**-n (322. or.) dioenez, *Larzábal* > *Larçebau* aldakuntzak erran nahi du euskarazko *-l* gure ondareko hitzetan, *-l*-tzat hartu dela, ez *-ll*-tzat. **Corominesek** (1972: 315. or. eta hurr.) *lahar* etimologia arbuizatzen du eta *larre*-rena ere bai, hondarreko hau elkarketan beti *larra*- agertzen delako. Ikertzaile katalanaren arabera *larr*- horrek Iparraldean eta Biarnon ‘erreka’ adiera izan du eta, beraz, *Larzábale* ‘emari handiko ibaia’, ‘ur anitz dakarren erreka’ besterik ez da. *Larr*- autore honen iritzian ez da *lats*-en aldaera, *legarr*-etik ateratako *learr*-en laburtzearen ondorea baizik. Nafarroako eta Zuberoako *Larraun* ere (*Lorraine* bigarren eskualde horretan) erro horretatik abiatuta azaldu beharra dago, ez Mitxelena nahi zuen bezala *larre* + *-un(e)-tik* abiatuta.

Lemoinek (1977: 202) *larre*, *larra* ‘lande, pâturage, terre inculte’ daku-sa lehen osagaitako eta galierako *ara* ‘pré’-rekin alderatzeko eskatzen du, bai eta ere, irudiz, latineko *pratium*-ekin; bigarren osagaia *zabal* ‘étendu, large’ da autore honen iritzian. **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 387) *lare* (sic) ‘pâturage’ eta *zabal* ‘étendu’ dakuskite toponimoaren osagaitzat. **Orpustanek** (1990: 78, 1999: 47) **larre-zabal* azaltzen du eta dio adiera ‘lande vaste’ edo ‘plaine de lande’ dela, *zabal* izenondoa edo izena den, noiz nola. Lehen osagaiaren azken bokala elkarketan erori da, euskaraz ohikoa den moduan (“chute régulière”, autorearen hitzetan). Bigarren bokal azen-tugabearen *a* > *e* pausoa eta bukaerako albokoaren bokaltzea erdal fonetikaren kontu dira, XVI. mendeaz geroztik gertatu diren beste aldaketak bezala (*-v-*, *-eau*).

Egia da *larre* elkartuaren lehen osagaia denean batzuetan *lar-* bihurtzen dela. Nafarroa Garaian ezagunak diren *Larluz*e, *Larluxe*, *Larlux*-en modukoetan adibidez, baina laburtze hori normalean berri samarra izaten da *larre*-ren kasuan –ikusten denez bi silaba ditu, ez hiru–, mugaz honaindian bederik. Mintzagai hartu dugun izenak, aldiz, *Lar-* izan du haste-hastetik, egungo egunean oraino bezala, eta ezin da ziurtasunez erran aurreneko osagai hori *larre* dela.

Zibitze / Cibits

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 50): *Sent Andriu de Cibitz* (1472), *Civitz* (1513).

Raymond (1873): *per manum A. De Sevis eta Garsie de Barsaval* (1150-1167, 121. agiria. Raymondek berak dio "A. De Cibits" eta "Larsabal" irakurri behar direla).

Goihenetxe (1966: 216): *Sevis* (1150-1167), *Sivitz* (1365), *Cibitz* (1472).

Lemoine (1977: 108): *Cibitz* (1472), *Civitis* (1513).

Orpustan (1990): *sevis* (1150-67), *siviç* (1350), *çibitz* (1413).

Zierbide (1993): *Siviç* (1350-1353, 44, 45. orr.), *Çibitz* (1412-1413, 86. orr.).

Zierbide & Santano (1995): *Guillem Arnaut de Sivitz, caperan d'Ayherre* (1394, 258, 90. orr.).

Euskal Testuak:

– "Euskal Herri bereko arno zaharretik duela behar hartu, hurrupaka, pindar. **Zibitze** Aphalo-ko bat bazuen hauta. Hobea oraino **Buztintze-ko bat**", Etxepare (1992: 371).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Lhandek (1926: XXXVI, 1085), **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX), **Caro Barojak – Hariztoik** (1945: 110), **Dassancek** (1966: 163), **Goihenetzek** (1966: 216), **Lemoinek** (1977: 198) eta **Orpustanek** (1990: 77) *Zibitze* jasotzen dute. Herritarren izena *zibiztarr*, *Zibiztarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *zibiztar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Zibitze*, *zibiztar* eman zituen aldaera araututako, *Larزابale-Arroze-Zibitze*, *larزابالدار-arroztar-zibiztar* segiden barnean.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2002: 717) *Zibitze* eta *zibiztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Zibiztár (EHHA), *Zibitzé*, *errán beár dúzu éldu nizála Zibitze Elíxondotik*, *éldu níz Zibitzetik*, *zibiztarrák*, *bihár jwán beárna níz Zibitze*

Elixondorà, hán, Zibítzeko elizán, Zibítzerà (E. Etxarren), Zibitz, Zibitze (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Caro Barojak (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Zibitze* bil-tzen du, ikusi bezala, eta erraten hau latineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atziz-kia duten Hegoaldeko herri izonekin erlazonaturik dagoela. **Lemoinek** (1977: 108) *civitas*-en bitartez azaldu nahi du izena, baina ez da horrela egi-tera ausartzen, nonbait ("on est bien tenté d'expliquer par *civitas*: *Cibits*"). **Orpustan**, berriz, ez da herabe latineko *civitate* proposatzeko (1990-77-78), nahiz gero etimoak "zailtasun zerbait" baduela aitortu, "car on ne voit pas comment *civitate* peut faire ici *Cibits* alors qu'il donne en zone gascone *Cieutat*". Arazoa konpontzeko bere buruari galdegiten dio izena ez ote zen lehenik euskaratik igaro, eta idarokitzen du bukaera menturaz *-itz*-dun ize-nen analogiaz bestelakotu zela, edo latineko jatorrizko izena *civites* zela. Zernahi gisaz, hau guztia balizkoa iruditzen zaio. Zalantza auitzekin *Sibas / Zibotze*-ren alderako analogiaz toponimoak oinarritako latineko *silva* 'forêt' izan lezakeela ere badio; hondarreko aukeratzat egun galdua den eus-kara edo akitanierazko hitz zaharren bat izan daitekeela erraten du.

5. AMIKUZE / MIXE

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 114): *Mixia* (XII. m.), *Amixa* (XII. m.), *Mixa* (1227), *Mizxa* (1247), *Misse* (1305), *Mixe* (c. 1340), *Micxe* (1477).

Raymond (1873): *Mixa* (1119-1136. 5, 4. or.), *Amixe* (1119-1136, 97, 81. or.), *Amixa* (1105-1119, 57, 58, 45, 47. orr.; 1150-1167, 121, 104. or.).

Castro (1958): *Micxa* (1414, XXXI, 445, 245. or.).

Gartzia Larrageta (1976-77): *mosseyner n'Amaniu, seyor de Labrit, ves-compte de Tartas e seyor naturau de Mixe e d'Ostabares, fos viencut en la dite terre de Mixe (...)* (1316, 166, 650. or.), *E io G. Arnalt de Garat notari public de Mixe e d'Ostabares* (ibid., 657. or.)

Orpustan (1990: 51): *mixa* (1119-36, 1264), *amixe* (1119-36), *amixa* (1150-67), *mixia* (1150-67, 1304), *mixe* (1292), *micxa* (1309).

Zierbide & Santano (1990): *E jo, Guillem Arnaut d'Uhart, notari public de Mixe* (1344, 6, 50. or.), *las terres de Micxe et d'Ostabares* (1365, 48, 81. or.), *sobre la recepte de Micxe e d'Ostebares* (1377, 75, 103. or.).

Zierbide (1993): *Mixa* (1350-1353, 27. or.), *Micxe* (1412-1413, 75, 80. orr.).

Zierbide & Santano (1995): *totz los locx et afars de Yanteyn en Soule e d'Alsunberraute en Micxe* (1393, 249, 78), *Per Arnaut, seynor juen (sic) de Pharandiete de Camon, per nom de son pay et per nom de la daune d'Eyherabide de Camon, de la terre de Mixe* (1395, 269, 97. or.), *Sapien totz*

que jo, *Martin d'Arberatz, bezin de la terre de Micxe* (1397, 286, 111. or.), *la terra de Micxa, Micxe* (1496, 354, 208. or.).

Barragán (1997): *Enguitart de Labrit, vizconde de tartas, seynnor de Mixa et de Ostabares* (1329, 45, 71. or.), *laboratores Santi Pelagii et terre de Mixa* (1341, 142, 249. or.).

Zabaltza (1997): *...e lo noble e poderos baron e seytor mo seyner n'Amaniu, seytor de Labrit, vescompte de Tartas e seytor naturau de Mixe e d'Ostabares, fos viencut en la dite terre de Mixe per veder* (1316, 265, 452. or.), *en Guilem, arcipreste de Mixe* (ibid., 453. or.), *Nos Amaneo, seynnor de Labrit, vizconde de Tartas et seynnor de Micxa et de Ostabares* (1319, 288, 494. or.), *en razon del castieillo de Garriz et de los otros castieillos que auemos en la tierra de Mixa et de Ostabares* (1320, 297, 511. or.), *et goardar los terminos contra los de Labort et de Mixa* (1321, 316, 536. or.).

Carrasco (1999-1): *De francage de Mixa, 100 soltz* (1266, 219. or.).

Euskal Testuak:

- "**Amicucé**, le pays de mixe en bassenauarre", Pouvreau (XVII. m., 1892: 9).
- "*Mendietara zelhaitik, / Garazir' Amikuzetik, / Zuberora Laphurditik, / Urguiluaren arbola zauku / Hedatu denen gainetik*", P. Ibarrart (Lafitte & Barbier, 1967: 56).
- "...xuberotar, **amikuztar**, oztibartar, erronkari, bakotxa bere herrialdeko hizkuntzan (...)", J. Etxepare (1984: 306).
- "*Garia aldiz, laborari aditu baten ahotik jakin dugunaren arabera, Amikuzeko eskualdean -eskualde hura baitu gehienik alde gariakbertze urtetan baino gehixago eman balin bada, Euskal-herriko bertze bazterretan xuhurrago izan da*", J. Etxepare (1996: 60).
- "*Amikuztarren mintzaia labur argia, dena zain, mihiz derabilatelarik guziz atsegina da. Lumaz, bertzelako iduritu zaie euskaltzaleer; hau-rrek, bakanegi izkiriartzen bide dute, zorigaitzez euskaraz. Ontsa mintzatzea bera bada haatik zerbait. Gaude ez ote diren hortan nausi Amikuztarrak Ziberotarrer*", J. Etxepare (1996: 180).
- "*Dirutze handiskoa galdu izan da ere Amikuzen, zombait urte huntan, bere gain, Donapaleun, jarri banko batek, leher eginik*", J. Etxepare (1996: 87).
- "*Bainan, Jainkoari esker, bada holako Kattalin frango bazterretan: ala Zibero xokoan, ala Amikuzeko oihanetan, ala Garazi edo Baigorri aldeko mendietan*", P. Narbaitz (1999: 14).

- "Gerlaren ondorioz / altxatu beharra / Larreat erori da / eskualdun ramarra. / Dela Xubero, / dela Garazi, / **Amikuze** bera, / Lapurtar bilakatu, en'ustez sobera", Mañex Etxamendi (Lafitte, 1972: 125).
- "Berdin jakiten dugu bertsu ontzale zela Arnaud de Logras Utziatoko 'prior' eta **Amikuze**-Oztibarreko Bikario Jenerala", Lafitte (1990: 123).
- "Hartan zauden **Amikuze**, Landibarre eta Oztibarre", Lafitte (1990: 154).
- "Hor zen Xalbat **Amikuztarra**. Ohi zuen bezala, bere itzulia egin zuen Oxeren 'bulegora' (...)", Arbelbide (1986: 38).
- "...gure ezin ahantzizko Jean Irigoyen ainiztarra, Jean Donetx uztariztarra, J.P. Belhagorry ortzaiztarra, Jean Loustau **amikuztarra**, eta nor ez oraino!", Larre (2001: 191).

Autoreek hiltzen dituzten formak:

Hariztoik (1977 [1883]: 290) *Amikuze* du, Lbandek (1926: 39), Mitxelenak (1956: 173), Dassancek (1966: 161) eta Orpustanek (1990: 51) *Amikuze* jasotzen dute eta Caro Barojak (1945: 110) *Amikuze*, *Amikutze*. Herriarren izena *Amikuzetarr* da, *Orpustaneu* arabera.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Amikuze* aukeratu zuen, *Arruta-Sarrikota-Amikuze* segidan ikus daitekeen moduan.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Amikuze* eta *amikuztar* hobetsi ditu; zernahi dela, *Amikūze* ere ontzat eman du eskualdean erabiltzeko.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

*Amikuze*kò alderà, *Amikuzè* (E. Etxarren), *Amiküzé*, *amiküztaRàk*³⁰, *Amikuzeat jiniz*, *Amiküzerat jwaniz* (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 16-17) 'pays maigre' adiera emateu dio *Amekuse*-ri (ikus *Mehaine* sarrera). Caro Barojak (1945: 110) Hariztoi abadearen zerrendatik *Amikuze*, *Amikutze* biltzen dn, ikusi dngun gisan, eta erraten hau la-

30. Azentu nagusia ü-ren gainean da.

tineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atzizkia duten Hegoaldeko herri izenekin erlazonaturik dagoela. **Mitxelena**k, izen bikoitzeko toponimoez mintzo delarik (AV, 5. argitalpena, 241. or.), "aitzineredu" bakarretik sortu diren bilakaera desberdin batzuk aipatzen ditu, horien artean *Amikuze / Mixe*. Ondoko beste lan batean (1956: 173) erraten du zenbait toponimoren herri ebakerak azentua antzina bigarren silaban zihoala pentsarazten duela; adibideen artean *Mixe / Amikuze* eta *Charritte / Sarrikota* aipatzen ditu. Bere maisu lanean (FHV, 158) azaltzen du toponimo batzuen euskal aldaerak forma ofizialak ez duen hastapeneko A- duela, Iparraldean bereziki: *Amikuze / Mixe, Ahurti / Urt, Akhamarre / Came...* Honen errotzat latineko *ad* preposizioaren eransketa aipatu dela gehitzen du³¹, baina hau ez dela daitekeen azalpen bakarra, gehiago zehazten ez badu ere. 1969ko lanean (21. or.) berriz aipatzen du gaia; ez du argitzen, ordea, bere iritzian ustekari hori onartzekoa den ala ez. **Lafoni** (1954: 248), *Atharratze / Tardets* izen pareaztertzean, egiantzekoa iruditzen zaio euskal aldaeraren hastapeneko A- latineko *ad*-etik atera den preposizioa izatea.

Corominesek (1972: 300-301) Biarnoko toponimo anitzetan *domec* itxurapean gorde den *Dominicus* pertsona izena besterik ez dela uste du; gaineratzen du Mitxelena *FHV*-n *Amikuze*-ko A- hori erromantzeko preposizio erantsia delako ideia eszeptizismoz hartu zuela. Hizkuntzalari honek, dioena ongi ulertu badugu, *ad* eta *de*-ren arteko hurbiltasunak aglutinazio eta deglutinazio ugari sortu zituela (*Etxepare / Detxepare, Urruti / Durruti*) pentsatzen du eta hau dela *Amikuze*-ren beraren kasua. Hortaz, jakintsu katalanaren arabera *Dominicus* ('domec', 'domaine') > *Domi(n)icus* > *Omicus* > *Amikuz* > *Amikuze* izan izanen da bilakaera, nahiz zehaztasunik ez duen ematen, hots, nahiz hola-hola ez duen azaltzen. Oraingoan ere biarres aldaerak atxiki duke jatorrizko azentubidea, eta euskal izenak aldatu, Corominesen irudiko.

Lemoinek (1977: 224, 286) latineko *mixtus* 'mélange' dakusa toponimoan; honek, jakina, ezin du azaldu euskarazko izena, eta izen erromantzearen antzinako A-dun aldaerak ere ez. **Orpustanek** (1990: 51-52) Corominesen eta Lemoineren etimologiak baztertu ondoren *Amikuze* eta *Lukuze*-ren artean uste den baino erlazio handiagoa datekeela gehitzen du, baina azalpen batek ere ez du asebetetzen. Gehienez ere toponimoaren oinarrian akitaniar izen zaharra (*ametz* edo *amiltza* 'amildegia' behar bada, baina nekez nolahi ere) eta *-os*-dun atzizkia daudela peutsa daiteke, Ortzaietako irakaslearen arabera.

31. Honelaz J. M. Roldán Hervasen "Sobre los Acusativos con 'ad' en el Itinerario de Antonino" lana ikus daiteke, *Zephyrus* 17, 1966, 109-119.

Aiziritze / Aïcirits

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 3): *Ayxeriis* (1472).

Goihenetxe (1966: 261): *Aychiritz* (1395), *Ayriz* (1396), *Ayxeriis* (1472).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en P. rector de las glisies de l'Apisto, de Behasquen e d'Ayxiritz* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 187): *Ayxeriis* (1472).

Orpustan (1990: 55): *ayxiritz* (1316), *aysiriz* (1350), *aychiritz* (1413).

Zierbide (1993): *Ayssiriz* (1350-1353, 34. or.), *Aychiritz* (1412-1413, 77. or.), *Ayssiritz* (1412-1413, 80. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Menaut de Goyheneche, et Anso d'Echevelce, de la parropie d'Aychiritz* (1395, 265, 95. or.).

Zabaltza (1997): *en P(ere), rector de las glisies de l'Alpisto, de Behasquen e d'Ayxiritz* (1316, 265, 453. or.).

Euskal Testuak:

- "D'Abbadie, erregue arras Ithurrotzen; / Aitoren seme cilhar, Salha **Aiciritzen**", Hiribarren (1853: 156).
- "Lantegi txiki batzuk ere badira han eta hor: maiasturgintza **Aitziritze** eta **Behauzen**", Casenave (1983: 15; Euskara Corpusa).
- "Euskal-herri barne huntarik beste batzu: Donapaleu, **Aiziritze**, **Behauze**, **Armendaritze**, **Irisarri**. Hiru apez baginituen gurekin: **Daniel Decha**, **Patxi Esponde**, **Tlotte Ardohain**", Hiriart-Urruti (iloba) (1992: 189).

Autoreek biltzen dituzten formak

Hatanek (1895: 11) *Aïsirits* du, **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX), **Caro Barojak - Hariztoik** (1945: 110), **Dassancek** (1966: 161) eta **Goihenezek** (1966: 261) *Aiziritze*. Beste aldetik, **Lhandek** (1926: XXXV, 24), **Lemoinek** (1977: 187) eta **Orpustanek** (1990: 55) *Aiziritz* jasotzen dute. Herritarren izena *aiziritzarr*, *Aiziritzarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *aiziritzar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehenengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Aiziritze* eta *aiziritzar* hautetsi zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Aiziritze* eta *aiziritzar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Aizítze eRáiten duté bérék, Aizitzèn, aiziztaRà (E. Larre), *Aizítze, Gámwetik Aizitzerát jwaníz, Aitzítzetik Gámwerát jiníz, ené adixkideá Aitzítzen egóiten dá, ené laguná Aitzítzekoá dá, AiziiztaRák, ené adixkideák badí étxeát Aiziítzen, wái hóri Gámwe ta Zwázi ta Aitzítze bezalá biak bíldjak dirá Lúkúzekin, Aizítzeko méra, Aizítzen dá* (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 11) 'haritz tokia' adiera ematen dio; **Vinsonek** (1909: 354) hidronimotako jotzen duen itz dakusa *Ainciritz*-en (sic). **Caro Barojak** (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Aiziritze* biltzen du eta erraten hau latineko *-ieus*-etik ateratako *-iz* atzizkia duten Hegoaldeko herri ize-ekin erlazionaturik dagoela; **Lemoinek** (1977: 187) 'bergerie' adiera duela dio eta *ahuntz*-etik atera dela. **Orpustanek** (1990: 55-56) aitzineko iker-tzailearen etimologia ezesten du, enskal hiztegian *ahuntz*-etik eratorritako *aisiritz* terminorik ez dagoelako eta toponimia zaharrear saroheei ("à des bergeries") erreferentzia egiten dien toponimorik ez delako³². Ortzazeko irakaslearen irudiko toponimoaren lehen osagaia *aitz* 'haitza' da eta bigarrena *ira* 'iratzea'; ez da garbi gelditzen bukaeran *-iz* atzizkia ikusi behar denez.

Gure iritzian egungo ebakerak eta dokumentazioak galarazten dute, nahiz beharbada ez erabat, toponimo honetan *haitz* ikustea; aspiraziorik ez azaltzeak ere ez du sobera laguntzen. Toponimo guztien etimologia argitzea ezin itzurizko betekizuna balitz, guk nahiago genuke *Aiziritze* Nafarroa Garaian errepikatzen den *Aizita* toponimo ilunarekin lotu (cf. *Aycita lusa-rra*, *Aycita berro*, *Aycita Berroa* Erroibarren, *Aycita Arakilgo* Etxeberrin, *Arite* bihurtua egun; ikus TAV, 2.1.8, Ostolatza, 1978, 170, 245. or., 290, 371. or., 291, 372. or. eta NTEM XIII, 63. *Axitate* orain erdaraz *Dos Hermanas* deitzen den harrartearen izena da; bukaera Baztango *Irurita*-n dugun bera izan daiteke).

32. Ez dakigu zer ulertzen duen Orpustanek xeheki "bergerie"-tzat, baina *sarohe* hitza behintzat ongi zaharra da; cf. Mitxelena TAV-en (2.1.8) biltzen dituen Orreagako 1284ko *Larraudorenen bi sarohe* eta *Urriztoyen bi sarohe*.

Altzümarta / Sumberraute

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 165): *Alsumberraute* (1472), *Alçumbarrate* (1513), *Azumbarraute* (1621).

Goihenetxe (1966: 277): *Alçunbarrate* (1381), *Alsumbarrate* (1393), *Alsumberraute* (1451).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en Bernart rector de la glisie d'Alçumbarraute* (1316, 166, 651. or.)

Lemoine (1977: 187): *Alsumberraute* (1472), *Alçumbarrate* (1513), *Azumbarraute* (1620).

Orpustan (1990): *alcumbarraute* (1316), *alçunbarrate* (1350, 1413).

Zierbide (1993): *Alçumbarrate* (1350-1353, 39, 41. orr., 1412-1413, 80. or.), *Alcumbarraute* (1412-1413, 82. or.).

Zierbide & Santano (1995): *totz los lox et afars de Yanteyn en Soule e d'Alsunberraute en Micxe* (1393, 249, 78).

Zabaltza (1997): *en Bernart, rector de la glisie d'Alçumbarraute* (1316, 265, 453. or.).

Euskal Testuak:

- “*Bai eta Altzumartan «XIRRIXTI MIRRIXTI GERRENIAN PLAT» eskaini zigutelarik, beti oroituko naiz, haren irri zabal maltsoaz eta haren eskuzarta beroez*”, Landart (1995: 108).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Azkuek (1969 [1905]: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 37), **Goihenetxek** (1966: 298) eta **Lemoinek** (1977: 187) *Alzumarte* dakarte, **Dassancek** (1966: 161) *Alzumarta* eta **Orpustanek** (1990: 64) *Altzumarta*. Herritarren izena *alzumartarr* (**Lhande**), *alzumartar* (**Dassance**), *Altzumartarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Altzumarta* eta *altzumartar* hautatu zituen, *Lukuze-Altzumarta* eta *lukuztar-altzumartar* segidetan.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Altzümarta* eta *altzümartar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Altzumartè (E. Etzarren), *Altzumartà*³³ (E. Larre), *AltzamaRtá, éne adixkideá ÁltzumaRtàn egóiten dá, ÁltzumáRtatik héldu níz Gámweràt, Gámwetik jwáiten níz AltzumáRtát, AltzumaRtàn*³⁴ *jénde gúti bízi dá, altzamaRtaRèk eskwára emáiten duté, altzumaRtaRèk*³⁵, *AltzumaRtakò*³⁶ *jéndék eskwára emáiten duté, áltzumáRtatik héldu níz* (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Luchairek (1874: 7) *Alsumherraute-k* (XV. m.) hastapeneko silabaren aferesia izan duela erraten du eta *Sumberraute* bihurtu dela, XVII. mendeko *Azumberraute* tarteko delarik. Hasteko *a-* hori *à* preposizioa zela pentsatu da, halakotzat hartu da, frantses toponimian usaiakoa den moduan.

Corominesen arabera (1972: 304), hasierako *Al-* gaskoiz artikulatu gehi toki preposiziotzat hartua izatearen ondorioz ezabatu zen beharbada. Jarraian etimologia *Alzu-n-berrueta* 'haltzen belagia' ere izan daitekeela erraten du; hemendik **Alzumarraute* aterako zen lehenik, eta gero, sinkopaz, *Alzumarte*. Nolanahi ere, arrazoizkoago iruditzen zaio itxuraldatutako izena erromantzea dela pentsatzea, *Berraute* / *Berrueta* auzo herriaren eraginez. Bilakera, kasu honetan, *Alzumarte x Berraute* > *Alzumberraute* zatekeen. *Alzumarte*, bestalde, *Alzuarde* 'haltz artea' > **Alzubarte-tik* atera izanen da. Azken aukeratzat oinarri etimologikoa euskal eta erdal aldaeren artean zegokeela kontu egitea proposatzen du hizkuntzalari katalanak: **Alzumarrarte* (< *altzu-zumarr-arte* haplogia bikoitzez) > *Alsumbarraute* (*Berraute*-reu eraginez). Bukatzeko, *-ueta* (euskara) ~ *-aute* (biarnesa) amaiera pareetan *altus*, *alta-tik* atera den biarnes izenetako *-aute* etimologikoak zerikusi handia izan duela erraten du.

Lemoinek (1977: 187) *altzu berro* 'haltz basoa' eta *-arte, -aute* 'ondoan, aldean' azaltzen du toponimou. **Orpustan** (1990: 64) akort da Corominesekin aldaera ofizialaren lehen silaharen tratamenduan eta erraten du izen honetan *altzu(n)-berro-eta* ditugula, hots, 'lieu de taillis où l'aulne abonde', parentsi arteko *n-k* aurreko *-u-*rekin toki atzizkia osatzen duela onartzen bada; *n* soinu *b-*ren aurreratze sudurkaria ("anticipation nasale") balitz 'lieu de taillis de l'aulnaie' ulertu behar litzateke leku izena. Beste lan batean (1999: 240) erraten du *alcumbarraute*-ren lehen osagaia (*h*)*altz* 'aulne'-ren eratorria den *alzu* dela.

33. Azentu nagusia *ü* gainean du toponimoak.

34. Azentu nagusia *ü* -ren gainean da.

35. Azentu nagusia *ü* -ren gainean da.

36. Azentu nagusia *ü*-ren gainean da.

Nolanahi ere den, gure irudiko, kontuan hartu behar da *berro* Nafarroa Garaian gaztelaniazko *artiga*, *artica*, *roza*-ren adierakidea dela, hots, lurra lantzeko botatzen den basoa adierazten duela, oker ez bagaude frantseseko *taillis*-ek erran nahi duenaz beste zerbait. *Berro*, aipatu zentzuarekin, Baztango Basaburuko *Berroeta*-n dugu; Iruñerriko Ezkaba mendiaren oinetan dagoen *Artika*, berriz, aitzinekoaren erdarazko baliokidea da.

Amendüze / Amendeuix

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 5): *Sent-Johan de mendux* (1472), *Armendux* (1513), *Amenduxs* (1600), *Amendux* (1621).

Castro (1957): *Amendoux* (1394, XX, 853, 368. or.).

Goihenetxe (1966: 263): *Aminduys* (1351), *Armenduys* (1364, 1394), *Amindux* (1387, 1388, 1389, 1391, 1395, 1396), *Amindace* (1394), *Mendux* (1395; 1472), *Amendux* (1396).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en Gaylart rector de la glisie d'Amindux* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 108): *de Mendux* (1472), *Armendux* (1513).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 14): *Mendux* (1427).

Orpustan (1990: 62): *amindux* (1316), *aminduch* (1350), *aminduz* (1413), *mendux* (1472).

Zierbide & Santano (1990): *bernat d'Echeguie, capera d'Amindux* (1380, 150, 151. or.).

Zierbide (1993): *Aminduch* (1350-1353, 38. or.), *Amindux* (1350-1353, 41. or.), *Aminduz* (1412-1413, 80, 81. orr.).

Zierbide & Santano (1995): *sapin totz que jo, Ramon, seynor de Larrasquar, de le parropi d'Amenduys* (1394, 258, 90. or.), *Sapin totz que jo, Guilhem Arnaut de Goythie, de la parropie d'Amindux* (1395, 267, 96. or.), *Gasernaut d'Amindux* (1406, 354, 211. or.).

Zabaltza (1997): *en la parropie d'Amindux* (1316, 265, 452. or.), *en Gaylart, rector de la glisie d'Amindux* (1316, 265, 453. or.).

Euskal Testuak:

- "Barkoize, Domiziñe, Lohitzune, Mitriña, **Amendüze**, Ispura, Larzebale (...)", Tartas (1975 [1666]: 3).

- "Gero Bazko Egunez, Meza saindua **Amenduzen**, eliza jendez betea, koralak kantu ederrak kantatu dituela", egile ezezaguna (*Herria*, 1989-04-06, 1998 zk., 5, Euskara CorpUSA).

"Donibane Lohizune, Senpere, Ezpeleta, Ostanko eta **Amendozeko** alkateak izan ziren Herri Urrats-en eta beste berrogeiren bat kontzejal", J. Agirre (*Egin*, 1990-5-14, 4).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 11) *Amenduse* jasotzen du, **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI), **Dassancek** (1966: 161), **Goihenetzek** (1966: 263) eta **Lemoinek** (1977: 108) *Amenduze* dakarte, **Caro Baroja - Hariztoik** (1945: 110) *Amenduze*, *Amendutze* eta **Orpustanek** (1990: 62) *Amendüze*, *Amindüre*. Herritarren izena *amenduztar* (**Dassance**), *Amendüztar* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Amenduze* eta *amenduztar* onetsi zituen, *Amenduze-Unaso* eta *amenduztar-unastar* izendapen bikoitzetan ikus daitekeen bezala.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Amendüze* eta *amendüztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Améndüzèn, améndüztaRà (**E. Larre**), *Améndüzè, améndüztaRàk, éne adáxkideà Améndüzèn bizi dá, améndüztaRèk eskwára emáiten duté, Améndüzekwék³⁷ eskwára emáiten duté, egwéRditán ábja níz bazkáiteà Améndüzeà³⁸, Améndüzetik, Améndüzen bazkáldwik héldu níz étreàt* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpeuak:

Luchairek (1874: 8) *Mendux* (XV. m.) *Amendeuir* baino zaharragoa dela uste du eta hau hartatik atera dela, *a* protetikoa eranstearen ondorioz; **Hatanen** arabera (1895: 11) 'lur landugabeen alderdia' erran nahi du izenak.

Caro Barojak (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Amenduze*, *Amendutze* biltzen ditu, ikusi dugunez, eta erraten hau latineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atzizkia duten Hegoaldeko herri izenekin erlazionaturik dagoela. **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 14) *a* preposizioa eta *mendi* dakuskite topouimoaren osagaitako; **Lemoinek** (1977: 108) oinarrian *armentaria* 'élevage de gros bétail' dagoela uste du. **Orpustanek** (1990: 62) aitzinekoen azalpenak

37. Azentu nagusia lehen *ü*-ren gainean da. Hemen gure hizkeraren eragina izan duke informatzaileak.

38. Azentu nagusia *ü*-ren gainean da.

ezesten ditu eta akitaniar-erromatar antroponimoa proposatzen; atzizkia *-oz* akitaniarra dateke, zein *-uz* bihur baitaiteke. Zernahi dela, bestelako azal-
bideak ere ez ditu guztiz baztertzen.

Oharra:

XVI. mendeko Iruñeko olerkariaren deitura *Amendux* zen (*Juan de Amendux* edo *Juanis Amendux*); irudi duenez etorkia Nafarroa Behereko lurretan zuen, Amendüzen hain segur ere (ikus Jimeno Jurio, 1996).

Amorotze / Amorots

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 5): *Amoroz* (1402), *Amorotz* (1513).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 15): *Amoroz* (1402).

Castro (1957): *Amorotz* (1394, XX, 853, 368. or.).

Goihenetxe (1966: 264): *Amaroz* (1293, 1388, 1394), *Amoroz* (1402), *Amorotz* (1408).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en Ville Pere rector de las glisies d'Amarotz e de Succos* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 229): *Amoroz* (1402), *Amorotz* (1513).

Orpustan (1990: 70): *amaroz* (1292, 1350), *amarotz* (1305, 1413), *amoroz* (1402), *amorotz* (1513).

Zierbide (1993): *Amaroz* (1350-1353, 35. or., 1412-1413, 84. or.), *Amarotz* (Amorotzeko "sala" bat, 1412-1413, 84. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Sapien totz que jo, Bertran d'Amarotz, baille de la biele de Sent Palay* (1435, 343, 174. or.).

Zabaltza (1997): *en Villem Pere, rector de las glisies d'Amarotz e de Sucos* (1316, 265, 453).

Euskal Testuak:

- "Horra Ama Birjinari emana **Amoroztarren** bihotza", Soubelet (1947: 85, Euskara Corpusa).

- "Zare hortan **Amoroztarren** ezarriak dituzte beren konsekratzeko pape-rak, beren sinadurekin", Soubelet (1947: 85; Euskara Corpusa).

- "Eta orai bazkaiteko tenoria baita, igortzen dauxut **Amorotzeko** letra, Ximon bazketan egon zena", Luzaideko letra argitaragabea, 1970ekoa.

- "Gure jendakia parte bat Donoztiri, **Amorotze** eta Mehainen izanki eta, hiru herri horietako berri nihork ez zakien Juanak baino hobeki", Mendisko (1990: 54).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Amorotze* jasotzen du eta **Hatanek** (1895: 12) *Amorots*. **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 40), **Caro Barojak** - **Hariztoik** (1945: 110), **Dassancek** (1966: 161), **Goihenetzek**

(1966: 264), **Lemoinek** (1977: 229) eta **Orpustanek** (1990: 70) *Amorotze* biltzen dute. Herritarren izena *amoroztarr*, *Amoroztarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *amoroztar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak *Amorotze* eta *amoroztar* proposatu zituen (1979: 99), *Amorotze-Zokotze* eta *amoroztar-zokhoztar* pareetan ikus daitekeenez.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Amorotze* eta *amoroztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Amorotzè, Amorótz, Amòrotzén, amoróztaràk, amàroztaRà (**E. Larre**), *Amorótze, Amoróztaràk, amoróztaràk eskwàra emàiten dutè, Amóotzeàt àbja níz bazkáitea, Amoótzén bazkáldwik héldu níz ètzeàt, ène adishideà Amórotzèn bizi da, GobeRnaméndjak emán dú Amorózekò héRiari honèn-beste sós* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 12) *Am-arotze* zatitzen du izena eta 'vallée pierreuse' itzultzen; eliza eta gaztelua haitzean eraikiak direla azaltzen du eta harrobia dagoen ibarretik hurbil daudela. **Menéndez Pidalek** (1962 [1918]: 85), *-otz, -otze* bukaeraz ari delarik, Orenseko *Amoroce*, Lleidako *Amorós* eta Bizkaiko *Amoroz* aipatzen ditu, eta Bizkaiko *Amorebieta* (*Zornotza*) eta *Amoroto*-rekin alderatzen; ikertzaile honen irudiz bukaerako *-otz* hori *hotz* izenondoa izan daiteke, edo *-otz, -kots* atzizki iberikoa. Zenbait herri izenek aurkezten duten amaierako *-e* horretaz kestione, dialektalismoa edo arkaismoa dela azaltzen du, eta gehienbat Nafarroa Beherean eta Erronkarin aurkitzen dela, *Amorotze, Bardotze, Bidankoze* eta *Uztarrotze*-k erakusten duten gisan. Filologo espainolak **A. Tovarrekin** egindako beste lan garrantzitsu batean (1962: 389) erraten du Nafarroa Behereko *Amorots*-en oinarrian *Amor* dagoela, Gipuzkoako *Amorós*-en eta Bizkaiko *Amorebieta, Amoroto*-n bezala.

Caro Barojak (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Amorotze* biltzen du, ikusi dugun moduan, eta erraten hau latineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atzizkia duten Hegoaldeko herri izenekin erlazionaturik dagoela. **Rohlfsek** (1952: 227) Galiako inskripzioetan ageri den *Amor* cognomenaren bidez azaltzen du toponimoa; bukaera *-ossu, -ossus* edo *-össu* da ikertzaile honen arabera. **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 15) *Amor* gizon izen galiarra eta *-ossum* akitaniar atzizkia dakuskite osagaitzat. **Lemoinek**

(1977) okzitanierazko *amorièr* 'mûrier'-ekin lotzen du; bukaerakoa autore honen iritzian *-tze* euskal atzizki multzokaria da, oraingoan indartzeko xedea duena. **Orpustanek**, dokumentazioko lekukotasunetan oinarrituz, *Amor* galiar antroponimoa eta gaskoiko *amouré* 'ronce, mûrier' baztertu, eta *abar* 'abarra'-ren eratorritzat hartzen duen *abariz* 'chêne vert' proposatzen du. Ezpainbikoaren sudurkaritzea aise azal daiteke ikertzaile honen arabera; bukaera *Amikuz(e)*, *Aminduz(e)* eta *Amarotz(e)*-ren arteko analogiari zor zaioke menturaz.

Irigoienek (1990: 70) Orpustanen lanaren kritika egitean erraten du ortzaiztarrak ongi jokatu duela *Amor* izenean oinarritutako azalbidea arbuiatzearekin, dokumentaziorik zaharrenean *Amaroz*, *Amarotz* baita toponimoa, baina uste du "lieu de chênes verts" azalpena ez dagoela frogaturik.

Oharra:

Nafarroa Garaiko herri zenbaitetan ezaguna da *Amadoz* deitura.

Arberatze / Arbérats

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 8): *Arberas* (XIII. m.), *Arberatz* (1487), *Arberaz* (1513), *Arbérats-Sillègue* (1841ean batu zirenetik).

Raymond (1873): *Arberas* (c. 1125, 79, 63. or.), *Arberaz* (1150-1167, 117, 99. or.), *Arberatz* (1150-1167, 147, 142. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 8): *Arberas* (XIII. m.).

Goihenetxe (1966: 265): *Arberas* (c. 1125, XIII. m., 1397), *Arberaz* (1150-1167, 1387, 1396, 1428), *Arberatz* (1150-1167, 1396, 1487), *Arueraz* (1388), *Arberayz* (1388).

Gartzia Larrageta (1976-77): en *Villem Arnalt seynner d'Arberatz; los perropiantz de las dites perropies e us perropiantz d'Arberatz* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 229): *Arberas* (XII. m.), *Arberatz* (1487), *Arberas* (1513).

Orpustan (1990: 56): *arberas* (1125), *arberatz* (1150-67, 1413), *arberaz* (1350).

Zierbide (1993): *Arberaz* (1350-1353, 33. or.), *Arberatz* (1412-1413, 77. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Sapien totz que jo, Martin d'Arberatz, bezin de la terre de Micxe* (1397, 286, 111. or.).

Zabaltza (1997): en *Villem Arnalt, seynner d'Arberatz donzetz (...) las dites perropies e us perropiantz d'Arberatz* (1316, 265, 453. or.).

Euskal Testuak:

- "Jauregi ederrak badira ere **Arberatzen**, Bizkaian, Etxarrin, Itorrotzen, Lukuzen eta Uhart-birin", J. Casenave (*Amikuze*, 1983: 9; Euskara Corpusa).
- "Ziklomotorrean zozalarik, 30 urteko gizon bat, Michel Herouard, sortzez **Arberatzekoa**, hainan Savoie eskualdean ari zena lanean eta bakan-tzetarat etorria berriz Euskal-Herrirat, erori da arbola bati kontra joa-nik; handizki kolpatua ereman dute artategi batetarat bainan zombait orenen buruko eman du bere azken hatsa", egile ezezaguna (*Herria*, 1984-06-28, 1759 zk., 2; Euskara Corpusa).
- "Baditugu bai herriak lagundu eta kuraieztatu gaituztenak hala-nola Sara, Urruña, Azkaine, Zuraide, Itsasu, Aiherra, Bidarra, Heleta, **Arberatze**, Irisarri, Aldude, Urepele, Baigorri eta ahantziek barka", Larre (2001: 248).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Arberatze* jasotzen du, **Hatanek** (1895: 10) *Arbeats*, **Azkuék** (1969 [1905]: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 53), **Dassancek** (1966: 161) eta **Orpustanek** (1990: 56) *Arberatze*. **Caro Barojak** – **Hariztoik** (1945: 110) eta **Lemoinek** (1977: 229), bestalde, *Arberatz* biltzen dute. Herritarren izena *arberaztarr*, *Arberaztarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *arberaztar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Arberatze* eta *arberaztar* onartu zituen, *Arberatze-Zilhekoa* eta *arberaztar-zilhekoar* segidetan.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Arberatze* eta *arberaztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Arbéatzè (**E. Etxarren**), *ARBératzè*, *ARBératzén*, *aRBératzén* (**E. Larre**), *ArbéRatze*, *aRBéRaztaRák*, *aRBéRaztaRák dénak abératsak díra*, *ARBératzén jénde gúti bízi dá*, *ARBératzeát ábja niz bazkáiteà*; *ARBátzetik héldu níz hán bazkáldwik*, *ARBéRatzeò eRíko etxeà háundia dá*; *Zilekwá, órirè jüntátja dá Arbátzekin* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 10) uste du izenak *ar-beats* ‘harri beratza’, ‘harriurdina’ adiera duela; inguru guztia harri mota horretakoa da autore honen arabera. **Caro Barojak** (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Arberatz* biltzen du, ikusi dugunez, eta erraten hau latineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atzizkia duten Hegoaldeko herri izenekin loturik dagoela.

Dauzat & Rostaingek (1983 [1963]: 8) latin berantiarreko *albarus* ‘zumartxuria’ eta *-aceum* atzizkia dakuskite topouimoaren osagarritzat. **Lemoinek** (1977: 229) latineko *arbores*-en eratorritzat jotzen du eta ‘le gros arbre’ adiera ematen; *-tze* euskal atzizkiaren “indartzea” nabarmentzen du. **Orpustanek** (1990: 56) Lemoinek proposatutako etimologia arbuaitzen du eta dio toponimo honen erroa *Arbéroue*-n dugun bera dela, (*h*)*arr*- ‘harria’-ren elkartu bat, *arbel* segur aski, baina *bera*, *beratz* ‘fragile, tendre’ ez du zokoratzen, ez eta *belhar* ‘belarra’ ere. Lehen osagaia, hortaz, **arberaitz* ‘hauteur ou lieu rocheux d’ardoise’ dateke autore hauen irudiko. Bestalde, ezin da baztertu, ortzaiztarraren arabera, bukaeran *-itz* atzizkia dagoelako ustea.

Arboti / Arbouet

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 9): *Arboet* (1472), *Arbuete* (1621), *Arbuet* (1621).

Raymond (1873): *Arbut* (1119-1136, 83, 69. or., 99, 82. or.; c. 1125, 79, 63. or.; 1150-1167, 142, 116. or.), *Arbet* (1119-1136, 97, 81. or.).

Castro (1957): *Arbouet* (1394, XX, 853, 368. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 23): *Arboet* (1472).

Goihenetxe (1966: 266): *Arbet* (1119-1136), *Arbut* (1119-1136, 1116-1150, 1125, 1150-1167), *Arboet* (1320, 1351, 1381, 1387, 1389, 1394, 1472), *Arrhoet* (1388), *Arboeta* (1375), *Arbuet* (1388).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en Brun, seynner d'Arboet; en P(ere) rector de las glisies d'Arboet e de Suhast* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 229): *Arboet* (1472), *Arbuete* (1621).

Orpustan (1990: 57): *arbet* (1119-36), *arbut* (1125), *arboet* (1350, 1413).

Zierbide & Santano (1990): *Goaylart d'Aguerre, capera d'Arboet* (1380, 150, 151. or.).

Zierbide (1993): *Arboet* (1350-1353, 27, 29. orr., 1412-1413, 78, 80. orr.).

Zierbide & Santano (1995): *Bernat, seinhor de l'ostau et sale d'Arboet, alcayt do castet Renaut en la terre de Micxe* (1435, 344, 175. or.), *Goaylhart d'Aguerre, capera d'Arboet* (1372, 354, 203. or.).

Zabaltza (1997): *en Brun, seynner d'Arboet (...) en P(ere), rector de las glisies d'Arboet e de Suhast* (1316, 265, 453. or.).

Euskal testuak:

- "**Arbutiko** trikaldira jo duteneko, jausten da oihuz eta abiatzen", Arbelbide (1890: 5).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170), **Raymond** (1863: 9), **Hatanek** (1895: 11), **Azku** (1969 [1905]: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 53), **Dassancek** (1966: 161), **Goihenetxek** (1966: 266), **Lemoinek** (1977: 229) eta **Orpustanek** (1990: 57) *Arboti* dute. Herritarren izena *arbotiarr*, *Arbotiarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *arbotiar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Arboti* (*Arboti-Zohota*) eta *arbotiar* (*arbotiar-zohotar*) hautetsi zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Arboti* eta *arbotiar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

E. Etxarrenengandik *Arbüti*, *béren ärtjan* "Arbüti" (*erten dute*); *Arbüti erräin duü bá bildu* genuen. **E. Larrek** honela erran zuen, **E. Etxarrenena** aditu eta ondoan: "Arbouet" zuk oixtian eRán duzü "Arbüti", baina "Arböti" eré eRäiten dá; *ÄRbutin*; *aRbütjaRä*. **EHHA**en *Arböti*, *Arbüti* biltzen dira herriaren izentzat eta *arbótiar*, *arbótizotáko* ('Arboti-Zohotako') herritarren izentzat. **L. Kuriri** ondoko lekukotasun hauek hartu genizkion: *Arböti*, *aRbötjaRäk*, *aRbötjaRèk* *eskwära emäiten duté*, *ArbötiRät äbja níz*, *ARBótitiik héldu níz*, *ARBótira juáiteko beaR dá Gámutik pasátu*, *ARBótitiik beaR dá Gámuko bídja äRtù*, *ARBótin bízi dirá éhün bát jénde*.

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 11) 'harri blokea' erranahia ematen dio toponimoari. **Vinsonen** arabera (1909: 355) aldaketa eufoniko hutsak edo hondarki nahasketak dira herri izen honen euskarazko eta erdarazko aldaeren artean daudenak; gauza bera pentsatzen du *Garazi / Cize-z* eta bestez. **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 23) oinarrian zentzu iluneko **arb-* dagokeela diote eta hau menturaz latiuaren aurreko *alba*-rekin loturik zatekeela. **Lemoinek** (1977: 229) latineko *arbustum*-en eratorritzat hartzen du.

Orpustanek (1990: 57-58) gaskoiko *arbe* edo latinetikako mailegua den *arbol(a)* (< *arbore*) dakusa toponimoaren oinarritako eta *-ti* atzizkitako. Alegia, *arbol-ti* 'plantation d'arbres' dugu hemen; normalean *arbodi* izan behar zukeen, baina "la proximité souletine"-k atzizkia ahoskabearazi du. Zernahi dela, aipatu oinarria euskal toponimian ez agertzeak ustekari hori ahultzen du; honen doblete zehatza *Zohazti* da ortzaiztarraren irudiko.

Arrueta / Arraute

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 11): *Arrauta* (1513), *Arrueta* (1621), *Arraute-Charritte* (1842an bat egin zutenetik).

Raymond (1873): *Aner Salduna de Arraute, villa que vocatur Arrauta* (c. 1125, 94, 79. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 29): *Arraute* (1513).

Goihenetxe (1966: 266): *Arrauta* (c. 1125, 1361), *Arraute* (c. 1125, 1249, 1328, 1351, 1364, 1395), *Arrueta* (1394).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en Pere Arnalt, seynner de Lizeche d'Arraute* (1316, 166, 651. or.), *en per A(rnalt) seynher d'Eliceche d'Arraute* (ibid., 658. or.).

Lemoine (1977: 111): *Arrauta* (1513), *Arrueta* (1621).

Orpustan (1990: 68): *arraute* (1125, 1249, 1413), *araute* (1350).

Zierbide (1993): *Araute* (1350-1353, 36. or.), *Arraute* (1412-1413, 80, 83. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Sapin totz que jo, Bernat d'Elhordoy, de la parropie d'Arraute* (1395, 273, 101. or.).

Zabaltza (1997): *en Pere Arnalt, seynner de Lizeche d'Arraute* (1316, 265, 453), *en Villem Arnalt, rector de la glisie d'Arraute* (ibid.), *en Per A(rnalt), seynher d'Eliceche d'Arraute* (ibid., 458. or.).

Orpustan (1999: 306): *arrueta* (1102), *arraute* (1110).

Euskal Testuak:

- "Egun zortziko Eskualdunean irakurtzearekin, Tissier deitu **Arrotako** auzapez orroitgarria burutik joan zela (...)", Hiriart-Urruti (1971: 125).
- "...bere makilaren xuritzeko, bereak aditurik dago hementzet **Arrotako** auzapez ohia. Gaizki diot; ohia; ezen ez da oraino haren ordaina izendatua. Izaitz ez bada, bederen izenez erro izigarri bat du oraino meratzat **Arrotako** herriak, on bazaio eta ez bazaio", Hiriart-Urruti (1971: 126).
- "Bertzalde nehon guti bezalako buruzagi geiak bazitazken **Arrotan**", Hiriart-Urruti (1971: 128).
- "Hola-hola erraten zuten **Arrotako** merarentzat; halere hura **Arrotarrek** meratzat atxiki; zenbat urtez? **Errotu arte**", Hiriart-Urruti (1971: 131).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170), Azkuek (1969 [1905]: XXIX), Lhandek (1926: XXXVI, 76), Lemoinek (1977: 111) eta Orpustanek (1990: 68) *Arrueta* biltzen dute eta *Hatanek* (1895: 12) *Arruta*. Herritarren izena *arruetarr*, *Arruetarr* (*Lhande*, *Orpustan*), *arrutar* (*Dassance*) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Arruta* (*Arruta-Sarrikota-Amikuze*) eta *arrutar* (*arrutar-sarrikotar*) hautetsi zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Arrueta* eta *arruetar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Arróta (E. Etxarren), *ARúta*, *ÁRután*, *aRútarrà* (E. Larre), *Árruta*, *arrúatar* (EHHA), *ARóta*, *ArótaRèk* (erg. pl.), *Arótako méra éne axhíde háundja dá*, *Arrótan éne kúsja bízi dá*, *ARótaRát ábja níz*, *Arrótatik³⁹* (*h)éldu níz etxerát* (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 12) *Arri-uta* ulertzen du izena eta 'ura ematen duen harria' adiera duela erraten; elizatik hurbil, haitzean, iturria dagoela gehitzen du. Dazut & Rostaingek (1983 [1963]: 29) *harr*- 'harria'-z eta atzizki ilun batez osaturik dagoela uste dute (ikus *Arroze* sarrera). Corominesek (1972: 301) Mitxelena (AV, 90) *Arroeta* deitura azaltzeko aipatzen duen *arro*, **arru* 'erreka' ('barranco') bera dakusa *Arrueta* izenean; erdarazko aldaera biarnesaren eraginari zor zaiola erraten du eta *Arrueta*-rekin *Berrueta* / *Berraute*, *Sorhueta* / *Cheraute*, *Zozueta* / *Sussaute* dauden erlazio berean dagoela.

Lemoinek (1977: 111) *Arrueta* Antoninoren itinerarioan Bidaxunetik *Carasa*-rako (Garrúzerako) bidean dagoela dio eta, horregatik, *route*-rekiu lotzen du. Orpustanek (1999: 68) *harri*-ren elkarketako *arru* aldaera proposatzen du oinarritako, baina gaskoiko *arroû* fitonimoa eta bizkaierazko *arro* 'fondrière' ere aipatzen ditu; atzizkia *-eta* ezaguna da. Beranduagoko beste lan batean (1999: 306) erraten du *Arrueta*-n "zalantzarik gabe" *harri*-ren elkarketako aldaera den *arru*- dagoela; gehitzen du 1110eko *arraute* 1102ko *arrueta*-ren erdarazko aldaera zela.

39. Orainguan Hegoaldeko dardarkari azkarraren oso antzekoa den soinua eman du.

Behaskane / Béhasque

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 26): *Behasquen* (1513), *Behascan* (1621), *Béhasque-Lapiste*.

Raymond (1873): *Befasken* (119-1136, 84, 69. or.; 1120, 7, 7. or.), *Besascen* (1241, 78, 62. or.), *Beasquen* (1246, 159, 135. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 67): *Behasquen* (1513).

Goihenetxe (1966: 269): *Befasken* (1119-1136, 1120), *Besascen* (1241), *Beasquen* (1246, 1351, 1387, 1388, 1389), *Behasquen* (1351, 1378, 1385, 1396), *Beasque* (1378), *Beasquin* (1398), *Beasca* (1406).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en pere seynner de Behasquen; Behasquen* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 123): *Behasquen* (1513, XVIII. m.), *Behascan* (1612).

Orpustan (1990: 53): *befasquen* (1120), *beasque* (1344), *basquan* (1344), *beasquen* (1350), *behasquen* (1413).

Zierbide (1993): *Behasquen* (1350-1353, 27, 32. orr.), *Behasque* (1412-1413, 76. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Menaut de Behasquen, bezin de la terre de Micxe* (1397, 286, 111. or.).

Zabaltza (1997): *en Pere, seynner de Behasquen (...) en P(ere), rector de las glisies de l'Alpisto, de Behasquen e d'Ayxiritz* (1316, 265, 453. or.).

Euskal Testuak:

- "Iragan urtean, **Behaskanetik** horat joana den etzeko jaun batek bildu omen ditu bere lurretan berrogei-ta-hamar mila zaku ogi, duela hamabortz urte ez baitzukeen gaitzeru xoil bat!". J. Etxepare (1988: 268).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Behascane* dakar; **Hatanek** (1895: 10) *Behaskane* jasotzen du, baina hau, irudi duenez, bere etimologia funtsatzeko darabil. **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 128), **Dassancek** (1966: 161) eta **Goihenetzek** (1966: 269) *Behaskane* biltzen dute. **Orpustanek** *Beshaskane* du liburu batean (1990: 53) eta *Behaskan(e)* bes-

tean (1999: 276). Herritarren izena *behaskaindarr*, *Behaskaindarr* (Lhande; Orpustan, 1999: 53), *behaskandar* (Dassance) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Behaskane* (*Behaskane-Laphizketa*) eta *behaskandar* (*behaskandar-laphizketar*) eman zituen aldaera araututzat.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Behaskane* eta *behaskandar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Beaskanè, beáskandaRàk, Beáskaneàt ábja níz, Beáskanetik héldu níz, Beáskanèn baüt küsiát, gizon orí Beáskanekò dá, Beáskanè héRi ttipi bát dá; hóri jüntatja dá, óxtjan pasatü tü Beáskanè, Beáskanekin jüntátja dá hóri, Laphizkéta (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 10) *Arbeits-gane* dakusa izen honetan eta 'Arberatze(ko) gaina', 'goiko harri beratza', 'goiko Arberatze' ulertzen. Behaskane Arberatze gainean dagoela erraten du eta lehen silaba kendu zaiola, *ditugu* > *tugu*-n bezala. Bestalde, autore honen arabera, belare ahoskabeak ahostuna ordezkatu du, *golpe* / *kolpe*-n gertatu moduan.

Mitxelena (1969b: 401), Johannes Hubschmiden liburu baten erre-scina egiterakoan, *Béhasque* / *Behaskane* ukitzen du eta dio euskarako aldaeraren amaierako *e* segur aski berria dela, baina ez tarteko *-h-*; dokumentatzen diren gaskoi aldaerek azentua bigarren silaban zegoela adierazten dutela gehitzen du. **Beasko* azaltzeko era bat baino gehiago dau-dekeela gaineratzen du, eta horietako lehena *-besteak*, zorigaitzez, ez ditu aipatzen—*behe*-ren elkartetako aldaera den *beha-* eta *-sko* atzizkia (txiki-garri eta hipokoristikoa) ditugula pentsatzea da. Ustekari honi aurkitzen dion oztopoa *gogeoasco*- kidea eukitzea da (*goi(h)en* superlatibotik atera ote den galdegiten dio errenteriarrek bere buruari), honek ez baitu, itxuraz, aipatu azalpena onartzen.

Dauzat & Rostaingek (1983 [1963]: 67, 704) *Véhasque*-ren tankerako izena dela diote; hondarreko honetan **ven-*, **vin* izen aurrezeltikoa eta *-asca* atzizkia dakuskite. **Lemoinek** (1977: 118, 123) oinarrian *Vinacius* antroponimoa dagoela uste du eta bukaera *-anum*-en maskulino plurala den *-anos*-etik atera dela, bokalarteko *-n*-ren erortzeaz eta amaierakoaren (amaierako txistukariaren?) indartzeaz.

Orpustanek (1990: 53-54) bi azalbide aipatzen ditu:

a) *Belasco* antroponimoa (< *bel*, *beltz* 'beltza' eta *-ko* txikigarritik) eta latineko *-anum*, *-aneum*-etik ateratako atzizkia, jabegoa adierazten duena.

b) *Belhar*, *berar* 'belarra' + *tz* multzokari edo ugaritasunezkoa + *gain* 'hauteur où l'herbe abonde'.

Beranduagoko beste lan batean (1999: 276) erraten du izen honen erroa, *Bazkazane*-rena bezala, antroponimo edo "etniko" biziki zaharra izan daitekeela; bukaera *-en* atzizkia da, *-ain* / *-ein*, *-en(t)z*, *-in* eta *-ano*-rekin batean bukaeran sudurkaria duten atzizkien multzoan sailkatzen duena.

Iglesiasek (1998: 9) Galiziako *Beasque*-rekin lotzen du Nafarroa Behereko toponimoa eta erraten du honek Orpustanen hipotesia, oinarrian *Velasco* antroponimoa dagoela dioena, baiesten duela.

Oharra:

Duzunaritzen *Beascandegui* etxea dokumentatzen da 1350-1353an (Zierbide, 1993, 58. or.).

Behauze / Béguios

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 26): *Beyos* (XII. m.), *Beios* (XIII. m.), *Beguiuos* (1513), *Beygoz* (1621).

Raymond (1873): *Bigaoos* (1105-1119, 57, 45. or.), *Bigios* (c. 1125, 79, 63. or.), *Bigaos* (1119-1136, 83, 69. or.), *Beguios* (1150-1167, 117, 99. or.; 1246, 158, 133. or.), *Biguios* (1176, 182, 156. or.; 1246, 159, 135. or.).

Castro (1957): *Beguios* (1394, XX, 853, 368. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 67): *Beyos* (XII. m.), *Beguiuos* (1513).

Goihenetxe (1966: 268): *Bigaoos* (1105-1119), *Bigios* (c. 1125), *Bigaos* (1119-1136), *Beguios* (1150-1167, 1246, 1293, 1304, 1353, 1368, 1381, 1388, 1389, 1393, 1394), *Biguios* (1176, 1246), *Beios* (1249), *Beguioz* (1394), *Beguiouz* (1396), *Beguios goico* (? , 1396).

Gartzia Larrageta (1976-77): *mosseyenner en Pere, seynner de Begrios; n'Arremon rector de la glisie de Beguios* (1316, 166, 651. or.).

Orpustan (1990: 65): *bigios* (1125), *bigaos* (1119-36), *beguios* (1249, 1264, 1350), *beguioz* (1413).

Zierbide & Santano (1990): *Per Arnaut de Recalde, capera de Beguios* (1377, 35, 103. or.).

Zierbide (1993): *Beguios* (1350-1353, 36. or.), *Beguioz* (1412-1413, 80 eta 82. orr.).

Zierbide & Santano (1995): *sapin totz que jo, Guassernaut, seynor d'Iturodse, de le parropi de Beguios* (1394, 255, 87. or.), *Sapin totz que jo, Johanicot d'Itursarrii, de la parropie de Beguios* (1395, 262, 93. or.), *Bernat de Lucxe, capera de Beguios; Bernat d'Arrantegui et Pes de Beguios, porter* (1395, 262, 93. or.).

Zabaltza (1997): *mon seynner en Pere, seynner de Begrios* (1316. 265, 453. or.), *n'Arremon, rector de la glisie de Beguios* (ibid.).

Carrasco (1999-1): *Jacue de Beguios, 20 libras* (1266, 281. or.), *Al seynnor de Belçunça et a don Pes de Mearin et a don Jacube de Beguios, 60 kafices dono per litteras regis* (1266, 354. or.).

Euskal Testuak:

- "Herritar bezala, eta ahaidegoz, Mocoçain **Behauzeko** erretorak du egin elizako ezkontza; gero eman du aholku bat, zuhurrenetarik", J. Etxepare (1988: 182).

- "Lantegi txiki batzuk ere badira han eta hor: maiasturgintza Aitziritze eta **Behauzen**", Casenave (1983: 15; Euskara Corpusa).
- "Eman ziozkan hiru seme: Gabriel ukan zuen premu eta ondoko; Pierre apheztu zen eta **Behauzeko** erretor izan; Jacques jesuistetan (sic) sartu", Lafitte (1990: 121).
- "Euskal-herri harne huntarik beste batzu: Donapaleu, Aiziritze, **Behauze**, Armendaritze, Irisarri. Hiru apez baginituen gurekin: Daniel Decha, Patxi Esponde, Ttotte Ardohain", Hiriart-Urruti (iloba) (1992: 189).
- "Holaxe ginuen guk gogotik hautatzen, baktotxak gure moldatzaile-kofessorra: aita Berrogain donapaleutarra, hunek arrakesta haundia, ala aita Barnetche **behauztarra** (...)", Larre (2001: 194).
- "...Domingo Eyherabide Suhuskune Salaberriko apeza, Piarreño Mogaburu **Behauze** Goitikoa eta Graxien Heguy Ortzaiz Irotxgaraikoa", Larre (2001: 308).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Beguioce* dakar, **Raymond**ek (1863: 26), **Dauzat & Rostaing**ek (1983 [1963]: 67) *Béhauce*, **Hatan**ek (1895: 12) *Behause*. **Azkue** (1969 [1905]: XXIX), **Lhande** (1926: XXXVI, 128), **Caro Barojak - Hariztoik** (1945: 110), **Dassance** (1966: 161), **Lemoine** (1977: 190) eta **Orpustan**ek (1990: 65) *Behauze* biltzen dute. Herritarren izena *behauztarr*, *Behauztarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *behauztar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Behauze* eta *behauztar* hautatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Behauze* eta *behauztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Beáuze, *Beáuzen*, *beáuztarà* (**E. Larre**), *Beáuze*, *Béauzè*, *beáuztaràk*, *beáuztarèk* *eskwàra emàiten duté*, *Beáuzeàt àbja níz*, *Beáuzetik èldü níz etxeràt*, *Beáuzen* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 12) *Bèha-use* zatitzen du izena eta 'ur beheragunea', 'uretik hurbil den beheragunea' azaltzen; *Behauze* Lüküzeko eta Garrüzeko

gainen beheko aldean dagoela dio eta behean badela erreka bat. **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 67) erdarazko aldaera iluna dela diote eta erroa *Béguar* eta *Bigorre*-n dagoen *beg-*, *-big-* akitaniar erro bera dela. Euskarazko aldaerak beste etorki bat duela uste dute, eta osagaiak hizkuntza honetako *bé* 'bas' eta *hautz* 'cassure' direla. **Lemoinek** (1977: 190) *begi*, *be*, *bet*, *beth*, *betha* 'oeil, trou d'eau, source' dakusa izen honen oinarrian. **Orpustanck** (1990: 65) bukaera *-oz* akitaniarra edo *-auz* euskalduna dela uste du; oinarriaz kestione, "rien n'est évident dans ce nom" dio lehenik, baina gero ezin tentazioari itzuri eta gure ustean ez bururik ez buztanik ez duten azalpenak ematen ditu.

Bithiriña / Beyrie-sur-Joyeuse

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 30): *Beyrie* (1472), *Beyria* (1621), *Veyria* (1621).

Raymond (1873): *Beiria* (1072-1105, 17, 15. or.; 1105-1118, 58, 47. or.), *Beyrina* (c. 1125, 79, 63. or.), *Beyrie* (1119-1136, 83, 69. or.; 1150-1167, 121, 104. or.), *Beirie* (1119-1136, 83, 69. or.), *Beiries* (1119-1136, 83, 69. or.), *Beirina* (c. 1125, 95, 79. or.; 1119-1136, 150, 114. or.), *Berie* (1119-1136, 140 agiria, 114. or.), *Beire* (1150-1167, 121, 104. or.).

Castro (1957-58): *Beyrie* (1394, XX, 853, 368. or.), *Bertran, señor de Beyria* (1413, XXX, 619, 300. or.); *Arnaut Sanz de Beria* (1414, XXXI, 88, 46. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 81): *Beyrie* (1472), *Veyria* (1621).

Goihenetxe (1966: 270): *Beiria* (1072-1105, 1105-1118), *Beirina* (1119-1136, c. 1125), *Beirries* (1119-1136), *Berie* (1119-1136, 1381, 1387, 1388, 1389, 1391), *Beyrina* (c. 1125), *Beirie* (1119-1136, 1150-1167), *Berine* (1293-1294), *Beyrie* (1320, 1353, 1388, 1395, 1396, 1398, 1403, 1405, 1472), *Beyria* (1364, 1398, 1401), *Beria* (1392, 1398, 1403, 1404, 1405), *Berria* (1394), *Berya* (1399), *Veria* (1428).

Gartzia Larrageta (1976-77): *mosseynner en Pere, seynner de Beyrie; en Guilem arcipreste de Mixe rector de las glisies de Beyrie e d'Orçacoe* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 239): *Beyrie* (1472).

Orpustan (1990: 60): *beiria* (1072), *beyrina* (1125, 1292), *berina* (1119-36, 1263), *berie* (1119-36), *beiries* (1119-36), *beyrie* (1350).

Zierbide (1993): *Beyrie* (1350-1353, 37, 40. orr., 1412-1413, 80. or.), *Beyrye* (1412-1413, 79. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Sapin totz que jo, Johanicot d'Escaray, et Per Arnaut d'Appate, de la parropie de Beyrie* (1395, 270, 98. or.), *Sapin totz que jo, Johan de Jauriberrie, et Pes de Baraçart, de la parropie de Beyrie* (1395, 271, 99. or.), *Mossen Johan de Veyrie, rector d'Anus* (1435, 344, 175. or.).

Zabaltza (1997): *mon seynner en Pere, seynner de Beyrie (...) en Guilem, arcipreste de Mixe, rector de las glisies de Beyrie e d'Orçacoe* (1316, 265. 453. or.).

Carrasco (1999-1): *Al seynnor de Berina* (1266, 354. or.), *De francage de Orçacua et de Berina, 10 soltz* (1266, 219. or.).

Euskal Testuak:

- "Barkoize, Domiziñe, Lohitzune, **Mitriña**, Amendüze, Ispura, Larzebale (...)", Tartas (1975 |1666]: 3).
- "Baina han zen **Rethirindar** Etcheko-Jaun erne biphila", Arbelbide (1890: 5).
- "Abbadie **Bithirinako** zena", J. Etxepare (1984: 44).
- "Bat "jangile», **Bitirinan** oraino baderabiltena, Abbadie zenak behin edo bertzte izkiriatu duena (...)", J. Etxepare (1984: 100).
- "Donapaleuu biltzarra eta bazkaria, **Bithirinan** haatik gure euskalza-le jaiduren berotuz zailtzea (...)", J. Etxepare (1984: 166).
- "Erroak **Bitirineko** lurrean, Garateko alorrean lituzken haritzondoak, euskaldun guzietan bietan saindu litzaiguke", J. Etxepare (1984: 177).
- "Ez dakigu nola · haurreko azturak han zituelakotz orobat, ezen laborari semea zen, **Bitirindarra** sortzez- lotu zen egun batez laborantzari", J. Etxepare (1984: 179).
- "Bere ichurgiak ditu: **Bithirinan** barna, Donaphaleurat eta. Zimitz-errekak gaindi, Iholdira", S. Ostopetarra (*Gure Herria*, 1933, XIII, 204-212, 497-506; Euskara CorpUSA).
- "Horreran, Amikuzen badugu lehenik, jauregi zaharrak, urraturik dira zenbait, hala nola Gamuen, Garruzen eta **Mitxirinan**", J. Casenave (*Amikuze*, Euskara CorpUSA).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Mithirine* dakar, **Hatanek** (1895: 11) *Bithiña*, *Petiña* (bigarrena zubererakotzat ematen du), **Azkuék** (1969 |1905]: XXIX) *Bitirine*, *Mithiriña*. **Lhandek** (1926: 175) Nafarroa Behereko *Bithiriña* eta Zuberoako *Phetiriña* biltzen ditu eta Salaherriren hau jasotzen: *begiz ikhusten bahai, Phetiriñalat bahua* "s'il jette les yeux sur toi, tu vas sûrement à Beyrie"; aitzinago, lan berean (738. or.), *Mitriña* dakar eta dio *Bithitiña*-ren aldaera dela. **Dassancek** (1966: 161) *Mithiriña* biltzen du lehenik, baina gero (ibid., 167) *Mithiña*, *Bithiriñe* eta *Pethiriña* ere aditu dituela gehitzen du. **Goihenetxeren** arabera (1966: 270) bertan ("dans le pays") *Mithiriña*, *Mithiña* erraten da eta auzo herrietan *Bithiriña*, *Bithiriñe*. **Orpustanek** (1990: 60) *Bithirine*, *Mitriña* ditu.

Herritarren izena *bethirindarr* (**Lhande**), *mithiriñdar* (**Dassance**), *Bithiindarr*, *Mitriñdar* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Mithiriña* eta *mithiriñdar* hautetsi zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Bithiriña* eta *bithirindar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Bátzuk eRáiten duté Bitiñé, bertzeatzúk Bitiña; bitindaRá edo mitindaRá (E. Larre), Mitíña, mitindaRák, Mitíñarát, Mitíñatik, Mitíñan (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 11) 'gailur txikia' etimologia proposatzen du. **Dauzat & Rostaingen** arabera (1983 [1963]: 81) latineko *vitrina* 'beira lantegia' izenetik atera da toponimoa, Lescar aldeko eta Landesetako *Beyrie* bezala. **Lemoinek** (1977: 239) latineko *videre*-ren eratorria dakusa; jatorrizko adiera 'voir, vue, point de vue, observatoire' da honen ustean. **Orpustanek** (1990: 60, 1999: 1010) Dauzat & Rostaingen etimologia onartzen du eta gehitzen euskarak bokal anaptitikoa sortu duela.

Gure irudiz ere *vitrina*-ren moduko bat behar da, euskal eta erdal aldaerak azalduko baditugu. Bokal arteko sudurkariaren erortzea gaskoiz gertatzea eta ez euskaraz pareko arau fonologikoa lehen bizkuntzan bigarrenean baino iraupen luzeagokoa izateari zor dakiok. Egiantz handiagokoa iruditzen zaigu, dena dela, euskaraz **Bit(h)ria* moduko batetik sudurkari palatala garatu zela pentsatzea; gero, hizkeraren arabera, palatalizazioa galduko zen. Beste azalbide bat etorkizko bokal arteko sudurkaria goiz palatalizatu zela kontu egitea da eta era honetara haren galtzea saihestu zela. Cf. *Marquina* (luzaz ofiziala) / *Markiña* (herri ebakera); Mitxelenak, hau dela eta, *Onsa*-ko *Mitrigna* aldaera dakar gogora (ikus *FHV*, 303-304. orr.).

Bizkai / Biscay

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Gartzia Larrageta (1976-77): *e us perropiantz d'Ilharre e de Biscay e de sarrite* (1316, 166, 651. or.).

Orpustan (1990: 67): *biscay* (1316, 1413), *bisquay* (1350).

Zierbide (1993): *Guillem de Bizcaya* (Donapaleu, 1350-1353, 28. or.), *Bisquay* (1350-1353, 35. or.), *Bizcay* (1412-1413, 83. or.).

Zabaltza (1997): *e us perropiantz d'Ilharre e de Biscay e de Sarrite* (1316, 265, 453. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Dassancek (1966: 161) eta **Orpustanek** (1990: 67) *Bizkai* dute, **Goibenetxek** (1966: 272-273) *Bizkai*, *Bizkaia*. Herritarren izena *bizkaitiar* (**Dassance**), *Bizkaitiarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren leheugo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Bizkai* (*Labetze-Bizkai*) eta *bizkaitar* (*labeztar-bizkaitar*) aukeratu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Bizkai* eta *bizkaitar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Bizkai, *bizkaïtaRak*, *bizkaïtaRèk* eztuté eskwára emáiten, *Bizkaïn baüt áxhideát*, *Bizkaïtik eldü níz*, *Bizkairát ábja níz*, *Bizkairát jütekòz zóin da bídja?*, *Bízkaikò bídja* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

A. Oihenartek (1992: 669-670 [1637: 152-153]) honela azaltzen du *Biscaya*: "BISCAYA Roderico Tolet. *Biscagia*, Sebastiano Salm. *Vizcaia* à fitu terræ montuoso & áspero nomen inuenisse videtur: Ea enim vocis Vasconicæ *Vizcaya* significatio est". Honela iraultzen du espainolera Gorosterratzuk: "Vizcaya, según Rodrigo de Toledo *Biscagia*, según Sebastián de Salamanca *Vizcaia*, parece que recibió su nombre por la posición montuosa y áspera de la tierra, porque ese es el sentido de la voz vasca. Vizcaya"(ibid., 223).

S. Aranaren arabera (1901: 1804-1805) *Bizcaya* lehenagoko *Bizkaia* bate-tik atera zatekeen, eta hau *Bizkadia*-tik. Honen osagaiak *be-euzko-di* dira eta jatorrizko adiera 'beheko euzkoen multzoa', hots, 'beheko euskaldunen multzoa'. **A. Campión** iruindarrak (1907: 237-241) aurreko autoreak *Bizkaia* bitzarendako proposatutako *euzko*-n oinarritzen den etimologia arbuiazen du, ohartu baita *Bizkaia* toponimoek toki gorak adierazten dituztela; *bizkar*-ekin ere erlazioztatzen du, baina ez du sobera argi ikusten bigarren honetatik lehena nola atera zitekeen. **M. Arrandiegak** (1907: 669-671) Campionen hipotesia baztertu eta S. Aranarekin bat egiten du.

E. Etxalarrek (1911-1925: 1085) *Bizkaia* *bizkar*-ekin loturik dagoela erraten du, *belai belar*-ekin edo *ibai ibar*-ekin bezala. Adiera, autore honen arabera, 'loma, monte, montaña' da. **Menéndez Pidalek** (1962 | 1918: 86), Huescako *Biscarrués* aztertzen ari delarik (*Biscarruese*, *Biscarrosse* XI. mendean), lehen zatia *Bizcaya*-rekin (probintzia izenarekin eta erreka baten izenarekin -Oibar haraneko Bizkaikoarenarekin-) aldera daitekeela erraten du.

Gavclek (1920: 305-306) *Vizcaya*-n euskarazko *bizkai* 'leku gora edo menditsua' izatea daitekeena dela erraten du, baiua jarraian *Vizc*-en latineko *vasco*-ren eta euskarako *eushara*, *uskara*, *euskaldun*, *uskaldun* hitzen erroa egon daitekeela gaineratzen du, *Vizcaya* maiz Euskal Herri osoa adierazteko erabili izan baita. **Caro Barojak** (1945:226) Gavelen bi hipotesiak aipatzen ditu eta dio biek dituztela aldeko arrazoiak, onartuak izateko. **Etxegaraik** (1952) ordu arte jaulkitako etimologiak eta historialarien aipuak biltzen ditu, *bizkai* osagaia duten Euskal Herriko hainbat tokitako toponimoez landara. Autore honek, Campionen ildotik, *bizkar* eta *bizkai*-ren arteko ahaidegoa segurua dela uste du.

Mitxelenaren irudiko (AV, 168) **bizkai* behiala apelatiboa izan zen, toponimian franko hedaturik dagoelako eta leku gorak adierazten dituelako; Campionek nahi zuen bezala *bizkar*-ekin lotzea zentzuzkoa iruditzen zaio Errenteriakoari. **Lemoinek** *biskar*, *bizkar*, *biscay* 'dos, butte, croupe, faite'-tik eratortzen du; **Irigoienek** (1986: 185), Frantziako *Biscam* aztertzean, *bizkai*-rekin lotua dagokeela dio eta hau *bizkar* 'loma, monte'-ren aldaera dela. **Orpustanek** ere (1990: 67) *bizkar*-ekin lotzen du eta 'élévation de terrain' itzultzen; atzizkia, autore honen irudiko, adiera iluneko *-i* da, *gorri*, *lodi*, *alai*, *mendi*, *lohi*... hitz arruntetan eta *Aldai*, *Belai*, *Garai*, *Jaldai*... toponimoetan dagoena.

Donapaleu / Saint-Palais

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 151): *Sent-Palay* (1385), *Sent-Palays* (1474), *Sant-Pelay* (1513).

Castro (1957): *San Pelay* (1394, XX, 793, 343. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 621): *Sent Palay* (1385).

Goihenetxe (1966: 291-292): *Sant Peray* (1249), *Senpelay* (1351), *Sent Pelay* (1351), *Sen Pelay* (1351), *Sanpelay* (1351), *Sant Pelay* (1351, 1361, 1387, 1388, 1397, 1399, 1401, 1403, 1406), *Sant Palley* (1357), *Sent Palay* (1358), *Sant Palay* (1361, 1385, 1396), *S. Paley* (1378), *Sant Peliay* (1388), *San Pelay* (1401, 1404), *Saint Palays* (1477), *Sent Palays* (1474).

Gartzia Larrageta (1976-77): *n'Arnalt, seynner de la Sale de Sent Palay; ab los bezis de la viele de Sent Palay* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 264): *Sent Palay* (1385), *Sent Palays* (1474), *Sant Pelay* (1513).

Orpustan (1990: 55): *sant pelay* (1264, 1350, 1413), *sent palay* (1385), *dona palaio* (1643).

Zierbide & Santano (1990): *Arnaut de Sormendi, peatger de Sent Palay, fe layer une carte escriute en paper, sayerade en lo dos et aço per davant Borgese, bezie de Sent Palay* (1344, 6, 49. or.), *de Navarra a los tribudadores de los peages de Sent Palay, de Garris et d'Ostavailles, salut* (1361, 20, 62. or.), *Sapien totz que jo, Arnaut Lup, seynhor de Luxe, confessi aver recebut de vos, Guasernaut de Sent Esteben, et Johan de Sossaute, tributados deus peatges d'Ostabat, de Sent Palay et de Guarris* (1363, 33, 70. or.), *Bernart de Sent Pelay* (1378, 121, 132. or.).

Zierbide (1993): *Sant Pelay* (1350-1353, 27, 36. or., 1412-1413, 76. or.), *Sent Palay* (1412-1413, 80. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Escriute a Sent Palay* (1385, 206, 32. or.), *Pascoau de Garat, notari, bezin de Sent Palay* (1395, 263, 93. or.).

Barragán (1997): *laboratores Santi Pelagii et terre de Mixa* (1341, 142, 249. or.), *Sancto Pelagio* (1341, 142, 247. or.), *Sant Pelay* (1342, 146, 255. or.).

Zabaltza (1997): *n'Arnalt, seynner de la Sale de Sent Palay* (1316, 265, 453), *e ab los bezis de la viele de Sent Palay* (ibid.).

Ruiz (1998): *A Garçia Arnald de Sant Esteuan et a maestre Iohan de Sessaute, tributadores de los peages de Ostauaylles, de Sant Pelay et de*

Garriz, salut (1362, 343, 35. or.), *don Arnalt Lup, seynor de Lucxa, sobre los peages de Ostasuailles, de Sant Pelay et de Garriz (...)* (1363, 699, 352. or.), *A los tributadores de los nuestros peages de Ostasuailles, de Garriz et de Sant Pelay* (1363, 736, 387. or.).

Currasco (1999-1): *Per lo despens don Bernart de Atxa, et de Bernart de Siuals et de Oger de Agramont, quant estaban en Sant Pelay, 108 soltz, 9 diners* (1266, 221. or.), *Sant Pelay* (1266, 222. or.), *A don Remon Arnalt de Sant Pelay* (1266, 276. or.).

Euskal Testuak:

- "...badaqui munduac, nola çure aita launa, bere etcheaz, onez eta biciaz ere contu guti eguinic, loancen **donapalaia**ora, non baitcen orduan *Naffarroaco Parliamenta*", Axular (*Guero*, 6. or.).

"**Donapaleio** eta Garaci hiriac / Oihan artean dire aguertzen liliac", Hiribarren (1853: 74).

"Oztibarreko goldean badira 25 ara eta 35 zantiarra; 51 libera haziren eraintza. **Donaphalioko** kantoinamenduan (...)", Duvoisin (1986 [1858]: 66).

- "Hendaiatik Atharratzeraino, Bastidatik Baigorriara, Donibane, Ustaritze, Larzabale, **Donapaleo**, Maule, Espeleta, Hazparne, oro hartuz (...)", Hiriart-Urruti (1995: 245).

- "...español apez-gei gazte bat, ja sotana jauntzia, Hizkaiatik etorria egun gutarterat, dituela bi urte **Donapaleon** bertze guzier nausitu zen hura bera (...)", J. Etxepare (1980 [1910]: 138-139).

"Berak bere burua xahutu etzuketako estakuruan, hemen gintuen, **Donapaleotik** jinak asteartean, tribunaleko bortz jaun", J. Etxepare (1988: 180).

- "Dirutze handiskoa galdu izan da ere Amikuzen, zombait urte huntan, bere gain, **Donapaleun**, jarri banko batek, leher eginik", J. Etxepare (1996: 87).

- "Aldi huntan sartuko da barne Lacombe, **Donapaleotar** Parisen dagona", J. Etxepare (1996: 131).

- "Bere ichurgiak ditu: Bithirinan barna, **Donaphaleurat** eta, Zimitzerrekan gaindi, *Iholdira*", S. Ostopetarra (*Gure Herria*, 1933, XIII, 204-212, 497-506; Euskara Corpusa).

- "Treinean sarthu eri gisa, edo *permissionario* khondu, etxean egon zortzi egun, ibili merkhatuan **Donaphaleon**, sinhetsarazi guzier *permisionez*

- zabilala, eta gero hegaldatu polliki «tras los montes»*, Saint-Pierre (1998: 143).
- “*Paueko zazpi grenadieretarik sei eskualdunak ziren. Gogoan atxiki balin badut ruxen, huna sor herriak: **Donaphaleo**, Armendaritze, Donaixti, Domintxine, Itsasu, Milafranga*”, Saint-Pierre (1998: 146).
 - “*Kasketadunen on / Jakin badu nehok, / Han, **Donapaleon**, / Jakin zuen Pelok*”, Otsobi (1992: 167).
 - “***Donapaleon**, ilabete guziz, Euskaldun apez abertzale multxo bat biltzen gira, gogoeta zonbeiten egiteko*”, R. Idiart (Aburu, 1982-01, 4 zk., Euskara Corpusa).
 - “*Ori, huna non helduak giren **Donapaleurat***”, Barbier (1987: 134).
 - “*...abendoan bederen ez othe lakoike apaila goretsegunto bat Maulen, hor sortu baitzen, edo **Donaphaleun**, hor bizi izan baitzen berrogoi urtez eta hor hil?*”, Lafitte (1990: 119).
 - “*Jacques, zaharrena, Nafarroako kantzeler-kontseilaria zen, **Donaphaleuko** Jeanne de Vidart andrearekin ezkondua, beren haurretan bi apez ukhen baitzituzten*”, Lafitte (1990: 119).
 - “*1627an **Donaphaleurat** ezkondu zen Jeanne d’Erdoy, aitoren alaba alargun batekin*”, Lafitte (1990: 120).
 - “*Hemezortzi urthetan **Donapaleon** kantatu zuen Eliza-besta*”, Lafitte (in Lafitte & Barbier, 1967: 16).
 - “*Guk ere hiru nexka tugu erniak, denak eskolan abiatiak **Donapaleun***”, Amorotzeko gutun argitaragabea, 1970ekoa.
 - “*Hara! harrotu’uxu atzo **Doapleun**, nexkatuak ikusi, beste mutilkuak nexkatuekin irriz, jantzan eta holako*”, Etxamendi (1988: 64).
 - “*Treña tenoreko **Doapleun** behar gitzak eta... –juan zen aintzina*”, Etxamendi (1988: 76).
 - “*«Blaise Guéraçague» **Donapauleko** ahokata laster aurkeztu zen deputatu-gai bezala 1914eko maiatzaren 10ean. Bera **Donapauleko** kontseilari general izana gatik ez zen hautatua izan*”, P. Charritton (in Etxepare, 1988: 207).
 - “*«Saint-Jayme, Frédéric de» (1862-1938) **Donapeulen** sortua izana gatik Iholdiko kantonamenduko kontseilari general izana*”, P. Charritton (in Etxepare, 1988: 225).
 - “*Aitak, hamar urtetan, **Donapaleuko** fraiden kolesioan irabazi bi Sainduen Bizia izeneko liburu ederreri zombait inarrosaldi ez nioten eman!*”, Mendisko (1990: 38).

- "Arrosako garatik **Donapaleu**korat egun guzietz ibiliz, Iholditik Armendaritzeko itzulia behar zuen egin", Mendisko (1990: 105).
- "Horregatik Pettiarreko gaurko niniak **Donapaleu**n sortuak dira, eta eri asko hango klinikan sartzen", Peillen (*Anuario de Eusko Folklore*, 1994-1995, 39 zk., 224, Euskara Corpusa).
- "Aldiz Sebastien Laurencena eta Eneko Bessonari gazteek airez aire ereman dute **Donapaleu**tarrerri", egile ezezaguna (*Herria*, 1999-12-16, 4, Euskara Corpusa).
- "Holaxe ginuen guk gogotik hautatzen, bakotzak gure moldatzaile-kofessorra: aita Berrogain **donapaleu**tarra, hunek arrakesta haundia, ala aita Barnetche behautzarra (...)", Larre (2001: 194).
- "Bi hiru urte barne sortu ziren, Narbaitz kalonjea bezalako sustatzaileekin, eskola gisa horiek: Hazparneko San Josep eskolan, **Donapaleu**ko Garihoitzenean (...)", Larre (2001: 232).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Salaberri Ibarrolakoak (1856: 44) eta Hariztoik (1977 [1883]: 63) *Donaphaleu* dakarte, Raymondek (1863: 151) *Don-Aphaleu*, Azkuek (1969 [1905]: XXIX) *Donapaleu*, Lhandek (1926: XXXVI, 241) *Donaphaleu*. Irigarai & Mitxelena (1955: 420) egun *Donaphaleu* erraten zaiola diote eta zubereraz *Donaphalég*ü dela; Errenteriakoak Agudekin batean egindako lanean (1958: 12) J. Salaberriak *Donaphaleü* hirila "a la villa de S. P." dakarrela erraten du. Dassancek (1966: 161) *Donaphaleu* du, baina aitzinago (ibid., 167) herri batzuentzat izen asko erabiltzen direla gehitzen du; Amikuzeko honen kasuan *Donapaleu*, *Donapalaio* eta *Donaphaule* ere aipatzen ditu. Lemoinek *Don Aphaleu* (1977: 264) dakar; Orpustanek (1990: 55) *Donapaleu* biltzen du eta dio lekuan berean, *Donapaleu*n berean, forma "aberrante" bat erabiltzen dela, *Donapaule*, *Pelaio Paul*-ekin nahasi baita. Gaineratzen du toponimoak tokietan gainean gehiago aldatzen direla kanpoan baino.

Herritarren izena *donaphaleutarr* (Lhande), *donaphaleutar* (Dassance), *Donapaleutarr* (Orpustan) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 103) *Donapaleu* eta *donapaleutar* hautatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Donapaleu* eta *donapaleutar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

...édo Donapáuleät joáiten dirá édo Donjáne Garáziratt), ártjan dirá; hogói ta zórtzi herri batu (...) Donapáuleko ingúrukó kántonaméndjan; Donapáule, gúik Dònapaléu értén duú (E. Etxarren), Dònaplé, Dáple (-é, -e itxiak), Dònapléu, Dònapáule (E. Larre), Dònapaléu, Dònapáüle, Dònapáülen anitz jénde bízi dá, Dònapáülerát ibíltzen níz úsü, góizjan izán níz Dònapáülen etá jiníz beRíz gíleát, Dònapáleütik jiníz étxeát, Dònapáleütakék eskwára emáiten duté, Dònapaléüko ostátjak ttiptak dirá (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hariztoik dio (1977 [1883]: 63) *Dona Phaleu* izena 930. urte aldean lehenago "Triberrri" deitzen zenari eman zitzaiola, *don Pelayo* zeritzan kristauren omenez. **Charenceyk** (Gavelek aipatzen du, 1920: 105) asimilazioa ikusi zuen *Donaphaleu*-ren lehen a horretan.

Irigarai & Mitzelenak (1955: 419-420) *Parai*, **Perai* ematen dituzte ordarazko *Pelayo*-ren euskarazko kide-tako eta toponimiako *Donaparai* (Aberasturi, Araba) eta (*Do*)*neperi* (Bermeo) biltzen. Egungo *Donaphaleu*, *Donaphalé(g)ü* Axularrenean *Donapalaio* dela diote eta *Pouvreaux*, oker, *Donapalayo*a aldaera artikuluduna darabilela; hondarreko hau forma berriagoa da, aipatu autoreen arabera. **Mitzelenak** bere maisu lanean (FHV, 99) erraten du Larrasketen arabera *Donaphalégü* aldaeran eu bereizteko kontsonantea dagoela. Beste lan batean (AV, 5. argitalpena, 241. or.) toki izen batzuek tradizio bikoitza dutela azaltzen du, adibidez *Donaphaleu* : *St.-Palais*-ek edo *Donostia* : *San Sebastián*-ek. **Irigoienek** (1986: 150 eta 251, 1990: 10) *Done-* dun toponimoak *Saint* dutenak baino zaharragoak direla erraten du.

Gabadi / Gabat

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 66): *Gavat* (XII. m.), *Gabat* (1472).

Raymond (1873): *Spanol de Gabat* (c. 1125, 79, 63. or.), *parrochia de Gavat* (1147-1150, 161, 115. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 308): *Gabat* (1742).

Goihenetzek (1966: 274, 277): *Gabat* (c. 1125, 1351), *Gauat* (1147, 1150, 1351), *Gauad* (1147, 1150), *Guabat* (1370), *Agauat* (1391), *Garat* (1472).

Gartzia Larrageta (1976-77): *Bernat de Gauat* (Donibane Garazi, 1305, 133, 590. or.), *n'Auger so fray donzet, seyenner de Gabat e de Mazparraute; Per Arnalt rector de la glisie de Gabat* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 140): *Gavat* (XII. m.), *Gabat* (1472).

Orpustan (1990: 63): *gabat* (1125, 1350), *gavat* (1147-50), *gabbat* (1350).

Zierbide (1993): *Gabat* (1350-1353, 40. or., 1412-1413, 81. or.), *Garrat* (1412-1413, 80. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Arnaut de Casa Mayor et Bernat de Malharro, parropiantz de Gavat* (1393, 248, 70. or.).

Zabaltza (1997): *n'Auger, so fray donzet, seyenner de Gabat e de Mazparraute (...)* *n'Arnalt, rector de la glisie de Gabat* (1316, 265, 453. or.).

Euskal Testuak:

– “Horren beha bezala nindagon, noiz-eta beste eskaintza bat heldu baitzait, **Gabadit**ik. Amikuzeko herritto hortan zen (...) Jean Chipy erretora, Baigorri bikari egonik, Amikuzerat izendatu berria. Bikari ohia Baigorri maitatua, ni harekin ausart, eta lehen prediku harentzat jende arrotza **Gabadi**n, zer gerta ere, berehala eman nion baia; zuk juja, irakurlea, heian Baigorriko prediku hartarik eskapatzeko emana ote nuen **Gabadikoari** halako bai presatua”, Larre (2001: 216).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 11) *Gadi* (sic) **dakar**, **Léclusek** (1826: 170), **Azkuek** (1969 [1905]: **XXIX**), **Lbandek** (1926: **XXXVI**, 315), **Dassancek** (1966: 161), **Goibenetzek** (1966: 274), **Lemoinek** (1977: 142) eta **Orpustanek** (1990: 63) *Gabadi*. Herritarren izena *gabadi*tarr, *Gabadi*tarr (**Lhande**, **Orpustan**), *gabadi*ar (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Gabadi* eta *gabadiar* onartu zituen aldaera araututzat.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Gabadi* eta *gabadiar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Gábadi, Gábadin, gabádjaRá (E. Larre), *Gábadín* (E. Etxarren), *Gábadi, gabádjaRák, éne áxhídeá Gabádikoá dá, éne laguná Gábadin bizi dá, Gábadirát ábja níz bázkaiteá, Gábaditih éldü níz étxerát* (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 11) 'ordoki lekna' dela dio; **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 308) *gave*-ren eratorria datekeela uste dute. **Lemoineren** iritzian (1977: 140-142) oinarria antroponimikoa da (*Gaofidus*) eta bukaera berriz *-aco, -acum* zeltiko erromatartua (> *-ac* Languedocen eta Gaskuñan). **Orpustanek** (1990: 63) Lemoineren azalpena txarresten du; honen irudiko oinarria *gaba* (> *gave*) hidronimoa da eta atzizkia euskarazko *-di*, baina hondarreko hau hidronimoekin ongi konpontzen ez denez gero, haren ordainetan fitonimo pare hat proposatzen ditu.

Gure iritzian ez da ongi ulertzen Lemoinek zergatik hartzen duen *Gabat* erdarazko aldaera etimologiaren oinarritzat, *lectio difficilior* den euskarazko *Gabadi*-ren partez, aiseago baita hura honetarik ateratzea (cf. *Iholdi / Iholt*, XIII-XIV. mendeetan), ezen ez alderantziz gertatzea. Nahi ez duelako, zalantzarik gabe, hots, galiararen eta galiarren eremua eta eragina hedatu nahi dituelako.

Oharra:

Nafarroa Garaian *Gabari* deitura ezaguna da.

Gamue / Camou

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 39): *Camur* (1472), *Camo en Micxe* (1479), *Camo* (1519), *Camu* (1621).

Raymond (1873): *Camo* (1119-1136, 89, 75. or.), *Camou* (1119-1136, 99, 82. or.; 1120, 7, 7. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 136): *Camur* (1472), *Camo en Micxe* (1479).

Goihenetxe (1966: 273): *Camo* (1119-1136, 1364, 1388, 1389), *Camou* (1119-1136, 1120, 1150-1167, 1213, 1344, 1353, 1395, 1428), *Carro* (1396), *Camur* (1472).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en Bernart, seynner de Camo; en P(ere) rector de las glisies de Camo e d'Oneyx* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 254): *Camur* (1472), *Camo* (1479, 1519), *Camu* (1621).

Orpustan (1990: 58): *camou* (1120), *camo* (1304, 1413), *chamo* (1309), *gamo* (1350).

Zierbide (1993): *Gamo* (1350-1353, 29. or.), *Camo* (1412-1413, 78. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Per Arnaut, seynor juen (sic) de Pharandiete de Camon, per nom de son pay et per nom de la daune d'Eyherabide de Camon, de la terre de Mixe* (1395, 269, 97. or.).

Zabaltza (1997): *en Bernart, seynner de Camo (...) en P(ere), rector de las glisies de Camo e d'Oneyx* (1316, 265, 453. or.).

Euskal Testuak:

– “Horretan, Amikuzen badugu lehenik, jauregi zaharrak, urraturik dira zenbait, hala nola **Gamuen**, Garruzen eta Mitxirinan”, J. Casnave (*Amikuze*, 1983, Euskara Corpusa).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 10) *Gamou* da, **Mitxelenak** (1956: 179) *Gamu-Amikuze*, **Lhandek** (1926: XXXVI, 581) eta **Lemoinek** (1977: 254) *Kamu*. Bestalde, **Dassancek** (1966: 161), **Goihenetxek** (1966: 273) eta **Orpustanek** (1990: 58) *Gamue* jasotzen dute. Herritarren izena *kamuarr* (**Lhande**), *gamuar* (**Dassance**), *Gamuarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Gamue* (*Gamue-Zohazti*) eta *gamuar* (*gamuar-zohaztiar*) hautetsi zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Gamue* eta *gamuar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Gámwe, Gamúe, Gamúen (**E. Etxarren**), *Gamúe* (**E. Larre**), *Gámwen*, *Gamwékwa*, *enemáztja Gámweko dá*, *Gámwerát jintz*, *Gámwetik jwaníz*, *Gámwetik Aizitzerát jwaníz*, *éne aixkideák badú etxeát Gámwen*, *éné emáztjá Gámwen egóiten dá ta hémen sóRtja dá*, *enemáztja gámwaRá dá*, *gámwaRèk eskwára emáiten duté*, *ARbótira jwáiteko beaR dá Gámutik pasátu*, *ARbótitik beaR dá Gámuko bídja áRtú*, *Gámokò héRjak emán dú zeRbáit* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Hatanen arabera (1895: 10-11) 'urgunea', 'ur putzua' adiera du izenak; antzina gazteluaren inguruan urgune handi bat zegoen, autore honek dioenez. **Mitxelena**k 1956ko lanean (179. or.) euskaraz, erdaraz ez bezala, aspaldidanik hasierako herskaria ahostuna izan dela besterik ez du erraten: *Camou-Mixe / Gamu-Amikuze, Torrano / Dorrau...*, nahiz salbuespenak hadiren, partikulazki maileguak berandukoak direnean. Lehenagoko beste artikulu batean *Kanbo, Ganboa*-z ari delarik (1950: 479-480) azaltzen du Euskal Herriko alderdi batean (Nafarroa Garaian bereziki, baina baita Gipuzkoan eta Lapurdin ere) *Ganbo*-k iturburuak adierazten dituela; hauek, zenbait aldiz, senda-urak izan daitezke. *AV*-en (255. sarrera) ideia bera errepikatzen du eta gehitzen latineko *campus*-en ondorengoa izan daitekeela edo, zalantza anitzekin, *cambo*- zeltarena.

Dauzat & Rostaingen arabera (1983 [1963]: 136) toponimo hau, Zuberoako *Camou-Cihigue* (Gamerc-Zihiga) bezala, ibaien ertzean kokatutako heste herri batzuen izenekin (*Camous, Cambon, Camon...* eta aharrekin) lotu behar da, oinarrian gaskoi etimologiako *camou* 'terrain fertile, voisin du gave' (*cambon* probentzera zaharrean eta *chambon* frantsesez) baitago, aipatu autoreen irudiko betiere. **Lemoinek** (1977: 254) gaskoiko *camí, camín, camíau*-tik eta okzitaniarazko *camí*-tik eratoritzen du. **Orpustanek** (1990: 39, 58) aitzineko autoreen etimologia ezesten du (Lemoinek [1977: 38] 'courbe de rivière' bakarrik *Cambo*-ri ematen dio, ez *Camou*-ri edo *Camou-Cihigue*-ri) eta dio *Gamue, Kanbo* bezala, ur ertzean dela, bai, baina ez ibaiaren bihurgune batean. Lapurdiko herriaren izena aztertzean, **Mitxelena**ren ildotik, *gamo, gamu*-k maiz senda-urak adierazten dituela azaltzen du eta honek zalantzan ezar dezakeela 'ibai bihurgunea' etimoa.

Garrüze / Garris

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 68): *Carasa* (Antoninoren Itinerarioa delakoan), *Sanctus Felix de Garris* (XIII. m.), *Guarriz* (1326), *Garris* (1472), *Garritze* (1508).

Raymond (1873): *Garis* (1119-1136, 86, 71. or.), *Garris* (1105-1119, 59, 48. or.; 1119-1136, 98 eta 100. agiriak, 81 eta 84. orr.; 1150-1167, 106, 87. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 312): *Carasa* (IV. m.), *Garris* (XIII. m.).

Goihenetxe (1966: 275): *Carasa* (Antoninoren Itinerarioa), *Garris* (1105-1119, 1119-1136, c. 1120, 1134, 1150-1165, XII. m., 1249, 1313, 1351), *Garis* (1119-1136, 1381), *Guarriz* (1245, XIV. m.), *Garriz* (1247, 1351, 1352, 1360, 1374, 1388, 1391, 1394, 1396), *Garritz* (1249, 1351, 1356, 1364), *Guarris* (1293, 1294), *Guaris* (1350), *Guaritz* (1354, 1355, 1358), *Guariz* (1358), *Garres* (1366), *Gariz* (1391), *Garryz* (1391), *Garitze* (1508).

Gartzia Larrageta (1976-77): *Gasernaut de Garris* (Donibane Garazi, 1305, 133, 590. or.), *n'Arremon Arnalt de la Crotz, Arnalt de Halçauieque, Per d'Aranguix, vezins de Garris* (1313, 158, 634. or.), *Johan de Gaylardie, rector de la glisie de Garris* (1316, 166, 651. or.).

Ostolatza (1978): *Guillelmo Arnaldo de Garris* (1273, 250, 330. or.).

Orpustan (1990: 60): *carasa* (III. m.), *garris* (1119-35, 1249), *garritz* (1249), *garriz* (1264), *guarriz* (1350).

Zierbide & Santano (1990): *Johan, seynor de Sent Esteven et Bernard, son filh, hereter; Santz filh de Garris, e Johan, seynor de Çabalçu de Sent Martin* (1356, 9, 53. or.), *...de Navarra a los tribudadores de los peages de Sent Palay, de Garris et d'Ostavailles, salut* (1361, 20, 62. or.), *Johan de Garris, baille de Labastide de Clarence* (1362, 25, 65. or.), *tributados deus peatges d'Ostabat, de Sent Palay et de Guarris* (1363, 33, 70. or.), *Monaut de Chavarren, Remon de Labiys, bezis de Garris* (1364, 44, 77. or.).

Zierbide (1993): *Guarriz* (1350-1353, 39. or.), *Garris* (1412-1413, 79. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Menaut de Picasarri; Per Arnaut de Labix, bezis de Garis* (1385, 205, 31. or.), *sus los peages de Garris et de Sen Palay* (1407, 304, 124. or.), *Johan Ruyz d'Ochagabi, cabaler, castelan de Sent Johan do Pe do Port en lo merintat de Garris* (1372, 354, 200. or.), *Garris* (1406, 1354, 209. or.).

Barragán (1997): *en razon del castieylo de Garriz* (1329, 45, 71. or.), *Garriz* (1341, 142, 247. or.).

Goñi (1997): *Eneco Eximino de Garritz* (1238, 599, 512. or. Irudi du Arakil aldeko Garritz datekeela, baina hau ez da segurua).

Zabaltza (1997): *en Iohan de Gaylardie, rector de la glisie de Garris, ab los iuratz e ab los bezis de la viele de Garris* (1316, 265, 453. or.), *Per Arnalt de Garris e Arnalt S(antz) d'Iratçe* (ibid., 458. or.), *en razon del castieillo de Garriz et de los otros castieillos que auemos en la tierra de Mixa et de Ostabares* (1320, 297, 511. or.).

Ruiz (1998): *A Garçia Arnald de Sant Esteuan et a maestre Iohan de Sessaute, tributadores de los peages de Ostauaylles, de Sant Pelay et de Garriz, salut* (1362, 343, 35. or.), *don Arnalt Lup, seynor de Lucxa, sobre los peages de Ostasuaylles, de Sant Pelay et de Garriz (...)* (1363, 699, 352. or.).

Carrasco (1999-1): *De francage de Garriz, 10 soltz* (1266, 219. or.).

Euskal Testuak:

- “Lukuze bere gazteluaren inguruan biribil, **Garroze** bixkar batean iduri zernahi, eta huna nun giren, patar izigarri baten zolan, Dona-Paleon”, J. Etxepare (1984: 16).
- “Adar kakol, usain gaixto, heian dugun / Akherra / **Garruzeko** ferietan aitak saildu / Beharra”, Otsobi (1992: 137).
- “Uharte, bizi zirea? / Zertan duzu arthaldea? / **Garruze** Pelegrinean axuririk sortu dea? / Orhaizetako maldak hain baitaude beha...”, Otsobi (1992: 290).
- “Panpilaren **Garrozeko** arreba hil supituki bezela, hiru hilabeteren burian Bastidako ahizparen senharra odoleko kantzerrarekin”, Amorotzeko 1970eko gutun argitaragabea.
- “Ortziraletan duzu **Garruzen** merkatu / Ene maite pollita han nuen kausitu”, Lafittek (1990: 73) biltzen du.
- “Horretan, Amikuzen badugu lehenik, jauregi zaharrak, urraturik dira zenbait, hala nola Gamuen, **Garruzen** eta Mitxirinan”, J. Casenave (Amikuze, 1983 Euskara Corpusa).
- “Beste eliza zaharrik ez dugu, orain zatika arraberriturik izan ezik, **Garruzen**, Domintxainen, eta Labetzen bezala”, J. Casenave (Amikuze, 1983, Euskara Corpusa).
- “Badakizu **Garruze** eta Heletako feirian nola kargatzen dituzten araxe edo zerriak?”, Arbelbide (1986: 124).
- “Kalitate frango, ene astoak, bertzek ez dutenik: **Garruzeko** garañotik duk gero, ene astoa. Ez duk hemen, nehon, inguru hautan, bertze bat **Garruzeko** garañotik”, Larzabal (1991: 127).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Garroce* dakar, Lhandek (1926: XXXVI, 341) eta Orpustanek (1990: 60) *Garroze*. Raymondek (1863: 68) *Garruce* biltzen du, Hatanek (1895: 12) *Garuse*, Azkuek (1969 [1905]: XXIX), Caro Barojak – Hariztoik (1945: 110) eta Goihenetzek (1966: 275) *Garruze*. Agud & Mitxelenak (1958: 15) erraten dute J. Salaberrik *Garruzen* “en Garris” dakarrela; Orpustanek *Garroze*, *Garruze* (1990: 60), *garruze* (1999: 269) du. Herritarren izena *garroztarr* (Lhande), *garruztar* (Dassance), *Garruztarr* (Orpustan) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Garruze* eta *garruztar* hautatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Garrüze* eta *garrüztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

GaRüze, *GáRuzén*, *gaRüztaRà* (E. Larre), *GaRüze*, *gaRüztaRàh*, *gaRüztaRèh* ezituté eskuwàra emáiten, *GaRüzat*, *GaRüzetik* hëldü níz étxerát, *GaRüzén*⁴⁰ (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hariztoik (1977 [1883] 273) *Garrüze* Akizetik Donibane Garazirako bidean zegoen antzinako *Carasa*-rekin identifikatzen du. Gavelek (1934: 493) etimologia iluneko izenen artean sartzen du *Garris* toponimoa, *Ispoure*, *Ossès* eta beste batzuekin batean. Caro Barojak (1945: 110) aurrekoaren zerrendatik *Garruze* biltzen du eta erraten hau latineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atzizkia duten Ihegoaldeko herri izenekin erlacionaturik dagoela; beranduagoko beste lan batean (1985: 62) Antoninoren itinerarioko *Carasa*-rekin identifikatzen du *Garruze*, anreko beste ikertzaile batzuek egin bezala. Rohlfsek (1952: 240) ez du *Garruze* edo *Garris*, *Garriz* aipatzen, baina Frantziako *Garrós*, *Garrosse* eta Nafarroa Garaiko *Garrués* aztertzean Galian aurkitutako *Garrus* antroponimoa proposatzen du iturburutzat.

Mitxelenak (AV, 256) *gar* ‘sugarra’-ren eratorriak ukitzerakoan aipatzen du, baina erlazioa *Garramendia*, *Garro*, *Garrabe*-rekin dakusa gehiago. Atzizkia, errenteriarraren arabera (ibid., 347), balio eta garai desberdinetako eraikuntzak biltzen dituen *-itz* da, zein, irudi duenez,

40. Azentua *ü*-ren gainean da.

aspaldi ez dela franko erabili baita beste toponimo edo deitura batzuen eratorriak sortzeko: *Aldama / Aldamiz, Etzano, Elxaniz, Garro / Garriz, Garroitz,...* Errenteriar hizkuntzalariak beste lan batean (1954: 424) Akitaniako *Garre deo, d[fe]o/ Garri* aipatzen ditu eta erraten oinarria *Garr-* zela; bi idazkunak, **Gorrotxategik** (1984: 327) dioenez, *Gar* mendia- ren oinetan kausitu ziren. Cf., gainera, Nafarroa Garaiko *Garde* herriaren izena, menturaz *-te* atzizkia daramana, ohikoa baita, jakina denez, dardarkari ondoan ahoskabearen ahostuntzea (*Bizkarde, Epelde*).

Dauzat & Rostaingek (1983 [1963]: 312), IV. mendeko *Carasa*-n oinarriturik, osagaiak latinaren aurreko *car-* 'harria' eta *-asa* atzizkia direla erraten dute. **Orpustanek** (1990: 61, 1999: 320) oinarrian indoeuroperaren aurreko *garr-* 'rocher, sommet' dagoela dio eta honetatik *harri* izen arrunta atera dela. Bitxi kausitzen du toponimoak bukaeran aurkezten duen bokal aldizkatzea (*Caras-a / Garris / Garroze / Garruze*) eta, Hubschmid jarrikiz, toponimia zaharraren aztarrena datekeela iradokitzen du; atzizkia lekuzkoa edo errepikapenezkoa ("fréquentative") dela uste du. *Garruz(e)-k Garris-en* aldean aurkezten duen bokal aldakuntza *Lukuz(e)-rekiko* analogiari zor zaiola dio (1999: 124-125); dokumentazioko *garritz* aldaera, berriz, grafikoa eta analogikoa iruditzen zaio.

Irigoienek (1990: 67-69) *Garris* eta *Carasa* bat-bera diren frogakizun dagoela errateu du eta ituburutako Rohlfsek aipatutako jatorri antroponimikoa egoki iruditzen zaiola. Iruñe ondoko *Garrués* herriaren izenaren etorkitizat, dokumentazioko aldaerak ikusirik, latineko genitibotik ateratako **Garronis* proposatzen du; hemendik **Garrons* aterako zen lehenik eta *Garrós* gero, zein, uste izatekoa da, *Garrués* bilakatuko baitzen Nafarroako erdarari. *Garrós-ek -e* paragogikoa hartzean euskarazko *-ze* bukaera sortuko zen, bizkaitar euskaltzaiuaren arabera.

Oharra:

Nafarroa Garaian ezaguna da *Garriz* deitura. Kontuan hartu beharra da, dena dela, *Garriz* Ihabarko herri hustu baten izena ere badela:

- "Una pieca...en la endrecera llamada garriz afron^a (...) con p^a de Cubiria" (Hiriberri Arakilgo pr., 4, 1571).
- "...don carlos de mendibil abad delugar desolado de garriz" (Hiriberri Arakilgo pr., 2, 1586).

Garriz ó Musquerdia, Garriz ó Picudie, Garriz Anguiriz eta *Garrizbarrena, Garrizgoiena* toponimoak ere ageri dira Ihabarren

(Karasatorre, 1993: 413-414). Ibar bereko Hiriberriko etxe baten izenaren oinarrian ere bazegoen:

- .. *“Pieça de los de garrizteguia”* (Hiriberri Arakilgo pr., 2 1585).
- *“Una cassa que ellos (...) tienen en el lugar de Villanueva y en que Residen afrontada (...) con casa de los de garrizteguia”* (Hiriberri Arakilgo pr., 2, 1596).

Ilharre / Ilharre

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 82): *Ilarre* (1513), *Ilharra* (1519), *Ylharre* (1621), *Ylarre* (1621).

Goihenetxe (1966: 279): *Ilharre* (1370), *Ylharre* (1370), *Illarre* (1396).

Gartzia Larrageta (1976-77): *e us perropiantz d'Ilharre* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 199): *Ilharre* (1494), *Ilarra* (1513), *Ilharra* (1519), *Ylharre* (1621), *Ylarre* (1621).

Ostolatza (1978): *Illarre* (1236, 90, 173. or.).

Orpustan (1990: 63): *ilharre* (1316, 1413), *illarre* (1350).

Zierbide (1993): *Ylarre* (1350-1353, 27. or.), *Ylarre* (1350-1353, 33. or.), *Illarre* (1350-1353, 38. or.), *Ilharre* (1412-1413, 82. or.).

Zabaltza (1997): *e us perropiantz d'Ilharre e de Biscay e de Sarrite* (1316, 265, 453. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 12), **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 506), **Dassancek** (1966: 161), **Goihenetzek** (1966: 279), **Lemoinek** (1977: 199) eta **Orpustanek** (1990: 63) *Ilharre* jasotzen dute. Herritarren izena *ilhartarr*, *Ilhartarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *ilhartar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Ilharre* eta *ilhartar* hautatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Ilharre* eta *ilhartar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

IláRe, ÍlaRén, iláRtarrà (**E. Larre**), *IláRe, ÍlaRén, ÍlaReàt jwánbehaút, ÍlaRetik jiníz, IláRtaRèk eskwára emáiten duté* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 12) 'bruyère' erranahia ematen dio eta azaltzen du herria txilar artean kokaturik dela; **Mitxelena** (AV, 319) ere *il(h)ar*, *illar*,

iñarra, **irarra* 'txilarra'-ren eratorrien artean sartzen du *Ilharre*. **Lemoinek** (1977: 199) ez daki ongi toponimoa *ilarri*, *ilharri* 'pierre tombale'-ri dagokion ala *ilhar* 'toutes plantes légumineuses, pois', *ilharre* 'bruyère à balai'-ri. **Orpustanek** (1990: 63-64) hondarreko autorearen etimologia ezesten du eta bat dator Errenteriakoak jaulki zuenarekin.

Labetze / Labets

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 87): *Labedz* (1120), *Labetz* (1472), *Labez* (1513).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 375): *Labedz* (1120).

Castro (1957-58): *Labetz* (1394, XX, 853, 368. or.), *Ogerot de Lauetz* (1413, XXX, 94, 47. or.).

Goihenetxe (1966: 280): *Labedz* (1134), *Lauetz* (1328), *La Betz* (1364), *Labeiz* (1388), *Labez* (1388, 1394), *Labets* (1134), *Lauetz* (1388), *Lauest* (1389), *Labetz* (1393, 1395, 1472).

Gartzia Larrageta (1976-77): *Guiraute de Lauetz* (Donibane Garazi, 1305, 133, 591. or.), *n'Arnalt rector de la glisie de Labetz* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 202): *Labedz* (1120), *Labetz* (1472), *Labez* (1518).

Orpustan (1990: 67): *labedz* (1134), *lavez* (1304, 1309), *lavetz* (1350), *labetz* (1316, 1413).

Zierbide (1993): *Lavetz* (1350-1353, 37. or.), *Labetz* (1412-1413, 80, 83. orr.).

Zierbide & Santano (1995): *Per Arnaut, seynor de Goayllardie de Lavetz* (1393, 248, 70. or.), *heretatz de Labetz* (1393, 249, 77. or.), *Sapin totz que jo, Arnaut Guilhem, seynor de Berharus de le de (sic) Labetz* (1395, 274, 101. or.), *Arnaut, seynor d'Oste, de le parropi de Labetz* (1395, 275, 102. or.).

Euskal Testuak:

- "Lau egun berantxago, artatzerat doa Duvoisin kapitaina: 'Nahi nuke ene errumatisma **Labetzeko** uretan ito'", egile ezezaguna (*Otoizlari*, 1971, 64 zk., 27-28; Euskara Corpusa).

- "Beste eliza zaharrik ez dugu, orain zatika arraberriturik izan ezik, Garruzen. Domintxainen, eta **Labetzen** bezala", J. Casenave (*Amikuze*, 1983, Euskara Corpusa).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Labetze* jasotzen du eta **Hatanek** (1895: 11) *Labetse*. **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 641), **Caro Barojak - Hariztoik** (1945: 110), **Dassancek** (1966: 161), **Goihenetzek** (1966: 280), **Lemoinek** (1977: 202) eta **Orpustanek** (1990: 67) *Labetze* dakarte. Herritarren izena *labetzarr*, *Labetzarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *labetzar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Labetze* (*Labetze-Bizkai*) eta *labeztar* (*labeztar-bizkaitar*) onartu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Labetze* eta *labeztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Laitze, laitzarrà (**E. Etixarren**), *Laëtze, Laitzen* (**E. Larre**), *Labétze, labéztaRak, Labézetik, Lábetzekò méra elekátu düt, atzó Lábetzèn izániz; Labézekilán dá* (*hlorí, jüntátja; Láitzekin* (**L. Xuri**)).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 11) uste du toponimoak 'galtzina-labe ugaritasuna', 'kisulabe alderdia' adicra duela, Labetzen horietarik ausarki baita haren irudiko. **Caro Barojak** (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Labetze* biltzen du, ikusi dugun bezala, eta erraten hau latineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atzizkia duten Hegoaldeko herri izenekin loturik dagoela. **Dauzat & Rostaingen** arabera (1983 | 1963): 375) *labe* dago oinarrian eta azalgaitza den zerbait bukaeran. **Lemoinek** (1977: 202) *lapitz, laphitz* 'marne, schiste, ardoise'-tik eratortzen du izen hau, *Lapisketa* bezala; bukaeran *-tze* atzizki handigarria dakusa. **Orpustanek** (1990: 67) Lemoineren azalpena txarresten du, ohi bezala, eta dio erroa *Labourd*-en eta *Labeaga*-n dugun bera dela, *labe* 'labea' eta bereziki 'galtzina-labeu', baina 'arragoa' ere izan daitekeela. Bukaera multzokaria edo lekuzkoa iruditzen zaio.

Laphizketa / Lapiste

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 93): *Lapista* (1513).

Goihenetxe (1966: 281): *Lapiste* (1351).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en P. rector de las glisies de l'Apisto, de Behasquen e d'Ayxiritz* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 202): *Lapista* (1513).

Zierbide (1993): *Lapiste* (1350-1353, 32, 34. orr.; 1412-1413, 75. or.).

Zabaltza (1997): *en P(ere), rector de las glisies de l'Alpisto, de Behasquen e d'Ayxiritz* (1316, 265, 453. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 10) *Laphitsketa* du, **Lhandek** (1926: XXXVI, 652) *Lapitzketa*, **Dassancek** (1966: 161) *Laphizketa*, **Goihenetxek** (1966: 281) eta **Orpustanek** (1990: 53) *Lapizketa*, **Lemoinek** (1977: 202) *Lapisketa*. Herritarren izena *lapitzketarr* (**Lhande**), *laphizketar* (**Dassance**), *Lapizketarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Laphizketa* (*Behaskane-Laphizketa*) eta *laphizketar* (*behaskandar-laphizketar*) hautetsi zituen aldaera araututako.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Laphizketa* eta *laphizketar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak

Lapizketà; hōri jüntátja dá, órtjan pasatü tü Beáskanè, Beáskanekin jüntátja dá hōri, Lapizkèta; lapizketaRàk, Lapizketà heRia, Lapizketàt jwánbeauüt, Lapizketatik héldü níz (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Hatanen arabera (1895: 10) 'buztin-harri ugaritasuna' adierazten du toponimoak; **Lemoinek** (1977: 202) *lapitz*, *laphitz* 'marne, schiste, ardoise' dakusa oinarrian. **Orpustanen** irudiko (1990: 53) *lapitz* 'marne, ardoise'

gehi *-eta* leku atzizkiaren txistukari ondoko *-keta* aldaera ditugu hemen; izen ofiziala *lapízketa* azentuatzearen ondorio da.

Larribarre / Larribar

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 95): *Larribar* (1472), *Larriha* (1513).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 388): *Larribar* (1474).

Goihenetxe (1966: 281): *Larriuarr* (1294), *Larreybar* (1351, 1364^o), *Larrabar* (1389), *Larreyuar* (1393), *Larraybar* (1393), *Larribera* (1395), *Larribar* (1472).

Gartzia Larrageta (1976-77): en *Remon Bernart rector de la glise de Larreybar* (1316, 166, 652. or.).

Lemoine (1977: 202): *Larribar* (1472).

Orpustan (1990: 53): *larrayvat* (1304), *larrayvarr* (1309, 1350), *larraybarr* (1413).

Zierbide (1993): *Larrayuar* (1350-1353, 33. or.), *Larraibar* (1412-1413, 75. or.), *Larraybarr* (1412-1413, 80. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Arnaut d'Iraçaval de la parropie Larreyvar* (1393, 249, 70. or.).

Zabaltza (1997): en *Remon Bernart, rector de la glisie de Larreybar* (1316, 265, 453. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 11) *Larribar* du, **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX), **Dassancek** (1966: 161), **Goihenetzek** (1966: 281) eta **Orpustanek** (1990: 53) *Larribarre*; **Lhandek** (1926: XXXV, 656I) *Larribare* jasotzen du eta **Lemoinek** (1977: 202) *Larriha*. Herritarren izena *larribar[estarr]* (**Lhande**), *larribartar* (**Dassance**), *Larribartarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Larribarre* (*Larribarre-Sorhapürü*) eta *larribartar* (*larribartar-sorhapürtar*) eman zituen aldaera araututzat.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Larribarre* eta *larribartar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

LàRibáR, LaRibaRén, laRibaRtaRá (E. Larre), LaRibaRè, laRibaRtaRàk, laRibaRtaRèk sós anitz bauté, LaRibaReât ábja níz, LaRibaRetik, LaRibaRekò meRá úntsa ezáutzen dút (L. Xuri).

Etimología azalpenak:

Hatanek (1895: 11) *Larre-ibar* zatitzen du izena eta 'touya-plaine, plaine au milieu des touyas' dela erraten; ematen duen azalpena hau da: herritik hurbil bada zelai txiki bat, urtik hurbil, "landen" artean. **Dauzat & Rostaingen** arabera (1983 | 1963): 388) *larre* 'pâturage' eta *ibar* 'vallée' dira osagarriak; adiera, berriz, 'vallée du pâturage ou de la lande'. **Lemoinek** *larre, larra* 'pâturage, terre inculte' dakusa lehen osagaitako eta *ibar* 'vallée' bigarrentako, baina hondarreko hau dela-eta honakoa gehitzen du: "à moins qu'il ne s'agisse d'un mot gasc., arribère, la rive (de la Bidouze)". **Orpustanek** (1990: 53) *larra-* (< *larre*) eta *ibar* dakuski toponimoan, *Lantabat* auzo ibarraren euskarazko bete-beteko forma hain justu ere.

Lüküze / Luxe

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 106): *Luxa* (XII. m.), *Luixe* (XIII. m.), *Lucxa* (1384), *Lucxe* (1472).

Raymond (1873): *Luxa* (1105-1119, 8, 41, 57. agiriak, 9, 32, 45. orr.), *Luxe* (1119-1136, 83, 86. agiriak, 68, 71. orr.; 1246, 158, 159. agiriak, 133, 135. orr.), *terra de Lucue* (? 1150-1167, 122, 105. or. Raymondek *Lukumendi* salarekin identifikatzen du; Goihenetxek [1966: 272] galdera marka ezartzen dio berdintze horri).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 419): *Luxa* (XII. m.).

Castro (1957-58): *Pero Periz de Lucxa* (Erriberri, 1393, XX, 16, 12. or.), *Arnaut Sanz, señor de Lucxa* (ibid., 102, 46. or.), *Arnaut de Lucxa* (1414, XXXI, 302, 168. or.).

Goihenetxe (1966: 282-285): *Luxa* (1072-1105, 1105-1119, 1247, 1249, 1292, 1326, 1328, 1347, 1351, 1353, 1367, 1369, 1384, 1385, 1386, 1396, 1398, 1399, 1401, 1405, 1407, 1429), *Luxe* (1119-1136, 1167, 1241, 1246, 1297, 1328, 1338, 1351, 1354, 1359, 1391, 1396, 1397, 1399, 1406, 1407), *Luixe* (XIII. m.), *Luxsa* (1247), *Lucxa* (1294, 1354, 1360, 1368, 1372, 1378, 1380, 1381, 1382, 1384, 1385, 1387, 1396, 1399, 1400, 1401, 1407, 1428), *Lucxa* (1341, 1342, 1353, 1361, 1367, 1374), *Lucxe* (1364, 1365, 1404, 1451, 1472).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en pere Arnalt de Luxe* (1316, 166, 657. or.).

Lemoine (1977: 203): *Luxe* (XII. m.), *Luixe* (XIII. m.), *Lucxa* (1384), *Lucxe* (1472).

Orpustan (1990: 64): *luxa* (1105-19, 1264), *luxe* (1119-36), *luc* (1249), *luixe* (XIII. m.), *lucxa* (1264).

Zierbide & Santano (1990): *Arnalt Lup, seynhor de Luxe* (1362, 24, 65. or.), *Sapien totz que jo, Arnaut Lup, seynhor de Luxe* (1363, 33, 70. or.), *Pes de Lucxe, seynor de la Sale d'Eliaçagaray de Bunos* (1375, 69, 97. or.).

Zierbide (1993): *Luxa* (1350-1353, 28, 34, 41. orr.), *Lucxe* (1412-1413, 82. orr.).

Zierbide & Santano (1995): *Pero Peritz de Lucxe* (1385, 205, 31. or.), *Arnauton Lucxa, ferer* (1387, 219, 43. or.), *Bernat de Lucxe, capera de Beguios* (1395, 262, 93. or.), *Arnauton de Lucxe* (1397, 284, 109. or.), *Bernart de Lucxa, Adam de Lucxa* (1292, 354, 186. or.), *Pes de Luxa* (1326, 354. 190. or.), *Jo, Arnaut Santz de Tardetz, seynor de Luxe* (1406, 356, 212. or.).

Barragan (1997): *inter domnos de Luxa et d'Acromonte (...) super domnis de Luxa et de Acromonte* (1341, 142, 248-249. orr.).

Ruiz (1997): *Martinus Henrici. vexillarius, domnus de Acromonte, domnus de Lucxa* (1350, 3, 4. or.), *el noble don Arnalt Lup, seynnor de Lucxa* (1351, 15, 20. or.).

Zabaltza (1997): *Pere Arnalt. rector de la glisie de Luxe* (1316, 265, 453. or.).

Ruiz (1998): *don Arnalt Lup, seynnor de Lucxa (...) del dicho seynnor de Lucxa* (1362, 312, 10. or.), *don Arnalt Lup, seynnor de Lucxa, sobre los peages de Ostasuailles, de Sant Pelay et de Garriz* (1363, 699, 352. or.).

Carrasco (1999-1): *Al seynnor de Luxa, para garnir lo castel de Luxa, 20 kafices per litteras regis (...) A Lop Garsia de Luxa, balester* (1266, 354. or.).

Euskal Testuak:

- "Lukuze bere gazteluaren inguruan hiribil, Garroze birkar batean iduri zernahi, eta huna nun giren, patar izigarri baten zolan, Dona-Paleon", J. Etxepare (1984: 16).
 - "Orai, bazkal giten ostatuan! Ostatu onean gira, goseak leku egina derauku barnean, arno gozoak dira **Lukuzekoak**", J. Etxepare (1984: 18).
 - "Ez giniakike chuchen noiz ez nola erori zen **Lukuzeko** jaunen eskuetar". S. Ostopetarra (*Gure Herria*, 1933, XIII, 204-212, 497-506; Euskara CorpUSA).
 - "Bere arbasoen berri zahikeen Piarre-Arnaud jaunak; bethidanik gizon gose eta gogorren omena zuten **Lukuzetiarrek**". S. Ostopetarra (*Gure Herria*, 1933, XIII, 204-212, 497-506; Euskara CorpUSA).
 - "Jauregi ederrak badira ere Arberatzen, Bizkaian, Elxarrin, Itorrotzen, **Lukuzen** eta **Uhart-hirin**", J. Casenave (1983: 9, Euskara CorpUSA).
 - "**Lukuzeko** aitorekin ahaide ziren, XIII mendean Nafarroako erret-biltzarretan onetsiak", Lafitte (1990: 155).
- "**Lukuze** Mehatzordan sartia'uk hire kabala", Etxamendi (1988: 91).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 12) *Lucuse* dakar, **Lemoinek** (1977: 203) *Lukuse*, **Raymondek** (1863: 106) eta **Luchairek** (1874: 7) *Lukuce*. **Azkuak** (1969 [1905]: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 690), **Caro Barojak** - **Hariztoik** (1945: 110), **Dassancek** (1966: 161), **Goihenetxek** (1966:

282) eta **Orpustanek** (1990: 64) *Lukuze* biltzen dute. Herritarren izena *lukuz[aj]tarr* (**Lhande**), *lukuztar* (**Dassance**), *Lukuztarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Lukuze* eta *lukuztar* hautatu zituen, *Lukuze-Altzumarta* eta *lukuztar-altzumartar* segidetan ikus daitekeenez.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Lühüze* eta *lühüztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Luküze (**E. Etxarren**), *Luküze*, *Luküzén*, *luküztaRà* (**E. Larre**), *wái hóri Gámwe ta Zwázi ta Aitzítze bezalá biak bildjak dirá Lüküzekin*; “*Lüküze*” *eRáiten dá üsü*; *AltzümaRtà eztá kási géjao áiptü, jüntátjak dirá, Gámwe ta Zuázti bezalá*; *Lüküzè, Lühüzèn, Lühükèkò jaunák, Lüküzekwák iten dü, LüküztaRàk, Lüküzát⁴¹ ábja níz; Lüküzetik⁴²* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Luchairek (1874: 7) *Luxe* aldaera euskarazko *Lukuze*-tik atera dela dio, frantses ebakerak sortu duen itxuratzartzearen ondorioz; “osakera etimologikoa” aski bistakoa dela ere gehitzen du, baina ez du bestelako azalpenik ematen. Aitzinago, herriz, lan berean (29. or.), *Luku-cé* zatitzen du izena eta dio *cé* hori atzizkia dela, *za* leku-ugaritasunezkoaren parekoa. **Hatanek** (1895: 12) latineko *lucus* ‘bois sacré’ hitzetik datorrela uste du eta zehazten herriko basoa ospetsua dela; **Lhanderen** iritzian ere (1926: 690) latineko *lucus* ‘bois’-etik dator.

Gavelen arabera (1931: 46-47) latineko *lucus* izenetik abiatu behar dugu *Lukuze* azaltzeko. Zernahi gisaz, ez du zehazten *lucus* horren balioa zein den, Espainian eta Frantzia ugariak direla erraten badu ere (*Lugo*, *Lugones*, *Luc*, *Lucq*, *Les Lucs*... Biarnoko *Luc*, *Lucgarrier* ere aipatzen du, eta *Lucu(m) gallinariun(m)*-etik atera dela gaineratzen). Forma osoa azaltzeko *lucus* nominatibotik abiatu beharra dela azaltzen du; hemendik, *s* (latinez) > *z* (euskaraz) egokitzeaz eta toki atzizkia den *-e*-ren eransketaz *Lukuze* aterako zen. Dena dela, *Lukuz-*, hau da, atzizkirik gabeko aldaera, pluraleko akusatibotik ere, *lucos*-etik, atera zitekeela erraten du, bokal asimilazioz. **Dassancek** ere (1949: 207) latineko *lucus*-etik atera dela uste du.

41. Azentu nagusia lehen *ü*-ren gainean da.

42. Azentu nagusia bigarren *ü*-ren gainean da.

Caro Barojak (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Lukuze* biltzen du eta erraten hau latineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atzizkia duten Hegoaldeko herri izenekin erlazonaturik dagoela. **Dauzat & Rostaingen** arabera (1983 |1963|: 419) osagaiak *luze* eta *sunber* 'poutre' 'gapirioa' dira. **Lemoinek** (1977: 203) Azkuek biltzen duen lapurterazko *luku* 'bois' (latineko *lucus*-ekin alderatzeko galdegiten du) proposatzen du oinarritako eta erraten segur aski *-tze* atzizki multzokaria ere badagoela toponimoan.

Mitxelenak tradizioz heldu zaigun etimologiarekin bat eginez *luku* 'basoa'-tik eratortzen du *Lukuze* (AV, 416) eta Galiziako *Lugo*, Biarnoko *Lucq* eta Kataluniako *Lluch*-ekin erlazonatzen. **Corominesek** (1972: 299) *lucus* etimologia onartzen du eta zehazten *Lukuze* aldaera «aitzineuskaldun»-etik okzitaniar hizkeretan *Lücs* atera dela, proparoxitonoak ezabatze-ko duten joeragatik, baina azentua jatorrizko silabau atxiki dutela, euskarak ez bezala, honek bukaera aldera mugitu baitu. **Orpustanek** ere (1990: 64) *lucu(m)* 'bois'-etik eratortzen du (ikus, orobat, 1999: 71).

Martxueta / Masparraute

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 109): *Mauzbarraute* (1080), *Mans-Barraute* (XII. m.), *Mazbarraute* (XII. m.), *Mazparraute* (1402), *Masperaute* (1434), *Masberrauta* (1443), *Masparrauta* (1462), *Masperrauta* (1462), *Mazparrauta* (1513).

Raymond (1873): *Manz-Barraute* (1105-1119, 104, 86. or.; 1119-1136, 5 eta 83. agiriak, 4 eta 69. orr.; 1150-1167, 128, 108. or.), *Mans-Barraute* (c. 1125, 93, 79. or.; 1150-1167, 106, 87. or.), *Mazbarraute* (1150-1167, 113, 94. or.), *Manz-Beraute* (1150-1167, 121, 103. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 440): *Mauzbarraute* (1080), *Mans-Barraute* (XII. m.).

Goihenetxe (1966: 286): *Manz-Barraute* (1119-1136), *Mans Barraute* (1119-1136), *Manz Beraute* (1150-1167), *Mazbarraute* (1150-1167), *Mans Barrauta* (1249), *Mans Berraute*, *Munsberraute* (1249), *Mazberraute* (1249), *Mezparraute* (1328), *Mazparrauta* (1344, 1396), *Amesberraute* (1353), *Masparraute* (1360, 1396, 1401), *Mazparraute* (1364, 1381, 1387, 1428), *Mazpiraute* (1381), *Mesparraute* (1383, 1391), *Mazparaute* (1388), *Masparralta* (1392), *Masparrauta* (1392, 1396), *Marcoeta* (1394), *Masperraute* (1451), *Masperrauta* (1462).

Gartzia Larrageta (1976-77): *n'Auger so fray donzet, seynner de Gabat e de Mazparraute; en Villem Bernart rector de la glisie de Masparraute* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 251): *Mauzbarraute* (1080), *Mansbarraute* (XII. m.), *Mazbarraute* (XII. m.), *Mazparraute* (1402), *Masperaute* (1434), *Masberrauta* (1443), *Masparraute* (1462).

Orpustan (1990: 68): *manzbarraute* (1080, 1119-36), *mazberraute* (1119-36, 1304), *mazperaute* (1309), *mazparrauta* (1350), *mazparraute* (1413), *marchoete* (1413).

Zierbide (1993): *Mazparrauta* (1350-1353, 36. or.), *Mazparraute* (1350-1353, 39. or.), *Mazparraute* (Garrüzen, 1412-1413, 80, 83. orr.).

Zierbide & Santano (1995): *Sapien totz que jo, Pelegrin de Mazparraute* (1441, 347, 177. or.).

Zabaltza (1997): *en Villem Bernart, rector de la glisie de Masparraute (...)* *seynner de Gabat e de Mazparraute* (1316, 265, 453. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Marchueta* du, **Hatanek** (1895: 12) *Marchota*, **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX) *Martsueta*, **Lhandek** (1926: XXXVI, 716) eta

Orpustanek (1990: 68) *Martxueta*, **Dassancek** (1966: 161) eta **Goihenetzek** (1966: 286) *Martxuta*, **Lemoinek** (1977: 251) *Marchuta*. Herritarren izena *martxuetarr* (**Lhande**), *martxutar* (**Dassance**), *Martxuetarr*, *Martxutarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehenengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Martxuta* eta *martxutar* hautatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Martxueta* eta *martxuetar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Martxúta, *Mártxután*, *MaRtxútaRà* (**E. Larre**), *MáRtxwetà*, *máRtxwetaRàk*, *MáR(t)xwetatik*, *MáRtxwetaràt*, *MáRwetaRàt*, *MaRwétakò eRiàk badú ètxe ànitàz, ène kúsia MáRtxwetàn bìzi dá* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 12) aldapan dagoen ardantzea dela dio, mahasti zuta; jatorrizko izenari silaba bat kendu zaiola uste du. **Dauzat & Rostaingen** arabera (1983 [1963]: 440) latineko *mansus* 'etxetiar bakarra duen bazterretxe modukoa' eta *Baroald* gizon izen germaniarra dira osagarriak.

Corominesen irudiko (1972: 302-303) euskal eta erdal aldaerak hain desberdinak direnez ezin dugu baztertu, hasierako eta bukerako (-*aute* = -*eta*) identitatea gorabehera, lotura gutxiko bi izen desberdin direlako ustea. Hizkuutzalari katalanaren iritzian, euskal aldaera **Mansueta*-tik atera zatekeen (< *mansus* 'baserri, bazterretxe handia' + -*eta*), nahiz disimilazioa gauzatzea lekune horretan ez zaion biziki erraza. Biarnesek, berriz, *Martxuetara* joateko *Arrueta*-tik (*Arraute*-tik) igaro behar zutenez gero, **Mansuarraute* deituko zuten herria, zein euskaldunen ahotan *Ma(n)sbarraute* bihurtuko baitzen aurrenik eta *Masparraute* gero.

Lemoinek (1977: 251), Coromineseu bidetik, latineko *mansus* edo *mansio*-ren eratorria dakusa leheu osagaian; bigarrena *Arraute* da autore honen arabera, eta bien arteko -*p* hori eufonikoa. **Orpustanek** (1990: 69-70) *Masparraute*-rendako Corominesek ematen duen azalpena onartzen du eta dio euskarazko izena erdarazkoaz bestelakoa dela. Azkenekoaren oinarritzat Garaziko *Marxoerri* (*Marlxoberri* orain) kapare etxean ageri den *marxo* hilaren izena proposatzen du, baina gehitzen du ez dakiela batere *marxo* honek Erdi Aroko toponimian zer erran nahi zuen. Beranduagoko beste lau bateau (1999: 54, 118, 239-240) erraten du *Masparraute*-ren lehen osagaia

mansu dela eta bigarrena *berroeta* 'lieu de broussailles', zein gaskoi fonetikari *berraute* bihurtzen baita. Liburu berreko hitz-zerrendan (333. or.) *maz* 'mas' (< *mansu*) aipatzen du.

Guk ez dakigu euskal eta erdal izenak etimo beretik atera diren ala ez, Corominesek erraten duen bezala hastean eta finitzean eitea badute ere. Zernahi dela, euskal aldaera ere zaharra da, Goiheretxek biltzen duen 1394ko *Marcoeta*-ren eta Orpustanek jasotzen duen 1413ko *marchoete*-ren ondorengoa baita. Lekuko zaharrena den horretan *Martzoeta*-ren moduko zerbait ikusi beharko da, ez *Markoeta*.

Oragarre / Orègue

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 126): *Oregay* (1513), *Oregar* (1621), *Oreguer* (1665).

Castro (1957): *Oregue* (1394, XX, 853, 368. or.).

Goihenetxe (1966: 289-290): *Oreguerr* (1381, 1408), *Oreguer* (1385, 1400, 1405), *Oreger* (1387), *Doreguer* (1388), *Oreguerre* (1394), *Oraguer* (1395), *Urrreguer* (1398), *Orenguer* (1398), *Oregarren* (1399), *Ureguer* (1399), *Oregerr* (1403), *Oraguerr* (1404), *Orguer* (1407), *Orengiel* (1407), *Orreguer* (1407), *Oraiguerr* (1407).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en Pere, seynner de la Sale d'Orreguer; en [Remon] rector de la glisie d'Orreguer* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 206): *Oregay* (1513), *Oregar* (1621), *Oreguer* (1665).

Orpustan (1990: 71): *orreguer* (1316), *oreger* (1350), *oreguer* (1413), *oregay* (1513).

Zierbide (1993): *Oreguer* (1350-1353, 34, 42. orr.), *Oregue* (1412-1413, 84. or.).

Zierbide & Santano (1995): *aus bezins et huniversitas de le parropi d'Oraguer (...) los bezins de le parropi d'Oraguer* (1395, 274, 101. or.), *Espan, seynor d'Oreguer* (1372, 354, 201. or.).

Zabaltza (1997): *n'Arnalt, seynner d'Orreguer; en Pere, seynner de la Sale d'Orreguer* (1316, 265, 453. or.); *en [Remon] rector de la glisie d'Orreguer* (ibid.).

Euskal Testuak:

- "Bardotzen, Doniane-lohizunen, **Oraarren**, Mendiondoan eta Makean lehia beraz orai beretik igi balite- ez ditugu izendatzen Ziberoko herri tarro zombait (...)", J. Etxepare (1984: 115).
- "Aldiz, zazpi sartu zaizkigu sailean lehen aldikotz: Arbona, Kanbo, Irisarri, Mugarre, **Oragarre**, Donaixti eta Sara", J. Etxepare (1984: 119).
- "Ama Marie-Bibiane gure serora maitea **Oragarerat** izendatua da", Arraya (*Herria*, 1962-03-22, 607 zk., 3; Euskara Corpusa).
- "**Oragarreko** ttantta Mayi (...) mahastiari buruz joan zen eta hango hesi batetan elorri xuri ziztro bat pikatu zuen", Landart (1978: 13).
- "Aita, maiz mintzatzen zitzaigun **Oragarre** Haizaharreak (...)", Landart (1978: 48).

– “Zeren Donamartiritik **Oragarre**, patarrez-patar oinez joan behar baikeuen Isturitzeko mendietan han-hara”, Landart (1978: 49).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Oraarre* dakar, **Raymondék** (1863: 126) *Orabarre*, **Hatanek** (1895: 12) *Oagare*, **Azkuék** (1969 [1905]: XXIX), **Dassancek** (1966: 161) eta **Goihenetzék** (1966: 299) *Orabarre*, *Oragarre*. **Lhandek** (1926: XXXVI, 814) *Oragarre*, *Oraarre* jasotzen ditu, **Lemoinek** (1977: 206) *Orabarre* eta **Orpustanek** (1990: 71) *Oraare*. Herritarren izena, autoreen arabera, hau da: *oragartarr*, *oraartarr* (**Lhande**), *oraartar* (**Dassance**), *Oraartarr*, *Oragaitarr* (**Orpustan**, “selon Lhande”).

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Oragarre* eta *oragartar* hohetsi zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Oragarre* eta *oragartar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

OráaRè, OàRèn, oráaRtaRà, oráartaRà (**E. Larre**), *OàRe, OàReàt, OàRetik, OàRèn, oàRtaRèk, oàRáRtaRàk* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 112) *Goa-gare* ulertzen du izena eta ‘gaina’ ‘leku gora’ adiera ematen dio. Autore honek dioenez *Oragarre* Amikuzeko oihaneko tokirik altuena da; hasierako *g-* kendu, moztu egin zaio. **Lemoinek** (1977: 206) *orre* ‘genévrier’ eta *garai* ‘en haut’ dakuski toponimo honetan. **Orpustanek** (1990: 71) *or-aguerre* ematen ditu toponimoaren osagaitzat; lehena *orre* ‘ipurua’ edo *oru*, *orue*, *orube* ‘domaine, sol, emplacement de maison’, ‘place’ da eta bigarrena, berriz, toponimian hain zabaldurik dagoen *agerre*, *Agirre* ‘lieux en vue’. Osotasunak ‘emplacement, ou domaine, ou sol en vue’ da *orue*(e), *orube* hartuz gero, eta ‘hauteur des genévriers’ *orre* ikusiz gero.

Egungo euskal aldaeran edo 1621eko *Oregar*-en oinarrituz gero toponimoak Nafarroa Garaian kausitzen ditugun *Añezkar*-en eta *Ugar*-en bukaera bera dukeela kontn egin genezake, eta menturaz *Otsakar* eta *Ukar*-ekin nola-baiteko lotura dukeela; *Lakar* ere bada mugaz hegoaldean, eta *Lakarra* mugaz iparraldean. Hala ere, dokumentazioa ikusirik, garbi ageri da *Oregar*, *Oragarre* baino zaharragoak direla *Oreguer* (1372), *Oraguer* (1395), *Oraguerr*

(1404) eta hauek baino arago 1316ko eta 1407ko *Orreguer*, dardarkariekin, txistukariekin bezala, trakasarik aski izaten bada ere. Bilakaera, hortaz, hau izan daiteke: *Orreger* (hots, *Orregerr*) > *Oreger* (dardarkari disimilazioz) > *Orager* (bokal disimilazioz) > *Oregar* (metatesiz), *Oragar* (bokal asimilazioz edo azken dardarkariaren ondoko *e* > *a* irekitzeaz) > *Oragarre* (Iparraldeko eta Frantziako leku izen anitzetan gertatu den berrinterpretatzeaz: *Frantziako*, *Frantzian* = *Frantzia* + *-ko*, *Frantzia* + *-n*; hortaz, *Pariseko*, *Parisen* = *Parise* + *-ko*, *Parise* + *-n*). Etimologia, dena dela eta erranak erran, iluna da guretako.

Ostankoa / Orsanco

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 127): *Orsacoe* (1120), *Orquancoe* (1513).

Raymond (1873): *Orsacoe* (119-1136, 84, 69. or., 1150-1167, 124, 106. or.), *Orsanchoe* (1150-1167, 124, 106. or.).

Goihenetxe (1966: 290): *Orsacoe* (1119-1136), *Orsanchoe* (XIII. m.), *Orsahaco* (1249), *Orçacos* (1293), *Orçancoe* (1294), *Horcanquoa* (1364), *Orçancoa* (1388), *Orcanquoa* (? , 1394), *Burçanco* (1395).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en guilem arcipreste de Mixe rector de las glisies de beyrie e d'Orçacoe* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 128): *Orsacoe* (1120), *Orquancoe* (1513).

Orpustan (1990: 59): *orsanchoe* (1119-36), *orsacoe* (1119-36), *orsahaco* (1119-36), *orzanquem* (1119-36), *orçacua* (1264), *orçacua* (1292), *orçanchoz* (1304), *orçancoa* (1349), *arçanquoe* (1413).

Zierbide (1993): *Orçancoe* (1350-1353, 37. or.), *Orçanquoe* (1412-1413, 79. or.).

Zabaltza (1997): *rector de las glisies de Beyrie e d'Orçacoe* (1316, 265, 453. or.).

Carrasco (1999-1): *De francage de Orçacua et de Berina, 10 soltz* (1266, 219. or.).

Euskal Testuak:

- "Eman izenak lehen bai lehen: Joanes Goyhenetche, **Ostankoa**ko auza-pezari", egile ezezaguna (*Herria*, 1989-04-06, 1998 zk., 5; Euskara Corpusa).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Raymondek (1863: 127), **Hatanek** (1895: 11), **Dassancek** (1966: 161), **Goihenetxek** (1966: 290), **Lemoinek** (1977: 128) eta **Orpustanek** (1990: 59) *Ostankoa* biltzen dute; **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX) *Ostankoa* du eta **Lhandek** (1926: XXXVI, 830) *Ostankoa*, *Ostanko*. Herritarren izena *ostankoar* (**Lhande**), *ostankoar*, *Ostankoar* (**Dassance**, **Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Ostankoa* eta *ostankoar* hautatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Ostankoa* eta *ostankoar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Ostánkoa, Ostánkwàn, ostánkoaRà (**E. Larre**), *Ostánko ostíkwen tirátzeco, Ostánkwàn, ostánkoarrà* (**E. Etxarren**), *Ostánkwa, ostánkwaRàk, Ostánkwàt, Ostánkotik, Ostánkokò méra ezáutzen dút* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 11) 'ur santua' adiera ematen dio toponimoari. **Lemoineren** arabera (1977: 128) izen hau ezin azal daiteke euskararen bitartez eta *Ursantius* edo *Ursancus* antroponimoak proposatzen ditu oinarritako; gehitzen du itxuraz aldaera zaharrak sudurkarituak zeudela. **Orpustanek** (1990: 59-60, 1999: 339) Lemoineren azalpen antroponimikoa ezesten du eta gaineratzen oinarrian *urd*-en aldaera den *orz*- 'dent, cassure' edo *urz*- 'petit plateau' dagoela; bukaeran *-anko* atzizki arkaikoa dugu, *-asko*-ren kidea eta txikigarria.

Caro Barojaren bidetik (1990 [1945]: 102-110) antroponimo batean oinarriturik dagoela pentsa daiteke; Berako ikertzaileak Aiarako *Urzanico* herri hustua aipatzen du, *antroponimo* + *-icus* atzizkiaren bitartez sortu diren toponimoak aztertzean (cf. Nafarroako *Urzante* eta Aragoiko *Sabiñánigo*, bigarrena *Sabinianus* batetik eta hau, azken tokian, *Sabinus, Sabinus*-etik). **Mitzelenak** (AV, 54) zenbait euskal toponimoren *-ango* bukaera erdal herri izenen *-anco*-rekin bat datorrela azaltzen du eta gehitzen **Bähr**-ek (1948: 38-39) *Durango* toponimoa *Turancus* antroponimotik eratortzen duela; Errenteriakoak *CIL*-en ageri den *Abilus Turanci f. domo Lucoadiacus* idazkuna ere aipatzeu du.

Gure ustez Erronkaribarko *Urzainki* herri izena Aiarako *Urzanico*-rekin lotua egon daiteke; bukaeran aurkezten duten aldea jatorrizko izena kasu banatan egoteari zor zaiokie (*Ursanici* eta *Ursanicu(m)* adibidez). Nolanahi ere, hemen mintzagai dugun toponimoan haste-hastetik sudurkaridun / sudurkaririk gabeko aldaeren arteko aldizkatzea gertatzen da, bildutako lekukotasunetan ikus daitekeenez. Hau biziki garrantzizkoa da, besteak beste toponimoaren oinarrian antroponimoa dagoen edo beste zerhait dagoen kontu egiteko. Adibidez, Lintzoaingo *Orzakoa* etxe izenarekin loturik egon daiteke, honen etorkia zein den ez badakigu ere (cf. "Margarita de Orçacoa Viuda de Pedro de Iusarreta y dueña de la casa que llaman de Orçacoa en la Valle de Erro", *Uharteko* p., 41, 1666).

Oraingo *Ostankoa* azaltzeko *Orzankoa*-ren moduko batetik abiatu beharko dugu; bilakaera *bertze* > *beste*-n edo *ortzegun* > *ostegun*-en izan den bera izan da, irudi duenez.

Oharra:

Orzanco Nafarroa Garaiko deitura da egun.

Sarrikota / Charritte

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 48): *Sarricoata* (1513).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 176): *Sarricoata* (1513).

Goihenetxe (1966: 274): *Sarrita* (1366), *Sarritta* (1366), *Sarrite* (1366), *Ssarriette* (1381), *Sarricoata* (1513).

Gartzia Larrageta (1976-77): *e us perropiantz d'Ilharre e de Biscay e de sarrite* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 207): *Sarricoata* (1513).

Orpustan (1990: 67): *sarrite* (1316), *sarritte* (1350), *ssarriette* (1381), *sarricoete* (1513).

Zierbide (1993): *Sarrite* (1350-1353, 37. or.), *Sarryte* (1412-1413, 83. or.).

Zabaltza (1997): *e us perropiantz d'Ilharre e de Biscay e de Sarrite* (1316, 265, 453. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Charricota* du, baina ez dakigu Zuberoako izen bereko herria ez ote den. **Raymond** (1863: 48), **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 917), **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 176), **Dassancek** (1966: 161), **Goihenetxek** (1966: 274), **Lemoinek** (1977: 207) eta **Orpustanek** (1990: 67) *Sarrikota* biltzen dute. Herritarren izena *sarrikotarr*, *Sarrikotarr* (**Lhande**, **Orpustan**), *sarrikotar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Sarrikota* (*Arruta-Sarrikota-Amikuze*) eta *sarrikotar* (*arrutar-sarrikotar*) hautatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Sarrikota* eta *sarrikotar* hobetsi ditu; izen bereko Euskal Herriko beste herriren batetik bereizi behar denean *Sarrikota Amikuze* erabiltzeko agintzen du Akademiak.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Xàrrikóta (**E. Etxarren**), *XaRikotà*, *XaRikotàn*, *XaRikotaRà* (**E. Larre**; honek hau gehitu zuen: *Badirè bi XaRikotà: pia ta gáina*), *XaRikotà*, *óri erè*

jüntatja dá Arrótaikin; xaRikotaRak, XaRíkotât, XaRíkotatik, XaRíkotàn, XaRíkotán, XaRíkotakò méra, eztá méraik (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Mitzclenaren arabera (1956: 173) zenbait toponimoren herri ebakerak azentua antzina bigarren silaban zihoala pentsarazten du; adibideen artean *Mixe / Amikuze* eta *Charritte / Sarrikota* aipatzen ditu.

Dauzat & Rostaingek, Gaveli jarraikiz, erraten dute hemen segur aski 'lieu du petit coteau' dugula (1983 [1963]: 176); osagaiak *sarri* 'mendikoa', *-ko* atzizki txikigarria eta *-eta* lokatiboaren laburtzearen emaitza den *-fo* (sic) dira. **Corominesek** (1972: 301) erdarazko *Charritte* aldaera euskarazko ebakera txikigarritik, *Xarrikota-tik* atera dela erraten du. Azaltzen du, orobat, euskal aldaerak silabak hobeki gorde dituela eta biarnesak, berriz, azentugunea atxiki duela.

Lemoinek (1977: 207) *saro, sari, tcharra, çara* 'basoa', 'zuhaitzez inguratutako artzaintzako etxola'-tik eratorzen du. Nabarmentzekoa da izen honetan ez duela *-eta* "atzizki multzokaria" ikusten; bai ordea «Sarrikotapea» eta «Sarrikota Gainea»-n. **Orpustanek** (1990: 67-68) **sarri-ko-eta* ulertzen du toponimoa; autore honen arabera lehen osagaia *sarri* 'taillis, fourré, buisson' da eta bigarrena *-ko* atzizki txikigarria edo *-kun* lekuzkoaren laburtzearen ondorea.

Itxuraz garbi samar dago izen hau Zuberoako *Sarrikotagaine* eta *Sarrikotapea*-rekin lotzekoa dela. Etimologiari dagokionez, uste dugu oinarrian *sarri* 'baso trinkoa' dagoela, eta ondoan *-ko* txikigarria duela. Atzizkiak kestione, zentzuzkoena *-eta* leku-ugaritasunczkoa dela pentsatzea da, gure ustean. Euskarazko eta erdarazko aldaeren arteko aldea lehenean atzizki txikigarria agertzea eta bigarreanean ez agertzea da. Ez da hau kasu bakarra Euskal Herrian, zeren egon ere Arakilen erdaraz *Murgindueta* eta euskaraz *Murgieta* deitu izan den herria baitago (ikus *NHI*, 79. or.). Bien arteko desberdintasuna lehenak aurkezten duen *-ndo* atzizki txikigarria da: gainerako osagaiak berak dira, *Murgi* eta *-eta*. *Sarri*, bestalde, ugarria da toponimian; gure herrian, Uxuen, generikotzat agertzen da erdal dokumentazioan, garai batean euskaraz *-eta* menturaz erdaraz ere bai— hala zelako, jakina. Hurrengo hauek kausitu ditugu: *Sarria de Aldamara, Sarria de Artabakoitz, Sarria de Berage, Sarria de Dorrondiaga, Sarria de Larrageta, Sarria de Pipiratu, Sarria de San Nicolás, Sarria de Sulue, Sarria de Villantigua* eta *Sarria de Zaldunaga* (ikus Salaberri, 1994: 831).

Sorhapürü / Sorhapuru

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 162): *Sorhapuru* (XII. m.), *Soharpuru* (XII. m.), *Soarpuru* (XII. m.), *Sorhapure* (1472), *Sorhaburu* (1665).

Raymond (1873): *Soharpuru* (1119-1136, 5, 5. or.), *Sorhapuru* (1150-1167, 4, 3. or.), *Soarpuru* (1150-1167, 4, 3. or.).

Castro (1957): *Urtungo de Sorhaburu* (1393, XX, 264, 112. or.).

Goihenetxe (1966: 299-300): *Soharpuru* (1119-1136), *Soarpuru* (1150-1167), *Sorhapuru* (1150-1167, 1389), *Soraburu* (1249, 1266, 1293, 1328, 1358, 1389, 1393, 1397, 1398), *Sorapuru* (1328, 1365), *Sorhaburu* (1355, 1356, 1387, 1391, 1394, 1398, 1399), *Sorarpuru* (1395), *Sorralburu* (1398), *Sorheburu* (1401), *Sorhapure* (1472).

Lemoine (1977: 208): *Sorhapuru* (XII. m.), *Soarpuru* (XII. m.), *Sorhapure* (1472), *Sorgaburu* (1665).

Orpustan (1990: 53): *soharpuru* (1119-36), *soarpuru* (1150-67), *sorhapuru* (1150-67), *sorhaburu* (1304).

Euskal Testuak:

- "Abense-tarrak izan ziren **Sorrapürüko jaun**", Lafitte (1990: 155)
- "Hiru eliza, eskualde honentzako bereziak, altxaturik dira Zuberoko arbera hiru zeinutegirekin: Ezkil-dorre hirukoitzarekin **Sorhapürü**, Berhuetan eta Haranbeltzen", J. Casenave (*Amikuze*, Euskara Corpusa).
- "Donapaleuko kantonamenduan, zuzpi udaletxe eta hamalau herrizka beren elizekin zuberotarrak dira, hona herrizkak: Arübe, Berroeta, Domintxaine, Erribarreita, Etxarri, Itorrotz, Jestasü, Lohitzüne, Oihergi, Olaibi, Ozagaïne, Pagola, **Sorapürü**, Zilekoa", Peillen (*Anuario de Eusko Folklore*, 1994-1995, 39 zk., 224; Euskara Corpusa).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Lhandek (1926: XXXVI, 937) *Sorhapuru* dakar, **Dassancek** (1966: 161), **Goihenetxek** (1966: 299) eta **Lemoinek** (1977: 208) *Sorhapürü*. Herritarren izena *sorhapurutar* (**Lhande**), *sorhapürtar* (**Dassance**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Sorhapürü* (*Larribarre-Sorhapürü*) eta *sorhapürtar* (*larribartar-sorhapürtar*) eman zituen aldaera araututzat.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Sorhapürü* eta *sorhapürtar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

*Sofh*läpürü, *Soápüün* (E. Larre), *Söapü*⁴³ (E. Etxarren), *Soápüün ehün bät jénde hízi dirá*, *SoRápülikwèk eskwára úntsa emáiten duté*, *Soápüüràt*, *Soápürütik* (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Lemoinek (1977: 208) *sorho*, *sorha* 'champ cultivé, puis pré' eta *-puru*, *-buru* 'au bout du' dakuski toponimo honetan. **Orpustanek** (1990: 53) toponimoaren osagaiak *sorha-buru* 'limite des champs (ou des près)' direla erraten du; bigarrenaren hasierako ahoskabea lekuneari edo zubere-rari zor zaiola uste du.

43. Azentu nagusia azken *ü* horren gainean du.

Uhartehiri / Uhart-Mixe

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 170): *Ufart* (XII. m.), *Huart* (1384), *Uhart-Juson* (1599), *Uharte-Juson* (1621), *Uharte-Jusson* (1621).

Raymond (1873): *Pers deu Fard* (c. 1125, 79, 63. or.), *Petrus de Ufart* (1135-1136, 87, 73. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 689): *Ufart* (XII. m.), *Huart* (1384).

Goihenetxe (1966: 303-304): *Pers deu Fard* (c. 1125), *Ufart* (1135, 1136), *Uhart* (1328, 1351, 1353, 1365, 1378, 1385, 1388, 1389, 1392, 1393, 1396, 1405, 1428), *Uart* (1341-1342, 1381, 1405), *Uhart Suzon* (1351), *Huart de Micxa* (1364), *Huart* (1384), *Uhuart* (1405, 1406, 1407), *Huhart Suson* (1428).

Gartzia Larrageta (1976-77): *us perropiantz d'Uhart suson* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 209): *Ufart* (XII. m.), *Huart* (1385), *Uhart Jusou en Navarre* (1599), *Uharte-Juson* (1621).

Orpustan (1990: 52): *deu fard* (1125), *ufart* (1135-36), *uhart suson* (1316), *uarte* (1351), *huart* (1385), *uhart* (1413).

Zierbide & Santano (1990): *E jo, Guillem Arnaut d'Uhart, notari public de Mixe* (1344, 6, 50. or.).

Zierbide (1993): *Huart Suson* (1350-1353, 33. or.), *Uhart* (1412-1413, 75. or.).

Zabaltza (1997): *...us perropiantz d'Uhart suson* (1316, 265, 453. or.).

Carrasco (1999-1): *A don Bertran de Huart* (1266, 354. or.).

Euskal Testuak:

- "**UHARTE-IRI** (414 arima): 1.200", egile ezezaguna (*Eskualduna*, 1924-09-05, 1.292 zk., 2; Euskara Corpusa).

- "**Uharte**, bizi zirea? / Zertan duzu arthaldea? / Garruze Pelegrinean axuririk sortu dea? / Orbaizetako maldak hain baitaude beha...", Otsobi (1992: 290).

- "**Jauregu** Jean **Uharte-hirikoa** Marie Çamalbidekin", egile ezezaguna (*Herria*, 1962-03-22, 607 zk., 3; Euskara Corpusa).

- "**Jauregi** ederrak badira ere Arberatzen, Bizkaian, Etxarrin, Itorrotzen, Lukuzen eta **Uhart-hirin**", Casenave (1983: 9).

- "...eta 1905-ean **Uharte-iriko** bere jauregian hila", Lafitte (1990: 224).

- “*Gilentegirat jin zen mutiko zozoska bat: Erramun, Gilenen kusi bat, Gehazinarean ahizpa baten semea. Uhartiarra. Alabainan lanen egiteko ez ziren aski jende Gilen juanez gero*”, Etxamendi (1988: 71).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) eta **Azkuék** (1969 [1905]: XXIX) *Uhartehiri* dakarte, **Hatanek** (1895: 11) *Uhart*. **Lhandek** (1926: XXXVI) *Uhartehiri* biltzen du lehenik eta *Uharte*, *Uhartarr* gero (ibid., 999). Toki berean *Uharte-garazi*, *Uharte-hiri* bat bertzat hartzen ditu eta ‘Uhart-Cize’ itzultzen; *Uharte* Garaziko bizilaguna *Uhartiarr* da autore honen arabera. **Dassauek** (1966: 161) *Uharte-hiri* eta *uhartiar* biltzen ditu, **Goihenetxek** (1966: 303) *Uharte Hiri*, **Lemoinek** (1977: 209) *Uhartehiri* eta **Orpustanek** (1990: 52) *Uharte*, *Uhartiri* eta *Uhartarr*.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 102) *Uharte-hiri* eta *uhartiar* eman zituen aldaera araututako.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Uhartehiri* eta *uhartear*, *uhartehiriarr* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Uárte hiri; Wartiri; wártjarrák értentzutén, há bá, gúpezalá, uárteiri (**E. Etxarren**), *UáRtiri* (**E. Larre**), *UáRteiri, uáRtjarrák, UháRtiát, U(h)áRtitik héldü níz gileat, UáRtirin, UáRtekò dá* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 11) ‘ur artean’ azaltzen du toponimoa; honen arrazoia herriari izena eman dioten eliza eta gaztelua beheaxeago batzen diren bi uren, bi errekaen artean egotea da. **Mitxelenak** (AV, 96, 572) (*h*)ur izenaren elkarketako aldaerak diren *u(h)-*, *ug-* dakuski *Huarte*, *Ugarte* eta bestetan; bigarren osagaia *arte* ‘tartea, bitartea, erdiko gunea’ da.

Dauzat & Rostaingen arabera (1983 [1963]: 689) toponimoaren osagaiak *ur-en* aldaera den *uh* eta *arte* dira, eta erranahia ‘confluent’; **Lemoinek** (1977: 209) *ur-en* aldaera den *uh-* eta *-arte* ‘au bord de (la Bidouze)’ dakuski toponimoan. **Orpustanek** ere *ur-arte* ‘entre les eaux’ (*Entraigues, Entraigues* okzitaniaraz) ikusten ditu hemen (1990: 53) eta erraten euskal izeneko *iri* ez dela egungo ‘hiria’, latineko *villa* ‘domaine rural’ baizik. Ikus *Donamartiri*.

Unaso / Oneix

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 125): *Onex* (1472), *Onex* (1513), *Oniz* (1621).

Goihenetxe (1966: 289): *Onex* (1388, 1396, 1472), *Onasso* (1394), *Oneys* (1394).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en P(ere) rector de las glisies de Camo e d'Oneyx* (1316, 166, 651. or.), *n'Arnalt Santz caperan d'Oneyx* (ibid., 658. or.).

Lemoine (1977: 242): *Onex* (1472), *Oniz* (1621).

Orpustan (1990: 61): *onnaçu* (1249), *oneyx* (1316), *honeis* (1350), *onasso* (1394), *oneys* (1413).

Zierbide (1993): *Honeys* (1350-1353, 38. or.), *Oneys* (1412-1413, 81. or.).

Zierbide & Santano: *Sapin totz que jo. Arnaut d'Apaleçague, de la parropie d'Oneys* (1395, 264, 94. or.), *Osoa d'Oneys, baile del rey en Cisia* (1247, 354, 186. or.).

Zabaltza (1997): *en P(ere), rector de las glisies de Camo e d'Oneyx* (1316, 265, 453. or.), *Arnalt Santz, caperan d'Oneyx* (ibid., 458. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Raymondek (1863: 125), **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX), **Lhandek** (1926: XXXVI, 808) eta **Lemoinek** (1977: 242) *Onaso* biltzen dute; **Hariztoik** (1977 [1883]: 341) *Unhasso* du, **Hatanek** (1895: 11) *Onasso*, *Onaso*, **Dassancek** (1966: 161) eta **Goihenetzek** (1966: 289) *Unaso*, eta **Orpustanek** (1990: 61) *Onaso*, *Unaso*. Herritarren izena *onastarr* (**Lhande**), *unastar* (**Dassance**), *Unastarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Unaso* (*Amenduze-Unaso*) eta *unastar* (*amenduztar-unastar*) hautatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Unaso* eta *unastar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Unáso, Unáson (**E. Larre**), *Onáson dá* (**E. Etxarren**), *Onáso, óri* (*e)rè jüntátja dá Améndüzekin*; *Onásò, onástaRàk, baút Onasón tánta xaaRát, Onásotik, Ünasón* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 11) ez bururik ez buztanik ez duen 'toki ona' adiera ematen dio. Antzekotzat hartu behar da **Lemoinek** (1977: 242) proposatzen duen *honor* etimoa, hortik abiatu-rik ez lekukotasun zaharrak eta ez euskarazko aldaera azaltzerik ez dagoelako. **Orpustanek** (1990: 61), Lemoineren azalpena txarretsi ondoren, **Onaitzu* moduko bat proposatzen du egungo aldaeren iturburutako; erroa *on(a)* "mal identifié et probablement oronymique" dateke, Zuberoako *Oniz(e)*-n dagoen bera, edo egun Gipuzkoan aurkitzen dugun *unanu* 'anbuloa'. Atzizkia *-atzu* da autore honen irudiku; amaierako *-u > -o* urratsa disimilazioari zor zaioke.

Zilhekoa / Sillègue

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 161): *Silegoe* (1472), *Silengoa* (1513), *Sillègue-les-Domezain* (1734).

Goihenetxe (1966: 298): *Silicugue* (1381), *Ssileuga* (1396). *Silegoe* (1472), *Silengoa* (1513).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en Guillem rector de la glisie de Silengue* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 210): *Silegos* (1412), *Silengos* (1513), *Sillègue-lès-Domezain* (1734).

Orpustan (1990: 56): *sileugue* (1316), *silegoe* (1350), *silleugue* (1413).

Zierbide & Santano (1990): *Guillem de Licetche, obrer de la glisie parrochiau de Silengue, dela terre de Micxe* (1383, 179, 172. or.).

Zierbide (1993): *Silegoe* (1350-1353, 29. or.), *Silegoa* (1350-1353, 31. or.), *Sillengue* (1412-1413, 77. or.), *Sillenge* (1412-1413, 80. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Sapin totz que jo. Arnaut Arremon d'Irigoyhen, de la parropie de Silheugue* (1395, 266, 97. or.).

Zabaltza (1997): *en Guillem, rector de la glisie de Silengue* (1316, 265, 453. or.).

Euskal Testuak:

- "Donapaleuko kantonamenduan, zazpi udaletxe eta hamalau herrixka beren elizekin zuberotarrak dira, hona herrixkak: Artibe, Berroeta, Domintxaine, Erribarreita, Etxarri, Itorrotz, Jestasü, Lohitzüne, Oihergi, Olaibi, Ozagaiñe, Pagola, Sorapürü. **Zilekoa**", Peillen (*Anuario de Eusko-Folklore*, 1994-1995, 39 zk., 224; Euskara Corpusa).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Raymonden arabera (1863: 170) euskaraz *Silhecoa* erraten da; **Lhandek** (1926: XXXVI, 928) eta **Lemoinek** (1977: 210) *Silhekoa* jasotzen dute, **Dassancek** (1966: 161), **Goihenetxek** (1966: 298) eta **Orpustanek** (1990: 56, 1999: 61) *Zilhekoa*. Herritarren izena *silhekotarr* (**Lhande**), *zilhekoar* (**Dassance**), *Zilhekotarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Zilhekoa* (*Arberatze-Zilhekoa*) eta *zilhekoar* (*arberaztar-zilhekoar*) hobetsi zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Zilhekoa* eta *zilhekoar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

*Zilekoá*⁴⁴, *Zilekwá* (**E. Larre**), *Zilekoà*; *Zilekwá*, *órirè jüntátja dá* *Arbátzekin*; *zilekwáRtaRák*, *Zilekwàn*, *Zilekwát*, *Zilekotik* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Lemoinek (1977: 210) *zilhoka* 'bas-fond, caverne'-tik eratortzen du; **Orpustanek** (1990: 56-57) **zilho-leku* 'lieu de dépressions' proposatzen du azalbide nagusitzat eta zentzu bereko *zilo-gu(n)a* bigarren etimotzat. Beranduagoko beste lan batean (1999: 61) erraten du toponimo honen oinarrian *zil(h)o* dagoela.

Hemen, berriz ere, zenbait lekukok barneko sudurkaria dute eta beste batzuek ez, *Orzakoa* – *Or(t)zankoa* – *Ostankoa*-n bezala. Sudurkari horrek, beharbada, ondoko belarea ahostundu duke; horrelako soinurik ez zenean, ordea, ahoskabeak bere horretan iraun zukeen.

44. Hondarraitzineko bokala ez-silabagilea da.

Zohazti / Suhast

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 164): *Suhast* (1513).

Goihenetxe (1966: 301): *Suast* (1373, 1395), *Suhast* (1388). Behauzen *Guillem Arnaut Suastico* ageri da, baina ez dakigu aztergai dugun izenarekin zerikusirik baduenetz (ibid., 269. or.).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en Brun, seynner d'Arboet; en Ptere) rector de las gllisies d'Arboet e de Suhast* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977): *Suast* (1513).

Orpustan (1990: 59): *suhast* (1316, 1413), *suast* (1350).

Zierbide (1993): *Suast* (1350-1353, 30, 31. orr.), *Suhast* (1412-1413. 78, 80. orr.).

Zabaltza (1997): *en Ptere), rector de las gllisies d'Arboet e de Suhast* (1316, 265, 453. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 12) *Sohasti* du, **Lhandek** (1926: XXXVI, 945) *Suhasti*, **Dassancek** (1966: 161), **Goihenetxek** (1966: 301) eta **Orpustanek** (1990: 59) *Zohazti*; **Lemoinek** (1977: 211), berriz, *Suart* (sic) jasotzen du. Herritarren izena *suhastiarr* (**Lhande**), *zohaztiar* (**Dassance**), *Zohaztiar* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Zohazti* (*Gamue-Zohazti*) eta *zohaztiar* (*gamuar-zohaztiar*) hautatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Zohazti* eta *zohaztiar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Kamúzuázti, *Zoázti* (**E. Etxarren**), *Zoázti* (**E. Larre**), *Zwázti*; *bÉR gáuza geRtátü zén hemén, Gámwe tá Zuázti; Zoázti; Gámwe etá Zoázti jüntátjak dirá; Gamwé ta Zoázti jüntátü dá Aizitzekin; Gámwe ta Zoázti kwàh dénak emén pasátzen dirá; ZoháztjaRàk, zoáztjaRèk, Zoháztiràt, Zoáztitik, Zoáztin* (**L. Xuri**).

Etimologia azalpenak:

Hatanek (1895: 12) *sū-hasti* 'larre tokia' ulertzen du izena eta azaltzen eliza larre edo belartsoro artean dagoela, eta behiala gaztelua ere bazela, hura ere larrez ingurutua. **Lemoinek** (1977: 211) *zuhaitz*-etik eratoritzen du eta **Orpustanek** ere bai (**zuha(i)tz-ti* 'plantatiou d'arbres'); Ortzazeko ikertzailearen irudiko (1990: 59) *Arboti*-ren bete-beteko dobletea da hau (ikus *Arboti* sarrera)

Zohota / Sussaute

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 165): *Sosaute* (1384), *Sossaute* (1405), *Susauta* (1513), *Susaute* (1519).

Goihenetxe (1966: 302): *Sosaute* (1249, 1351, 1384), *Sossaute* (1351, 1363, 1393, 1394, 1395), *Souffauta* (1357), *Soffaute* (1357), *Sessaute* (1362), *Sosauta* (1365), *Sussaute* (1429).

Gartzia Larrageta (1976-77): *en G. Arnalt rector de la glisie de Sossaute* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 211): *Sosaute* (1384), *Sossaute* (1405), *Susauta* (1513), *Susaute* (1519).

Orpustan (1990: 57): *sosaute* (1249, 1350), *sossaute* (1413).

Zierbide & Santano (1990): *Sapien totz que jo, Arnaut Lup, seynhor de Luxe, confessi aver recebut de vos, Guasernaut de Sent Esteben, et Johan de Sossaute, tributados deus peatges d'Ostabat, de Sent Palay et de Guarris* (1363, 33, 70. or.).

Zierbide (1993): *Sosaut Gamo* (1350-1353, 30. or.), *Sossaute* (1412-1413, 77. or.).

Zierbide & Santano (1995): *Bernat de Sossaute* (1393, 246, 68. or.).

Zabaltza (1997): *en G(uarcie) Arnalt, rector de la glisie de Sossaute* (1316, 265, 453. or.).

Ruiz (1998): *A Garçia Arnald de Sant Esteuan et a maestre Iohan de Sessaute, tributadores de los peages de Ostauaylles, de Sant Pelay et de Garriz, salut* (1362, 343, 35. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Hatanek (1895: 11) *Sosuta* du, **Azkuek** (1969 [1905]: XXIX) eta **Corominesek** (1972: 301-302) *Zozueta*, **Lhandek** (1926: XXXVI, 939) eta **Lemoinek** (1977: 211) *Sosueta*, **Dassancek** (1966: 161) eta **Goihenetxek** (1966: 302) *Zohota*, **Orpustanek** (1990: 57) *Zozueta*, *Zohota*. Herritarren izena *sosuetarr* (**Lhande**), *zohotar* (**Dassauce**), *Zozuetarr*, *Zohotarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Zohota* (*Arboti-Zohota*) eta *zohotar* (*arbotiar-zohotar*) hautetsi zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Zohota* eta *zohotar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Sóta, Soóta (**E. Larre**), *Zóotà, órirè jüntátja dá Arbótikin, erriko étcea Arbólin dá, Zoótan ezta; Zoótako eRiik badú, Zoótarát, Zohótatik, Zóhotán, zoótaRà, Zoótakò elizá háundia dá* (**L. Xuri**), *Zóta, Zohóta, zotár, arbóizotáko* (**EHHA**).

Etimología azalpenak:

Hatanek (1895: 11) 'larre zuta' ulertzen du izena. **Coromínesek** (1972: 301-302) *Zozueta* (Azkuerenetik hartu du?) / *Sussaute* pareá *Arrueta* (*Arruta*) / *Arraute*, *Berrueta* / *Berraute* dauden erlazio berean dagoela uste du, hots, erdarazko aldaeren *-aute* horiek euskarazko *-ueta*-tik atera direla, azken batean. Jakintsu katalanaren arabera honen oinarrian *zuzu(n)eta* dagoke, hots, 'lertxun + -eta'. Azentua lehen silaban zuen *Zúzueta* aldaera **Sússeute* bilakatu zatekeen erromantzean lehenik (lekune atonoko dipton-goaren bi osagaien metatesiaz), *Sússaute* gero eta, egungo okzitaniar hizkera guztiak duten proparoxitonoen aurkako joeraren ondorioz, *Sussáute* azkenik, *Árrueta* > *Árraute* > *Arráute*, *Sórhuerta* > *Sóraute* > *Cheráute*, *Bérrueta* > *Berráute*-n bezala.

Lemoinen arabera (1977: 210-211) osagaiak segur aski *zuhaitz* eta *alde* (*aute*) 'près de' dira. **Orpustanek** (1990: 57) euskarazko oraingo *Zohota* aldaeran bigarren txistukariaren ezabaketa gertatu dela dio, asimilazioz edo beharbada tabuz, *zozo-eta*-k ('lieu de merles'; *zozoa* euskaraz 'sot' eta 'écervelé' izan daitekeela oiroitarazten digu) gaskoiz *Sossaute* (1413) ematen baitu. Hau, halarik ere, eta fonetikaren aldetik arazorik ez izanagatik, ez zaio onartzeko modukoa iruditzen, "puisque les noms d'oiseaux sont exceptionnellement rares, sinon même absents en toponymie basque". Beste azalpenak (*soro, zur...*) "phonétiquement presque impraticables" iruditzen zaizkio.

Puutu honetan gogorarazi nahi dugu Nafarroa Beherean, Garazin, *Arnegi* (< *Arranegi*; cf. Nafarroa Garaiko *Aguilar Kodeskoa*) dugula eta, beraz, ortzaiztarrak egiten duen bezalako baieztapen biribilik ezin dela egin, hegazti izenak toponimian ez agertzeaz.

Zokotze / Succos

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 164): *Suquos* (1513).

Goihenetze (1966: 301): *Succoz* (1293), *Sucos* (1293, 1364, 1388, 1396), *Suquoze* (1394), *Sucosse* (1395).

Gartzia Larrageta (1976-77): en *Villem Pere rector de las glisies d'Amarotz e de Succos* (1316, 166, 651. or.).

Lemoine (1977: 236): *Succos* (1513), *Suquos* (1513).

Orpustan (1990: 70): *succos* (1304), *ssucos* (1350), *çucoz* (1413).

Zierbide (1993): *Sucos* (1350-1353, 35. or.), *Çucoz* (1412-1413, 84. or.).

Zabaltza (1997): en *Villem Pere, rector de las glisies d'Amarotz e de Sucos* (1316, 265, 453).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Raymond (1863: 164), **Luchaire** (1874: 7) eta **Lemoineren** arabera (1977: 236) euskaraz *Sokuece* erraten da. **Hatanek** (1895: 10) *Socose* dakar, **Lhandek** (1926: XXXVI, 934) eta **Caro Barojak - Hariztoik** (1945: 110) *Sokueze*, **Dassancek** (1966: 161) eta **Goihenetzek** (1966: 301) *Zokhozü*, **Orpustanek** (1990: 70) *Zokoze*. Herritarren izena *sokueztarr* (**Lhande**), *zokhoztar* (**Dassance**), *Zokostarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Zokotze* (*Amorotze-Zokotze*) eta *zokhoztar* (*amoroztar-zokhoztar*) hautatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003: 1034) *Zokotze* eta *zokoztar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako lekukotasunak:

Süküzè (*Züküzè?*), *Zukótze* (*Sukótze?*), *sokóztaRà* (**E. Larre**), *Sukótze*, *Sukótzèn*, *Sukóztarrà* (**E. Etxarren**), *Sukótzeko heRirät badirá amóst bát kilometrá*, *Sokózekò bídja...Gámwerà(t)*, *Sokózü*, *sokóztaRák*, *Sokózeät*, *Sokózetik*, *Sokózekò elizá ttipía dá*, *sokóztaRèk eskwára úntsa emáiten duté*, *Süküzekò⁴⁵ eRiák* (**L. Xuri**).

45. Azentu nagusia bigarren *ü*-ren gainean da.

Etimologia azalpenak:

Luchairck (1874: 7) *Succos* forma euskarazko *Sokuece*-tik aterta dela dio eta “osakera etimologikoa aski bistakoa” dela, baina ez du bestelako azalpenik ematen. **Hatanek** (1895: 12) ‘endroit de recoin’ azaltzen du toponimoa eta erraten herrixka hau zokondo batean dagoela, zein bertara iritsi ezean ez baita ikusten ahal. **Caro Barojak** (1945: 110) **Hariztoi** abadearen zerrendatik *Sokueze* biltzen du, ikusi bezala, eta zehazten hau latineko *-icus*-etik ateratako *-iz* atzizkia duten Hegoaldeko herri izenekin erlazioaturik dagoela.

Lemoinek (1977: 236) *succa* (okz.), *suc* (gask.) ‘souche’-tik eratortzen du eta erraten segur aski ‘enbor, motzondo, erroak dauden tokia’ datekeela; bukaera *-ize* “indartzeko atzizkia” da autore honen arabera. **Orpustanek** (1990: 70) okzitanierazko eta gaskoiko *succa* onartzen du, baina gehitzen du euskarako *zoku* eta *zok(h)orr* ezin direla alde batera utzi. Atzizkia, autore honen ustean, *-oz* toponimikoa da, diptongoa bitxia izan arren, aipatu atzizkia *-ues* bakarrik Nafarroako eta Aragoiko alderdi batean bihurtzen baita.

6. AGARAMONT / GRAMONT

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 73): *Agramont* (XII. m.), *Castrum Acrismontis* (1244), *Agremont*, *Aigremont* (XIII. m.), *Egremont* (1399), *Grantmont* (1456).

Raymond (1873): *Agramont* (1105-119, 8, 57; 9 eta 45. orr.; 1150-1167, 106, 112, 113, 117, 121, 142; 87, 116, 92, 93, 94, 99 eta 103. orr.; 1213, 129, 109. orr.), *Agrimonte* (1119-1136, 97, 99; 80 eta 82. orr.).

Goihenetxe (1966): *Agramont* (1249, 1266, 1326, 1347, 1350, 1353, 1360, 1368, 1374, 1378, 1385, 1386, 1387, 1389, 1428; 397, 399, 401 eta 405. orr.), *Gramunt* (1252, 397 eta 398. orr.), *Acromonte* (1327, 1328, 1386; 397 eta 400 orr.), *Egermond* (1328, 397. orr.), *Eggremund* (1328, 397. orr.), *Agremont* (1348, 1378, 1390, 1414; 397, 399 eta 400. orr.), *Gramonte* (1358, 399. orr.), *Aigremont* (1385, 1396, 400. orr.), *Egremont* (1400, 400. orr.), *Gramont* (1415, 1428; 400 eta 401. orr.).

Gartzia Larrageta (1976-77): *Gramont* (1305, 133, 592. orr.).

Zierbide & Santano (1990): *Arnaut Guillem d'Agramont* (1305, 1, 38. orr.), *Gracian de Gramont*, *Arnaut Guillem de Gramont* (ibid., 39. orr.), *Pes d'Agramont, escuder* (1377, 72, 101. orr.), *Fortaner d'Agramont* (1378, 90, 112. orr.), *Arnaut Aremon, seynor d'Agramont* (1378, 92, 113. orr.), *Berdot d'Agramont, seynor d'Anus* (1378, 94, 115. orr.).

Zierbide & Santano (1995): *Arnaut Aremon, seynor d'Agramont* (1387, 221, 44. orr.), *Arnaut Arremon, senihor (sic) de Gramon* (ibid., 1397, 287, 111.

or.), *Johan de Gramont* (ibid., 1397, 288, 112. or.), *Sapien totz que jo, frances, seinhor de Gramont* (ibid., 1437, 345, 176. or.).

Zabaltza (1995): *del castiello d'Agramont que Uiuian d'Agramont lo touo del rey* (c. 1308, 257, 242. or.), *Arnalt Guillem d'Agramont* (ibid., 244. or.).

Zierbide & Santano (1997): *Johanne de Acromonte* (Iruñea, 1542, 36, 192. or.).

Barragán (1997): *Arnalt Guyllém, seynnor d'Agramont* (1329, 52, 83. or.), *eyll heredero de Agramont (...) seynnor de Agramont (...) los castieylllos de Agramont et de Bidaysson* (1329, 55, 89. or.), *inter domnos de Luxa et d'Acromonte (...) super domnis de Luxa et de Acromonte* (1341, 142, 248-249. or.).

Zabaltza (1997): *E io, Ferran de Caresse, per la auctoritat de mosser de Gramont en lo dit loc de Bidaxe notari public* (1305, 184, 333. or.).

Ruiz (1997): *Martinus Henrici, vexillarius, domnus de Acromonte, Arnaldus Raymundi de Acromonte* (1350, 3, 4. or.), *Bertran d'Agremont* (1359, 200, 236. or.).

Ruiz (1998): *seynnor d'Agramont* (1362, 372, 60. or.), *don Arnalt Remon, sennor d'Agramont* (1362, 390, 76. or.), *don Arnalt Remon, seynnor d'Agramont* (1362, 399, 91. or.).

Carrasco (1999-1): *Per lo despens don Bernart de Atxa, et de Bernart de Siuals et de Oger de Agramont, quant estaban en Sant Pelay, 108 soltz, 9 diners* (1266, 221. or.).

Euskal testuak:

*"Eta dena den beçala erran deçadançat, Çure verthute handiac, Andread, eta principalqui nic orain aippatu ditudanac, bayeta orduan çure Loctenent general **Agramondeco** Iaunaren ezhortatione handiac (...)",* Leizarraga (1990 [1571]: 251-252).

– *"...eta Errege-ortde Nafarroako, zeñaren baratxtasun modu andikoaz baliatu izan zan Errege Fededuna, **Agramontestar**, eta Beaumontestarren berezkiak donarioturik bakean ifinteko",* Iztueta (Gipuzkoako probintziaren kondaira; OEH-ko Testu Corpusa).

– *"Ago, urzoa, izilik Franzian ez duk Anglesik. **Agaramuntek** Baionan jinak oro erhaiten tik. Eztuk Petiriñalako zaragolla luze hetarik",* Euskal Baladak (Euskaltzaindia, OEH-ko Testu Corpusa).

*"Auzoak hortzak xorroxturik kanpotik beha, eta barnean Nafartar guziak ondikotz ez ados, batzu **Agramontes**, Erregearen alde, hala*

nola *Echauze Baigorriara, besteak Bamontes, Erregez kanbiatzeko prest*”, P. Narbaitz (*San Frantses Jatsukoa; OEH-ko Testu Corpora*).

- “*Horrela biltzen dituzte beren saretara, bertzeak bertze: Bidaxuneko Agarramont, Makeako Belzuntze, Meharineko jauna (...)*”, Lafitte (1990: 107).
- “*Agarramunt, Belzuntze, Meharine jaunek eta zorbait adixkidek Leizarraga hazkarki sustatu zuten, ez etsitzeko*”, Lafitte (1990: 108).
- “*Hiru minixtro protestant baziren hirixka hortan, zeren zen Lapurdiko muga-mugan eta hertzalde Bidaxuneko Agarramonten gerizapean*”, Lafitte (1990: 109).
- “*Oroitzen bagara gainera Agaramonteko dukearen gizona eta liburu-zaina zela Arlande Oihenart bere denboran, ikusiko dugu errazki zein interesgarria izan den, Baionako Erakustokiko zuzendariak, Ribeton jaunak, Bidaxuneko jauregian, hots duke ospetsuaren eremuan, eginarazi digun itzulia*”, P.X. (Piarres Xarriton?, “*Badela zer ikas Oihenartekin*”, *Herria* 1992-10-01, 6, Euskara Corpora).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Orpustanek (1980: 95-96) *Agaramont, Agaramentisak* (Zuberoan) biltzen ditu, bai eta *Agramontesak* edo *Agaramontesak* ‘les Gramontais’ alderdi izena ere.

Ahoz bildutako formak:

Agramón horjék heméntzirén lehénik; ERítitik abjátu dirá horjék, agramón horjék (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Orpustanek (1980: 96) izena euskarazko *ager(re)-mendi* ‘mont en vue’, edo *gar-mendi* ‘mont rocheux’-etik eratorzen du, nahiz aitortzen duen hizkuntza honetako etorkia frogakizun dagoela oraino. Erdarazko aldaerak hasierako *gar-* edo *ager-* horien hurbiltzeak besterik ez dirateke, eta *mont* bigarren osagaia *mendi*-ren itzulpena. Jarraian, ordea, erraten du itxurak itxura erdarazko izena ez dela ‘grand mont’, *Aspremont* edo *Montaigu*-rekin aldera daitekeen ‘Acremont’ baizik. Izenaren hastapenak *Akamarre*-rekiko nolabaiteko ahaidetasuna dnela gehitzen du.

Akamarre / Came

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 39): *Camer* (1193), *Cammes* (1463), *Cama* (1489).

Raymond (1873): *Camer* (1072-1105, 1105-1119, c. 1140, c. 1150, 1150-1167, 1167, 1167-1172, 1246; 4, 41, 104, 105, 113, 119, 121, 127, 155, 159, 180; 3, 32, 86, 87, 94, 100, 101, 103, 107, 130, 135 eta 153. orr.), *Acamer*, *Acamar* (1072-1105, 41, 32. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 136): *Camer* (1193), *Cammes* (1463).

Goihenetxe (1966: 403): *Acamer*, *Acamar* (1072-1105), *Camer* (1105-1119, c. 1150, 1150-1167, 1150-1170, 1190, 1193, 1241, 1246, 1249, 1255, 1266, 1297, 1328, 1343, 1364, 1378, 1381), *Camera* (1249, 1289), *Cama* (1489, 1492), *Cammes* (1463).

Gartzia Larrageta (1976-77): *Bernart caperan de Camer* (1316, 166, 657. or.).

Lemoine (1977): *Camer* (1193), *de Cama* (1289), *Cammes* (1463), *Cama* (1499).

Zierbide & Santano (1990): *Arnaut Aremon d'Agramont, seyner de Camer* (1380, 159, 161; 158 eta 159. orr.), *Arnaut d'Agramont, seynor de Camer* (1380, 160, 158. or.).

Orpustan (1990: 93): *camer* (1105-19, 1140, 1240, 1304, 1309), *camera* (1249).

Euskal testuak:

– “*Bastidako kantoinamenduan eta Akhamarren goldeak idukitzen ditu 34 ara eta 19 zantiara hurren; 68 libera haziren eraintza*”, Duvoisin (1986 [1858]: 66).

– “*Kaskoin herrietarik zombait: Akamarre, Samatze, Bastida, Euskal-herri barne huntarik beste batzu (...)*”, Hiriart-Urruti (iloba) (1972: 189).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170), **Dassancek** (1966: 167) eta **Goiheuetxek** (1966: 403) *Akhamarre* jasotzen dute; **Orpustanek** (1990: 93), berriz, *Akamarre* du. Herritarren izena *Akamartarr* da azken ikertzailearen arabera. **Lhandek** (1926: 25) *Akamarre* dakar, baina erraten du hau *Gamarthe*-ren euskarazko izena dela (ikus *Gamarthe* sarrera), oker, bistan denez; herritarren izentzat *akamartarr* biltzen du.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 101) *Akamarre* eta *akamartar* aukeratu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003b: 1075) *Akamarre* eta *akamartar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako formak:

AkámaRè, akamáRtaRák; akamáRtaRèk ezutú eskwára emáiten, *bjáRnésa emáiten duté; AkámaRén ehún bát jendé bizi dá, AkámaReát jwánbeaut, AkámaRetik héldu níz etxerát* (L. Xuri).

Eman diren etimologia azalpenak:

Mitxelenak dio (FHV, 158) Ipar Euskal Herrian zenbait euskal aldaerak izen ofizialcan falta den A- izaten dutela: *Akhamarre / Came, Amikuze / Mixe* —ikus sarrera honetan dioguna—, *Ahurti / Urt*; cf., gainera, *Baztango Amaiur / Maya* pareak. **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 136) erraten dute herria gain batean dagoela eta zeltaren aurreko **cam* 'hauteur' batetik atera datekeela menturaz; *Camaret, Chamaret* toponimoak aztertzean (ibid., 135) erroa zeltaren aurrekoa datekeen *Kam-ar-* 'hauteur arrondie' dela zehazten dute.

Lemoinek (1977: 254) gaskoiko *cam*, *camin*, *camiáu* eta okzitanierako *cam*-rekin lotzen ditu *Akamarre, Gamere, Gamue* eta heste. **Orpustanek** (1990: 93) antzinako grafien bukaerako dardarkariak gaskoiko *cam*-rekilako lotura guztiak baliogabetzen dituela erraten du, bai eta, orobat, izen hau euskal aldaeran A- dutenen artean sartu behar dela ere: *Ahurti / Urte, Amikuze / Mixe, Atarratze / Tardets*. Izen hauek guztiak, Ortzaizeko irakaslearen irudiko «azterketa ilunekoak» dira, «d'analyse incertaine» hitzez hitz. Hastapeneko A- hori etimologikoa dela uste du eta erdarazko izenean galdu dela, preposizioaren alderako analogiaz eta erdarazko izenen hasierako c-ren ugaritasunaz. Proposatzen dituen etimologiak *akara* 'nard, lis mathiole', *akher* eta *barr* 'barnekoa, beherekoa' dira, baina ondorioztatzen du bide horretatik lortutako adieriek ez dutela asebetetzen. Azkenik, erdal izenaren bukaerako dardarkariaren galera Erdi Aroaren ondokoa dela erraten du.

Bistan da lehen lekukotasunetako hasteko A- eta bukaerako *-er* batetik, eta euskarazko aldaera bestetik, toponimo honetan zeltatikako **camminus* (*i* luzea) terminoaren ondorengoak iknstearen aurka mintzo direla, argi eta garbi. Era berean, eta arrazoi beragatik, toponimoan ezin daiteke ikus Dauzat & Rostaingek proposatzen duten **cam-*.

Bidaxune / Bidache

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 31): *Vidaxen* (1312), *Vidayxon* (1329), *Bidaxen* (1489).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 82): *Vidaxen* (1312), *Bidaxen* (1489).

Goihenetxe (1966: 402): *Bidaxen* (1293, 1294, 1381), *Vidaxen* (1312, 1389, 1489), *Bidassun*, *Bidaischen* (1328), *Vidayxon* (1329, 1342), *Bidayssso* (1329), *Bidassen* (1347), *Bidayshen* (1348), *Bidayssen* (1364), *Bidaxe* (1415).

Gartzia Larrageta (1976-77): *per la auctoritat de mosser de Gramont en lo dit loc de Bidaxe* (1305, 133, 592. or.), *Santz de Gaston e Iohan d'Oyhanart parropiantz de Bidaxun* (1316, 166, 657. or.).

Lemoine (1977: 123): *Vidaxen* (1312), *Vidayxon* (1329), *Bidaxen* (1489).

Orpustan (1990: 92): *bidezón* (1142 baino lehen), *bidassun* (1292, 1304), *bidayssun* (1304), *bidaissun* (1305, 1306), *vidaxen* (1312), *vidayxon* (1329), *bidaxen* (1342).

Zierbide & Santano (1995): *Escripte au castet de [Vidaxen]* (1454, 349, 179. or.).

Barragán (1997): *los castieyllos de Agramont et de Bidaysson* (1329, 55, 89. or.), *Bidasun* (1341, 142, 247. or.)

Zabaltza (1997): *e Iohan d'Oyhanart, parropiantz de Bidaxun* (1316, 265, 458. or.), *Feyt fo a Bidaxe XV iorns dou mes de novembre; en lo dit loc de Bidaxe* (1305, 184, 333. or.).

Euskal Testuak:

– “*Laurgarrena deitzen da Atturri (nic lehen erran neçaque Ithurri) ceina heldu baita Bidachuingo aldetic*”, Etxeberri Sarakoa (1907 [1712]: 79).

– “*Bidachunetic hasiz higan Alduderat, / Eta Arneguín gaindi ethor Heletarat*”, Hiribarren (1853: 77).

– “*Bidaxungo kantoinamenduko goldean badira 24 ara eta 32 zantiara*”, Duvoisin (1986 [1858]: 66).

– “*Bertze kantonamenduetan gibeletik zen; bertzeari hurbilenik Bastidan, eta urrunenik Bidachunen*”, Hiriart-Urruti (1971: 195).

– “*...zeren den hurbilago, bainan Luhuson gaindi, hurbilago direlakotz Garazi eta Espainia, Ezpeleta, Kanbo, bai eta ere Baiona, han baitute*

- egilekorik gehiena gehienek. Zer zeie orduan Ahurtirat edo **Bidaxunerat** kurutzatuko den otomobila?”, J. Etxepare (1988: 29-30).
- “Mandorik deus kasih etzen; zirenek ere etzuten erostun handirik, ez Landesetarik, ez Espainia aldetik. Etxez-etxe ez ote ziren ibiliak aitzinetik erosleak? **Bidaxunen**. halaber, feria hitsa”, J. Etxepare (1996: 38).
 - “**Bidaxuneko**a halaber, euskarazko sariketetan barne sartzen dela hitzeman daukute”, J. Etxepare (1996: 176).
 - “Deputatu-gai agertu zelarik 1893an, Mgr. Diharassarry garraitu zuen, **Bidaxuneko** kashoineri esker”, Lafitte (in Hiriart-Urruti, 1971: 151).
 - “Horrela biltzen dituzte beren saretara, bertzeak bertze: **Bidaxuneko** Agarramont, Makeako Belzuntze, Meharineko jauna (...)”, Lafitte (1990: 107).
 - “Hiru minixtro protestant baziren hirizka hortan, zeren zen Lapurdiko muga-mugan eta bertzalde **Bidaxuneko** Agarramonten gerizapean”, Lafitte (1990: 109).
 - “**Bidaxun** eta Bardoze aldean ere: bardoztar batek (Berhocoirigoin) 300 ahate galkatu zituen 1985 an, duela bi urte”, Nekezari (“Laborarier”, *Herria*, 1987-12-10, 1931 zk., 6, Euskara CorpUSA).
 - “Hain segur, esperientzia hori ez dezakegu den bezala sar beste leku batzuetan, hala nola Hazparne, Bastida, **Bidaxuneko** eskualdeetan”, Bardozeke Laborari Eskola (“Bardozen turismoaz laborantzako eskolan”, *Herria*, 1989-05-05, 2002 zk., 7, Euskara CorpUSA).
 - “...ikusiko dugu errazki zein interesgarria izan den, Baionako Erakustohiho zuzendariak, Ribeton jaunak, **Bidaxuneko** jauregian, hots duhe ospetsuaren eremuan, eginarazi digun itzulia”, P.X. (Piarres Xarriton?, “Badela zer ikas Oihenartekin”, *Herria* 1992-10-01, 6, Euskara CorpUSA).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Raymondek (1863: 31) eta **Tournier**-ek (1949: 160) euskaraz *Bidachune* erraten dela diote. **Lhandek** (1926: 163), **Agud & Mitxelenak** (1958: 10), **Dassancek** (1966: 167), eta **Goihenetzek** (1966: 402) *Bidaxune* biltzen dute; **Lemoinek** (1977: 125) *Bidachüne* du. **Orpustanek** lehenik *Bidaxune* dakar (1990: 92), baina beranduagoko beste lan batcan (1999: 254) *bidaxun(e)* ematen du *Bidache*-ren euskal aldaeratzat. **Irigoienek** (1990: 52) *Bidaxune* aipatzeu du eta dio zubereraz *Bidachüne* erraten dela. Herritarren izena *bidaxundarr*, *Bidaxundarr* da **Lhandereu** eta **Orpustanen** arabera.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Bidaxune* eta *bidaxundar* proposatu zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003b: 1075) *Bidaxune* eta *bidaxundar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako aldaerak:

Bidaxunè, bidaxúndaRàk, Bidaxúneá(t) jwánbeaüt, Bidaxúnetik héldu níz etxerát, Bidaxunèn ehún bát jendé bízi dá, biáxundaRèk eztuté eskuwára emáiten; Agramón, Bidaxunèn dá hóri (L. Xuri).

Eman diren etimologia azalpenak:

Tournier-ek (1949: 160) *Bidachune*-n eta *Guichune*-n bukaera bera dagoela uste du, baina ez du argitzen toponimoak zer erran nahi duen. **Dauzat & Rostaingek** (1983 [1963]: 82) euskarazko *bide*-ren eratorritzat ematen dute, *Bidarrai* eta *Bidarte* bezala. **Lemoinek** (1977: 123) *Betuscus* antroponimotik eratoritzen du, eta erraten bukaeraren atonotasuna herria dela eta herriak izena eman diola "bere oinetarik" igarotzen den *Bidouze* (*Bedose, Bidosa* 1360an) ibaiari. Autore honek *Gixune / Guiche* aztertzean (ibid., 125) zehazten du aldaerarik zaharrenek *-anum* bukaeran pentsarazten dutela, zein gero *-en* bihurtu *—sudurkaritu—* baita.

Orpustanek (1990: 92-93) Lemoineren azalbidea ezesten du eta bi etimologia bide desberdin proposatzen ditu: 1) **bid(e)-aitz-un* edo **bid(e)-aitztsu-un* 'lieu du chemin où la pierre abonde', 2) bertatik igarotzen den *Bidouze* ('rivière de) Bidache' ugaldearen izenarekiko lotura eta, hedaduraz, *Bidasoa*-rekikoa ere bai. Ikertzaile honek dio lekukotasun zaharrek euskarazko *-un* bukaera gaskoiko *-en*-era igaro dela erakusten dutela, *Gixune*-ren kasuan bezala (*Guiche* erdaraz), nahiz honen lekuko zaharren artean *-un*-dun aldaerarik ez den ageri. Beranduagoko beste lan batean (1999: 33, 254) erraten du *Bidache* Erdi Aroko *Bidaitzun*-en forma erromanizatua dela.

Guk ez dakigu hidronimoa eta toponimoa loturik daudenez *-ibaiaren izena la Bidose* da 1316ko agiri batcan (Zabaltza, 1997, 265, 458. or.), ez eta toponimoan *haitz* ageri den ere, dokumentazioan ez baita sekulan *Bidaitzun*-en modukorik azaltzen. Egia da Orpustanek *bidez*on jasotzen duela, bots, *-z*-dun aldaera, baina gainerako lekuko guztietan sabaiko soinua transkripzioa dagoela dirudi. Lehen osagaia *bide* izan daiteke, eta bukaerakoa *-un* 'unea, tokia', baina euskaraz *Bidaxon* > *Bidaxun* gertatu dela pentsatzea ez da neke, partikulazki *o* hori sudurkari ondoan

dagoela kontuan hartzen bada. Bestalde, Etxeberri Sarakoaren lekukotasunean garbi ikusten da XVIII. mendearen hastean, leku genitiboan segurik, ez zela bukaerako *-e* paragogikoa atxikitzen (cf. egungo *Azkaine* baina *Azkaingoa*, *azkaindarra*⁴⁶); bai ordea XIX. mendean, Hiribarreni sinestera.

Irigoinek (1986: 187-188) *bide*-ren elkarketako aldaera den *vida*-dakusa lehen osagaitako, eta identifikatzen ez duen beste elementu bat bigarrentako. Ikertzaile berak beste lan batean (1990: 52) *Bidaxune* / *Bidache* eta *Guiche* (ez du *Gixune* aipatzen) *-gune*, *-gue* duten Nafarroako *Etxague*, *Olague*, *Egozkue*-ren moduko toponimoen tankerakoak izan daitezkeela erraten du, bestelako azalpenik eman gabe, ordea.

46. Elizanburuk *Azkain*, *Azkainat*, *Azkaindarrek*, *Azkaindik*, *Azkamen*, *Azkaingo herritik* darabiltza *Piarres Adame*-n (19-23. orr.).

Burgue / Bergouey

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 28): *Bergui* (c. 982), *Bergoy* (1286), *Bergoi* (XIII. m.), *Bergoey* (1397).

Raymond (1873): *Berguy*, *Bergoi* (c. 1125, 79, 63. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 73): *Bergui* (c. 982), *Bergoy* (1286), *Bergoey* (1397).

Lakarra (1965): *Bergoin* (1201, 225, 242. or.)⁴⁷.

Goihenetxe (1966: 402): *Bergui* (c. 980, 1294), *Bergoi* (c. 1125, XIII. m.), *Berguy* (1293, XIII. m., 1381), *Bergoy* (1286)⁴⁸, *Bergoey* (1248, 1381), *Berguyenn* (1293-1294), *Berguey* (1364), *Bergoi* (1381).

Coromines (1972: 311): *Bergui* (982), *Bergoi*, *Bergoy* (XIII. m.), *Bergoey* (1397).

Lemoine (1977: 228): *Bergui* (c. 982), *Bergoy* (1280), *Bergoi* (XIII. m.), *Bergoey* (1397).

Orpustan (1990: 94): *bergui* (c. 982, 1304), *bergai* (1150-67), *berguy* (1292, 1304).

Ruiz (1998): *Berguy* (1362, 592, 259. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Berguey* dakar, **Lhandek** (1926: 187) *Bürgue*, **Dassancek** (1966: 167) eta **Orpustanek** (1990: 94) *Burgue*, eta **Goihenetxek** (1966: 402) *Burge*. Herritarren izena *bürgüár* (**Lhande**), *Burgetarr* (**Orpustan**) da.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Burgue* eta *burguetar* hautetsi zituen *Burgue-Erreiti* eta *burguetar-erreitiar* segidetan.

47. Lizarran ageri da, emaitza agiri bateko lekuko baten "deitura" edo identifikatzailetzat. Ez dakigu seguruki *Burgue* edo *Bergouey* den, baietz irudi badu ere.

48. *Nergoy* ageri da Goihenetxeren lanean, baina uste dugu oker daktilografiko hutsa dela.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003b: 1075) *Burgue* eta *burguetar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako aldaera:

BúRgwe (L. Xuri).

Eman diren etimologia azalpenak:

Dauzat & Rostaingek (1983 [1963]: 73) erroa segur aski *berho* 'forêt' akitaniar-euskalduna datekeela diote eta atzikia *-gui* multzokaria dela. Corominesek (1972: 311) *Bergouey* ia *Arancou*-ren aurkezean dagoela erraten du eta honen moduko etimologia duela, *Ibar-góie(n)* 'lo alto de la ribera' hain zuzen ere, nahiz daitekeena den, ikertzaile katalanaren irudiko, *ibar*-en partez *iber* aldaera akitaniarra egotca. Autore honek dioenez, biarnesaren hizkeretan zalantza izan ohi da *ø* diptongoaren ondokoak diren *wei* eta *üi*-ren artean. Gaineratzen du izena franko errepikatzen dela Pirinioetako erromantzean eta beti ugaldcekin zerikusia duela, herria erreka baten aldamenean dagoelako edo ubide baten izena delako: *Bergouey* (Landesetako herria), *Bergoueits* (Ossau ibarreko oihan handietako bat), *La Bergoue* (Aturriekin bat egiten duen erreka), *Barguja* eta *Bar* (Cerdaña Behereko herriak, Katalunian; etorkiak *Ibargoia* eta *Ibar* dira Corominesen arabera).

Lemoinek (1977: 228) latineko *vervex*, *vervecis* 'bildotsa'-ren eratorri batetik ateratzen du toponimoa; hizkuntza bereko *vervagere*, *vervactum*, *vervecale* aipatzen ditu, bai eta, orobat, okzitaniara zaharreko *berbeguerias* eta gaskoiko *bargus*, *barguèrus* 'parc à moutons, bergeric' ere. Orpustanek (1990: 94-95) toponimoaren etorki erromanikoa ezin dela erabat baztertu erraten du eta euskal izena etimotik urrundu dela, alegia, dokumentatutako aldaeretak urrundu dela erran nahi duke, etimoa zein den ortzaiztarrak ez baitu sobera garbi ikusten: *ibar-goi* proposatzen du, Corominesen bidetik, lehen *Arancou* / *Erango-rako Aran-goien* proposatu duen bezala; hastapeneko *i-* soinua *bai-* duten *Bayonne*, *Bayorry*-rekiko analogiaz galdu dateke.

Guk ez dakigu *Burgue* leku gora den eta *Ibar-goi* ontzat har daitekeen, alderdi honetatik; euskal aldaeraren lehen *-u-* hori, etimologikoa ez bada. ondoko *b-* ezpainkariaren eraginari zor lekioko, apika. Bistan dena da *Ibar* ez dela sekulan agertzen, hots, ez *i-* eta ez *-a-* duen lekukotasunik.

Erango / Arancou

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1863: 8): *Arancoey*, *Arancoenh* (c. 1360), *Arrancoeynh*, *Arancoinh* (1372), *Aranquoen* (1403), *Aranco* (1584).

Raymond (1873): *Aranchoen*, *Aranque* (1119-1136, 97, 80. or.), *Arancoe*, *Aranque* (1119-1136, 98, 81. or.), *Aranquein* (1249, 159, 135. or.).

Dauzat & Rostaing (1983 [1963]: 23): *Arancoey* (c. 1360), *Arancoenh* (c. 1360).

Goihenetxe (1966: 401): *Aranque*, *Arranque* (1119-1136)^m, *Arancoen*, *Arancoe* (XIII. m.), *Aranquein* (1246), *Aranquoeu* (1328, 1403), *Arancoey* (1360), *Arancoenh* (1360), *Arrancoy* (1364), *Arrancoeynh* (1372), *Arancoinh* (1372), *Arenchu* (1400).

Coromines (1972: 311): *Arancoenh*, *Arancoey* (1360), *Arrancoeynh*, *Arancoinh* (1372), *Arranquoen* (1403), *Arancoenh* (1481).

Gartzia Larrageta (1976-77): ...*et aus vezins d'Arancoey (...) Et en Saubat, vaperan del Ospitau et de Sant Martin d'Arancoey et Bernat de Hedembag, vezins d'Arancoey (...) vezis d'Aranquoeu* (1305, 133, 590-591. orr.), *S. Arnalt d'Arancoey* (1316, 166, 657. or.).

Lemoine (1977: 123): *Arancoey*, *Arancoenh* (c. 1360), *Arrancoeynh*, *Arancoinh* (1372), *Aranquoen* (1403), *Aranco* (1584).

Zierbide & Santano (1990): *Arancoey*, *Arancoeyn*, *Aranquoeu* (1305, 1, 37 eta 38. orr.).

Orpustan (1990: 94): *aranque*, *arancoe* (1119-36), *aranchoen* (XII. m.), *arancoyen* (1309), *arancohen* (1360), *arancoeynh*, *arancoinh* (1372).

Zabaltza (1997): *Per Arnaut d'Otchauacuhe et Gassie de Muneyn, vezins et estaganz d'Arancoey (...) et aus vezins d'Arancoey (...) a llor medix et aux vezins d'Arancoey* (1305, 184, 331. or.).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170) *Errangua dakar*, **Dassancek** (1966: 167) *Erango*, **Orpustanek** (1990: 94) *Erango* eta *Erangoarr*.

49. Sordeko dokumentazioa aipatzen du, baina bilduma horretan ageri dena *Aranque* da, ez *Arranque*.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 99) *Erango* eta *erangoar* eman zituen aldaera arautuztat.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003b: 1075) *Erango* eta *erangoar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako aldaerak:

ERángwe, ERángwé eHtendá, erángwaRàk, Erángotik (h)éldu níz etxerát, ERángorát ábja níz, ERánguaRtaRèk sósá bauté, ené kúsiá Eréngwen bízi dá (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Dauzat & Rostaingek (1983 [1963]: 23) *aran* 'vallée' akitaniarretik erartortzen dute; bigarren osagaia iluna da autoreon irudiko. **Corominesek** (1972: 311) uste du etimoa *Aran-góien* 'arriba del valle' dela eta gero bearnezez ohikoa den *ng > nk* ultraznzenketa bnrutn dela (*lingua > lenque-n* bezala). Dio egungo aldaera diptongoaren laburtzetik atera dela (*Arankóen > Arankón*), eta dokumentazioko lekukotasunetan hiatuak azentua mugiarazi zuela (*-hoén, kwéñ*), baina *Arancoey* forma *-góie(n)*-etik atera zela, azentu ondoko *-n*-ren galtze goiztiarraz.

Lemoinek *Arancus* antroponimo dokumentatugabea eta *-one* atzizkia proposatzen ditu orrialde batean (1977: 119) eta *Arancijus* bestean (ibid., 123); azken honen bukaera lekukotasun zaharretan sudurkariturik dagoela erraten du. **Orpustanek** (1990: 94) Lemoineren etimologia arbuiatzen du eta, Corominesen bidetik, azaltzen du toponimoaren oinarrian **aran-goien* 'vallée la plus haute' dagoela (gaskoiak eragindako herskariaren ahoskabetzearekin, nahiz euskarazko aldaerak ahostuna atxiki duen) edo **aranko-ain* 'haut de la petite vallée'.

Gnre ustez hitxia da Corominesek eta Orpustanek proposatzen duten *Arangoien* etorkizko aldaera dokumentazioan inoiz ez azaltzea; egia da 1309an *Arancoyen* ageri dela, baina egia da, orobat, lehen lekukotasunetan *-salbuespen* bat bada: Sordeko *Aranchoen-* eta oraingo aldaeretan sudurkaririk ez dagoela. Bukaeran *-en, -enh, -eynh, -inh* azaltzeak menturaz bukaerako kontsonantea sabaikaria zela erran nahi duke. Honek gogora dakarkigu *-ain*-dun toponimoetako batzuk, Nafarroa Garaian, Erdi Aroan sabaikariz agertzen direla, nahiz orain horrelako soinurik ez den aditzen. *Arangoien* etimoa onartzeko, gainera, herriaren kokapena ongi ikusi behar litzateke, hots, nolabaiteko harana den ala ez, toki gora den ala ez.

Euskarazko aldaera, bestalde, oinarrian *harango* ikustearen alde mintzo da (cf. *Arangoa* deitura; *Aranko* < *haranko* ere bada toponimian), ahostuna duen lekukorik ez izanagatik, baina dokumentazioak bukaeran beste zerbait ere bazela salatzen du. Toponimoa azaltzeko beste bide bat Nafarroan ohikoa den *-gue* 'gunea' zegoela kontu egitea da, beharbada *-gûe* edo *-guê*, bokal arteko kontsonante sudurkariaren aztarnatzat ondoko bokala sudurkaritu dela onartzen bada. Zernahi gisaz, dokumentazioko lekuko gehienek *-oe-* dute bukaeran.

Erreiti / Viellenave

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Goihenetxe (1966: 405): *Villanueva* (1247), *Villa noua* (1247), *Vylla nueva* (1247), *Villanova* (1247), *Villanaua* (1308), *Viele nave* (1359), *Reyti* (1257, 1381), *Erreyti* (1381).

Lemoine (1977: 253): *El castillo de Villanueva* (1247), *lo castet de Villanueva* (1308).

Zierbide & Santano (1990). Lan honetan *n'Otssoe Martinitz de Bielenave* (1356, 11, 55. or.), *Johan de Bielenave* (1359, 18, 60. or.), *Gassernaut de Bielenave* (1376, 70, 98. or.) agertzen dira, baina denak Donibane Garaziko bizilagunak ziren. Ez dakigu, beraz, *Bielenabe* horrek erreferentzia Erreitiri egiten dion, Garaziko Hiriberriri edo beste zerbaiti. Garazikoa, dugun dokumentazio urrian, *Yriuerri*, *Iriberrri*, *Iriberrri* nahiz *Villanova* bezala ageri da.

Autoreek biltzen dituzten formak:

Léclusek (1826: 170), **Dassancek** (1966: 167), **Goihenetxek** (1966: 404) eta **Orpustanek** (1990: 95, 1999: 33) *Erreiti* ematen dute herriaren euskarazko aldaeratzat; herritarren izena *Erritiarr* da (**Orpustan**).

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 100) *Erreiti* eta *erreitiar* hautetsi zituen, *Burgue-Erreiti* eta *burguetar-erreitiar* segidetan.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003b: 1075) *Erreiti* eta *erreitiar* hobetsi ditu.

Ahoz bildutako aldaerak:

Eriti, lehen-lehen tokjá intzutén Eritin; ERititik abjátu dirá horjék, agramón horjék (L. Xuri).

Etimologia azalpenak:

Lemoinek (1977: 172, 253) izen gaskoia dela dio eta osagaiak *vielle* 'domaine rural' (maiz) eta *nave* 'berria' direla. **Orpustanen** arabera (1990: 95) euskarazko *Erreiti*-ren oinarrian, herria Nafarroako erregearen Iparraldeko gotorlekua zenez gero, *errege* zegoela koutu egin daiteke; buka-

era ez da biziki argia ikertzaile honen ustez, eta onartzeko moduko atzizkirik ez baitago, erraten du *athe* 'porte, passage'-ren itxuragabetzea proposa daitekeela. Salbaterra ondoko *Oreyte*-ren izena 1397an *Erreyti* zela gehitzen du.

Samatze / Sames

Erdal dokumentazioko lekukotasunak:

Raymond (1873: 79): *Sames* (c. 1125).

Goihenetze (1966: 405): *Sames* (c. 1125, 1255), *Saymes* (1463).

Lemoine (1977: 128): *Sammes* (1463).

Euskal testuak:

– “Kaskoin herrietarik zonbait: Akamarre, **Samatze**, Bastida, Euskalherri barne huntarik beste batzu (...)”, Hiriart-Urruti (iloba) (1972: 189).

Autoreek biltzen dituzten formak:

Dassancek (1966: 167) *Samatze* jasotzen du.

Akademiaren lehengo erabakia:

Euskaltzaindiak (1979: 103) *Samatze* eta *samaztar* hautetsi zituen.

Akademiaren azken erabakia:

Euskaltzaindiak (2003b: 1075) *Samatze* eta *samaztar* hobetsi ditu.

Eman diren etimologia azalpenak:

Lemoinek (1977: 128) *Samnius* antroponimotik eratoritzen du eta dio bukera azentugabea dela.

Guk izena nondik atera den ez dakigu, baina burutara dakarkigu mendiez beste aldeko *Ustaize* (euskaraz) / *Ustes* (erdaraz) pareta (etorkia **Ustaisfe*)-ren moduko zerbait zatekeen, euskaraz normalena *Uzt*- izanen balitz ere kasu honelan⁵⁰); herri hau, *NHI*-n ikus daitekeenez (172. or.) beti *Ustes*, *Vstes*, *Hustes* da dokumentazioan; *-aize*-ren azlarnarik ez dago. *Samatze*-ra itzuliz, bukaerako *-e* paragogikoa dela pentsatzen bada, *-(a)tz* bukaera duten herri eta toponimoekin batean sailkatu behar genuke, *Aldatz*, *Anderatz*, *Aranatz*, *Ardatz*, *Gesalatz*, *Imatz*, *Nabatz*, *Olatz*... eta besterekin batean (ikus Salaberri.

50. Iglesiasek (1999: 145) **Ustariz* proposatzen du Zaraitzuko herri izen horren etorkitzat; autore honen arabera bukaerako *-e* paragogikoa da. Nolanahi ere, *Ustaize* / *Ustes* ez da inoiz *-r*-rekin agertzen, dakigunez.

- AZKUE, R. M. (1927): "Aezkera edo Petiriberro-inguruetakoko mintzaera", *Euskera*, 179-300
- (1969 [1905]): *Diccionario Vasco-Español-Francés*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, bi ale.
- (urterik gabe): *Las mil y una canciones populares vascas (edición manual)*, Bartzelona.
- BÄHR, G. (1948): *Baskisch und Iberisch*, in *Eusko-Jakintza*, 2. alea, Baiona.
- BARANDIARAN, J. M. (1974): "Rasgos de la vida popular de Dohozti", *Ikuska 2^a. Monografías de la Vida Popular*, in *Obras Completas*, IV. alea, 17-104, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo. Lan hau lehenago *Eusko-Folklore-n* karrikaratua zen, 151-179. zenbakietan.
- BARBIER, J. (1987): *Supazter sokoan*, *Klasikoak* 16, Euskal Editoreen Elkartea & Eusko Jaurlaritza, Donostia.
- BARBIER, J. & LAFITTE, P. (1967): *Fantasia y Realidad. Selección Literaria Vasca*, Auñamendi 53, Donostia.
- BARRAGÁN, D. (1997): *Archivo General de Navarra (1322-1349). I. Documentación Real*. Fuentes documentales medievales del País Vasco 74. Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- BONAPARTE, L. L. (1881): "Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos", *Revista Euskara* IV, 161-166.
- CAMPIÓN, A. (1907): "Defensa del nombre antiguo, castizo y legítimo de la lengua de los Baskos contra el soñado EUZKERA", *RIEV* I, 217-241.
- CARO BAROJA, J. (1945): *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca, 1945. Bada Txertoa argitaletxeak egindako beste argitalpen herriago bat, Donostian, 1990ean.
- (1985): *Los vascos y sus vecinos*, Txertoa, Donostia.
- CARRASCO, J. (1973): *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Nafarroako Unibertsitatea, Iruñea.
- CARRASCO, J. (zuzendaria) (1999): *Acta Vectigalia Regni Navarrae: documentos financieros para el estudio de la Hacienda Real de Navarra. Registros de Teobaldo II. 1259, 1266*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- CASTRO, J. R. (1952-1970): *Catálogo del Archivo General de Navarra. Sección de Comptos*, 50 liburuki, Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea.
- COROMINES, J. (1972): "De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos-Pirineos", *FLV* 12, 299-319.
- COROMINES, J. & PASCUAL, J. A. (1987): *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*, Gredos, Madril.
- DASSANCE, L. (1949): "La Forêt au pays basque français", *Eusko-Jakintza*, 3. alea, 2-3 zenbakian, 205-216.

- (1966): “Herrien eta herritarren izenak eskuaraz”, *Gure Herria* 38, 159-168.
- DAUZAT, A. & ROSTAING, Ch. (1983): *Dictionnaire étymologique des noms de lieux en France*, Paris, bigarren argitaraldia; lehen aldiz 1963an atera zen karrikara.
- DÍEZ MELCÓN, G. (1957): *Apellidos Castellano-leoneses (Siglos IX-XIII, ambos inclusive)*, Universidad de Granada.
- DOLÇ, M. (1960): “Antroponimia latina”, *Enciclopedia Lingüística Hispánica*, lehen liburukia, 389-419, CSIC, Madril.
- DUVOISIN, J. (1986 [1858]): *Laborantzako liburua*, Euskal Editoreen Elkartea & Eusko Jaurlaritza, Zarautz.
- (1987 [1884-1885]): *Baigorriko Zazpi Liliak*, J. San Martinek prestatutako argitalpena, Elkar, Donostia.
- DUNY-PÊTRÉ, P. (1996): *Xirula Mirula*, Eusko Press, Baiona.
- EEBS: *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa*.
- EHHA: *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*.
- EKIZA, B. & MONREAL, I. & IZKO, A. (1984): “Labiano: Estudio etnográfico-histórico”, *CEEN* 43, 5-38.
- ELIZALDE, J. “Zerbitzari” (1995): *LVII.a Gerlan*, P. Urkizuk prestatutako argitalpena, Alberdania, Irun.
- ELIZANBURU, J. B. (1982): *Piarres Adame*, Elkar, Donostia.
- ERNOU, A. & MEILLET, A. (1994): *Dictionnaire Étymologique de la Langue Latine. Histoire des Mots*, Paris, Éditions Klincksieck, 4. argitalpenaren berrikusketa.
- ETXALAR, E. de (1911-25): “Disertación sobre el análisis e interpretación de los nombres toponímicos vascos”. *Geografía General del País Vasco-Navarro. Navarra*, lehen alea, 1049-1099.
- ETXAMENDI, F. (1988): *Gilentegiko Gilen*, Gipuzkoako Kutzaren Argitarapenak, Donostia.
- ETXEBARNE, E. (1989): *Erramun Harginaren Oroitzapenak*, Auspoa Liburutegia 198, Etor, Donostia.
- ETXERERRI, J. (1907 [1712]): *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d’Etcheberri (1712)*, J. Urkixok paratu argitalpena, Paris.
- ETXEGARAI, B. (1952): “Origen de la voz «Vizcaya» y ámbito de su difusión”, *BRSVAP* 11, 323-343.
- ETXEPARE, J. (1980 [1910]): *Buruzkak*, Elkar, Donostia.
- (1984): *Jean Etchepare Mirikuaren (1877-1935) Idazlanak. I Euskal Gaiak*, P. Charritonek paratua, Elkar, Donostia.
- (1985): *Jean Etchepare Mirikuaren (1877-1935) Idazlanak. II Mediku-solas*, Piarres Charritonek prestatu argitalpena, Elkar, Donostia.

- (1987 [1931]): *Beribitez*, Klasikoak 17, Euskal Ediloreen Elkartea & Eusko Jaurilaritza, Donostia.
- (1988): *Jean Etchepare Mirikuaren Idazlanak. III Kazetaritza (A) (1903-1915)*, Piarres Charrittonen prestatu argitalpena, Elkar, Donostia.
- (1992): *Jean Etchepare Mirikuaren Idazlanak. IV Kazetaritza (B) (1916-1935)*, Piarres Charrittonen prestatu argitalpena, Elkar, Donostia.
- (1996): *Jean Etchepare Mirikuaren Idazlanak. V Euskalerriko Bizia (1932-1935)*, Piarres Charrittonen prestatu argitalpena, Elkar, Donostia.

EUSKALTZAINDIA (1979): *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Bilbo.

- (1990): *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclator Euskerico de Navarra (NII)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- (2000b): "Lapurdikoko udal izendegia", *Euskera* XLV, 267-271.
- (2002): "Nafarroa Behereko Herri Izendegia (I)", *Euskera* XLVII, 716-720.
- (2003): "Nafarroa Behereko Herri Izendegia (II)", *Euskera* XLVIII, 1034-1035.
- (2003b): "Nafarroa Behereko Herri Izendegia (III)", *Euskera* XLVIII, 1075.
- (datarik gabe): *OEH-ko Testu Corpora*, CD formatuan ateratako lana.

GARTZIA LARRAGETA, S. (1976-77): *Documentos navarros en lengua occitana*, lan hau *Anuario de Derecho Foral II*-ren separatatzat atera zen, Nafarroako Foru Aldundia & Consejo de Estudios de Derecho Navarro, Iruñea. Beranduago Eusko Ikaskuntzak argitaratu zuen berriro, *Fuentes documentales medievales del País Vasco* bildumako 26. alean, Donostian.

GAVEL, H. (1920): *Éléments de Phonétique Basque*, Paris - Biarritz. La Gran Enciclopedia Vasca Bilbon 1969an egindako berrargitalpena baliatu dugu.

- (1929): *Grammaire Basque*, lehen alca, Baiona.
- (1931): "Du nom de Bayonne et de quelques autres noms de lieux aquitains ou espagnols", *Bulletin Trimestriel de la Société des sciences, lettres, arts et d'études régionales de Bayonne*, 7. zkia., 37-47.
- (1934): "Chronique de toponymie", *Revue des Études Anciennes*, 36. alca, 489-496. Lan honen hondarreko orrialdeak G. Lacomberenak dira.
- (1938): "Sur l'origine du nom des Aldudes", *Gure Herria* 18, 86-87.

GAZTELUZAR, B. (1983 [1686]): *Eguita catolicæ salvamendu eternalaren eguiteco necesario direnac*, Lino Akesolok paratutako argitalpena, Euskararen lekukoak 8, Euskaltzaindia, Bilbo.

GODOY, J. (1871): *Ensayo Histórico Etimológico Filológico sobre los Apellidos Castellanos*, Madril.

GOIHENETXE, E. (1966): *Onomastique du nord du Pays Basque (XI^e - XV^e siècle)*, hirugaren zikloko doktorego tesia, Bordeleko Letra Fakultatea, argitaragabea.

- GOÑI, J. (1997): *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona. 829-1243*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- GORROTXATEGI, J. (1984): *Onomástica Indígena de Aquitania*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- GROSCLAUDE, M. (1991): *Dictionnaire Toponymique des Communes du Bearn*, Escòla Gaston Febus, Pau.
- HARIZTOI, P. (1883): *Recherches historiques sur le Pays Basque*, Lafitte Reprints, Marsella, 1977.
- HATAN (1895): *Explication des principaux noms propres des villages du Pays Basque et des provinces basques*, Pau.
- HIRIART-URRUTI, J. (1971): *Mintzaira, Aurpegia: Gizon!*, Jakin, Arantzazu-Oñati.
- (1972): *Zezenak Errepublikan*, Jakin, Arantzazu-Oñati.
- (1995): *Gontzetarik jalgiaziak*, Iñaki Caminok paratu argitalpena, Klasikoak 67, Euskal Editoreen Elkarte & Eusko Jaurlaritza, Donostia.
- HIRIART-URRUTI, J. (iloba) (1992): *Aitaren etxerat. Mundu berri. Eliza berri*, Itxaropena, Zarautz.
- HIRIBARREN, J. M. (1853): *Eskaldunak*, Baiona. Hordagok Donostian 1979an egin-dako argitalpen faksimilea erabili dugu.
- HUMBOLDT, W. von (1959 [1821]): *Primitivos Pobladores de España y Lengua Vasca*, Minotauro, Madril.
- IDOATE, F. (1969): "Una carta del siglo XV en vascuence", *FLV* 2, 287-290.
- IGLESIAS, H. (1998): "Sur quelques similitudes toponymiques galaïco-basques et le problème que posent certaines d'entre elles", *Lapurdum* 3, 1-27.
- (2000): *Noms de lieux et de personnes à Bayonne, Anglet et Biarritz au XVIII^e siècle*, Elkarlanean, Donostia-Baiona.
- IRIGARAI, A. (1958): *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca. XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak*, Príncipe de Viana, Iruñea.
- (1971): *Noticias y viejos textos de la "Lingua Navarrorum"*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A., Donostia.
- IRIGOIEN, A. (1974): "Sobre el origen del topónimo Tudela", *Estudios de Deusto* 22, 221-226.
- (1983): *La lengua vasca en relación con la antroponimia y otras cuestiones medievales*, doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua, Gasteiz.
- (1986): *En torno a la Toponimia Vasca y Circumpirenaica*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- (1990): *Sobre toponimia del País Vasco Norpirenaico (Observaciones en torno a la obra Toponymie Basque de Jean-Baptiste Orpustan)*, Bilbo.

- (1992): “Gnómica oihenartiana”, in *De Re Philologica Linguae Uasconicae IV*, Bilbo, 1-77.
- (1992b): “Miscellanea toponymica et anthroponymica (II)”, *De Re Philologica Linguae Uasconicae IV*, 203-211, Bilbo.
- ITURRALDE, P. (1982): *Murtuts eta bertze...*, Elkar, Donostia-Baiona.
- IZTUETA, J. I.: *Gipuzkoako probintziaren kondaira*, Euskaltzaindia, *OEH-ko Testu Corpusa*.
- JAURGAIN, J. de (1912): “Toponymie basque”, *RIEV IV*, 161-171.
- (1913): “Toponymie basque”, *RIEV VII*, 398-418.
- JIMENO JURÍO, J. M. (1996): “Juan de Amendux, poeta euskaldun de Pamplona (c. 1540-1580)”, *FLV 71*, 99-117.
- JIMENO JURÍO, J. M. (zuzendari) (1990etik aitzina): *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra (NTEM)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- KAMINO, P. & SALABERRI, P. (2001): “Hitz eratorriak Luzaideko hizkeran”, *FLV 86*, 67-86.
- KARASATORRE, R. (1993): *Barranca · Burunda*, Morentin.
- LABORDE-SALA, P. (2002): “I. Un pays, des paysages”, in “*Urzaiz*”, *La vallée d'Ossès en Basse-Navarre. Orzaizeko ibarra. Bidarray, Ossès, Saint-Martin-d'Arrossa*, Izpegi, Baigorri, 13-26.
- LACOMBE, G. (1911-17): *Le parler basque des Aldudes*, lan argitaragabea, Olaso Dorrea Sorrerakundea.
- (1938): “En marge de l'article précédent”, *Gure Herria 18*, 87-88. Gavolen 1938ko lantxoaren gehigarri edo eranskina da.
- (1942): “Aldude, ou bien Alduda?”, *Aintzina 2*, 13. or.
- LAFITTE, P. (1972): *Mañex Etchamendy bertsularia*, Donostia.
- (1990): *Euskal Literaturaz*, Klasikoak 35, Euskal Editoreen Elkarte & Eusko Jaurlaritza, Donostia.
- (2002): *Kazetari-lan hautatuak*, P. Sudupek prestatua, Elkarlanean, Donostia.
- LAFITTE, P. & BARBIER, J. (1967): *Fantasia y realidad. Selección literaria vasca*, Auñamendi, Donostia.
- LAFON, R. (1954): “Sur l'usage de la langue basque actuelle dans l'interprétation des toponymes”, *Revue Internationale d'Onomastique 4*, 247-253.
- (1956): “Pour l'étude de la langue aquitaine”, *2^e Congrès International d'Études Pyrénéennes, 1954, Luchon*, 8. alea, 7. saila, 53-63.
- LAKARRA, J. M. (1965): *Colección Diplomática de Irache*, lehen alea, CSIC, Zaragoza. Bigarren alea Iruñean argitaratu zen, 1986an.

- LANDART, D. (1978): *Aihen Ahula*, Elkar, Donostia.
- LAPHITZ, F. (1986 [1867]): *Bi saindu heskualdunen bizia*, Klasikoak 1, Euskal Editoreen Elkartea & Eusko Jaurlaritzza, Donostia.
- LARRAÑAGA, M. & LEMA, J. A. (1995): *Colección de Documentos Medievales del Convento de San Bartolomé (San Sebastián) (1250-1515)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 58, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- LARRAÑAGA, M. & TAPIA, I. (1993): *Colección Documental del Archivo Municipal de Hondarribia. Tomo I (1186-1479)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 48, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- LARRE, E. (2001): *Ene artzain-etxolak*, Auspoa, Oiartzun.
- LÉCLUSE, F. (1826): *Grammaire Basque*, Frantziako Tolosa – Baiona, J. A. Lakarra eta B. Urgellen "Lécluse-ren Hiztegia. Euskalaritzaren Historiarako Lanabesak (II)" lana ere ikus daiteke, ASJU XXII-1, 1988, 99-211.
- LEIZARRAGA, J. (1990 [1571]): *Jesus Christ gure launaren Testamentu Berria. Kalendrera ABC edo Christinoen instructionea*, Arroxela, Euskaltzaindiak Th. Linschmann eta H. Schuchardten 1900eko argitalpena baliatuz Bilbon 1990ean egindakoa ibili dugu.
- LEMOINE, J. (1977): *Toponymie du Pays Basque Français et des Pays de l'Adour*, Éditions A. et J. Picard, Paris.
- LHANDE, P. (1926): *Dictionnaire Basque-Français*, Paris.
- LUCHAIRE, A. (1873): *Études sur les Idiomes Pyrénéens de la région française suivi de Recueil de Textes de l'ancien dialecte gascon*, Paris, Slatkine reprints, Genève, 1973.
- (1874): *Remarques sur les noms de lieux du Pays Basque*, Pau.
 - (1874b): "Sur le nom de Baigorri", *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, 1. zkia., 99-102, Pau.
 - (1874-75): "Du mot basque iri et de son emploi dans la composition des noms de lieux de l'Espagne eta de l'Aquitaine antiques", *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, II^e Série, Tome 4^o, 18-27, Pau.
 - (1881): "Sur les noms propres basques contenus dans quelques documents pyrénéens des XI^e, XII^e et XIII^e siècles", *Revue de Linguistique et de Philologie Comparée*, XIV. alea, 150-171.
- MARTIN DUQUE, A. (1983): *Documentación Medieval de Leire (siglos IX a XII)*, Nafarroako Foru Aldundia, Príncipe de Viana Erakundea, Iruñea.
- MARTÍNEZ, C. (1995): *El Privilegio de la Unión (1423) de Carlos III el Noble de Navarra*, Iruñeko Udala, Iruñea.
- MENDISKO, B. "Beñat Karrika" (1990): *Armendaritze Haur Begiez*, Auspoa, Tolosa.
- MENÉNDEZ PIDAL, R. (1952 [1918]): *Toponimia Prerrománica hispana*, Gredos, Madril. Lehen aldiz RFE-n atera zen. 1918an.

- (1962 [1918]): "Sobre las vocales ibéricas ξ y ζ en los nombres toponímicos", in *En torno a la lengua vasca*, Espasa-Calpe argentina, Buenos Aires, 1962, 72-118. Hau lehenengoz *RFE* V, 1918, 225-255-en atera zen, eta gero *Toponimia prerrománica hispánica* lanean, Gredos, Madril, 1952, 8-50.
- (1986 [1926]): *Orígenes del Español*, Espasa-Calpe, Madril, hamargarren argitalpena.

MENÉNDEZ PIDAL, R. & TOVAR, A. (1962): "Los sufijos españoles en -z y especialmente los patronímicos", *BRAE* 62, 371-460.

MITXELENA, K. (1950): "Notas etimológicas vascas", *Emerita* XVIII, 467-481.

- (1951): "De fonética vasca. La distribución de las oclusivas aspiradas y no aspiradas", *BAP* VII, 539-549.
- (1951b): "La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de André Martinet", *BRSVAP* VII, 571-582.
- (1953): *Apellidos Vascos (AV)*, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, Donostia. Txertoak egindako bosgarren argitalpena ere ibili dugu (Donostia, 1997).
- (1954): "De Onomástica Aquitana", *Pirineos* X, 409-455.
- (1956): "Introducción fonética a la onomástica vasca", *Emerita* XXIV, 167-186 eta 331-352.
- (1957-58): "À propos de l'accent basque", *Bulletin de la Société Linguistique de Paris* LIII, 204-233.
- (1961): "Johannes Hubschmid. Substratprobleme", *BRSVAP* XVII-3, 355-360.
- (1964): *Textos Arcaicos Vascos (TAV)*, Minotauro, Madril.
- (1969): "Notas lingüísticas a «Colección diplomática de Irache»", *FLV* 1, 1-59.
- (1969b): "Johannes Hubschmid, die asko- /-usko-Suffixe und das Problem des Ligurischen", *FLV* 3, 397-401, erreseina.
- (1988 [1955]): "Estellako aita Hilario Olazaraneek esan digu", *Euskal idazlan guztiak I. Bertso berriak, berriketan, zinea eta adabakiak*, Eusko Jaurlaritza & Euskal Editoreen Elkarte, Klasikoak 21, 59-64.
- (1990): *Fonética Histórica Vasca (FHV)*, «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegiaren Gehigarriak IV, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 4. argitaldia.

MITXELENA, K. & IRIGARAI, A. (1955): "Nombres vascos de persona", *BAP* XI: 3-4, 405-425.

MORALEJO, A. (1944): "Observaciones sobre el estudio de la toponimia gallega", *Cuadernos de Estudios Gallegos* 1, 59-72.

NARBAITZ, P. (1966): *San Frantses Jatsukoa*, Donostia.

- "P. Arradoy" (1999): *Kattalinen Gogoetak*, Elkarlanean, Donostia.
- NIETO, E. (1997): *Breve diccionario de topónimos españoles*, Alianza Editorial, Madril.
- OIHENART, A. (1637): *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitanicae*, Paris. 1656koa den bigarren argitalpenaren faksimilea erabili dugu. Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 1992. R. Zierbideren hitzaurre luzea eta J. Gorosterratzuren itzulpena ditu.
- (1935 [1657]): *Atsotizac edo refrauac*; *RIEV XXVI*, 201-264 eta 665-719. Txillardegik 1971n *Atsotitzak eta Neurtitzak* titulupean eman zuen argitara; berrikiago, 1992an, A. Irigoienek *DRPLU IV* liburuan karrikaratu zuen, 33-77.
- ORPUSTAN, J. B. (1990): *Tponymie Basque*, Presses Universitaires de Bordeaux, Bordele.
- (1996): "Histoire et onomastique médiévales", *Lapurdum I*, 199-221.
- (1999): *La langue basque au Moyen Age (IX^e-XV^e siècles)*, Izpegi, Baigorri.
- (2000): *Les noms des maisons médiévales en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Izpegi, Baigorri.
- (2002): "Introduction. Des «vallées» aux «cantons»", in "*Urzaiz*". *La vallée d'Ossès en Basse-Navarre. Orzaizeko ibarra. Bidarray, Ossès, Saint-Martin-d'Arrossa*, Izpegi, Baigorri, 7-12.
- (2002b): "II. De la préhistoire à la Révolution française: événements et repères chronologiques", in "*Urzaiz*". *La vallée d'Ossès en Basse-Navarre. Orzaizeko ibarra. Bidarray, Ossès, Saint-Martin-d'Arrossa*, Izpegi, Baigorri, 27-73.
- (2002c): "IV. Le bornage de la forêt d'Ossès en 1632, d'Ugarçan aux limites de Cize: peuplement et toponymie de Bidarray de 1632 à 1675", in "*Urzaiz*". *La vallée d'Ossès en Basse-Navarre. Orzaizeko ibarra. Bidarray, Ossès, Saint-Martin-d'Arrossa*, Izpegi, Baigorri, 91-123.
- (2002d): "VIII. Dans la littérature basque", in "*Urzaiz*". *La vallée d'Ossès en Basse-Navarre. Orzaizeko ibarra. Bidarray, Ossès, Saint-Martin-d'Arrossa*, Izpegi, Baigorri, 255-278.
- (2002e): "La vallée de Baigorri en quelques mots", in *La vallée de Baigorri. Baigorriko ibarra*, Izpegi, Baigorri, 25-33.
- (2002f): "Peuplement et toponymie", in *La vallée de Baigorri. Baigorriko ibarra*, Izpegi, Baigorri, 69-83.
- OSTOLATZA, I. (1978): *Colección Diplomática de Santa María de Roncesvalles (1127-1300)*, PV-CSIC, Irañea.
- OTSOBI (1966): *Lon orhoitgarriak*, Baiona.
- (1992): *Alegiak eta Poemak*, Klasikoak 63, Euskal editoreen Elkarteak & Eusko Jaurlaritzak, Ainhoa Beolak paratu argitalpena, Donostia.

- PALAY, S. (1991): *Dictionnaire du Béarnais et du Gascon Modernes*, Éditions du Centre National de la Recherche Scientifique, Paris. Lehen argitalpena 1974koa da.
- PIEL, J. M. (1947): "Nomes de 'possessores' latino-cristãos na toponímia asturo-galego-portuguesa", *Biblos* 23, 143-202.
- POUVREAU, S. (1892): *Les petites oeuvres basques de Sylvain Pouvreau*, Chalon-sur-Saone, J. Vinsonnek egindako argitalpena.
- RAYMOND, P. (1863): *Dictionnaire Topographique du Département des Basses-Pyrénées*, Paris.
- (1873): *Cartulaire de l'abbaye de Saint Jean de Sorde*, Paris-Paue.
- ROHLFS, G. (1952): "Sur une couche préromane dans la toponymie de Gascogne et de l'Espagne du nord", *Revista de Filología Española* 36, 209-256.
- (1956): "Un type inexploré dans la toponymie du Midi de la France et de l'Espagne du Nord (Le suffixe *-és, -iès*)", in *Studien zur romanischen Namenkunde*, München, 114-126. *Gaztelaniaz Archivo de Filología Aragonesa* XI, 1955, 45-59-n argitaratu zen.
- RUIZ, M^a. T. (1997): *Archivo General de Navarra (1349-1381) I. Documentación Real de Carlos II (1349-1361)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 76, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- (1998): *Archivo General de Navarra (1349-1387) II. Documentación Real de Carlos II (1362-1363)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 82, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- SAINT-PIERRE, J. "Anxuberro" (1998): *14eko Gerla Handia*. P. Charrittonek paratu argitalpena, Euskal Editoreen Elkarte & Eusko Jaurilaritza, Donostia.
- SALABERRI IBARROLAKOIA (1856): *Vocabulaire de mots basques bas-navarrais traduits en langue française*, Baiona.
- SALABERRI ZARATIEGI, P. (1994): *Eslaba Aldeko Euskararen Azterketa Toponimiaren Bidez*, *Onomasticon Vasconiae* 11, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1997): "Euskal toponimiaz mintzo (Nafarroakoaz bereziki)", *FLV* 74, 7-39.
- SARASOLA, I. (1997): *Hiztegi Batua*, Kutxa fundazioa, Donostia.
- SATRUSTEGI, J. M^a. (1963-64): «Vocabulario popular», *Eushero* VIII-IX, 256-283.
- (1965): *Bordel Bertsularia*, Auspoa, 45-46, Donostia.
- (1967): *Luzaide'ko kantiak*, Auspoa, 65, Donostia.
- (1969): "Libro de cuentas de un herrero de Valcarlos", *FLV* 2, 133-269.
- (1971): "Correspondencia familiar vasca del siglo XIX", *FLV* 9, 291-306.
- SAUGUIS, B. de (XVII. m.): *Los Refranes Vascos de Sauguis Traducidos y Anotados por Julio Urquijo é Ibarra*, *RIEV* II, 1908, 677-724 eta *RIEV* III, 1909, 144-157.

- SCHUCHARDT, H. (1908): "Die iberische Deklination", *Sitzungsberichte der philosophisch-historischen Klasse der kaiserlichen Akademie der Wissenschaften*, 157, II, 1-90, Wien.
- (1909): "Iberische Personennamen", *RIEV* III, 237-247.
- (1912): "Bask. i-, e-", *RIEV* VI, 282-283.
- SOUBELET, D. (1947): *Bulogneko Ama Birjina*; datuak *Euskara Corpusa*-tik hartu ditugu.
- TARTAS, J. (1975 [1666]): *Ontsa hiltzeko bidea*, A. Eguzkitzak prestatutako argitalpena, Jakin, Arantzazu.
- TOURNIER, M. (1949): "L'usure du Basque", *Eusko-Jakintza* 3. alea, 2-3. zkiak., 159-162.
- TREKU, M. (1981): *Etxe rokotik kantari*, Auspoa Liburutegia 151, Tolosa.
- TXILJARDEGI (1971). Ikus Oihenart.
- URANGA, J. J. (1952): "La Población de la Navarrería de Pamplona en 1350", *PV* 52, 46-47, 67-106.
- VINSON, J. (1909): "Importance des noms topographiques, lieux-dits, etc., pour l'étude de la langue basque", *RIEV* III, 349-356.
- (1912): "Toponymie basque", *RIEV* VI, 405-411.
- (1925): "Les Lieux-Dits et la Grammaire Basque", *Gure Herria* V, 625-632.
- XALBADOR (1976): *Odolaren mintzoa*, Auspoa, Tolosa.
- ZABALTZA, I. (1995): *Archivo General de Navarra (1274-1321). I. Documentación Real*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 61, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- (1997): *Archivo General de Navarra (1274-1321). II. Documentación Real*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 75, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- ZIERBIDE, R. (1993): *Censos de población de la Baja Navarra*, *Patronymica Romanica* 7, Niemeyer, Tübingen.
- ZIERBIDE, R. & RAMOS, E. (1996): *Documentación Medieval del Monasterio de Santa Clara de Estella (siglos XIII-XVI)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 66, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- (1997): *Documentación Medieval del Monasterio de Santa Engracia de Pamplona (Siglos XIII-XVI)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 73, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1997.
- ZIERBIDE, R. & SANTANO, J. (1990): *Colección Diplomática de Documentos Gascones de la Baja Navarra (siglos XIV-XV)*, *Archivo General de Navarra. Tomo I*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 25, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

- (1995): *Collección Diplomática de Documentos Gascones de la Baja Navarra (siglos XIV-XV). Archivo General de Navarra. Tomo II, Fuentes documentales medievales del País Vasco* 59, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

ZUBIRI, E. "Manezaundi" (1990): *Artikulu Bilduma*. R. M. Pagolak paratu argitalpena, Klasikoak 41, Euskal Editoreen Elkartea & Eusko Jaurlaritzza, Bilbo.

8. EUSKAL IZENAK ABC ORDENAN

Agaramont	315
Ahatsa	7
Aiherra	141
Ainhize	11
Aintzilla	13
Aiziritze	225
Akamarre	319
Aldude	91
Altzieta	17
Altzümarta	227
Amendüze	231
Amikuze	221
Amorotze	235
Anhauze	97
Arberatze	239
Arberoa	137
Arboti	241

Arhantsusi	185
Armendaritze	145
Arnegi	19
Arrosa	101
Arroze	187
Arrueta	243
Azkarate	103
Azme	189
Baigorri	107
Banka	115
Bastida	149
Bazkazane	23
Behaskane	245
Behauze	249
Behorlegi	27
Bidarraia	117
Bidaxune	321
Bithiriña	253
Bizkaia	257
Bunuze	191
Burgue	325
Buztintze	31
Donaixti	193
Donamartiri	153
Donapaleu	259
Donazaharre	33
Donibane Garazi	37
Donoztiri	157
Duzunaritze	43

Eiheralarre	47
Erango.....	327
Erreiti	331
Ezterenzubi.....	51
Gabadi.....	265
Gamarte.....	55
Gamue.....	267
Garazi	1
Garrüze	269
Heleta.....	161
Hiriberri.....	57
Hozta.....	195
Ibarre	197
Ibarrola	199
Iholdi.....	165
Ilharre.....	275
Irisarri.....	169
Irulegi	121
Izpura.....	59
Izturitze	173
Izura.....	203
Jatsu	63
Jutsi	207
Labetze.....	277
Lakarra.....	67
Landibarre.....	211
Laphizketa.....	279
Larribarre	281
Larزابale.....	215

Lasa.....	125
Lekunberri.....	71
Lüküze.....	283
Martxueta.....	287
Mehaine.....	177
Mendibe.....	75
Monjolosc.....	77
Oragarre.....	291
Ortzaize.....	127
Ostankoa.....	295
Oztibarre.....	181
Samatze.....	333
Saraskota.....	79
Sarrikota.....	301
Sorhapürü.....	299
Suhuskune.....	81
Uharte Garazi.....	85
Uhartehiri.....	303
Unaso.....	305
Urepele.....	133
Zaro.....	89
Zibitze.....	219
Zilhekoa.....	307
Zohazti.....	309
Zohota.....	311
Zokotze.....	313

9. ERDAL IZENAK ABC ORDENAN


Ahaxe	7
Aicirits	225
Aincille	13
Ainhice	11
Alciette	17
Amendeux	231
Amorots	235
Anhaux	97
Arancou	327
Arbérats	239
Arbéroue	137
Arbouet	241
Arhansus	185
Armendarits	145
Arnéguy	19
Arraute	243
Arros	187

Ascarat.....	103
Asme	189
Ayherre	141
Banca	115
Bascassan	23
Béguios.....	249
Béhasque	245
Béhorléguy.....	27
Bergouey	325
Beyrie-sur-Joyeuse.....	253
Bidache	321
Bidarray.....	117
Biscay.....	257
Bunus.....	191
Bussunarits	43
Bustince	31
Çaro.....	89
Came	319
Camou	267
Charritte.....	299
Cibits.....	219
Cize	1
Estérençuby	51
Gabat.....	265
Gamarthe.....	55
Garris	269
Gramont.....	315
Hélette	161
Hosta.....	195

Ibarolle.....	199
Ibarre.....	197
Iholdy.....	165
Iharre.....	275
Iriberry.....	57
Irissarry.....	169
Irouléguy.....	121
Ispoure.....	59
Isturits.....	173
Jaxu.....	63
Juxue.....	207
Labastide-Clairence.....	149
Labets.....	277
Lacarre.....	67
Lantabat.....	211
Lapiste.....	279
Larceveau.....	215
Larribar.....	281
Lasse.....	125
Lecumberry.....	71
Les Aldudes.....	91
Luxe.....	283
Masparraute.....	287
Méharin.....	177
Mendive.....	75
Mixe.....	221
Mongelos.....	77
Oneix.....	305
Orègue.....	291

Orsanco	295
Ossès	127
Ostabarret	181
Ostabat	203
Saint-Esteben	157
Saint-Etienne-de-Baïgorry.....	107
Saint-Jean-le-Vieux.....	33
Saint-Jean-Pied-de-Port	37
Saint-Just	193
Saint-Martin-d'Arbéroue	153
Saint-Martin-d'Arrossa	101
Saint-Michel	47
Saint-Palais	259
Sames.....	333
Sarrasquette.....	79
Sillègue	307
Sorhapuru.....	301
Succos.....	313
Suhast	309
Suhescun.....	81
Sumberraute.....	227
Sussaute.....	311
Uhart-Cize	85
Uhart-Mixe	303
Urepel	133
Viellenave	331

Nafarroa Beherea (Baxenabarre)







9 788423 527151